# 9. liburua

## Trantsizio Soziala **IV.**

## Pandemia

Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak, 2020-2024 Legegintzaldian, sortutako dokumentuen **Bilduma**

**1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
**2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
**3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
**4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
**5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpena 16. eta “18”. GJHei
**6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
**7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
**8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Kohesio soziala eta nazioarteko elkartasuna
**9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# 9

# 9. liburua

## Trantsizio Soziala **IV.**
## Pandemia

Aurkibidea

**Bilduma honen aurkezpen orokorra.**

**Liburu honen aurkezpena.**

**1. dokumentua.** Bizi Berri II., III. eta IV. Planen laburpenak.

**2. dokumentua.** Euskadin pandemiaren gobernantza eta kudeaketa bi urtetan. Etorkizunerako ikasitakoak.

**Oharren eranskina.** Beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekak.

**1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
**2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
**3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
**4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
**5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpena 16. eta "18". GJHei
**6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
**7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
**8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna
**9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia

# Bilduma honen aurkezpen orokorra

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldia amaitzen zutenak, 2020ko uztailaren 12an egin ziren, pandemia hasi eta bost hilabetera. Irailaren 5ean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak bere kargua zin egin zuen Gernikako Arbolaren aurrean, eta hiru egun geroago bildu zen, lehenengo aldiz, Gobernu Kontseilu berria.

Lehendakariak gobernu-egiturari dagokionez hartutako lehen erabakietako bat izan zen Lehendakaritzan Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea. Egitura Organikoari buruzko Dekretuak hiru jarduera-eremu handi ezarri zituen idazkaritza berri honetan: 2030 Agenda, Erronka Demografikoa eta Trantsizio Soziala deitu izan denaren beste eremu garrantzitsu batzuk.

Lehenik eta behin, beraz, 2030 Agenda, eta, zehazki, Euskadik Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa dinamizatzea, koordinatzea eta bultzatzea sailen artean, erakundeen artean eta gizarte mailan. Bigarrenik, erronka demografikoa eta, zehatzago, horri erantzuteko sailen arteko estrategia bat lantzea eta bultzatzea. Eta hirugarrenik, gure trantsizio sozialei eragiten dieten beste erronka garrantzitsu batzuen aurreko erantzunak koordinatzea eta dinamizatzea, hala nola kulturen arteko eta migrazioen arteko bizikidetza eta kohesioa, eta, une hartan, pandemiaren eraginari arreta berezia eskainiz.

Une hartan zuen izaera totalizatzailea zela eta, aipamen berezia merezi du 2020ko martxotik 2022ko otsailera bitartean COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizi izan zen egoerak. Larrialdi-egoeraren deklarazioaren ondorioz, 2020ko martxotik, Lehendakariak bere gain hartu zuen LABIren (Larrialdiei Aurregiteko Bidea - Euskadiko Babes Zibileko Plana) zuzendaritza bakarra eta koordinazioa.

Horren ondorioz, sailen arteko eta erakundeen arteko erantzuna zuzentzeko eta koordinatzeko zereginak Lehendakaritzan kokatu ziren, logikoa denez, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetza estuan. Horiei zegokien erantzuna osasunaren eta osasun publikoaren ikuspegitik bideratzea, euskal osasun-sistema osoaren tresnekin, bai eta funtsezko zerbitzuak emateko ardura zuten gainerako sailekin ere.

Lehendakaritzaren erantzukizun hori babesteko, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bere gain hartu zuen, 2020ko irailetik 2021eko urrira bitartean, LABIren bi mahaien (tekniko-zientifikoa eta erakunde artekoa) eta Bizi Berri II, III eta IV Planen koordinazio operatiboaren lana. Dokumentu horiek LABIren jarduera-esparru izan ziren, eta Eusko Jaurlaritzaren lan-tresna izan ziren pandemiaren bilakaeraren jarraipena egiteko, prebentzio-neurriak prestatzeko (neurri horiek aplikatzeak gizarte osoari eragiten zion) eta herritarren arteko komunikaziorako eta gardentasunerako.

Idazkaritza honek Legegintzaldi honetan egin duen ibilbidean eragina izan duen beste gertaera bat Lehendakariak 2022ko irailaren 22an Politika Orokorraren Osoko Bilkuran egindako iragarpena izan zen. Une hartatik aurrera, Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politi-

ketako Sailaren barruan zegoena, Lehendakaritzaren egiturari atxikita geratuko zen, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan.

Hilabete batzuk lehenago, martxoaren 10ean, Gazteen Euskal Legea onartu zen, eta, ekainaren 21ean, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia. Berregituratze horren helburua izan zen gazteriari, emantzipazioari eta erronka demografikoari buruzko politiken sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, zeharkako ikuspegi batekin, eta lehentasun handiena emanez gazte-politika publikoei.

Bilduma honek ibilbide honi erantzuten dio. Bederatzi liburuen egitura honako hau da:

·**1. liburua.** 2030 Agenda **I. Dinamizazioa**.

·**2. liburua.** 2030 Agend**a II. Dibulgazioa**.

·**3. liburua.** 2030 Agenda **III. Gobernantza**.

·**4. liburua.** 2030 Agenda **IV. Jarraipena eta ebaluazioa**.

·**5. liburua.** 2030 Agenda **V. Ekarpena 16. (bakea) eta "18". (kultura) GJHei**.

·**6. liburua.** Trantsizio Soziala **I. Erronka demografikoa**.

·**7. liburua.** Trantsizio Soziala **II. Gazteria**.

·**8. liburua.** Trantsizio Soziala **III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna**.

·**9. liburua.** Trantsizio Soziala **IV. Pandemia**.

Egiazta daitekeenez, lehenengo bostak 2030 Agendaren esparrukoak dira, eta hurrengo lauek edukia ematen diote trantsizio sozialaren kontzeptuari, lau ikuspegitatik: erronka demografikoa, gazteria, kohesio soziala eta pandemia.

Logikoa denez, lau urtean zehar, gobernuko edozein arloren jarduerarekin lotutako dokumentu-ekoizpena oso zabala da. Honelako bilduma bat osatze aldera, beharrezkoa izan da akotazioren bat ezartzea, luze-zabalerari dagokionez arrazoizkoa denaren mugak ez gainditzeko. Bi irizpide jarraitu dira: lehenik, Idazkaritzak sortutako dokumentuak soilik sartzea, idazketan parte-hartze zuzena izandakoak; eta, bigarrenik, liburu bakoitzari oharren eranskin bat txertatzea, beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekekin, Idazkaritzak zuzenean egin ez baditu ere, beren jarduerarekin zerikusia dutenak.

Bestalde, adierazi behar da jarduketa-eremu bakoitzak urte arteko plangintza estrategikoko dokumentu bat izan duela, eta horrek kudeaketa eta bultzada markatu dituela:

- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa, 2021eko ekainaren 29an onartua.
- Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia, 2022ko ekainaren 21ean onartua.

- Bizi Berri II., III. eta IV. Planak, 2020ko urrian, 2021eko otsailean eta 2021eko uztailean onartuak, pandemiaren bilakaerari egokitutako erantzun-tresna gisa.
- Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia, 2023ko martxoaren 21ean onartua.

Horri guztiari, trantsizio sozialaren eremuan, ADOS Batzordearen urteko edo urte arteko kudeaketa-planak, Euskarri Estrategia eta Uztartu Programa gehitu behar zaizkio. Dokumentu horiek guztiek segimendu-, balantze- edo ebaluazio-memoriak dituzte, urtekoak zein Legegintzaldikoak, eta bilduma honetako liburu bakoitzaren abiapuntua edo bizkarrezurra dira. Garrantzitsua da hori aipatzea; izan ere, horrela, lan-plan bakoitzaren egituraketan, sistematizazioan eta ebaluazioan oinarritutako kudeaketa-eredu bat ezarri da, plana sortu den aldira egokitua.

Testuinguruari buruzko azken ohar bat nabarmendu behar da. Bilduma hau urte edo hamarkada batzuk barru irakurriko, errepasatuko edo soilik gainbegiratuko balitz, beharrezkoa litzateke 2020tik 2024ra bitartean bizi izan den une historikoaren erreferentzia izatea, interpretazio zehatzagoa egiteko. Lau urte hauetan inoiz ez bezalako aldia bizi izan zen garai historiko honetako belaunaldientzat. Krisi sakonen eta globalen segida batek modu negatiboan baldintzatu zuen pertsona guztien eta herrialde guztien bizitza leku guztietan.

2008an sortutako ekonomia- eta finantza-krisi luze globalaren ondorioei aurre egin behar izan genien. 2020ko martxotik 2022ko otsailera, pandemia baten erdian bizi izan ginen, konfinamendu-aldi luzeekin eta gizarte-bizitzaren funtzionamendu normalaren murrizketa handiekin. Euskadin osasun-larrialdia amaitu eta bi astera, 2022ko otsailaren 24an, Errusiako armadak alde bakarreko inbasio militarra hasi zuen Ukrainan. Ondorio humanitario onartezinez gain, inflazio-igoera bat eragin zuen, eta horrek eragina izan zuen munduko garraioan, elikagaietan, energian eta erregaietan edo industriarako hornikuntzetan.

2023ko urriaren 7an, Hamasek eraso terrorista bat eragin zuen Israelgo herritar zibilen aurka: 1.200 hildako eta 250 pertsona inguru bahitu zituen. Une horretatik aurrera, Israelgo armadaren erantzunak, gerra-bitartekoak erabiliz, milaka eta milaka hildako eragin ditu Gazan, gehienak biztanleria zibila, emakumeak eta adingabeak. Ziurgabetasun geoestrategikoa eta nazioarteko ezegonkortasuna indartu egin ziren.

Azken batean, horiek dira bilduma honek 2020-2024 aldian islatzen duen jardueraren testuingurua deskribatzen duten salbuespenezko inguruabarrak eta baldintza kaltegarriak.

# Liburu honen aurkezpena

Bilduma honen aurkezpen orokorrean adierazi den bezala, pandemiaren ondoriozko larrialdi-egoeraren deklarazioa indarrean egon zen bitartean, Lehendakariak bere gain hartu zuen Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendaritza. Erantzukizun hori babesteko, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak koordinazio operatiboko lanak egin zituen 2020ko irailetik 2021eko urrira bitartean, LABIren bi mahaietan eta Bizi Berri II., III. eta IV. Planetan.

Liburu honek bi dokumentu ditu, eta lehenengoan Bizi Berri II., III. eta IV. planen laburpen zabala eskaintzen du; bigarrenean, berriz, Euskadiko pandemiaren gobernantzari eta kudeaketari buruzko bi urteko memoria.

·"**1. dokumentua**. Bizi Berri II., III. eta IV. planen laburpenak". COVID-19ari erantzuteko Eusko Jaurlaritzaren ondoz ondoko planek Euskadin izan zuten izena "Bizi Berri" izan zen, pandemiaren ondoren beste biziberritze bat bilatzeari eta eraikitzeari dagokionez. Dokumentu horiek LABIren jarduera-esparrua izan ziren, bai Batzorde Zientifiko Teknikoarena, bai Erakundearteko Kontseiluarena. Lan-tresna eta aginte-taula izan ziren pandemiaren bilakaeraren deskribapena eta jarraipena egiteko, bai eta prebentzio-neurriak prestatzeko ere. Herritarrentzako erreferentzia-esparrua ere izan ziren.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bere gain hartu zuen Bizi Berri II (2020ko urria), Bizi Berri III (2021eko otsaila) eta Bizi Berri IV (2021eko ekaina) Planak egiteko koordinazioa. Logikoa denez, plan horiek Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean garatu ziren, baita funtsezko zerbitzuak emateko ardura zuten sailekin eta erakundeekin ere. Erreferentzia-esparrua une oro bat etorri zen OMEren eta ECDCren gomendioekin eta jarraibideekin, baita eskura dauden ebidentzia zientifikoekin eta dokumentatutako jardunbide onenekin ere.

Bi urteko pandemia-esperientziak agerian utzi zuen jarraipen epidemiologikoko tresnak (Bizi Berri Plan bakoitza eta haren aginte-koadroa) aldian behin eguneratzearen egokitasuna; izan ere, mundu osoan nagusi den ziurgabetasunaren barruan, erantzunak une bakoitzeko birusaren bilakaerara eta olatu berri bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko aukera eman zuen.

·**2. dokumentuaren** izenburua hau da: "Euskadin pandemiaren gobernantza eta kudeaketa bi urtetan. Etorkizunerako ikasitakoak". Dokumentu hau 2021eko abenduan hasi zen idazten, 2022ko otsailaren 28an itxi zen eta martxoaren 11n aurkeztu zen jendaurrean. Osasun-larrialdiko egoera hilabete lehenago desaktibatu zen, otsailaren 10ean. Haren lehen helburua kudeaketa-memoria bat eta bi urteko pandemiaren hasierako balorazio bat eskaintzea izan zen, Lehendakariak LABIren bidez gidatutako gobernantzaren eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzan hartu behar izan zituen erabakien ikuspegitik.

Bigarren helburua, lehenengoari lotua, ikasgaiak ateratzera eta etorkizuneko gogoetak eta iradokizunak formulatzera bideratu zen. Alde batetik, pandemiaren kudeaketari berari buruzko ikaskuntzak; eta, bestetik, gizarte gisa gure bizimoduei eta harremanei buruz atera ditzakegun irakaspenak. Edonola ere, memoria honen helburua ez da behin betiko balorazioa edo balorazio itxia izatea. Ebaluazio integral baterako lehen ekarpena da, barrutik kanporako eta kanpotik barruranzko begiradak batu beharko dituena, krisi honetako beste eremu batzuen azterketa ere barnean hartuta, eta ikuspegia hartzeko denbora beharko duena.

Bildumaren liburu honetan, gainera, **Oharren eranskin** bat erantsi da, beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekak dituena.

Kudeaketa-eremu horrek aparteko larritasuneko eta larrialdiko egoera batean izandako esperientziak agerian utzi zuen sailen arteko, erakundeen arteko eta gizarte mailako koordinazio-lanaren garrantzia, bai eta LABI edo Bizi Berri Planak bezalako tresnak edukitzearen garrantzia ere, horien funtzionamenduan eta garapenean malgutasun-tartea eskain zezaten, ezusteko egoeretara egokitzeko.

# 1. dokumentua

## Bizi Berri II., III. eta IV. Planen laburpenak

Laburpena

# Bizi Berri II Plana

Covid 19ren pandemiaren bilakaerari Euskadin emandako erantzun komunitarioaren balantzea eta aurreikuspena

## Zorroztasun- eta erantzunkidetasun-konpromisoa

*Lehendakaritza, 2020ko urria*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Laburpen exekutiboa

## 2020ko urriaren 2an, Lehendakariak Bizi Berri II Plana aurkeztu du. Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) Aholku Batzordean

**·Plan honek Erreferentzia-Panela sortzen du, pandemiaren bilakaerari erantzun soziala emateko neurrien egoera eta erregulazioa une oro baloratzeko.**

**·Bost agertoki posible eta hasierako azterketako hiru adierazle biltzen ditu: intzidentzia-tasa, $R_t$ erreproduktibitate-indizea eta ZIUetako okupazio-ehunekoa.**

**·Panel hori LABIren lan-tresna da, eta bi eremutan egituratuko da: Aholku Batzordea eta Batzorde Teknikoa.**

**·Azken asteetako bilakaera onargarria da, baina kontu handiz ibili behar da, datuek oraingoz ez baitute erlaxatzen uzten**.

Joan den maiatzean, Eusko Jaurlaritzak Bizi Berri Plana prestatu zuen. Edukiak lau fasetan egituratu zuen konfinamenduaren ondoren jarduerak berreskuratzeko prozesua. Urriaren 2ko bileran, Lehendakariak Bizi Berri II Plana aurkeztu du LABIren Aholku Batzordean. Plan horrek hasierako dokumentu hura egungo egoerara egokitzen du, eta pandemia konpondu arte birusarekin batera bizitzeko erantzun sozialen neurriak bideratzen ditu.

Bizi Berri II bost agertoki biltzen dituen kontingentzia-plan bat da: 1. Maila, Tokiko Transmisiorik gabe; 2. Maila, Transmisio baxua; 3. Maila, Transmisio Tentsioduna; 4. Maila, Transmisio Altua; eta 5. Maila, Transmisio Oso Altua.

Fase bateko edo besteko egoeraren deskribapena oinarrizko hiru adierazleren arabera bideratuko da:

-Intzidentzia metatuaren tasa 14 egunetan. Populazio batean agertzen diren kasu berrien kopurua adierazten du.

-Erreproduktibitate-indizea ($R_t$). Gaixotasuna kutsagarria dela jakinarazi du. Joeraren neurri gisa, Eragin Tasen Arrazoiarekin osatuko da (denbora -tarte bat aurreko denborarekin alderatzen du).

-ZIU oheetako okupazioaren %. Egoeraren larritasuna eta laguntzaren eragina deskribatzen ditu. ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez aztertuko da, eta 100.000 biztanleko ospitaleratze-kopuruarekin osatuko da.

Bizi Berrri II Planaren ekarpen nagusia Erreferentzia Panel bat sortzea da, une bakoitzean pandemiaren bilakaerari erantzun komunitarioko neurrien erregulazioa aztertzeko. Panel hori LABIren Aholku Batzordearen lan-tresna da.

2020ko urritik, LABI bi eremutan egituratuko da: Aholku Batzordea, Euskadiko erakunde-ordezkaritza nagusiek osatua; eta Batzorde Teknikoa, Aholku Batzordeari laguntza emango diona.

Hamabost egunetik behin, eta beharrezkotzat jotzen den guztietan, Batzorde Teknikoak LABIren esku jarriko du egoeraren balorazioa, erreferentzia -taula honetako agertoki eta irizpideetan oinarrituta. Joera ebaluatuko du eta neurri berriak aurreikusiko ditu.

Hamabost egunean behingo balorazio hori Euskadi osora proiektatuko da, baina auzo, herri, eskualde, lurralde edo jarduera sektorialetara mugatu ahal izango da, baldin eta geografikoki edo soziodemografikoki mugatutako datuen igoerak hala gomendatzen badu.

Bizi Berri II Plana nazioarteko jardunbide onenekin lerrokatzen da, zehazki, Gaixotasunak Kontrolatzeko Europako Zentroaren (ECDC) 2. zutabearen oinarriekin, eta une bakoitzean eskuragarri dauden ebidentzia onenekin eguneratuko da.

Plan honek, azken sei hilabeteetako balantze gisa, birusaren hedapena murrizteko helburuan *laguntzen* edo *kalte egiten* diguten jardueren laburpen bat aurkezten du.

·**Lagungarriak dira** osasun-informaziorako gaitasuna, testak egitea, kutsadurak eta kontaktuak arakatzea, isolamenduak eta berrogeialdiak, bai eta baldintzarik gabeko etxebizitzak dituzten pertsonen berrogeialdietarako hotelak jartzea ere. Gizarte-, hezkuntza- eta lan-burbuilak ezartzen laguntzen digute. Musukoa erabiltzea, pertsonen arteko distantzia eta higienea. Taldeka daitezkeen pertsonen kopurua mugatzea. Sektore eta eremu guztietan segurtasun- eta koordinazio-neurriak protokolizatzen laguntzen digu. Edo edukiera mugatzea, lokalak aireztatzea eta aire zabaleko jarduerak egitea.

·**Kalte egiten digu** gehiegizko mugikortasunak eta pertsona desberdinekiko etengabeko harremanak. Pertsonen arteko harremanetan neurriak lasaitzea, bai gaueko aisialdian, botiloietan eta “jaiak ez” egunetan, bai taberna, kafetegi, terraza eta jatetxeetan, bai familiaren eta lagunen biletan. Kalte egiten digu gehiegizko konfiantzak eta arrisku-testuinguruei buruzko kontzientziarik ezak, bai eta koordinaziorik ezak ere. Bizigarritasun-baldintza prekarioetan dauden etxebizitzak. Edo edozein jarduera espazio itxietan, gaizki aireztatutakoetan eta/edo jendetsuetan egitea.

Azken batean, badakigu zerk laguntzen digun eta zerk egiten digun kalte. Horretan tinko mantentzea da jarraitu beharreko bidea. Oinarri horren gainean, Bizi Berri II Planak ZORROZTASUN- eta ERANTZUNKIDETASUN-estrategia bat sustatzen du, lehentasunezko bi ardatzen bidez hedatzen dena:

-Alde batetik, test gehiago egitea eta kutsatzeen eta kontaktuen arakatzea indartzea;

-Eta, bestetik, kutsatzeak arintzeko eraginkorrak diren erantzun komunitarioko neurrietan irmo jarraitzea.

Helburu partekatua birusaren transmisioa mugatzea, konfinamendura itzultzea, osasun-kolapsoa, koma ekonomikoa eta gizarte-arrailak areagotzea saihestea izan behar da. Helburu proaktiboak hauek dira: Osasun publikoa, hezkuntza eta zerbitzu publikoak indartzea, ekonomia eta enplegua berreskuratzea, gure gizartearen berreraikuntza emozionala, eta elkartasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea.

Bizi Berri Planaren helburu espezifikoak honako hauek dira: aurreikuspenez jardutea ahalbidetuko duen jarduera-esparru bat finkatzea; konpromiso indibidual eta kolektiboaren beharrari buruzko pedagogia soziala indartzea; pandemiaren bilakaerari emandako erantzunak arin egokitzeko aukera emango diguten tresnak izatea; eta gure gizartean erresilientzia sustatzen laguntzea.

**Euskadiko Coronavirus epidemiaren bigarren olatuari buruz Osasun Sailak egindako txostenaren ONDORIOAK**

Bizi Berri II Planak, 2. eranskinean, Osasun Sailaren txosten bat jasotzen du, Euskadiko epidemiaren bigarren olatuari buruzkoa. Hona hemen txostenaren ondorioak:

·Intzidentzia-tasek beheranzko joera dute. Azken asteetako bilakaera onargarria da, baina tentuz ibili behar da, azken egunetako bilakaera ikusita, beherakada gelditu egin dela ikusten baita.

·Joera positibo hori erakutsi arren, adierazi behar da 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua ECDCk egoera egonkortzat jotzen duenaren gainetik dagoela. Gauza bera gertatzen da PCR testen positibotasun-ehunekoarekin.

·Osasun-sisteman eragina pixkanaka murrizten ari da, baina oraindik ere handia da ZIUko oheen okupazioa kritikoen unitateetan ohikoak diren oheen guztizkoaren % 25ekoa izatea. Puntu honetan adierazi behar da ez dela beharrezkoa izan ZIUko Gertakarien PANeko bigarren agertokira iga-

rotzea bigarren olatu horren epidemia-kurba osoan. Berebiziko garrantzia duen datua.

·Jarduerak eta edukiera murrizteko arauzko neurriei dagokienez, goizegi da horiek lehengoratzeko, eta, oro har, mantendu egin behar dira, gutxienez Euskadik 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasa (60/100.000) jaitsi arte.

·Ez dirudi beharrezkoak direnik lehendik ezarritakoez gain beste neurri batzuk hartzea, baina bai ahalegin handiagoa egitea urruntze sozialerako eta norbera babesteko neurriak betetzeko.

·Udalerri eta lurraldeen arteko mugikortasun handia dela eta, ez da positibotzat jotzen inguru bateko neurriak arintzea, epidemia-egoera hobearen arabera.

·Garrantzitsutzat jotzen da dagoeneko indarrean dauden neurrietan sakontzea, erakunde guztiekin lankidetzan arituz, batez ere urruntzeko eta norbera babesteko neurriei eusteko beharrari dagokionez, batez ere espazio itxietan.

·Pandemiaren bilakaera eta hartutako neurrien eraginkortasuna kanpoan berrikusteak informazio garrantzitsua eman dezake esku-hartzeak hobetzeko.

·Beharrezkotzat jotzen da proba antigeniko berriak sartzea osasun-sistema horretarako prest dagoenean, ziurrenik urriaren 19tik 25era bitarteko astean.

·Adituek adierazitako adostasunarekin bat etorriz, egokitzat jotzen da, halaber, positiboen eta kontaktuen berrogeialdia 14 egunetik 10 egunera murriztea, eta, oraingoz[1], bigarren PCRari eustea. Hori, jakina, berrogeialdiaren 7. edo 8. egunera aurreratu beharko da.

·Azken bi esku-hartze horietatik eratorritako aldaketak direla eta, PCR osoari dagokionez, positiboen irizpidea aldatu beharko da. Izan ere, pertsona sintomatikoei, oro har, ez zaie PCR bat egingo, Ag proba bat baizik. Etorkizunean bigarren PCR ezabatuko balitz, adierazle hori ere aldatuko litzateke.

·Azkenik, estrategia gisa sar daiteke intzidentzia-tasa altuak dituzten osasun-eremuetako screening selektiboen balorazioa, kasuak hautemateko ordezko metodo gisa. Esku-hartze mota horrekin batera, screening horietara joaten diren pertsonen kopurua maximizatuko duten erakunde-lankidetzako estrategiak ere aurkeztu behar dira.

1 Protokoloaren eguneratzeetako aldaketen mende.

# Sarrera

2020ko udaberrian, Covid 19 pandemiaren lehen olatuaren ondorioak bizi izan zituzten Europak eta munduko zati handi batek. Martxoaren 13an, Iñigo Urkullu lehendakariak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak Larrialdi Adierazpena onartu zuen LABIren babespean (Larrialdiari aurre egiteko bidea, Euskadiko Babes Zibileko Plana). Egun batzuk lehenago, Euskadin jarduera batzuk normaltasunez garatzeko muga jarri zuten lehen erabakiak hartu zituen Eusko Jaurlaritzak.

Ondoren, alarma-estatuaren onespenaren bidez, Espainiako Gobernuko presidenteak konfinamendu orokor bat ezarri zuen, gure gizartean ohikoak diren jarduera gehienak mugatzeko: ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta kontsumoa, lan-jarduera, gizarte-zerbitzuak, aurrez aurreko hezkuntza, jarduera zientifikoa, mugimendu-askatasuna, bizitza soziala, kulturarako sarbidea, jarduera fisikoa edo erlijio-praktika.

Apirilaren amaieratik aurrera, Osasun Publikorako hartutako neurriei esker, SARS-Cov-2 birusak eragindako infekzioaren kutsadura-hedapena murriztu zen. Egoera horrek murrizketak desaktibatzeko prozesu ordenatu bat prestatzeko beharra planteatu zuen. Helburua osasun publikoa zaintzea eta gizarte-osasuna berreskuratzea izan zen, konfinamenduak enpleguan eta ekonomian eragingo zituen kostuak geldiarazteko eta gizarte osoarentzako egoeraren narriadura lehengoratzeko.

Prozesu horri hainbat modutan deitu zitzaion: “Deseskalatze-plana”, “Normaltasun berrira itzultzeko plana”. Euskadin, “Bizi Berri Plana” izena hartu zuen. Hainbat zirriborro egin ziren. Azken bertsioa 2020ko maiatzaren 4koa da. Dokumentu horrek zehazten ditu helburuak eta printzipioak, ildo estrategikoak eta faseak, inplikazioak hainbat sektoretan eta sailetako planetan, alderdi ekonomikoak eta ikasitako ikasgaiak, jardueren laburpen bat eta, azkenik, ondorioak. Dokumentu horren 1. eranskinak Euskadin lau fasetan eta jarduera-sektore desberdinetan egituratutako deseskalatze-prozesurako aurreikuspenak ezartzen ditu. 2. eranskinak nazioarteko adibide eta esperientzien zerrenda bat eskaintzen du.

Dokumentu hura Eusko Jaurlaritzaren gida izan zen, Espainiako Gobernuarekin, alde batetik, eta eragindako gainerako euskal erakundeekin eta gizarte-erakundeekin, bestetik, elkarrizketa eta akordioak garatzeko. Tresna baliagarria izan zen, eta aurreikuspenez eta aldez aurretik jarduteko eta une bakoitzean inplikatutako eragileak koordinatzeko aukera eman zuen. Era berean, Eusko Jaurlaritzak gizarte- eta ekonomia-jarduerak berresku-

ratzeko prozesu mailakatua gauzatzeko eman zituen aginduak idazteko oinarria izan zen.

Dokumentu berri honen izenburua Bizi Berri II Plana da. Jatorrizko Bizi Berri Planaren eguneratze gisa proiektatu da. Haren eta honen artean funtsezko desberdintasun bat dago. Lehenengoak konfinamendu-egoera oso zorrotza gainditzeko eta funtzionamendu sozialeko oinarrizko jarduerak modu ordenatuan berreskuratzeko beharrari erantzun zion. Bizi Berri II Plana testuinguru aldakor batean idatzi da, non birusari eta haren erabilerari buruzko ezagutza handiagoa den eta non ezagutza-oinarri horrekin funtsezkoena da birusarekin “bizikidetza” bideratzea, oraindik denbora luzean eta zehaztugabean, ohitura eta portaera sozial seguruen bidez.

Laburbilduz, lehen Bizi Berri Planak deskonfinamendua antolatu zuen. Pandemia konpondu arte birus honekin eta etorkizunean beste birus edo agente patogeno batzuekin batera bizitzeko erantzun komunitarioa antolatzea da Bizi Berri II Planaren ardatza. Europako jarduera-esparruko nazioarteko jardunbide onenekin lerrokatuta dago, eta une bakoitzean eskuragarri dauden ebidentzia onenekin eguneratuko da.

Aurrekoa esanda, beharrezkoa da Bizi Berri Planaren bigarren bertsio honen irismena behar bezala mugatzea. Eusko Jaurlaritzak Covid 19ren eta haren ondorioen aurrean duen estrategia globalak funtsezko hiru tresna edo erreferentzia ditu:

-Lehenik eta behin, eta osasunaren ikuspegitik, asistentzia-, ospitale- eta ZIUak antolatzeko estrategia orokorra, Kasu eta Harreman estuak Zaintzeko eta Kontrolatzeko.

-Bigarrenik, ikuspegi sozioekonomikotik, Berreraikuntza Plana, ekonomia suspertzera eta enplegua berreskuratzera bideratua.

-Hirugarrenik, eta gobernantzaren eta erkidegoaren ekarpenaren ikuspegitik, Bizi Berri Plana, jarduerak arautzera eta gizarte-ohiturak pandemiaren bilakaerara egokitzera bideratua.

Bizi Berri II Plana hirugarrenean kokatzen da, eta, beraz, ez dio heltzen osasun-estrategiari, ezta susperraldi sozioekonomikoari ere. Jarduera sozialen beharrezko egokitzapena, erantzun komunitarioa, konpromisoak eta erantzunkidetasuna artikulatzen ditu, ohitura eta portaera sozial gisa, Covid

19ak herritar guztien aldetik eskatzen duena. Europako gaixotasunak kontrolatzeko zentroaren (European CDCren https://www.ecdc.europa.eu/en) 2. zutabearekin lerrokatuta dago. Pandemiaren aurrean erantzuteko jardueretarako erreferentzia-esparrua monitorizatzeko eta ebaluatzeko dokumentuan deskribatu da.

Pandemiak udan izan duen bilakaerak erne jarri gaitu berriro. Egoerak ez du udaberrian izandako larritasun bera izan, lehen olatua dela eta. Hala ere, agerian utzi ditu arazo eta egoera kezkagarriak iragazteko arriskuak eta pitzadurak, osasun publikoaren eta horrek ekonomiari eta gizartearen kohesioari eragiten dion ikuspegitik.

Alde horretatik, dokumentu honek Bizi Berri I Plana eguneratzen du, jasotako irakaspenak oinarri hartuta eta hainbat eszenatoki aurreikusteko ikuspegitik. Pandemiari heltzeko nazioarteko estrategiekin bat etorriz proiektatzen da, eta bat etorriz OMEk Nazio Batuen esparruan edo European CDCk Europan emandako gomendioekin eta jarraibideekin eta eskura dauden jardunbide eta ebidentzia onenekin une honetan.

Bizi Berri II Planak Euskadiko egoera epidemiologikoaren aldizkako ebaluazioa jasotzen du Covid 19ari dagokionez, bai eta erantzuteko gaitasuna ezarri beharreko prebentzio-neurrien beharrezko egokitzapena ere. Bestalde, dokumentuak izaera dinamikoa izango du, eta, eskuragarri dagoen eta egiaztatuta dagoen informazioan oinarrituta, gutxienez, lau hilean behin eguneratuko da, edo beharrezkotzat jotzen den guztietan, pandemiaren bilakaeraren eta sor daitezkeen gertakizunen edo ezustekoen arabera.

Azkenik, eta Bizi Berri Planaren eguneratze honen ezaugarriei dagokienez, azpimarratu behar da dokumentu honek ere helburu pedagogiko oso nabarmena duela, eta formatuari eta edukiari eragiten diela. Hori dela eta, hizkuntza teknikoa edo espezializatua erabiltzea saihesten du, ez baitago adituentzat pentsatuta. Dibulgazio irisgarria lortu nahi du, herritar guztientzat eskuragarriak eta ulergarriak diren informazioa eta orientabideak eskainiz. Herritarrentzat pentsatuta dago.

Ildo horretan, antolatu behar den erantzun komunitarioa ez da krisi zehatz bati, orain eragiten digunari, emandako erantzun puntualtzat soilik hartu behar. Erantzun hori pandemiak barneratu dituen ohiturak finkatzeko eta osasunerako egiturazko hezkuntza lortzeko orain eta etorkizunean laguntzen digula aukera gisa hartu behar da. Era berean, erantzun globala ema-

teko, krisi honen esperientzia aukera bat da inbertsioaren eta ikerketa- eta berrikuntza-baliabideen horniduraren garrantzi estrategikoa ulertzeko.

Dokumentua hiru puntu handitan egituratuta dago. Lehenengoak Bizi Berri IIren lan-hipotesia azaltzen du, bost eszenatokitan eta hiru adierazletan oinarrituta. Bigarren puntuak aurtengo martxotik aurrerako balantze orokorra eskaintzen du, ikasitako ikasgaiak eta ondorioak aurkeztuz. Bizi Berri IIren oinarriak zehazten dituen hirugarren atalaren oinarri dira, printzipioei, estrategiari, helburuei eta metodologiari dagokienez. 1. eranskinak Erreferentzia panela aurkezten du, erantzun komunitarioa Covid 19aren pandemiaren bilakaerara egokitzeko.

# 1. Bost agertokitan oinarritutako lan-hipotesia

## 1.1. Deskribapena

Bizi Berri II kontingentzia-plan gisa eratzen da, eta kutsatzeen hedapenean edo arintzean hainbat agertoki aurreikusten ditu. Zehazki, haren lan-hipotesiak planteatzen du egoera positiboa edo negatiboa bost egoera posibletan adieraz litekeela: 1. maila, Tokiko Transmisiorik gabe; 2. maila, Transmisio Baxua; 3. maila, Transmisio Tentsioduna; 4. maila, Transmisio Altua; eta 5. maila, Transmisio Oso Altua.

Egoeraren deskribapena, fase batean edo bestean, –hasieran, baina ez esklusiboki– oinarrizko adierazle hauen arabera orientatzen da: 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatua, Erreproduktibitate-indizea eta ZIU oheen okupazio-ehunekoa.

**•Adierazleen taula, esanahiarekin batera**

| **Adierazlea** | **Esanahia eta oharrak** |
|---|---|
| -14 eguneko intzidentzia-tasa metatua | ·Populazio batean agertzen diren kasu berrien kopurua adierazten ditu. |
| -Erreproduktibitate-indizea ($R_t$) | ·Gaixotasunaren kutsagarritasunaren berri ematen du. Eragin-tasen arrazoiarekin osatuko da, joeraren neurri gisa (denbora-tarte bat aurrekoarekin konparatzen ditu). |
| -ZIU oheen okupazio-ehunekoa | ·Asistentzia-eragineko egoeraren larritasuna deskribatzen du. ZIUen Kontingentzia Planarekin alderatuta aztertuko da. 100.000 biztanleko ospitaleratze-kopuruarekin osatuko da. |

**•Agertokien eta adierazleen panela:**

| Agertokiak | Adierazleak |
|---|---|
| 1. maila. Tokiko Transmisiorik gabe | ·Intzidentzia-tasa metatua: 0 kasu/100.000 bizt., tokiko transmisioan<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: ez dago tokiko transmisiorik.<br>·Azken 14 egunetan ez da sarrerarik izan ZIUn. |
| 2. maila. Transmisio Baxua | ·Intzidentzia-tasa metatua: < 60 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “beheranzkoa” edo “egonkorra”.<br>·% 20tik beherako ZIU okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. |
| 3. maila. Transmisio Tentsioduna | ·Intzidentzia-tasa metatua: 60-300 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “beheranzkoa”, “egonkorra” edo “goranzkoa”.<br>·% 20 eta % 35 arteko ZIU okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. |
| 4. maila. Transmisio Altua | ·Intzidentzia-tasa metatua: 300-500 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “egonkorra” edo “goranzkoa”.<br>·ZIUren % 35 eta % 50 bitarteko okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. |
| 5. maila. Transmisio Oso Altua | ·Intzidentzia-tasa metatua: >500 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: “goranzko” joera.<br>·% 50etik gorako ZIUen okupazioa, Kontingentzia Planari dagokionez. |

## 1.2. Agertoki- eta adierazle-panel hau interpretatzeko irizpideak

·Aipatutako agertokiek balio orientagarria dute pandemiak gure erkidegoan izan ditzakeen faseak deskribatzeko eta ulertzeko. Aurkikuntza eta ebidentzia berrien edo ustekabeko faktoreen arabera doitu daitezke. Beraz, ez dute mugaketa itxirik.

·Azaldutako hiru adierazleak hamabostaldika metatutako datuetan oinarrituta aztertuko dira. Ez dira, nolanahi ere, kontuan hartuko diren adierazle

bakarrak izango. Egoera bakoitzaren lehen irakurketa egiteko balioko duten adierazleak dira. Informazio goiztiarraren adierazle gisa ulertu behar dira, gizarte osoarentzat eskuragarria. Informazio horrek lotura zuzena du pandemiaren fase bakoitzean herritarrek eskatzen duten gizarte-konpromisoaren maila ulertzearekin.

·Adierazle bakoitza LABIren Batzorde Teknikoak unean-unean aztertuko dituen aldagaien eta adierazleen testuinguru zabalago baten barruan aztertu behar da, nazioarteko gomendioei jarraituz, eta LABIren Aholku Batzordeari helaraziko dio. Adibidez, besteak beste, logikoki kontuan hartuko dira 100.000 biztanleko PCR proben ehunekoak, positibotasun-indizea edo aurrez identifikatutako kontaktuak diren positiboen ehunekoak.

·Egoera bakoitzak eta ezarritako irizpideek une bakoitzean hartu beharreko neurriak orientatzeko balio dute. Hala ere, hartu beharreko egoerak eta neurriak ez daude automatikoki eta mekanikoki lotuta. Neurri horiei buruzko erabaki-sistemak irizpide anitzekoa izan beharko du, eta, adierazi den bezala, faktore, aldagai eta adierazle ugari hartu beharko ditu kontuan.

·Une eta egoera bakoitzean neurriak aurreratzen laguntzeko, eta agertoki bakoitzaren barruan, hiru joera-egoera kalibratu ahal izango dira: «goranzkoa», «egonkorra» eta «beheranzkoa», transmisioaren joeraren arabera, erreproduktibitate-indizeak ($R_t$) eta intzidentzia-tasen arrazoiaren arabera neurtuta. Balorazio hori adierazle desberdinen aldakuntza batera aztertzearen emaitza izango da, eta, gainera, inguruko Autonomia Erkidegoetan eta beste herrialde batzuetan epidemiak izan duen bilakaerari erreparatuko zaio.

·Agertokien eta adierazleen erreferentzia-esparru hori Euskadi osoari aplikatuko zaio, bai eta lurraldeka edo unean uneko mugatutako eta jarduera sektorial edo soziodemografikoren batera mugatutako eremuei ere.

·Erreferentzia-panel hori, bere eszenatokiak, adierazleak eta orientabideak LABIren Aholku Batzordearen Batzorde Teknikoak ebaluatu eta berrikusiko ditu aldizka.

Balantze hori ez da jokoan dauden aldagai guztien ebaluazio gisa konfiguratzen. Ikuspegi panoramikoa eskaintzen du. Funtzio pedagogiko garbia du. Helburua da bizi izan dugun prozesuaren ulermen globala erraztea eta haren une eta gako nagusiak adieraztea.

# 2. 2020ko martxotik aurrerako balantzea

Helburu horrekin, lau erreferentzia eskaintzen ditu: lehenik eta behin, joan den martxotik egin daitekeen atzera begirako ibilbidea aurkezten du; bigarrenik, beste erkidego edo herrialde batzuetako esperientzien azterketa ez -zehatz batean ikus daitezkeen kointzidentzia eta desberdintasun nagusiak adierazten ditu; hirugarrenik, ikasitako ikasgaien multzo bat eskaintzen du, etorkizun hurbilari aurre egiteko baliagarriak izan daitezkeenak; eta, laugarrenik eta azkenik, ondorioen laburpen bat ematen du.

## 2.1. Atzera begirako ibilbidea

| Aldea | Gako nagusiak |
|---|---|
| Martxoak 16-31 | ·Komunitate-transmisio handia dago, eta sistemek ez dute kutsatzeak jarraitzeko edo arakatzeko gaitasunik. |
| Apirilak 1-15 | ·Hedapenari eusten dio, konfinamendu-neurriek oraindik ez dute emaitzarik sortzen (2 asteko efektua). |
| Apirilak 16-30 | ·Kutsadura-kurbak moderazioa du. Neurri murriztaileak lehen emaitzak ematen hasi dira. |
| Maiatzak 1-15 | ·Kutsadura-kurba baretzen da. Konfinamendua malgutzeko eta arintzeko lehen neurriak aplikatzen dira. |
| Maiatzak 16-31 | ·Kutsatzeen bilakaera hobetzen du. Mugikortasuna malgutzen da eta instalazioetan eta zerbitzuetan murrizketak murrizten dira. |
| Ekainak 1-15 | ·Joera positiboak "normaltasun berriaren" agertokia prestatzera darama. Mugikortasun orokorra malgutu egiten da. |
| Ekainak 16-30 | ·Datu onek amaiera ematen diote alarma estatuari, eta Euskadi "normaltasun berrian" sartzen da. |
| Uztailak 1-15 | ·Datu onak hainbat udalerritan agertzen diren fokoekin batera. Musukoa nahitaez erabiltzea aktibatzen da. Eskuak garbitzearen eta pertsonen arteko urruntzearen arauak mantentzen dira. |
| Uztailak 16-31 | ·Deseskalatzeak, oporretako mugikortasunak, "jairik ez" egunak, gaueko aisialdiak eta pertsona bilkurek kutsadura-gorakada eragiten dute. |
| Abuztuak 1-15 | ·Faktore berberen dinamikak kutsadura-maila handitzen du. |
| Abuztuak 16-31 | ·Kutsadurek aurrera egiten jarraitzen du. Ordutegi-murrizketak ezartzen dira ostalaritzan eta gaueko aisialdian. |
| Irailak 1-15 | ·Kasuen bilaketak, musukoa erabiltzeak, pertsonen arteko distantziak eta gaueko aisialdiaren murrizketak emaitzak ematen hasi dira. |
| Irailak 16-30 | ·Osasun-sistemaren transmisio- eta tentsio-adierazle handienetan egonkortzeko joera finkatu da. |

## 2.2. Estrategia komunitarioek erkidego edo herrialde desberdinen artean dituzten kointzidentzia eta desberdintasun nagusiak

Esan bezala, atal honetan ez da nazioarteko jarduketa guztien alderaketa zehatza eskaini nahi, biztanleriaren egituraren eta beste kultura- edo harreman-aldagai batzuen arteko aldeak kontuan hartu beharko bailituzke. Helburu apalena, kasu honetan, erantzun komunitarioko estrategien artean giltzarritzat jo daitezkeen gaiak aipatzea da. Funtsean, honako hauek zerrendatu daitezke:

·Testak egitea eta kutsadurak eta kontaktuak arakatzea.

·Konfinamendu orokorrak, edo maila geografiko edo soziodemografiko desberdinetan.

·Mugikortasuna.

·Musukoak, distantzia eta higienea.

·Pertsona-bilkurak.

·Edukierak.

·Ostalaritzaren ordutegia.

·Gaueko aisialdia mugatzea.

·Hezkuntza-jarduera.

·App-ak erabiltzea.

·Beste neurri batzuk: komunikazio-planak eta beste batzuk.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da ez dela erabateko aldaketarik antzeman herrialde batzuen eta besteen erantzun komunitarioaren estrategien artean. Neurri batzuk edo besteak hartzean forma eta intentsitate desberdinak daude, noski; baina ezin dira eredu alternatiboak edo aurrez aurrekoak aipatu.

·**Testak egitea eta kutsadurak eta kontaktuak arakatzea.** Testaren eta miaketaren estrategia osasun-erantzunaren parte da, baina baita erantzun komunitarioaren parte ere, hori garatzeko gizarte-prestasun handia behar den heinean. PCR testen eta egiten diren beste proba diagnostiko batzuen kopuruari dagokionez, aldeak daude Autonomia Erkidegoen eta gure inguruko herrialdeen artean. Estatuan zein nazioartean, Euskadi da kopuru handiena duen herrialdeetako bat, 324,49 test egiten baitira 1.000 biztanleko. Gure inguruko herrialdeen artean, Erresuma Batuak 259,28 test egiten ditu 1.000 biztanleko; Alemaniak, 160,26; Italiak, 158,07; eta Frantziak, 153,13.

·**Konfinamendu orokorrak edo maila geografiko edo soziodemografiko desberdinetan.** Udaberriko konfinamendu orokorraren esperientziaren ondoren, arau orokorra hura berriro ez ezartzea izan da, kostu oso handiak eragiten dituelako. Noizean behin, eremu geografiko edo sozio-demografiko batean konfinamendu kirurgikoa edo mugatua erabili da. Adibide batzuk jartzearren, Grezian, kasuen gorakadaren aurrean, Atikako (Atenas barne) langileen % 40k etxetik lan egin behar izan zuten urriaren 4ra arte. Islandiak lau egunez itxi zituen taberna eta diskotekak, kasuen gorakada baten aurrean. Estatuan, hainbat konfinamendu geografiko gertatu dira. Santoña, Aranda de Duero, Salamanca, Valladolid edo Peralta izan dira horietako batzuk. Madrilgo Erkidegoa izan da hiri handi batean tokiko konfinamendu oso zabala eta osasun-eremuka ezarri duen lehena.

·Mugikortasuna**.** Mugikortasuna mugatzeak ezarpen orokorra izan zuen joan den udaberriko konfinamenduan eta deseskalatze-prozesuan. Ordutik, neurri hori ez da ia aplikatu. Kasu zehatzetan izan ezik, hala nola estatuen arteko bidaia-mugetan edo Erresuma Batuak, Herbehereek edo Belgikak Espainiako Estatutik datozen herritarrei ezarri dizkieten berrogeialdietan. Neurri horiek, nahiz eta ez diren mugatuak per se mugikortasunerako, murriztu egiten dute eta praktikan, berrogeialdia baino iraupen laburragoko bidaiak dituzten herritarren mugikortasuna eragozten dute.

·**Musukoak, distantzia eta higienea.** Pertsonen arteko urruntzea eta eskuen higienea nazioarteko komunitate osoan zabaldu diren bi neurri dira. Hala ere, nazioartean ez dago gomendio homogeneorik musukoa nahitaez erabiltzeari dagokionez, nahiz eta horren erabilgarritasunari buruzko ebidentziak badauden. Asiako herrialdeek eta ekialdeko Europako zenbait herrialdek, Txekiar Errepublikak edo Bulgariak kasu, erabilera inposatzen dute edozein espazio publikotan. Mendebaldeko Europan, Alemanian edo Frantzian, garraio publikoan edo espazio itxietan (saltokietan) erabiltzeko gomendioa edo betebeharra da politikarik zabalduena. Norvegia, Suedia edo Danimarka bezalako herrialdeek musukoak mugatuago erabiltzea sustatzen dute eta pertsonarteko urruntzea modu aktiboagoan indartzen dute. Herrialde horien ezaugarriak kontuan hartu behar dira gizarte-harremanetan, pertsona-bilkuretan edo etxebizitza-eraikinen tipologian eta dentsitatean.

·**Pertsonen bilkurak.** Muga hori gure ingurunean aplikazio orokorra du. Estatuan, pertsonak biltzeko mugak desberdinak dira Autonomia Erki-

dego bakoitzaren arabera. Dokumentu hau idazteko unean, 6 pertsona zeuden Madrilen edo Nafarroan, 15 Kantabrian eta 10 Euskadin. Alemaniak ere antzeko aldaketak ditu estatu federalen arabera. Londresen, adibidez, Katalunian bezala, muga hori ostalaritza-establezimendu batean bildu daitezkeen sei lagunen gehienezko kopuruari aplikatzen zaio, eta Ingalaterrako hiriburuaren kasuan, bide publikoari ere aplikatzen zaio. Lisboak 10 pertsonara mugatu du bileren kopurua. Europako bizilagunen beste adibide batzuk hauek dira: Brusela, gehienez 10 pertsonako bilerak bide publikoan 23:00etatik 06:00etara; Paris, 10 pertsonatik gora ez bide publikoan; Stockholmen, ordea, muga hori 50 pertsonara zabaltzen da espazio publikoetan.

·**Edukierak.** Edukiera mugatzea ere aplikazio orokorreko neurria da, bai Estatuan, bai gure nazioarteko testuinguru hurbilean. Edukiera mugatzeko ezarritako xedapenak aztertzerakoan, aldaketa txikiak ikus daitezke. Oro har, Estatu osoko establezimendu, zinema, museo eta kongresuen edukiera-murrizketa % 60tik % 75era bitartekoa da. Japonian, adibidez, establezimendu bakoitzak bere okupazio-mugak erabaki ditzake, betiere Gobernuaren jarraibide orokorren barruan badaude. Europara begiratuz gero, Munichek, adibidez, 25 lagunera mugatu du ekitaldi pribatuetara bertaratzen direnen kopurua.

·**Ostalaritzaren ordutegia.** Era berean, ostalaritzako ordutegiak mugatzea gure ingurune osoan orokortu den neurria izan da, pandemiaren bigarren olatuari erantzuteko. Zertxobait aldatu da Autonomia Erkidego bakoitzaren arabera, 00:00etatik 02:00etara. Europan apur bat zorrotzagoak dira. Adibidez, Bruselak tabernak eta jatetxeak 23:00etan ixtea agindu du; Londresek eta Parisek 22:00etan. Gainera, Stockholm eta Londres bezalako hirietan ezin da barra-zerbitzurik eman.

·**Gaueko aisia.** Kutsadura-indize handienak dituzten herrialdeak gaueko aisialdia gehien mugatzen ari direnak dira. Estatuan, pandemiaren bigarren olatuari erantzuteko debekatu egin da. Gauza bera gertatzen da Italian. Alemaniak aire zabalean dauden establezimenduak baino ezin ditu ireki. Munichek leku publikoetan alkohola edatea debekatu du eta Lisboak 20:00etatik aurrera saltzea debekatu du. Txinan duela gutxi zabaldu da.

·**Hezkuntza-jarduera.** Presentzialtasuna indartzea da argien nagusitu den irizpidea. Estatuan, ikasgeletara itzuli gara, segurtasun-neurri eta -protokolo zorrotzekin. Erresuma Batuak test-kitak banatzen ditu, eskolek sintomak di-

tuen adingabe bat duten familiei bana diezazkieten. Frantzian jada ez da derrigorrezkoa «burbuila taldeen» murrizketa. Alemaniak eskolako materiala hodeian gordetzeko aukera aktibatu du. Italiak 50.000 irakasle kontratatuko dituela iragarri du.

·**App-ak.** Gero eta arakatze-aplikazio gehiago daude kutsadurak garaiz detektatzeko. Alemanian biztanleriaren % 20k deskargatu du, Erresuma Batukoak porrot egin zuen eta Indiakoa nahitaez deskargatu behar da. COVID 19 radarra abuztuaren 3an amaitu zen Kanarietako Gomera uhartean, eta autonomia-erkidego gehienetan ezarri da.

·**Beste neurri batzuk**:

-Ia herrialde guztiek antolatu dituzte komunikazio-planak, ikuspegi desberdinekin eta oraindik baloratzen zaila den eraginkortasunarekin. Euskadin eta Estatuan ere hainbat komunikazio-plan ezarri dira.

-Asiako hainbat herrialdetan, hala nola Txinan, Malaysian eta Hego Korean, Gobernuak QR kode-sistema bat ezarri du saltokietan, supermerkatuetan, jatetxeetan edo urbanizazio handietan sartzeko. Eskaneatuak kolore berdearekin erantzuten badu, ez dago arriskurik. Laranja kolorearekin egiten badu, esan nahi du pertsona arrisku-guneetan egon dela azken 14 egunetan eta tenperatura hartu behar duela. Kolorea gorria bada, berrogeialdian egon behar dela adierazten du.

Aurreko guztia esanda, nabarmendu behar da joan den irailaren 24an Gaixotasunak Prebenitzeko Europako Zentroaren (European CDC) ebaluazio berriak alerta-deia egin zuela epidemiaren bilakaerari buruz, eta agerian utzi zuela Europar Batasunean koronabirusari emandako erantzuna areagotu beharra zegoela.

## 2.3. Ikasitako ikasgaiak, sei hilabeteren ondoren

Jarraian, frogatutzat eta egiaztatutzat jo daitezkeen ikasgai batzuk azalduko ditugu, azken hilabeteetako esperientzia propio eta konparatutik ondoriozta daitezkeenak, pandemiari emandako erantzun komunitarioei dagokienez. Gainera, txerto edo tratamendu eraginkor bat izan arte garatu beharko dugun birusarekiko bizikidetza-prozesuan modu seguruagoan eta ez hain espekulatiboan aurrera egiteko oinarri gisa balio dute.

·**Lankidetzako gobernantza**. Zeharkako lehen ikasgaia erakundearteko eta maila anitzeko koordinazioaren eta lankidetzaren aukera eta beharra da: nazioartekoa, estatukoa, autonomikoa (sail barrukoa eta sail artekoa), forala eta udalekoa. Helburua neurri guztiak modu koordinatuan kudeatzea izan behar da, zaintzatik edo monitorizaziotik hasi eta esku hartzeko modu desberdinetaraino. Koordinazio-egitura egonkorrak mantentzeko beharra (baina aldi baterakoak, pandemia amaitu arte) funtsezkoa da eta pandemiari heltzea hobetzen du. Koordinazio faltak emaitzak okertzen ditu. Era berean, elkarlaneko gobernantzak barne hartu behar du gizarte zibileko eta boluntariotzako erakundeekiko lankidetza. Aliantza publiko soziala lagungarri izan da testuinguruetan erantzun hobeak emateko ahulezia sozialak dituzten pertsonei edo taldeei: langile migratzaileei, errefuxiatuei, etxerik gabeko pertsonei edo ingurune itxietan bizi direnei.

·**Testak egitea eta kutsadurak eta kontaktuak arakatzea.** Hori da Eusko Jaurlaritzaren estrategia osoaren funtsezko zatia. Esan daiteke, orain arte, kutsatzearen hedapenak euskal osasun-sistemaren osasun-gaitasuna ez gainditzea lortu bada, neurri handi batean testak eta baheketak modu bizian egitearen eta kutsatzeak eta kontaktuak arakatzeko sortutako azpiegituraren ondorio dela. Datozen hilabeteetako estrategiaren funtsezko parte da eta izaten jarraitu behar du. Test berriak eskura izateak, hala nola antigenoak edo beste parametro batzuk, kasuak detektatzeko eta estrategia hori indartzeko eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko du.

·**Konfinamendua**

**-Orokorrak.** Eragin eraginkorra izan zuen lehen kutsatze-boladaren arintzean. Hala ere, kostu sozial, ekonomiko eta enpleguan hain handia eragin zuenez, aukera hori, erabat baztertu gabe, ahal den neurrian saihestu beharreko ekintzatzat hartzen da.

**-Mugatuak.** Euskadin, ezaugarri soziodemografikoengatik eta biztanleria-taldeengatik, ia ez da aplikatu. Hemen baheketa masiboen estrategia bat hedatu da emaitza ezin hobeekin. Beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetan auzo edo udalerri osoen konfinamendu puntualak egon dira, baita hirienak ere (Marseilla). European CDCren jarraibideei jarraituz, ez dira baztertu behar, transmisio altu eta fokalizatu bat kontrolatzeko duten erabilgarritasunagatik.

·**Mugikortasuna.** Frogatu da nazioarteko edo lurraldeen arteko mugikortasuna arrisku-faktorea dela. Berrogeialdiarekin batera mugatzea eraginkorra da; baina konfinamendua bezain kontraindikazio sozioekonomiko larriak ditu. Ezin da erabat baztertu transmisio bizkorraren aurrean alternatiba gisa erabiltzea. Bere balizko aplikazioa, hala badagokio, oso mugatua izan beharko litzateke. Bestalde, uda honetan argi ikusi ahal izan dira sasoiko mugikortasunaren arriskuak. Ez da baztertu behar, pandemiaren bilakaeraren arabera, neurri espezifikoak ezartzea mugikortasun handiko jai-sasoiko testuinguruetan.

·**Musukoa, distantzia eta higienea.** Musukoa nahitaez erabiltzea, pertsonen arteko distantzia eta eskuen higienea konbinatzea prebentzio-tresna eraginkorra da birusaren hedapenari eusteko eta arriskuko biztanleria babesteko. Eraginkortasun hori egiazta daiteke kutsatze-foku nagusiak neurri horiek aplikatzean erlaxatzearekin lotuta daudela egiaztatzean. Hurrengo hilabeteetako ikuspegiak mantentzera bideratu behar gaitu.

·**Pertsonak elkartzea**. Badakigu taldeka daitezkeen pertsonen kopurua mugatzea baliagarria dela, kutsatze-foku gehienak pertsonen konkurrentzia handiko egoeretan gertatzen direlako. Ez hori bakarrik, pertsona kopuru handiko taldeek kutsatzeak gehiago barreiatzen lagun dezakete, bai eta, batzuetan, kontaktuen bilaketa eraginkorra egiteko zailtasun gaindiezina ere. Horregatik, balioespena merezi dute kontaktuak burbuila talde sozialetara mugatzeko estrategia alemaniar edo eskandinaviarrek. Badirudi Suediak eskaintzen duen arrakastaren zati garrantzitsua dela.

·**Egoitzak**. Egoitza-zentroen eremuan, Covid 19aren pandemiak argi eta garbi objektibatu du osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren arteko lankidetza instituzional intimoa beharrezkoa dela planteatutako larrialdiari erantzuteko. Lankidetza horren eskutik, lankidetzarako egitura misto berriak sortzen ikusi ditugu (Zentroen ikuskapena, Esku hartzeko foru-tal-

deak, Prebentzio- eta kontrol-taldeak), bai eta arreta emateko zirkuituak birformulatzen ere, arduratsua eta adinekoei irekia, Covid 19 erreferentziako foru-unitateetan ordezkatuta, egoiliarrak izan ala ez.

·**Jardueren kontingentzia- eta protokolizazio-planak**. Frogatutzat jo daiteke segurtasun- eta prebentzio-protokolo bat aldez aurretik prestatu den gizarte-, hezkuntza-, merkataritza-, industria-, kirol-, kultura- edo beste edozein motatako jardueretan segurtasun-testuinguruak sortu direla. Gune horiek, zaurgarriak izan ez arren, Covid 19a transmititzeko arriskua murrizteko emaitza oso positiboak eman dituzte.

·**Edukierak, aireztapena eta aire zabaleko jarduerak.** Edukiera mugatzeak hainbat jarduera modu seguruan garatzea ahalbidetu du. Era berean, badakigu espazioak aireztatzea neurri eraginkorra dela eta aire zabaleko eta naturaguneetako jarduerek segurtasun handiagoa eskaintzen dutela.

·**Espazio itxiak eta jendetsuak**. Esperientziak erakusten du espazio itxiak eta gutxi aireztatuak egokiagoak direla kutsatzeko arriskua izateko, bereziki, pertsona asko biltzen diren egoeretan eta, are gehiago, pertsonen arteko distantzia gordetzea ezinezkoa bada.

·**Bizitegien prekarietatea**. Bizigarritasun-baldintza prekarioek edo pilaketek transmisioa eragin dute. Horretarako baldintzarik gabeko etxebizitzak dituzten pertsonen berrogeialdiak errazteko hotelak izatea baliabide baliagarria eta eraginkorra izan da.

·**Familien eta lagunen bileretako erlaxazioa**. Horrelako topaketak erlaxazio -testuinguru bat dira, eta nahi baino ohikoagoa da zaintza jaistea, bai musukoa erabiltzeari dagokionez, bai pertsonen arteko distantziari eusteari dagokionez. Hori dela eta, bilera horiek kutsatze-gune izan dira azken hilabeteotan.

·**Erlaxazioa taberna, kafetegi, terraza eta jatetxeetan**. Garrantzitsua da ostalaritza-zerbitzu horien inguruan garatzen diren harreman-jardueretan zorrotz betetzea urruntzeko, higienerako eta musukoa erabiltzeko prebentzio -neurriak. Testuinguru horietako batzuetan, musukoa erabiltzeko denbora murrizteko, gehiago hurbiltzeko eta modu altuago eta zuzenagoan hitz egiteko joera agertu da.

·**Erlaxazioa gaueko aisialdian, botiloiak eta «jairik ez» egunak.** Kutsatze -fokuen azterketak erakusten du jarduera horiek pertsonen arteko kontaktu

estua eta musukoa erabiltzearen eta pertsonen arteko distantziaren gomendioak ez betetzea erraztu dutela.

## 2.4. Ondorioen laburpena

Atal honen laburpen gisa, hiru ondorio aurkezten dira, hurrengo hilabeteetan birusarekin “elkarrekin bizitzeko” estrategia definitzeko oinarritzat balio dutenak..

### 2.4.1. Hobeto gaude, baina ezin dugu, eta ez dugu erne egon behar

Iraileko datuen bilakaeraren analisiak pentsarazten digu Euskadin, oraingoz, bigarren epidemia-olatuaren gailurra izan dugula, eta 3. Mailako Agertokian, Transmisio Tentsiodunean, egonkortu garela.

Egoera horretatik beherantz joateak berekin dakar diagnostiko-presioaren jarraipena egitea eta ezarritako prebentzio komunitarioko neurrien testak egiten eta mantentze-lan irmoak egiten jarraitzea. Birusaren intzidentzia murrizten jarraitu behar da, birusaren tokiko transmisiorik ez dagoen agertokira iritsi arte.

Ezin da, inola ere, inolako erlaxaziorik egin. Autokonplazentzia mota orori aurre egin behar diogu. Covid 19ak planteatzen digun erronkak autoexijentzia maximoa eskatzen du, ebaluazioarekin, akatsen aitorpenarekin eta etengabeko hobekuntzaren zehaztapenarekin.

### 2.4.2. Ez dago formula magikorik: badakigu zerk laguntzen digun eta zerk egiten digun kalte

Sei hilabete hauetan bizi izandakoaren balantzeak erakusten digu zerk laguntzen digun birusaren hedapena gordetzen eta murrizten, eta zerk egiten digun kalte eta zerk laguntzen duen birusaren hedapena areagotzen. Hurrengo koadroan modu sintetikoan adierazten dira gako nagusiak.

| Laguntzen gaituena | Kalte egiten diguna |
|---|---|
| ·Osasun-informazioaren gaitasuna, testak egitea, kutsadurak eta kontaktuak arakatzea, isolamenduak eta berrogeialdiak. | ·Mugikortasuna eta pertsona desberdinekin etengabeko harremana izatea, baita ezezagunekin ere. |
| ·Familia-, gizarte-, hezkuntza- eta lan-burbuilak ezartzea. | ·Neurriak erlaxatzea gaueko aisialdian, botiloietan eta "jairik ez" egunetan. |
| ·Musukoa, pertsonen arteko distantzia eta higienea erabiltzea. | ·Neurriak erlaxatzea taberna, kafetegi, terraza eta jatetxeetan. |
| ·Elkartu daitezkeen pertsonen kopurua mugatzea. | ·Familien eta lagunen bileretan neurriak erlaxatzea. |
| ·Segurtasun- eta koordinazio-neurriak babestea sektore eta eremu guztietan. | ·Gehiegizko konfiantza eta arrisku-testuinguruei buruzko kontzientziarik eza, baita koordinaziorik eza ere. |
| ·Edukiera mugatzea, lokalak aireztatzea eta aire zabaleko jarduerak egitea. | ·Edozein jarduera espazio itxietan, gaizki aireztatutakoetan eta/edo jendetsuetan garatzea. |
| ·Baldintzarik gabeko etxebizitzak dituzten pertsonen berrogeialdietarako hotelak jartzea. | ·Bizigarritasun-baldintza prekarioetan edo pilaketan bizitzea. |

### 2.4.3. Zer laguntzen digun azpimarratzea eta indartzea

Datozen hilabeteetan laguntzen diguna sakontzen jarraitu behar dugu, eta kalte egiten diguna zuzentzen jarraitu behar dugu. Hiru errefortzu-ardatz daude birusarekin batera bizitzearen egonkortasun-egoera sendotzeko.

**-Informazioa eta testak.** Lehenik eta behin, informatzeko eta testak egiteko gaitasuna mantentzea eta handitzea.

**-Miaketa eta berrogeialdiak.** Bigarrenik, kutsadurak, kontaktuak, isolamenduak eta berrogeialdiak arakatzeko gaitasuna mantentzea eta handitzea, eta arakatzaileen kopurua indartzea, beharren eta aurreikuspenen arabera.

**-Konpromiso komunitarioa.** Hirugarrenik, egoera epidemiologikoaren arabera kutsadurari eusteko –berrogeialdiak betetzea barne– edo kutsaduraren hedapena errazten duten jarrerei eta jarduerei aurre egiteko lagungarriak diren erantzun komunitarioak eta jarduerak arautzeko neurri guztiak irmo modulatzea eta ezartzea.

# 3. Bizi Berri II Planaren oinarriak

Aurreko ataletan azaldutakoa abiapuntutzat hartuta, Bizi Berri II Planaren oinarriak formulatuko dira orain. Oinarrian duten esparru estrategikoa eratzen dute. Oinarri horiek beren premisetan, estrategian, helburuetan eta lan -metodologian xehatzen dira.

## 3.1. Premisa etikoak

Jarduteko edo esku hartzeko plan orok hura mugitzen duen espirituari edo filosofiari buruz hausnartzea eskatzen du. Bizi Berri II Planaren oinarri diren printzipioak identifikatzea krisi konplexu honi aurre egiteko behar dugun jarrerari buruzko aurretiazko hausnarketa partekatzearen baliokidea da. Azken sei hilabeteetako esperientziari erantzuten dioten lau printzipio azaltzen dira.

**·Apaltasun-printzipioa eta izaera mugatuaren kontzientzia**

Apaltasuna da gure mugak ezagutzea eta ezagutza horren arabera jokatzea. Pandemiak agerian utzi du gure zaurgarritasuna, bai norbanakoari dagokionez, bai taldeari dagokionez. Ez dugu formula magikorik. Asko da birusaz dakiguna, baina asko da oraindik ezagutzen ez dena ere. Horregatik, une batzuetan edo besteetan ikerketen emaitzetan kontraesanak agertzea prozesuaren parte gisa hartu behar da. Ezin dugu, ez dakigu dena. Horrelakoa da giza izaera. Gure ikuspegiak osatugabeak dira beti. Egin behar den guztia errealitate-printzipio ukaezin hori onartzetik abiatu behar da. Ikasi, elkar lagundu eta kolaboratu egin behar dugu.

**·Aintzatespenaren printzipioa eta balio positibo iraunkorraren kontzientzia**

Beti dago potentzia eraikitzailearen faktore edo ikuspegi bat, errealitateari aurre egiteko funtsezko garrantzia duena. Balio positibo iraunkorra dei genezakeena da. Edozein konponbide-prozesu eraikitzeko, daukaguna eta ona dena berariaz estimatu behar da. Gure kasuan, adibidez, gure zerbitzu publikoak, edo hainbeste profesionalek buru-belarri aritu izana edo egiten ari den ahalegina: egunean 9.000 test egiten soilik 200.000 euroko gastua egiten da. Covid 19a bezalako krisi bat gainditzea, hein handi batean, zailtasunen artean aukerak bilatzea eta indartzea da. Positiboaren ezagutza esplizitatzea erresilientziarako oxigeno psikologikoa eta komunitarioa da.

**·Erantzukizun eta kontzientzia etiko pertsonalaren printzipioa**

Pertsona bakoitzak aukera dezake. Bere ekintzez eta ondorioez erantzuten du. Zentzu etikoz aukeratzeko kontzientzia dugu. Gure erabakiak gara. Errealitate horretaz jabetzeko, erantzukizunaren printzipioa onartu behar da. Covid 19aren ondorio sanitario, ekonomiko eta sozial oso larrien esparruan, printzipio horrek interpelazio pertsonalizatua planteatzea eskatzen du: *zein zati dagokidan niri*. Kontua ez da soilik zer exijitu edo eskatu dezakegun, baita zer eman dezakegun ere, ezinbestekoa den erantzun komunitario baten parte gisa. Galdera hori lehen pertsonan planteatzeak eta erantzun etiko bat bilatzeak erantzukizunaren printzipioa islatzen du.

**·Elkartasunaren eta giza duintasunaren kontzientziaren printzipioa**

Giza duintasunak pertsona izatearen zentzua adierazten du, eta giza eskubideen oinarria da. Proiekzio lokala eta unibertsala du. Berdintasuna sustatzera bultzatzen du. Krisiek desberdintasunak areagotzeko joera dute. Giza duintasunaren kontzientziak bultzatzen du krisi sanitario, ekonomiko eta sozial honetatik gizarte-kohesio handiagoarekin ateratzea ahalbidetuko duten baldintzak sustatzera. Horrela, elkartasun-printzipioa adieraz daiteke. Berdintasuna eta behartsuenen aldeko lana toki-eremuan eta eremu unibertsalean. Pandemiaren ondorioek eragin zuzenagoa dute gizartean ahulenak diren sektoreetan. Gizarte-arrailak eta osasun-desberdintasunak areagotzeko arriskua planteatzen dute. Puntu horretan kokatu behar da lehentasunezko begirada giza duintasunaren ikuspuntutik. Hausnarketa horrek berekin dakar zorroztasunarekiko eta erantzunkidetasunarekiko konpromiso indibiduala eta kolektiboa. Zehazki, munduan bultzatzen diren asmo onenekin eta politika publiko onenekin lotuta dago. Trantsizio sozial-sanitarioei, energetiko-ekologikoei eta teknologiko-digitalei erantzutea. Agenda 2030 bere gain hartzea. Elkartasunaren printzipioa eta giza duintasunaren kontzientzia gaur egun, 2020an, hiru hitzetan adierazten da munduan eta Euskadin: Giza Garapen Iraunkorra. Covid 19aren krisiaren erantzuna ere bada.

## 3.2. Eusko Jaurlaritzaren erantzun komunitarioaren estrategia formulatzea

Bi hitzek laburbiltzen dute Eusko Jaurlaritzaren erantzun-estrategia komunitarioa, Covid 19ari hurrengo hilabeteetan aurre egiteko: zorroztasuna eta erantzunkidetasuna. Hori oinarri hartuta, estrategia horren formulazio sintetikoa honela adierazten da:

> *ZORROZTASUN- eta ERANTZUNKIDETASUN-estrategia bat sustatzea, gure erkidegoan birusaren transmisioa baretzeko, iraungi arte: estrategia hori lehentasunezko jarduketako bi ardatz osagarriren bidez hedatzen da: batetik, testak egitea areagotzea eta kutsatzeen eta kontaktuen bilaketa indartzea; eta, bestetik, tinko jarraitzea kutsadurei eusteko edo arintzeko eraginkorrak diren erantzun-neurri komunitarioetan.*

Zorroztasun- eta erantzunkidetasun-konpromisoaren pertsonalizazioan sakontzea beste aukerarik ez dago. Pertsona guztien ekarpena behar da, gainerako eragile eta erakundeekin lankidetzan. Talde-lanean. Auzolana da beste behin ere erantzuna, oraingoan inoiz baino arrazoi gehiagorekin. Pertsonatik pertsonara transmititzen den horretan, guztiok izan gaitezke kutsatze-katearen katebegiak. Guztiok izan gaitezke haren ondorioen biktima.

> ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA konfinamendura itzultzea, osasun-kolapsoa, koma ekonomikoa eta gizarte-arrailak areagotzea saihesteko.
>
> ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA osasun publikoa, hezkuntza, ekonomia, enplegua eta gizarte-kohesioa defendatzeko.
>
> ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA azken hilabeteetan ondo egin duguna egiten jarraitzeko.
>
> ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA geure burua zaintzeko eta ingurukoak zaintzeko.
>
> ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA konponbidea eraikitzean bakoitzari dagokigun erantzukizun-zatia geure gain hartzeko.

Zorroztasuna eta erantzunkidetasuna egungo testuinguru konplexu eta berri batean, begirada proaktiboa lehenestearen parekoa da. Lehenengo kontua ez da non dagoen arazoa eta nor den erruduna. Bizi dugun egoera gero

eta larriagoa denez, *irtenbidea non dagoen, guztion artean nola eraikitzen dugun eta bakoitzari lehen pertsonan zer ekarpen* dagokion planteatzea da lehenengo kontua.

## 3.3. Helburuak

Bizi Berri II Plana Eusko Jaurlaritzak pandemiak ekarri duen krisi globalari erantzuteko dituen helburu orokorren barruan kokatzen da. Era berean, erantzun komunitarioaren arloko helburu espezifiko batzuei erantzuten die.

### 3.3.1. Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren helburu nagusiak

·***Babes*-helburuak.** Birusaren transmisioa mugatzea, konfinamendura itzultzea, osasun-kolapsoa, koma ekonomikoa eta gizarte-arrailak areagotzea saihestea.

·**Helburu *proaktiboak*.** Osasun publikoa, hezkuntza eta zerbitzu publikoak indartzea, ekonomia eta enplegua berreskuratzea, gure gizartearen berreraikuntza emozionala, eta elkartasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea.

### 3.3.2. Bizi Berri II Planaren helburu espezifikoak

·**Aurreikuspena.** Pandemiaren bilakaeraren aurrean birusarekin bizikidetza jasangarria izateko aurreikuspenez eta aldez aurretik jardutea ahalbidetuko duen jarduera-esparrua finkatzea.

·**Kontzientziazioa.** Gizarte-pedagogia indartzea, emaitzak neurtzearekin eta indartze positiboarekin erantzun komunitarioaren konpromisoa pertsonalizatzeko beharrari dagokionez.

·**Egokitzapena**. Euskal erakundeek pandemiaren bilakaerari eta haren gorabeherei eta ustekabekoei emandako erantzunak arin egokitzeko tresnak izatea.

·**Erresilientzia**. Gure gizarteak emozioak berreskuratzeko eta gizartea, ekonomia eta enplegua berreraikitzeko duen erresilientzia-gaitasuna sustatzen laguntzea.

## 3.4. Lan-metodologia

Honako hauek dira Bizi Berri II Planaren proiekzio praktikoa txertatzen den lan-metodologia zehazten duten jarraibide orokorrak:

·Plan hori lan-esparru bat da, une bakoitzeko egoera deskribatzeko eta baloratzeko, eta erantzun komunitarioaren barruko neurriak aztertzeko eta aurreikusteko. LABIrekin (Larrialdiari aurre egiteko bidea, Euskadiko Babes Zibileko Plana) eta haren Aholku Batzordearekin lotzen da.

·2020ko urriaren 2ko bileratik aurrera, LABI bi eremutan egituratuko da: batetik, Lehendakaria buru duen Aholku Batzordea, Euskadiko ordezkaritza instituzional nagusiek osatua; eta, bestetik, Batzorde Teknikoa, Trantsizio Sozialaren eta Agenda 2030en Idazkaritza Nagusiak koordinatua, zeinaren eginkizuna Aholku Batzordeari laguntza ematea izango baita.

·Batzorde Tekniko hau, hasiera batean, honako hauek osatzen dute: Koldo Cambra, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako Osasun Programen arduraduna; Enrique Peiró, Osakidetzako Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko Programen koordinatzailea; Esteban de Manuel, Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutuko zuzendaria; Joseba Bidaurrazaga, Bizkaiko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea; eta Iñaki Gutierrez-Ibarluzea, BIOEF Berrikuntza Ikerketa Osasuna Eusko Fundazioaren Antolaketa eta Kudeaketaren Berrikuntzaren zuzendaria. Jonan Fernandez Trantsizio Sozialeko eta Agenda 2030eko idazkari nagusiak koordinatuko du. Batzordeak osaera handitu ahal izango du, eta hamabost egunean behin egingo diren bileretara une bakoitzean egoki edo beharrezkotzat jotzen dituen adituak deitu ahal izango ditu.

·Bizi Berri II Plana eta, zehatzago, Covid 19aren pandemiaren agertokietan emandako erantzun komunitarioaren erreferentzia-panela (1. eranskina) lan-tresna izango dira pandemiaren bilakaera deskribatzeko eta jarraipena egiteko, bai eta erantzun sanitarioetan eta komunitarioetan eragina izan dezaketen neurri eta xedapen berriak prestatzeko ere.

·Hamabost egunean behin, eta beharrezkotzat jotzen den guztietan, Batzorde Teknikoak, Lehendakariaren esku utziko du LABIko presidente gisa, azken 14 egunetako egoeraren balorazio bat, Euskadiren egoera deskribatzeko eta joera zehazteko.

·Txosten honetan, agertoki bakoitza deskribatzeko hasieran ezarritako adierazleen bilakaera baloratuko da, bai eta agertoki bakoitzaren barruan joeraren egoera ere: "goranzko joera», «egonkorra» edo «beheranzkoa». LABIren Batzorde Teknikoak adierazle horiek eta osasun publikoko beste aldagai eta adierazle batzuk baloratu beharko ditu, egoera edo joera bat edo bestea identifikatu dela egiaztatzeko.

·Hamabost egunean behingo balorazio hori, hasiera batean, Euskadi osoaren egoerara proiektatuko da, baina auzo, herri, eskualde, lurralde historiko edo jarduera sektorialei eragiten dieten balorazio espezifikoak eskaini ahal izango ditu, baldin eta geografikoki edo soziodemografikoki mugatutako datuen gehikuntza diferentzialak hala gomendatzen badu.

·Era berean, LABIren Batzorde Teknikoak jarduera-sektore espezifikoei buruzko azterketa-dokumentuak eta jarduera-proposamenak prestatu ahal izango ditu, bai hezkuntza, kultura, kirola, lana edo beste edozein motatako arloan.

·Azkenik, LABIren Batzorde Teknikoak Bizi Berri Plana eguneratzeko proposamena prestatuko du lau hilean behin –eta, betiere, pandemiaren bilakaeraren eta haren gorabeheren edo ezustekoen arabera beharrezkotzat jotzen bada. Horrela, hurrengo eguneraketak 2021eko otsailean, ekainean eta urrian prestatuko lirateke.

·Bizi Berri Plana gizartean zabaltzea garrantzitsutzat jo daitekeen neurrietako bat da, zorroztasunaren eta erantzunkidetasunaren pedagogia soziala estrategikoa baita. Trantsizio Sozialeko eta Agenda 2030eko Idazkaritza Nagusiari dagokio Bizi Berri Plana ahalik eta gehien zabaltzea.

# 1. Eranskina. Covid 19ko pandemiaren agertokietan emandako erantzun komunitarioaren Erreferentzia-Panela. Bizi Berri II Plana

1. Eranskina. Covid 19ko pandemiaren agertokietan emandako erantzun komunitarioaren Erreferentzia-Panela. Bizi Berri II Plana

| Agertokiak | 1. maila.<br>Tokiko transmisiorik gabe | 2. maila.<br>Transmisio Baxua | 3. maila.<br>Transmisio Tentsioduna | 4. maila.<br>Transmisio Altua | 5. maila.<br>Transmisio Oso Altua |
|---|---|---|---|---|---|
| **Adierazleak Agertoki bakoitzetik** | ·Intzidentzia-tasa metatua: 0 kasu/100.000 bizt., tokiko transmisioan<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: ez dago tokiko transmisiorik.<br>·Azken 14 egunetan ez da sarrerarik izan ZIUn. | ·Intzidentzia-tasa metatua: < 60 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “beheranzkoa” edo “egonkorra”.<br>·% 20tik beherako ZIU okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. | ·Intzidentzia-tasa metatua: 60-300 kasu/100.00 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “beheranzkoa”, “egonkorra” edo “goranzkoa”.<br>·% 20 eta % 35 arteko ZIU okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. | ·Intzidentzia-tasa metatua: 300-500 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: joera “egonkorra” edo “goranzkoa”.<br>·ZIUren % 35 eta % 50 bitarteko okupazioa, ZIUen Kontingentzia Planari dagokionez. | ·Intzidentzia-tasa metatua: >500 kasu/100.000 bizt.<br>·$R_t$ indizea eta tasen arrazoia: “goranzko” joera.<br>·% 50etik gorako ZIUen okupazioa, Kontingentzia Planari dagokionez. |
| **Agerraldiaren maila** | Ia kasu berririk ez EAEn, baina bai harremana mantentzen dugun herrialdeetan. | ·Kasu-kopuru txikia: gehiengoak ezagutzen dituen transmisio-kateak.<br>·Osasun-sistemaren gaitasun nahikoa kasuak ikertzeko eta agerraldiak izateko. | ·Aldian behingo birusaren transmisio komunitarioa.<br>·Osasun-sistemaren gaitasun nahikoa kasuak ikertzeko eta agerraldiak izateko. | ·Transmisio komunitario altua eta iraunkorra. | ·Osasun-zerbitzuek gainezka egiteko arriskua. |
| **Neurri orokorrak** | Harremana dugun herrialdeekiko egoeraren azterketa, eta birusa berriz ez sartzeko neurriak. | ·Babes-neurri orokorrak, kasuen jarraipen estua. | ·Kontzentrazioak babesteko eta murrizteko neurri orokorrak. | ·Babes-neurri indartuak. Jarduerak murriztea eta mugikortasuna mugatzea. | ·Konfinamendu puntualak edo orokorrak. |
| **Komunikazioa** | Gizartearekin komunikazio bizia izateko konpromiso instituzionala, herritarrei zorroztasun- eta erantzunkidetasun-estrategiari behar bezala erantzuten lagunduko dieten informazioa eta mezuak agertoki bakoitzera egokituz. Pandemiaren inpaktuak planteatzen digun prebentzio-testuinguruan jarduera seguru eta osasungarrien sustapen positiboari balioa emango dion komunikazio-politika garatzea. | | | | |
| **Xedapenak agertoki bakoitzean:** | **…Gizarte osoarentzat**<br>**(Agertoki bakoitzean sartzen diren xedapenak orientagarriak dira, eta egokitu edo aldatu ahal izango dira, dagokion tresna arauemailearen edo gidalerroaren bidez, une bakoitzean gerta daitezkeen faktore eta ezustekoen azterketaren arabera)** | | | | |
| | ·Distantzia gomendatua.<br>·Musukoa gomendatua.<br>·Eskuetako higienea. | ·1,5 m-ko distantzia.<br>·Musukoa erabiltzea.<br>·Eskuen higienea.<br>·Gehienez 20 pertsonako taldeak. | ·1,5 m-ko distantzia.<br>·Musukoa nahitaez erabili beharra.<br>·Eskuen higienea.<br>·Gehienez 10 pertsonako taldeak.<br>·Interbentzio “kirurgikoak” aztertzea. | ·1,5 m-ko distantzia, musukoa nahitaez erabili beharra eta eskuen higienea.<br>·Taldekatzeen muga handiagoak aztertzea, bai eta mugikortasun- eta konfinamendu-mugak ere.<br>·Screening selektiboen balorazioa oinarrizko osasun-eremuetan. | ·1,5 m-ko distantzia.<br>·Musukoa nahitaez erabili beharra.<br>·Eskuen higienea.<br>·Gehienez 6 pertsonako taldeak.<br>·Mugikortasuneko lurralde-mugen balorazioa.<br>·Lurralde-konfinamenduak. |

| Agertokia | 1. maila.<br>Tokiko transmisiorik gabe | 2. maila.<br>Transmisio Baxua | 3. maila.<br>Transmisio Tentsioduna | 4. maila.<br>Transmisio Altua | 5. maila.<br>Transmisio Oso Altua |
|---|---|---|---|---|---|
| **Xedapenak Orientagarriak Agertoki bakoitzean:** | **...Jarduera sektore desberdinetarako**<br>**(Egoera bakoitzean jarduera-sektore bakoitzerako ezartzen diren xedapenak orientagarriak dira, eta egokitu edo aldatu ahal izango dira. Dagokion tresna arauemailearen edo gidalerroaren bidez, une bakoitzean gerta daitezkeen faktore eta ezustekoen azterketaren arabera).** | | | | |
| Administrazio publikoa | ·Lan eta zerbitzu presentzia-lak, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Lan eta zerbitzu presentzia-lak, nahitaezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Lan eta zerbitzu presentzialak protokolizatutako prebentzio -neurriekin.<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat. | ·Lan eta zerbitzu resentzialak, muga eta prebentzio-neurri protokolizatuekin.<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat.<br>·Telelana, eskubide saihetsezineko baimena duten langileentzat. | ·Lan presentzial mugatua, protokoloaren arabera<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat.<br>·Telelana, eskubide saihetsezineko baimena duten langileentzat. |
| Leh. Bigarr. eta FP Hezkuntza | ·Hezkuntza presentziala, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Kutsadurak eta kontaktuak isolatzea, mugatutako taldeen arabera. | ·Hezkuntza presentziala, derrigorrezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Kutsadurak eta kontaktuak isolatzea, mugatutako taldeen arabera. | ·Hezkuntza presentziala, protokolizatutako prebentzio -neurriekin.<br>·Kutsadurak eta kontaktuak isolatzea, mugatutako taldeen arabera. | ·Hezkuntza presentziala, muga eta prebentzio-neurri protokolizatuekin.<br>·Kutsadurak eta kontaktuak isolatzea, mugatutako taldeen arabera. | ·Hezkuntza erdi-presentziala eta online.<br>·Kutsadurak eta kontaktuak isolatzea, mugatutako taldeen arabera.<br>·Ikastetxeak ixtea. |
| Unibertsitatea | ·Jarduera presentziala, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Jarduera presentziala, nahitaezko trantsizioko prebentzio -neurrien protokoloarekin. | ·Jarduera presentziala eta online jarduera. | ·Jarduera erdi-presentziala, mugak dituena eta online jarduerarekin osatua | ·Online jarduera, unibertsitate bakoitzeko indartze-neurrien protokoloaren bidez. |
| Industria eta eraikuntza | ·Jarduera presentziala, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Jarduera presentziala, nahitaezko trantsizioko prebentzio -neurrien protokoloarekin. | ·Jarduera presentziala protokolizatutako prebentzio-neurriekin.<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat. | ·Jarduera presentziala, muga eta prebentzio-neurri protokolizatuekin.<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat. | ·Funtsezko zerbitzuetan izan ezik, aurrez aurreko lana telelanarekin konbinatuta, ahal den guztian.<br>·Telelana arrisku-kolektiboentzat. |
| Merkataritza eta merkatuak | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Edukiera baloratzea, nahitaezko trantsizioko prebentzio -neurrien protokoloarekin. | ·% 60ko edukiera, prebentzio -neurrien protokoloarekin. | ·Edukiera baloratzea prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·% 30eko edukiera, prebentzio -neurrien protokoloarekin.<br>·Behin-behinean, ordu-mugak zonaka. |
| Ostalaritza-<br>Jatetxea | ·Mugarik gabeko okupazioa.<br>·Gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloa. | ·Edukiera-mugarik gabe eta nahitaezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Mahaien eta bezeroen arteko distantzia: 1,5 m.<br>·Mahai bakoitzeko gehieneko pertsona kopurua baloratzea.<br>·Ordutegiak baloratzea. | ·Ez da edukiera mugatzen. Gehienez 60 pertsona barruko aretoetan.<br>·Mahaien eta bezeroen arteko distantzia: 1,5 m.<br>·Gehienez 10 pertsona mahai bakoitzeko.<br>·01: 00etan itxiko da. | ·Edukiera-murrizketaren balorazioa<br>·Barneko gehieneko pertsona-murrizketak baloratzea.<br>·1,5 m-ko distantzia duten mahaietan soilik kontsumitzea baloratzea.<br>·Mahaiko pertsona-kopuruaren murrizketa baloratzea.<br>·Itxiera-ordua baloratzea. | ·% 50eko edukiera.<br>·Gehienez 20 pertsona barruko aretoetan.<br>·Terrazako mahaian soilik kontsumitzen da, 1,5 m-ko distantzian.<br>·Gehienez 6 pertsona mahai bakoitzeko.<br>·22:00etan itxiko da. 06:00etan irekiko da.<br>·Behin-behinean, itxiturak zonaka. |

| **Agertokia** | 1. maila.<br>Tokiko transmisiorik gabe | 2. maila.<br>Transmisio Baxua | 3. maila.<br>Transmisio Tentsioduna | 4. maila.<br>Transmisio Altua | 5. maila.<br>Transmisio Oso Altua |
|---|---|---|---|---|---|
| Garraio publikoa | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·% 100eko edukiera, nahitaezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·% 100eko edukiera, nahitaezko prebentzio-neurriei eutsita.<br>·Irteerako gehieneko ordutegia 01: 30ean. | ·Edukieren murrizketa baloratzea, nahitaezko prebentzio-neurriei eutsiz.<br>·Irteerako gehieneko ordutegiaren aldaketa baloratzea. | ·% 50eko edukiera, nahitaezko prebentzio-neurriei eutsita.<br>·Irteerako gehieneko ordutegia 00: 00etan |
| Museoak-kultura ekitaldiak | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Edukiera eta gehienezko pertsona-taldeak baloratzea, nahitaezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Barneko eta kanpoko gehieneko pertsona-kopurua handitzearen balorazioa, bai eta eserita eta zutik dagoen jendearena ere. | ·% 60ko edukiera.<br>·Gehienez 10 pertsonako taldeak.<br>·Gehienez 600 pertsona barruan eta 1.000 kanpoan.<br>·Jendea eserita. | ·Edukiera-murrizketaren eta talde bakoitzeko gehieneko pertsona-kopurua baloratzea.<br>·Barneko eta kanpoko pertsonen gehieneko gaitasunaren murrizketa baloratzea.<br>·Jendea eserita. | ·% 40ko edukiera.<br>·Gehienez 6 pertsonako taldeak.<br>·Gehienez 400 pertsona barruan eta 600 kanpoan.<br>·Jendea eserita.<br>·Behin-behinean, ekitaldiak aldi baterako deuseztatzea, eremuka. |
| Erlijio-ekitaldiak | ·% 100eko edukiera kultu-lekuetan, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Beilategiak eta ehorzketak: gehienez 70 pertsona. | ·Edukiera baloratzea, nahitaezko trantsizioko prebentzio-neurrien protokoloarekin.<br>·Beilatokietan eta ehorzketetan pertsonen gehieneko muga handitzea baloratzea. | ·% 75eko edukiera kultu-lekuetan.<br>·Belategiak eta ehorzketak: gehienez ere 30 pertsona. | ·Kultu-aretoetako edukiera murriztearen balorazioa.<br>·Beilatokietan eta ehorzketetan pertsonen gehieneko muga murriztea baloratzea. | ·%40ko edukiera kultu-lekuetan.<br>·Belategiak eta ehorzketak: gehienez ere 10 pertsona.<br>·Behin-behinean, ekitaldiak aldi baterako deuseztatzea, eremuka. |
| Kirola | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Aire zabaleko pertsona-taldeak handitzea baloratzea.<br>·Gune itxietako edukiera baloratzea, bai eta aire zabaleko lehiaketa eta ekitaldietakoa ere.<br>·Nolanahi ere, nahitaezko oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloa mantentzea. | ·Aire zabalean, 10 pertsonako taldeak.<br>·Espazio itxietan, % 60ko edukiera.<br>·Aire zabaleko lehiaketa eta ekitaldietan, % 60ko edukiera eta gehienez 1.000 pertsona.<br>·Eserita dagoen eta aurrez esleitutako eserlekua duen publikoa. | ·Aire zabaleko pertsona-taldeen murriztea baloratzea.<br>·Espazio itxietako edukiera murriztea baloratzea.<br>·Aire zabaleko lehiaketa eta ekitaldietan edukiera murriztea baloratzea, bai eta eserita eta aurrez esleitutako eserlekua duten pertsona kopurua ere. | ·Aire zabalean, 6 pertsonako taldeak.<br>·Espazio itxiak: % 40ko edukiera.<br>·Aire zabaleko lehiaketa eta ekitaldietan, % 40ko edukiera, gehienez 600 pertsonarekin.<br>·Kirol-ekitaldien balizko etendura baloratzea.<br>·Behin-behinean, kirol-jarduerak aldi baterako deuseztatzea, eremuka. |

| Agertokia | 1. maila.<br>Tokiko transmisiorik gabe | 2. maila.<br>Transmisio Baxua | 3. maila.<br>Transmisio Tentsioduna | 4. maila.<br>Transmisio Altua | 5. maila.<br>Transmisio Oso Altua |
|---|---|---|---|---|---|
| Aisialdia | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Ordu- eta edukiera-muga duten gaueko aisiako establezimenduen irekierak baloratzea.<br>·Jolas-establezimenduetan edukiera handitzea baloratzea.<br>·Ordutegi eta edukiera mugatuko gazte-lonja eta -lokaletan jarduera irekitzea baloratzea.<br>·Zezen-jardueren edukiera handitzea baloratzea. | ·Gaueko aisialdiko establezimenduak ixtea.<br>·% 60ko edukiera jolas-establezimenduetan.<br>·Gazteen lokaletan eta lonjetan jarduera debekatzea.<br>·Zezen-jarduera: % 60ko edukiera eta gehienez 1.000 pertsonakoa, aurrez esleitutako besaulkiekin. | ·Gaueko aisialdiko establezimenduak ixtea.<br>·Jolas-establezimenduetako edukiera murriztea baloratzea.<br>·Gazteen lokaletan eta lonjetan jarduera debekatzea.<br>·Zezen-jardueraren edukiera eta gehieneko pertsona-kopurua murriztea baloratzea. | ·Gaueko aisialdiko establezimenduak ixtea.<br>·% 40ko edukiera jolas-establezimenduetan.<br>·Gazteen lokaletan eta lonjetan jarduera debekatzea.<br>·Zezen-jarduera: % 35eko edukiera eta 600 pertsonako gehieneko edukiera, aurrez esleitutako besaulkiekin.<br>·Behin-behinean, aisialdiko jarduerak aldi baterako deuseztatzea, eremuka. |
| Turismoa | ·% 100eko edukiera, gomendatutako oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloarekin. | ·Turismo aktiboa eta eta naturako turismoan murrizketarik gabe ahalbidetzeko balorazioa.<br>·Gidaria duten jardueretarako taldeetan baimendutako pertsona-kopurua handitzeko balorazioa.<br>·Jolas zentro turistikoetan edukiera eta maximoak handitzea baloratzea.<br>·Nolanahi ere, nahitaezko oinarrizko prebentzio-neurrien protokoloa mantentzea. | ·Turismo aktiboa eta eta naturako turismoan, eremu bakoitzeko xedapenen arabera.<br>·Gidaria duten jarduerak, gehienez 10 pertsonako taldeetan.<br>·Jolas-zentro turistikoetan, gehienez % 60ko edukiera eta gehienez 10 pertsonako taldeak. | ·Turismo aktiboan eta naturako turismoan dauden pertsonen elkarteen murrizketa baloratzea.<br>·Gidaria duten jardueretan taldeetako pertsona-kopurua murriztea baloratzea.<br>·Jolas zentro turistikoetan gehieneko taldeen edukiera murriztea baloratzea. | ·Turismo aktiboa eta eta naturako turismoan, gehienez 6 pertsonako taldeetan.<br>·Gidaria duten jarduerak, gehienez 6 pertsonako taldeetan.<br>·Aisialdi-zentro turistikoetan, gehienez ere % 40ko edukiera eta gehienez 6 pertsonako taldeak.<br>·Behin-behinean, eremukako turismo-jarduerak aldi baterako baliogabetzea. |

Laburpena

# Bizi Berri III Plana

COVID-19aren pandemiaren bilakaerari Euskadin emandako erantzun komunitarioaren balantzea eta aurreikuspena

## Zorroztasuna, erantzunkidetasuna eta enpatia

*Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia – Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza*
*(LABIren Batzorde Teknikoaren aholkularitzarekin egindako dokumentua)*

**2021eko otsailaren 12a**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Laburpen exekutiboa

## LABIn hirugarren Bizi Berri Plana, erantzun komunitarioaren estrategia eta jardueren eta ohitura sozialen erregulazioa pandemiaren aurrean

**·Azken urteko esperientzian oinarrituta, edukiak eguneratu eta pandemiaren bilakaerara eta otsaila-ekaina aldirako aurreikuspenetara egokitu dira.**

**·Bi lan-hipotesi hartzen ditu kontuan:**

**—Lehenengoak planaren apustua adierazten du: intzidentziaren beheranzko egonkortasuna lortzea, 300/100.000 baino txikiagoa, txertaketaren bidez indartua.**

**—Bigarrena, 400/100.000 birusaren aldaera berriek eragindako goranzko balizko kutsagarritasunerako prestatzen da.**

**·Esparru horretan, Bizi Berri III Planaren panel berriak bost agertoki, adierazle eta arrisku maila bakoitzari egokitutako prebentzio-neurri aurreikusten ditu.**

**·Oinarrizko helburua da, oraindik ere, konfinamendu zorrotza, osasun-kolapsoa, hezkuntza-itxiera, koma ekonomikoa eta gizarte-arrailak areagotzea saihestea.**

**·Bizi Berri III Planak akordio handiago baten alde egiten du Europan eta Estatuan. Proposamen bat planteatu du, hartu beharreko neurri nagusiak harmonizatzeko.**

Lehen Bizi Berri Plana 2020ko maiatzaren 4koa da. Deseskalatze planifikatzera bideratuta egon zen, lehen olatua etxean konfinatu ondoren. Bizi Berri II Plana urriaren 2an aurkeztu zen, eta lau hilean behin eguneratze bat prestatuko zela ezarri zuen. Dokumentu hori, Bizi Berri III Plana, konpromiso hari erantzuten dio. Estrategia bat bideratzen du 2021eko otsaila eta ekaina bitartean. Bizi Berri III Planak ez dio heltzen osasun-estrategiari, ezta susperraldi sozioekonomikoari ere. Jarduera eta ohitura sozialak arautzea eta pandemiaren bilakaerara egokitzea du ardatz. Dokumentuak hiru zati ditu.

**Lehen zatia: premisa etikoak eta irizpide gidariak**

Bizi Berri II Planak hirugarren eguneratze honetara eramango diren oinarriak zehaztu zituen. Estrategia egokitu egiten da, baina oinarri etikoek iraun egiten dute. Lau

printzipio errepikatzen dira planaren oinarri gisa: umiltasuna eta mugen kontzientzia, etengabeko balio positiboaren aitorpena eta kontzientzia, erantzukizuna eta kontzientzia etiko pertsonala, eta elkartasuna eta giza duintasunaren kontzientzia.

Bi hitzek laburbiltzen dituzte COVID-19ri aurre egiteko erantzun komunitarioko irizpide estrategikoak: ZORROZTASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA. Oinarri horren gainean, hiru atal berri gehituko dira: "Erakundeen konpromisoa eta elkartasuna", "Enpatia" eta "Bizi Berri pedagogia".

Egoera oso zaila da guztiontzat. Testuinguru horretan, erakundeok zorroztasun- eta erantzunkidetasun-betebeharra dugu. Lan egin behar dugu orekarik onena aurkitzeko osasunaren ondasun handiena babestearen eta ekonomiari, enpleguari eta sektore kaltetuenei ahalik eta kalte gutxien egitearen artean.

Irizpide sanitarioen arabera gidatzen gara, nazioarteko profesionalen eta erakundeen aholkularitzarekin. Administrazio guztiak erabakiak hartzen ari gara pandemiaren inpaktu sozioekonomikoak arintzeko, gure ahal eta baliabideen arabera.

Hala ere, ezinegon-sentimenduak orokorrak dira gizarte osoan, hemen Euskadin eta planetako edozein txokotan. Galdera da ea pertsona guztiok egin dezakegun beste zerbait. Bizi Berri III Planak baieztapen batekin erantzuten du: adeitasuna. Eskura dugu komunikazio eta elkartasun komunitarioko bide hau, mundu guztia gaizki pasatzen ari den une honetan.

Enpatia gizakirik berezienaren eta unibertsalenaren parte da. Ez da bateraezina kritikarekin. Zorrotzena atsegina izan daiteke, eta, itxuraz, ez hain zorrotza, etsaitasun handienaz betea. Zailtasunekiko ulermena eta jarrera solidarioa, sufrimenduekiko enpatia, tratu atsegina eta giro ona eragiten duten eta jarrera eraikitzaileak eta ahalegin kooperatiboak bultzatzen dituzten modu atseginak eskatzen ditu.

Gure gizarteak une honetan enpatia-giroa partekatu behar du. Pertsona bakoitzak une oro gizatasun-dosiekin egon behar du, egoera konplexu horri baldintza hobeetan aurre egiten laguntzeko. Pertsona bakoitzak egin dezake ekarpen hori guztion onerako.

"Bizi Berri"k ere hausnarketa pedagogikoa egiteko deia egiten du. Etorkizunean, seguruenik, ezer ez da pandemiaren aurretik izan zen bezalakoa izango. Birusarekin epe luzean bizitzen jarraituko dugu. Birusarekin bizitzeko dugun modua estrategia jasangarri batean oinarritu behar da. COVID-19aren bizipena, beste gauza askorekin batera, gure antzinako normaltasunaren iraunkortasunari eta bizi-ohituren mugei buruzko interpelazioa da.

COVID-19ren pandemiak Euskadin izan duen bilakaerari erantzuteko plan komunitarioari “bizi Berri” deitzen zaio, hain zuzen ere horregatik. Pedagogiak ez du eskatzen “aurreko normaltasuna berreskuratzeko” itxaropenik, baizik eta eguneroko bizitza bizitzeko modu berri bat ehundu behar dela, birusa eta, aldi berean, bizitza, planeta, osasuna, ekonomia eta enplegua modu jasangarrian bizitzeko. Bizimodu berri bat, giza garapen osasungarria eta jasangarria lortzen lagunduko duena.

**Bigarren zatia: balantzea, urtebeteko pandemiaren ondoren**

Bizi Berri II Planak modu positiboan lagundu du oinarrizko bi helburu lortzen: batetik, konfinamendura itzultzea saihestea, eskolak ixtea, osasun-kolapsoa eta koma ekonomikoa; eta, bestetik, erreferentzia-panel bat finkatzea, euskal erakundeei aukera eman diena erantzunak pandemiaren bilakaerara eta haren kontingentzietara egokitzeko, eta, aldi berean, komunikabideei eta gizarteari informazioa helarazteko esparru erabilgarria eta eskuragarria izan dadin.

Azken hamabi hilabeteetako esperientziatik hainbat ikaskuntza eta ondorio atera daitezke, hamar puntutan laburbilduta:

**·Egiaztapen orokorrak**

**I.** Herrialde batek ere ez du formula magikorik. Ikaskuntza elkarrekikoa da.

**II.** Urritik, bilakaera larria izan da Euskadin, nahiz eta inguruko batez bestekoak baino zifra negatiboagoak izan ez.

**III.** Asko ezagutzen da eta oraindik asko da birus honi buruz ez dakiguna.

**IV.** Hurrengo hilabeteetan bi hipotesi hartu behar ditugu kontuan: (a) txertaketak indartutako beheranzko egonkortzea, edo (b) aldaera berriek eragindako goranzko joera.

**·Datozen hilabeteetara proiektatutako ondorioak**

**V.** Deseskalatzeak tartekatzea eta murrizketak doitzea mugikortasun handiko eta interakzio sozialeko aldietan.

**VI.** Bizi Berri II paneleko intzidentzia-parametroak eta adierazleak aipatutako bi hipotesietara egokitzea.

**VII.** Era berean, Bizi Berri II Planean aurreikusitako neurriak berrantolatzea.

**·Indartzen diren ondorioak**

**VIII.** Helburu berberei eustea, orain anbizio-plus bat gehituz.

**IX.** Gaueko mugikortasuna mugatzeko ordutegia ahal den neurrian aurreratzea.

**X.** 500/100.000ko intzidentziari eustea salbuespenezko alarmaren adierazle gisa.

Hamar erreferentzia horiek dira Bizi Berri III Planaren panela eguneratzeko oinarria.

**Hirugarren zatia: Bizi Berri III Planaren agertokien, adierazleen eta neurrien panela**

Bizi Berri III Planaren denbora-esparrua 2021eko otsailetik ekainera arte dago aurreikusita. Helburu orokorrak hiru dira: (1) konfinamendu zorrotza, osasun-kolapsoa, hezkuntza-itxiera, koma ekonomikoa eta gizarte-arrailen gorakada saihestea; (2) lehen etapan intzidentzia-tasa finkatzea, 60-300/100.000 biztanleko balioetan beheranzko joera izanik, eta (3) Bizi Berri Planaren erreferentzia-panela eguneratzea, pandemiaren bilakaerari arintasunez erantzuteko tresnak eskainiz.

Bizi Berri III kontingentzia-plan bat da, bi lan-hipotesi eta kutsatzeen hedapenaren edo arintzearen aurrean bost agertoki jasotzen dituena. Lehen hipotesiak Bizi Berri III Planaren helburua eta apustua definitzen ditu.

·1. hipotesia. 14 egunetako Intzidentzia-tasa Metatua beherantz egonkortzea, 300/100.000tik behera. Txertaketaren eragin positiboa.

-**1.** mailako agertokia, Transmisio Baxua. ITM 14 egunetara: 0-60/100.000.

-**2.** mailako agertokia, Transmisio Ertaina. ITM 14 egunetara: 60-150/100.000.

-**3.**mailako agertokia, Transmisio Tentsionatua. ITM 14 egunetara: 150-300/100.000.

·2. hipotesia: 14 egunetako Intzidentzia-tasa Metatua 400/100.000 puntutik gorakoak dira, eta goranzko joerak dituzte. Birusaren aldaera berriek eragindako kutsagarritasuna igo egiten da.

-**4.** mailako agertokia, Transmisio Altua. ITM 14 egunetara: 300-500/100.000.

-**5.** mailako agertokia, Transmisio Oso Altua. ITM 14 egunetara: >500/100.000.

Egoeraren deskribapena, fase batean edo bestean, erreferentziazko adierazle baten eta hainbat adierazle osagarriren arabera definitzen da. Erreferentziako adierazlea 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua da. Populazio batean agertzen diren kasu berrien kopurua adierazten du. Adierazle osagarriak hauek dira: ugalketa-indizea ($R_0$) eta tasen arrazoia, lpresioa eta okupazioaren ehunekoa ZIU oheetan, adin-tarteen araberako eragina, kasuen trazabilitatea eta goranzko joera, beheranzkoa edo egonkorra.

Prebentzio-neurriek hainbat modulazio aurreikusten dituzte agertoki bakoitzerako murrizketei dagokienez, hainbat arlotan: gaueko mugikortasuna, jarduerak eteteko ordutegia, itxiera perimetralak, pertsonak elkartzeko gehieneko muga, edukie-

ra, ekitaldietako maximoak, hezkuntza arautua eta ez-arautua, askotariko jarduerak, txokoak, elkarteak, lonjak edo gaueko aisialdia, joko-lokalak, ostalaritza eta kirola, aldaera guztietan. (Ikus Bizi Berri III Planaren erreferentzia-panela, 59. eta 60. orrialdeetan)

Agertoki bakoitzerako aurreikusitako egoerak eta neurriak orientagarriak eta modulagarriak dira. Ez daude automatikoki eta mekanikoki lotuta. Egoera bakoitzean hartu beharreko neurriei buruzko erabakiek irizpide anitzeko balorazioa izan beharko dute oinarri, eta hainbat faktore, aldagai eta adierazle hartu beharko dituzte kontuan.

Bizi Berri III Planak hartu beharreko estrategiak eta neurriak harmonizatzearen alde egiten du, bai Europan, bai Estatuko Autonomia Erkidegoen artean bereziki. Ildo horretan, Estatuko pandemiaren kudeaketan akordio handiagoa sustatzeko proposamen bat iradokitzen du, besteak beste, honako eremu hauetan: gaueko mugikortasunaren ordutegia, pertsonen multzokatze maximoa, establezimenduak ixteko eta jarduerak eteteko ordutegia, edo antzeko neurriak ezartzeko aukera 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, baldin eta 14 egunetan intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500etik gorakoa bada.

Bizi Berri Plana gizartean zabaltzea garrantzitsutzat jo daitekeen neurrietako bat da, zorroztasunaren, erantzunkidetasunaren eta enpatiaren pedagogia soziala estrategikoa baita. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari dagokio Bizi Berri Plana zabaltzeko programa kudeatzea.

# Sarrera

Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko uztailaren 6an, eta hurrengo egunean LABIren Aholku Batzordean aurkeztu zen. Pandemia 2021eko uztailetik urrira bitartean kudeatzeko erreferentzia-panel bat eskaintzen du; Bizi Berri II eta III Planei zegozkien ezaugarriak eta perspektibak oso desberdinak dituen epean.

Bizi Berri IV Planak bere estrategiaren aurrealdean bi kontzeptu kokatzen ditu, plan honek proposatu eta sustatu nahi duenaren zentzua laburbiltzen dutenak: ITXAROPENA ETA ZUHURTZIA. COVID-19ren aurkako borrokan 15 hilabete baino gehiago eman ondoren, guztion ahalegin eta gabeziekin, eta metatutako neke pandemikoarekin, itxaropenerako arrazoiak ditugu. Hala ere, ikuspegi horren pozak ez gaitu zuhurtziaren eta adimen prebentiboaren zentzu arduratsua galtzera eraman behar.

## Bizi Berri III Planaren balantzea

·Bizi Berri III Planak osasun publikoko neurri batzuk antolatzen zituen pandemiaren bilakaeraren arabera, lehenengo fasean kurba 100.000 biztanleko 300 kasutik behera kontrolatzeko eta murrizteko. Helburu hori bi unetan lortu zen aldi horretan: otsailaren amaieran eta maiatzaren amaieran. Asmo handiko helburua zuen 100.000 biztanleko Intzidentzia-tasa metatua 60tik behera jaistea erraztea. Ekaina 100 inguruko intzidentzia-tasarekin amaitzen da.

·Bizi Berri Planaren indarraldian, intzidentzia-gailurrik handiena apirilaren 26a izan zen, 100.000 biztanleko 14 egunean metatutako Intzidentzia-Tasa 547 izanik; otsailaren 2ko tasa 668 izan zen, eta azaroaren 5ekoa, 845. Tontor epidemiko berri bakoitzean, intzidentzia-tasak txikiagoak izan dira aurrekoan baino. Adierazle horrek erakusten du pandemiaren eraginak hobera egin duela hiruhileko bakoitzean, eta, oro har, hartutako neurrien egokitasuna berresten du.

·Hartzen diren neurri murriztaileak edo, batez ere, hartzen diren unea errore-marjinaren mende daude. Erabaki bakoitza epe labur batean aztertzean, beraz, eta a posteriori, irakurketa kritikoa egin daiteke. Nolanahi ere, eta pandemia global batean gaudenez aurretik zientziarentzat ezagunak ez ziren birusaren zenbait portaerarekin, erabaki bakoitzaren berrikuspena haztatu egin behar da joeren eta emaitzen irakurketa globalarekin, epe luzeetan, eta nazioarteko testuinguruan aztertu behar da.

·Aurreko puntuan adierazitakoaren ildotik, dokumentu honen aurreko edizioetan ateratako eta Bizi Berri II Planean eta Bizi Berri III Planean (2. eranskina) argitaratutako ondorio nagusiek baliozkotasunari eusten diote eta ikasgai kritikoak izaten jarraitzen dute.

·Aldi horretan, Bizi Berri III Planak jarduteko esparru eta gida gisa balio izan du, aurreikus daitezkeen egoera zailetan. Kontingentzia horien adibide dira birusaren kezka-aldaera berriak agertzea, alarma-egoeraren amaiera edo txertoen eskuragarritasuna eta horien eraginkortasuna. Hala eta guztiz ere, Bizi Berri III Planaren erreferentzia-panela erabilgarria izan da aldi osoan, erreferentzia egonkorrak eta baliozkoak eskaini dituelako une bakoitzerako prebentzio-neurri egokiak antolatzeko eta modulatzeko.

·Gizartearen erantzuna gehienbat arduratsua izan da. Txertaketa oso hedadura eta eraginkortasun handia lortzen ari da, intzidentziari eta asistentzia-inpaktuari buruzko datuetan eragin nabarmenarekin. Beraz, ondorio gisa planteatu behar da gutxieneko transmisioaren eta gehieneko txertaketaren estrategiak ondo funtzionatu duela aldi horretan.

·Egindakoaren emaitzak eta bilakaera positiboa azpimarratzeak garrantzi handia du, gizarteak jakin behar baitu bere ahaleginak eta neurriak eta murrizketak betetzeak emaitzak ematen dituela. Horrek esan nahi du hartzen diren neurriek, jarraitzen den estrategiaren multzoak eta konpromiso komunitarioak zuzeneko ondorio positiboak dituztela, ez bakarrik kurba lautzea, baizik eta, bereziki, ospitaleen eta ZIUen saturazioa saihesten duelako.

## Bizi Berri IV Planaren erreferentzia nagusiak

Bizi Berri IV Plana eta, bereziki, haren agertokien, adierazleen eta neurrien panela egungo testuinguruaren analisia zehazten duten erreferentzia batzuen arabera taxutzen da.

**•Datozen lau hilabeteetarako eboluzioaren hipotesia**

Litekeena da datozen hilabeteetan agerraldiak gertatzea txertoa hartu ez duten biztanleen artean. Bestalde, ezin da baztertu atzerapauso gehiago izatea, birus-aldaera infektiboagoak agertu eta hedatuko direlako. Nolanahi ere, eta baldin eta ez bada agertzen birulentzia handiagoko edo txertoekiko sentikortasun txikiagoko aldaerarik, lan-hipotesitzat jo behar da kutsatzeak handitzeak ez duela egonkortuko –nahiz eta puntualki gerta litekeen– 300 baino tasa handiagoa 100.000 biztanleko, eta ez duela gaindituko, halaber, ospitaleko okupazioaren eta ZIU oheen 2. agertokia.

**•COVID-19 pandemia kudeatzeko Neurrien Legea**

Ekainaren 24an, Eusko Legebiltzarrak COVID-19 pandemia kudeatzeko Neurrien Legea onartu zuen. Arau hori da Bizi Berri IV Plana nahitaez kokatu behar den esparrua. 7. artikuluak alerta-maila desberdinak dituzten hiru fase posible definitzen ditu.

Aurreko puntuan datozen lau hilabeteetarako planteatutako lan-hipotesia –100.000 biztanlekiko 300 baino gutxiagoko intzidentzia– bat dator Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen legeak 1. estadiorako aurreikusten dituen aurreikuspenekin.

*a) 1. estadioa. Beheranzko egonkortze-joera 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasetan, 100.000 biztanleko kasu 1 baino gehiago eta 300 baino gutxiago. 1. agertokian egoera hauek bereiz daitezke:*

*1. maila. Transmisio baxua: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasa gehienez 60 kasukoa 100.000 biztanleko.*

*2. maila. Transmisio ertaina: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasak 60 kasutik gora eta 150 kasu bitartekoak 100.000 biztanleko.*

*3. maila. Transmisio tentsionatu egonkortua: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasak 100.000 biztanleko 150 kasutik gora eta 300 kasu bitartekoak, beherantz egonkortuak.*

Legearen 7. artikuluak berak zehazten ditu kontuan hartu beharreko adierazle epidemiologikoak. Zehazki, ezartzen da estadioa eta alerta-maila egoera epidemiologikoaren arabera zehaztuko direla, 14 egunean metatutako intzidentzia-tasa arabera objektibatutako egoera epidemiologikoaren arabera. Legean alerta-maila bakoitzerako aurreikusitako neurriei dagokienez, gehitu da, gainera, neurri osagarriak edo espezifikoak hartu ahal izango direla honako adierazle epidemiologiko hauen arabera:

-Goranzko joera, beheranzkoa, edo egonkorra.

-Oinarrizko ugalkortasun-indizea ($R_t$, $R_0$ izenez ere ezagutzen dena).

-Tasen Arrazoia.

-Zainketa intentsiboetako unitateen (ZIU) asistentzia-presioa eta oheen okupazioa.

-Adin-tarteen araberako eragina, 65 urtetik gorakoei arreta berezia eskainiz.

-Kasuen trazabilitatea.

**•Bizi Berri panel berria: agertokiak eta adierazleak**

Esparru horretan eta COVID-19 pandemia kudeatzeko Neurrien Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Bizi Berri IV Planaren Erreferentzia Panela hiru agertokitan egituratzen da:

| Agertokia | Erreferentzia |
|---|---|
| 1. maila. Transmisio Baxua | ·ITM 14 egunetara: 0-60/100.000 bizt. |
| 2. maila. Transmisio Neurrizkoa | ·ITM 14 egunetara: 60-150/100.000 bizt. |
| 3. maila. Transmisio Tentsionatua | ·ITM 14 egunetara: 150-300/100.000 bizt. |

Adierazleei dagokienez, Bizi Berri IV Planak COVID-19 pandemia kudeatzeko Neurrien Legean ezarritako jarraipen epidemiologikoko adierazle guztiak baloratuko ditu. Adierazle horien irakurketa osatzeko, egungo testuinguruan balio kualitatiboa duten adierazleen balorazio espezifikoa egingo da: txertaketaren hedapena biztanlerian eta SARS-CoV-2ren kezka-aldaera berrien eragina.

**•Neurrien aplikazio-eremuak sinplifikatzea**

Bizi Berri III Planak 22 sektore-eremu ezarri zituen prebentzio-neurriak aplikatzeko, baina Bizi Berri IV Planak 10era murriztu ditu. Egitura sinplifikatu egin daiteke une honetan, metatutako esperientziagatik eta intzidentzia-tasa txikiekin errazagoa delako neurrien zeharkako aplikazio bat egitea irizpide orokorretan oinarrituta.

Larritasun murriztaile handiagoko neurriak aplikatu behar direnean, kasuistika askoz ere handiagoa da, eta are beharrezkoagoa neurriak aplikatu behar diren eremuak zehaztean. Hala ere, egungo testuinguruak aukera ematen du aplikatu beharreko neurriak modu sinplifikatuan eta zeharkakoagoan egokitzeko.

**•Helburu berriak**

Bizi Berri IV Planak honako helburu espezifiko hauek ditu:

·Bitarteko helburua. 14 egunetan Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 60tik behera kokatzea eta ZIU okupazioari 1. agertokiko zifra baxuenetan eustea.

·Azken helburua. Birusaren tokiko transmisiorik gabeko egoera batera hurbiltzea da anbizioaren helburua.

·Kudeaketa-helburua. Bizi Berri Planaren erreferentzia-panela eguneratzea, datozen lau hilabeteetan pandemiaren bilakaerari arin erantzuteko aukera emango duten tresnak eskainiz.

# Sarrera

Bizi Berri Plana sendotu egin da Euskadin, COVID-19ren aurrean neurri komunitarioak hartzeko eta gizarte-jarduerak eta -ohiturak arautzeko erreferentzia-esparru gisa. Pandemiari aurre egiteko 15 hilabete baino gehiagoko esperientziaren ondoren, tresna honek agerian utzi du asmatu egin dela eta beharrezkoa dela aldizka eguneratzeko eta egoera berrietara egokitzeko irizpidea aldatzen ari den errealitate baten aurrean. Epidemiaren igoera eta jaitsiera fase berri bakoitza desberdina izan da. Olatu edo bolada bakoitzean (punta pandemikoa) erantzun desberdinak eta agerpen berrietara egokituak behar izan dira.

**Bizi Berri I**

Lehenengo Bizi Berri Plana 2020ko maiatzaren 4koa da, eta haren helburu nagusia izan zen martxoaren 14az geroztik, Alarmako Estatuaren Dekretuarekin, indarrean egon zen etxeko konfinamendu-fasearen amaiera antolatzeko aurreikuspenak ezartzea. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzaren gida izan zen, Espainiako Gobernuarekin, euskal erakundeekin eta eragindako gizarte-erakundeekin elkarrizketa eta akordioak garatzeko. Aurreikuspenez eta koordinazioz jarduteko aukera eman zuen, eta gizarte- eta ekonomia -jarduerak berreskuratzeko prozesu mailakatua gauzatzeko aginduak idazteko oinarri gisa balio izan zuen.

Irailetik aurrera eta Legealdi berria hasi ondoren, Eusko Legebiltzar berriarekin eta Eusko Jaurlaritza berriarekin, LABI (Euskadiko Babes Zibileko Plana) bi eremutan egituratu zen: Aholku Batzordea, Euskadiko ordezkaritza instituzional nagusiek osatua; eta Batzorde Zientifiko-Teknikoa, Aholku Batzorde horri laguntza ematen diona.

**Bizi Berri II**

2020ko urriaren 2an aurkeztu zen LABIren Aholku Batzordean Bizi Berri II Plana, Euskadin eta gure inguru osoan pandemiaren bilakaera zalantzagarriari eta gorakadari aurre egiteko erabakiak hartzeko erreferentzia-esparru gisa. Bigarren olatu pandemikoaren esparru horretan, Bizi Berri II kontingentzia-plan gisa eratu zen, bilakaera pandemikoa neurtzeko adierazleekin, bost arrisku-agertokirekin erantzun komunitarioa egituratzeko eta maila bakoitzean modulazio-neurrien aurreikuspenarekin.

Bizi Berri I eta IIren ebaluazioak nabarmendu zuen bi tresna horiek oinarrizko bi helburu lortzen lagundu zutela: alde batetik, honakoak saihestea: konfinamendura itzultzea, eskolak ixtea, osasun-kolapsoa eta koma ekonomikoa; eta, bestetik, erreferentzia-panel bat finkatzea, euskal erakundeei aukera eman diena pandemiaren bilakaerara eta haren gorabeheretara egokitzeko erantzunak, eta, aldi berean, esparru erabilgarria, eskuragarria eta pedagogikoa izan da gizarteari eta komunikabideei informazioa emateko.

Bizi Berri Planaren lan-metodologiak honako hau dio hitzez hitz: “LABIren Batzorde Teknikoak Bizi Berri Plana eguneratzeko proposamen bat prestatuko du lau hilean behin –eta beharrezkotzat jotzen den guztietan, pandemiaren bilakaeraren eta kontingentzien edo ezustekoen arabera. Horrela, hurrengo eguneratzeak 2021eko otsailean, ekainean eta urrian prestatu beharko lirateke.

**Bizi Berri III**

Urritik aurrera kurba epidemikoaren bi igoera- eta jaitsiera-fase igaro ondoren, hirugarren Bizi Berri Plana otsailaren 12an aurkeztu zen LABIren Aholku Batzordean. Eguneratze hori, aurrekoa bezala, Batzorde Zientifiko-Teknikoan prestatuta, bi lan-hipotesi eta bost agertoki aurreikusi zituen otsaila-ekaina aldirako kutsatzeak hedatzearen edo arintzearen aurrean.

Hamabi hilabeteko esperientzian eta txertoak jartzearen ondorioz sortutako egoera berrietan oinarrituta, doikuntza batzuk egin ziren aurreko planaren aurreikuspenetan. Etapa berrian pandemiaren jarraipena egiteko adierazleen sorta zabaldu zuen, eta adierazleen atalaseak arrisku-maila bakoitzerako modulatu zituen, zorrotzagoak izan zitezen. Neurrien aurreikuspena ere egokitu zen, esparru juridikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenek eskaintzen dituzten aukeren, eskumenen eta mugen esparrua kontuan hartuta.

Bizi Berri III Plana kudeaketa-esparru egonkor bat izateko tresna izan zen, zailtasun eta gertaera aldakorrez betetako aldi batean. Otsailaren 2an amaitu zen 2020. urtearen amaieran hasitako goranzko zikloa. Jaitsiera-fase berri hori martxoaren 10era arte luzatu zen, eta berriz ere beste igoera bati egin beharko genioke aurre, apirilaren 26ra arte. 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasarik handiena egun horretan 546koa izan zen 100.000 biztanleko. Egun horretatik aurrera, tasa horrek beheranzko joera izan zuen. Dokumentu hau ixteko unean, ekainaren 30ean, 122an kokatzen da (maiatzaren 26an

103ko minimora iritsi ondoren). ZIUren okupazioa maiatzaren 2an 195 ohekoa izan zen; ekainaren amaieran, 32koa da. Bestalde, 1.279.848 pertsonak (euskal gizartearen %58,0 eta 16 urtetik gorakoen %67,7) txertoaren dosi bat jaso dute dagoeneko. 925.000 baino gehiagok (928.874) jaso dute jarraibide osoa, hau da, euskal gizartearen %42,1ek eta 16 urtetik gorakoen %49,1ek.

**Bizi Berri IV**

Bizi Berri IV Plana Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko uztailaren 6an, eta hurrengo egunean LABIren Aholku Batzordean aurkeztu zen. Asmoa zen pandemiaren kudeaketarako erreferentzia-panel bat eskaintzea 2021eko uztaila-urria aldirako. Bizi Berri II eta III Planen ezaugarri eta perspektiba desberdinak dituen aldia.

Bizi Berri III Planaren aldiaren amaieran, eboluzio epidemikoari buruzko datuak, bai birusaren intzidentzian, bai asistentziaren eraginean, txikienak dira 2020ko udaz geroztik. Txertaketa-prozesuak hedadura handia zuen, eta eraginkortasuna berresten zuen. Maiatzaren 9tik, Alarmako Estatua indargabetuta zegoen. Azkenik, ekainaren 24an, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Ondorioz, Bizi Berri IV Planak arau berri honek taxutzen duen esparruan kokatu behar ditu agertokien eta neurrien aurreikuspena.

Testuinguru desberdin horretan, Bizi Berri Plan honen ikuspegia ere desberdina da ezinbestean. Esparru pandemikoan egonkortasun-egoera bat lortzeko helburuarekin proiektatzen da, jarduera soziala eta ekonomikoa berreskuratzea ahalbidetuko duena. Helburua da gizarte-jarduera ahalik eta gehien berreskuratzea eta segurtasun indibidual eta kolektiboko prebentzio -neurriei eta jarrerei eustea.

Ildo horretan, beste panel bat aurkezten du, hiru agertokitara murriztuta, eta jardun-eremuen eta aplikatu beharreko neurrien egitura sinplifikatuagoa eta zeharkakoagoa da aurreko Bizi Berri Planaren panelarekin alderatuta. Adierazleak zabaldu egiten dira, eta ñabardura batzuekin osatzen dira konbinazioaren interpretazioan.

Aurreko edizioetan bezala, Bizi Berri bat dator nazioarteko erakundeen gomendioekin eta jarraibideekin, hala nola OMEren gomendioekin eta jarraibideekin Nazio Batuen esparruan, edo European CDCrenak Europako esparruan, eta eskura dauden ebidentzia eta jardunbide onenetan oinarrituta.

**Jarraitzen duten premisak eta irizpideak**

Bizi Berri II Planak eta Bizi Berri III Planak premisa etiko eta irizpide gidari batzuk definitu zituzten, eta, laugarren edizio honetan errepikatzen ez badira ere, oso-osorik onartzen dira. Estrategia egoeraren araberako egoerara egokitzen da; baina Bizi Berri Planaren oinarriak bere horretan geratzen dira.

Hiru hitzek sintetizatu dute COVID-19ri aurre egiteko komunitate-erantzunaren estrategia, eta Bizi Berri II eta III Planean jaso dira: ZORROZTASUNA, ERANTZUKIDETASUNA eta ENPATIA. Une honetan, Bizi Berri IV Planak bere estrategiaren aurrealdean kokatzen ditu plan honek proposatu eta sustatu nahi duenaren zentzua laburbiltzen duten bi kontzeptu: ITXAROPENA eta ZUHURTZIA.

COVID-19ren aurkako borrokan 15 hilabete baino gehiago eman ondoren, ahalegin eta estutasun handien ondoren, eta neke pandemiko pilatuarekin, itxaropenerako arrazoiak ditugu. Hala ere, ikuspegi horren pozak ez gaitu zuhurtziaren, adimen prebentiboaren zentzu arduratsua galtzera eraman behar. Gure ingurunean egoerak hobera egin badu ere, pandemia-fasean jarraitzen dugu. Egoera txarrenean dauden eskualdeek laguntza eta elkartasun handiagoa behar dute txertaketa zabaltzeko. Kezka-aldaera berriak agertzeko arriskua ez da desagertu. Erne egon behar dugu. Itxaropen zuhurra.

“Bizi Berri”k ere gogoeta pedagogikoa egiteko eskatu du. Birusarekin bizitzen jarraituko dugu. COVID-19ren bizipena, beste gauza askorez gain, gure antzinako normaltasuneko bizi-ohituren iraunkortasunari eta mugei buruzko interpelazio bat da. COVID-19ren Euskadiko pandemiaren bilakaerari Erkidegoak erantzuteko planari “Bizi Berri” deitzen zaio, hain zuzen ere arrazoi horrengatik.

Haren pedagogiak ez du “aurreko normaltasuna berreskuratzeko” itxaropena aipatzen, baizik eta eguneroko bizitza bizitzeko modu berri bat ehuntzeko beharra, birus horrekin eta beste batzuekin bizitzean iraunkorra eta, aldi berean, bizitzarekin, planetarekin, osasunarekin, ekonomiarekin eta enpleguarekin jasangarria izango dena. Giza garapen osasungarri eta iraunkorra lortzen lagunduko duen bizimodu berri bat. Era berean, ikasitako zenbait irakaspen indartzearen alde egiten du, horiek lagundu baitigute patologia honek eta beste batzuek inpaktu txikiagoa izan dezaten.

Bizi Berri IV Plana hiru zatitan egituratzen da. Lehenengoak Euskadiko COVID aldiaren memoria kronologikoa eskaintzen du. Bigarrenak Bizi Berri lauga-

rren planaren eguneraketaren oinarri diren erreferentzia nagusiak zehazten ditu. Azkenik, hirugarren zatian, agertokien, adierazleen eta neurrien panel berria aurkezten da. 1. eranskinean LABIren Aholku Batzordearen bileren zerrenda bat dago, eta bilera horien datak, intzidentzia-tasa eta hartutako erabakiak zehazten dira. 2. eranskinak Bizi Berri Planaren aurreko edizioeta-ko balantzea jasotzen du.

## Bigarren zatia

# Bizi Berri IV Planaren erreferentzia nagusiak

## •Lehenengo erreferentzia: hurrengo lau hilabeteetarako bilakaeraren hipotesia

Ekianean, Intzidentzia-tasa metatua 14 egunetan 100.000 biztanleko 100 inguruko balioetara murrizteak, ospitaleen eta ZIUko oheen okupazioak 1. agertokira eraman duen eragin asistentzialak, eta jada egindako eta aurreikusitako txertaketak aukera ematen dute Euskadin pandemiak izan dezakeen bilakaerari buruzko hipotesi bat ezartzeko.

Datozen hilabeteetan, txertoa hartu ez duen biztanleriaren artean agerraldiak gertatuko direla aurreikusten da. Bestalde, ezin da baztertu atzerakada gehiago izatea, birus-aldaera berriak agertu eta zabaldu direlako.

Nolanahi ere, eta baldin eta ez bada agertzen birulentzia handiagoko edo txertoekiko sentikortasun txikiagoko aldaerarik, lan-hipotesitzat jo behar da kutsatzeak handitzeak ez duela egonkortuko –nahiz eta puntualki gerta litekeen– 300 baino tasa handiagoa 100.000 biztanleko, eta ez duela gaindituko, halaber, ospitaleko okupazioaren eta ZIU oheen 2. agertokia. Lan-hipotesia hori izanik, lehenengo helburua da intzidentzia-tasa metatua 60tik beherakoa izatea.

## •Bigarren erreferentzia: COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legean aurreikusitako 1. estadioa

Ekainaren 24an, Eusko Legebiltzarrak COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legea onartu zuen. Arau hori da Bizi Berri IV Plana nahitaez kokatu behar den esparrua. 7. artikuluak hainbat agertoki definitzen ditu, eta hiru fase posible ezartzen ditu, alerta-maila desberdinekin. Zehazki, honako hau zehaztu du:

**7. artikulua**— Alerta-mailak ezartzea

*1. Lege honetan aurreikusitako baldintzetan, COVID-19aren pandemiari eusteko hainbat neu-rri hartzeko, honako agertoki eta alerta-maila hauek ezartzen dira:*

> *a) 1. estadioa. Beheranzko egonkortze-joera 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasetan, 100.000 biztanleko kasu 1 baino gehiago eta 300 baino gutxiago. 1. agertokian egoera hauek bereiz daitezke:*

*1. maila. Transmisio baxua: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasa gehienez 60 kasukoa 100.000 biztanleko.*

*2. maila. Transmisio ertaina: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasak 60 kasutik gora eta 150 kasu bitartekoak 100.000 biztanleko.*

*3. maila. Transmisio tentsionatu egonkortua: 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasak 100.000 biztanleko 150 kasutik gora eta 300 kasu bitartekoak, beherantz egonkortuak.*

*b) 2. estadioa. Transmisio tentsionatuko egoera, goranzko joera duena edo beheranzko joera egonkortua duena, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuak 300 kasutik gora eta 400 kasu bitartekoak 100.000 biztanleko. 2. agertokian, egoera hauek bereiz daitezke:*

*3. maila. Goranzko transmisio tentsionatua: 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuak 100.000 biztanleko 150 kasutik gora eta 300 kasu bitartekoak, goranzko joera dutela.*

*4. maila. Transmisio altua: 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuak 300 kasutik gora eta 500 kasu bitartekoak 100.000 biztanleko.*

*c) 3. estadioa. Oso transmisio altuko egoera, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuak 500 kasutik gora 100.000 biztanleko. 3. agertokian, egoera hau bakarrik gerta daiteke:*

*5. maila. Transmisio oso altua: 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuak 500 kasutik gora 100.000 biztanleko.*

Horrenbestez, ondoriozta daiteke aurreko puntuan datozen lau hilabeteetarako planteatutako lan-hipotesia –100.000 biztanleko 300etik beherako intzidentzia– bat datorrela Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen legeak 1. faserako aurreikusten dituen aurreikuspenekin.

## •Hirugarren erreferentzia: Legean aurreikusitako adierazle epidemiologikoak

Legearen 7. artikuluak berak zehazten ditu kontuan hartu beharreko adierazle epidemiologikoak. Zehazki, ezartzen da estadioa eta alerta-maila egoera epidemiologikoaren arabera zehaztuko direla, 14 egunean metatutako intzidentzia-tasa arabera objektibatutako egoera epidemiologikoaren arabera.

Legean alerta-maila bakoitzerako aurreikusitako neurriei dagokienez, gehitu da, gainera, neurri osagarriak edo espezifikoak hartu ahal izango direla honako adierazle epidemiologiko hauen arabera:

-Goranzko joera, beheranzkoa, edo egonkorra.

-Oinarrizko ugalkortasun-indizea ($R_t$, $R_0$ izenez ere ezagutzen dena).

-Tasen Arrazoia.

-Zainketa intentsiboetako unitateen (ZIU) asistentzia-presioa eta oheen okupazioa.

-Adin-tarteen araberako eragina, 65 urtetik gorakoei arreta berezia eskainiz.

-Kasuen trazabilitatea.

## •Laugarren erreferentzia: Bizi Berri panel berria

Bizi Berri IV Plana uztailetik urrira bitarteko aldirako proiektatu da, eta lan-hipotesi gisa 300/100.000 baino handiagoa izango ez den intzidentzia-egoera metatua hartuko da, ospitale-okupazioaren eta 5 agertoki posibleko ZIUko oheen 2. agertokia gaindituko ez duena. Esparru horretan, eta COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera, Bizi Berri IV Planaren erreferentzia-panela hiru agertokitan egituratzen da:

| Agertokia | Erreferentzia |
|---|---|
| 1. maila. Transmisio Baxua | ·ITM 14 egunetara: 0-60/100.000 bizt. |
| 2. maila. Transmisio Neurrizkoa | ·ITM 14 egunetara: 60-150/100.000 bizt. |
| 3. maila. Transmisio Tentsionatua | ·ITM 14 egunetara: 150-300/100.000 bizt. |

## •Bosgarren erreferentzia: adierazleen konbinazio berria

Bizi Berri IV Planak COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legean ezarritako jarraipen epidemiologikoko adierazle guztiak baloratuko ditu. Adierazle horien irakurketa egungo testuinguruan balio erantsi kualitatiboa duten hiru adierazleren balorazio espezifikoarekin osatuko da: ZIUko oheen okupazioa, txertaketa herritarren artean hedatzea eta SARS-CoV-2ren kezka-aldagai berrien intzidentzia.

## •Adierazle nagusiak

| Adierazlea | Esanahia eta oharrak |
|---|---|
| -14 eguneko intzidentzia tasa metatua | ·Berrikusi bi asteko aldian populazio batean agertzen diren kasu berrien kopurua. |
| -ZIUko oheen okupazioa | ·Deskribatu egoeraren larritasuna asistentzia-eraginean. ZIUko Kontingentzia Planarekin lotuta aztertuko da. |
| -Txertatuta dauden biztanleak, adin-taldeen arabera | ·Txertaketaren hedapena baloratzea ahalbidetzen du, baita immunizazioak duen irismena ere, arrisku handiagoei edo txikiagoei dagokienez, adinaren arabera. |
| -Kezka-aldagai berriak (VOC) eta aurretiazko immunitatetik duten ihes-maila | ·Birus nagusiaren tipologia astero zaintzeko aukera ematen du. Mutazio berrien edo erantzun immunearen kezka-aldaeren ihes-maila txikia, ertaina edo handia balioestea dakar, bai eta horien larritasuna eta asistentzia-eragina balioestea ere. |

## •Adierazle osagarriak

| Adierazlea | Esanahia eta oharrak |
|---|---|
| -Erreproduktibitate-indizea ($R_t$ – $R_0$* izenez ezagutzen dena) | ·Gaixotasunaren kutsakortasunaren berri ematen du, denbora-tarte jakin batzuetan. |
| -Tasen arrazoia | ·$R_0$ren osagarria, joeraren neurri gisa, denbora-tarte bat aurreko denboraldiarekin alderatzen du. |
| -Eragina adin-tarteen arabera | ·Intzidentziaren azterketa, adinaren arabera, 65 urtetik gorakoei arreta berezia eskainiz. |
| -Kasuen trazabilitatea | ·Diagnostikatutako kasuetatik abiatuta identifikatutako kontaktu estuen artean hautemandako positiboen ehunekoa. |
| -Goranzko joera, beheranzkoa, edo egonkorra | ·Hainbat adierazleren bilakaeratik abiatuta ikusitako joera baloratzea. |
| -7 eguneko Intzidentzia tasaren bilakaera. | ·Intzidentzia-tasa txikiekin, adierazle horrek bilakaeraren aurreikuspena osatzen du. |

*$R_0$ birusaren ugalketa-tasari dagokio, oinarrizko transmisio-baldintzetan eta erantzun immunitariorik ez dagoenean. $R_0$ hori unean-unean aldatzen joango da $R_t$ (t denbora), mar-

txan jartzen diren neurrien arabera populazioaren immunitatearekin, eta, baita infektiboagoa egingo duten birusaren mutazioen arabera ere.

Positibotasun-tasa ere kontuan hartuko da adierazle osagarri gisa. Egindako test guztieki-ko kasu positiboen ehunekoa ezartzen du. Dena den, alderaketa egiteko, kontuan hartu behar da egiten den proba-kopuruaren araberakoa dela, eta, beraz, herrialde edo eskualde bakoitzaren diagnostiko-estrategiaren araberakoa. Zenbat eta test gehiago egin, adibidez, biztanleriaren «screening» masiboetan, orduan eta txikiagoa izango da positibotasun-tasa. Oso balio erlatiboa du eta, beraz, ez da oso erabilgarria joerak baloratzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko. Beharrezkotzat jotzen da hura beste erreferentzia bat bezala sartzea, Estatuko eta Europako monitorizazio-paneletan sartuta baitago.

## •Seigarren erreferentzia: neurriak aplikatu behar diren eremuen sinplifikazioa, zeharkako irizpideetan oinarrituta

Bizi Berri III Planak 22 sektore-eremu ezarri zituen prebentzio-neurriak aplikatzeko, baina Bizi Berri IV Planak 10era murriztu ditu. Egitura sinplifikatu egin daiteke une honetan, metatutako esperientziagatik eta intzidentzia-tasa txikiekin errazagoa delako neurrien zeharkako aplikazio bat egitea irizpide orokorretan oinarrituta.

Larritasun murriztaile handiagoko neurriak aplikatu behar direnean, kasuistika askoz ere handiagoa da, eta are beharrezkoagoa neurriak aplikatu behar diren eremuak zehaztean. Hala ere, egungo testuinguruak aukera ematen du aplikatu beharreko neurriak modu sinplifikatuan eta zeharkakoagoan egokitzeko.

## •Zazpigarren erreferentzia: helburu berriak

*Osasun publikoa indartzea, osasun-laguntza osoa, hezkuntza (alderdi guztietan) eta zerbitzu publikoak bermatzea, ekonomia eta enplegua berreskuratzea, gure gizartea emozionalki berreraikitzea, eta elkartasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea. Pandemiaren bilakaeraren aurrean birusarekin modu jasangarrian bizitzeko aukera emango duen jarduera-esparru bat finkatzea. Gizarte-pedagogia indartzea, emaitzen neurketarekin eta errefortzu positiboarekin erantzun komunitarioaren konpromisoa pertsonalizatzeko beharrari dagokionez. Gure gizarteak emozioak suspertzeko eta gizartea, ekonomia eta enplegua berreraikitzeko duen erresilientzia-gaitasuna sustatzen laguntzea.*

Horiek dira pandemiak ekarri duen krisi globalari erantzuteko Eusko Jaurlaritzak dituen helburu orokorrak. Bizi Berri IV Plana helburu orokorren esparru horretan kokatzen da. Halaber, helburu espezifiko batzuei erantzuten die:

·**Bitarteko helburua**. 14 egunetan Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 60tik behera kokatzea eta ZIU okupazioari 1. agertokiko zifra baxuenetan eustea.

·**Azken helburua**. Birusaren tokiko transmisiorik gabeko egoera batera hurbiltzea da anbizioaren helburua.

·**Kudeaketa-helburua**. Bizi Berri Planaren erreferentzia-panela egunera-tzea, datozen lau hilabeteetan pandemiaren bilakaerari arin erantzuteko aukera emango duten tresnak eskainiz.

## Hirugarren zatia

# Bizi Berri IV Planaren agertokien, adierazleen eta neurrien panela

# I. Metodologia

Hauek dira Bizi Berri IV Planaren proiekzio praktikoa txertatzen den lan-metodologia zehazten duten jarraibide orokorrak:

·Plan hori lan-esparru bat da, une bakoitzeko egoera deskribatu eta baloratzeko, eta Erkidegoaren erantzunean bildutako neurriak aztertu eta aurreikusteko. LABIri (Arriskuari aurre egiteko bidea, Euskadiko Babes Zibileko Plana) eta haren Aholku Batzordeari lotuta dago.

·2020ko urriaren 2ko bileratik aurrera, LABI bi eremutan egituratu zen: Aholku Batzordea, Lehendakaria buru duela eta Euskadiko ordezkaritza instituzional nagusiek osatuta; eta Batzorde Zientifiko-Teknikoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak koordinatuta, Aholku Batzordeari laguntza emateko.

·Bizi Berri IV Plana pandemiaren bilakaeraren deskribapena eta jarraipena egiteko lan-tresna da, baita erantzun komunitarioetan eragina izan dezaketen neurri eta xedapen berriak prestatzeko ere.

·Beharrezkotzat jotzen den guztietan, Batzorde Zientifiko-Teknikoak egoeraren balorazio bat prestatuko du –eta Lehendakariaren esku jarriko du, LABIko Aholku Batzordeko presidente gisa–, Euskadiren egoera deskribatzeko eta egoera horrek intereseko ingurunearekiko duen joera zehazteko.

·Balorazio hori, lehenik eta behin, Euskadi osoaren egoerara proiektatuko da, baina auzo, herri, eskualde, lurralde historiko edo jarduera sektorialei eragiten dieten balorazio espezifikoak eskaini ahal izango ditu, geografikoki edo soziodemografikoki mugatutako datuen hazkunde diferentzialak hala aholkatzen badu.

·Era berean, Batzorde honek analisi-dokumentu monografikoak edo jarduera-proposamenak prestatu ahal izango ditu berariazko jarduera-sektoreei buruz, hezkuntzaren, kulturaren, kirolaren, lanaren edo beste edozein arlotan.

·Azkenik, LABIko Batzorde Zientifiko-Teknikoak Bizi Berri Plana eguneratzeko proposamen bat prestatuko du lau hilean behin –pandemiaren bilakaeraren eta kontingentzien edo ezustekoen arabera beharrezkotzat jotzen den guztietan. Ondorioz, hurrengo eguneratzea 2021eko urrirako aurreikusten da.

# II. Agertokien eta adierazleen panel hori interpretatzeko irizpideak

**a.** Panel honetako agertokien definizioa bat dator COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legean aurreikusitakoarekin. Agertoki bakoitzari dagozkion neurriek gutxi gorabeherako balioa dute. Ezagutza eta ebidentzia berrien edo ustekabeko faktoreen arabera egokitu daitezke. LABIko Aholku Batzordeko Batzorde Zientifiko-Teknikoak aldian behin baloratuko du neurri horien edukia, adierazleen bilakaeraren arabera.

**b.** 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuaren erreferentziazko adierazleak Euskadi, lurralde bat edo herri bat zer egoeratan dagoen definitzen du. Informazio goiztiarraren adierazle gisa ere ulertu behar da, gizarte osoarentzat eskuragarria. Informazio horrek lotura zuzena du herritarrek pandemiaren fase bakoitzean eskatzen duten gizarte-konpromisoaren maila ulertzearekin. Horren interpretazioa, hasiera batean, beste hiru adierazle nagusirekin osatzen da: ZIUaren okupazioa, txertoa hartu duen biztanleria eta SARS-CoV-2aren kezka-aldaera berrien intzidentzia.

**c.** Lehen balorazioko adierazle horiekin batera adierazle osagarriak ere badaude, hala nola ugalkortasun-indizea ($R_t$), tasen arrazoia, adin-tarteen araberako eragina, trazabilitatea eta goranzko joera, beheranzkoa edo egonkorra.

**d.** Adierazle osagarri horiek hartu beharreko prebentzio-neurri edo neurri murriztaile bakoitza doitzeko, zehazteko edo modulatzeko balio dute. LABIren Batzorde Zientifiko Teknikoak unean-unean aztertuko dituen aldagaien testuinguru zabalago baten barruan baloratu behar dira, nazioarteko ebidentzia eta gomendio onenei jarraiki, eta LABIren Aholku Batzordeari helaraziko dizkio.

**e.** Agertoki bakoitzak eta ezarritako irizpideek une bakoitzean hartu beharreko neurriak orientatzeko balio dute. Hala ere, agertokiak eta hartu beharreko neurriak ez daude automatikoki eta mekanikoki lotuta. Neurri horiei buruzko erabakiak hartzeko sistemak irizpide anitzekoa izan beharko du, eta, adierazi den bezala, faktore, aldagai eta adierazle ugari hartu beharko ditu kontuan.

**f.** Une eta egoera bakoitzean neurriak aurreratzen laguntzeko, eta agertoki bakoitzaren barruan, hiru joera-egoera hauek neurtu ahal izango dira: “gorantz”, “egonkor” eta “beherantz”, transmisioaren joeraren arabera, erreproduktibitate-indizeak (Rt) neurtuta, eta intzidentzia-tasen arrazoiaren arabera. Balorazio hori hainbat adierazleren aldakuntza batera aztertzearen emaitza izango da, eta, gainera, epidemiak aldameneko Autonomia Erkidegoetan eta beste herrialde batzuetan izan duen bilakaera hartuko da kontuan.

**g.** Agertokien eta adierazleen erreferentzia-esparru hori Euskadi osoaren eremuan aplikatuko da, bai eta lurraldez lurralde edo noizean behin mugatutako eremuetan ere, sektoreko edo jarduera soziodemografikoko motaren batera mugatuta.

**h.** Jarduera-sektoreetarako biltzen diren prebentziozko neurri edo neurri murriztaile espezifikoak orientagarriak dira, eta egokitu edo aldatu ahal izango dira, dagokion araugintza-tresna edo gidalerroaren bidez, une bakoitzean gerta daitezkeen faktoreen eta ezustekoen azterketaren arabera.

**i.** Bizi Berri IV Planaren erreferentzia-paneleko aurreikuspen guztiek eskatzen dute gizarteak modu arduratsuan betetzea prebentzio komunitarioko neurri orokorrak: eskuen garbitasuna, pertsonen arteko distantzia, maskararen erabilera egokia, ahal den neurrian gizarte-elkarreragineko zirkuluei eustea (burbuilak) eta barneko espazioen etengabeko aireztapena.

**j.** Erreferentzia-panel hori erakundeekiko komunikazio-konpromiso eguneratuaren, biziaren eta etengabearen tresna osagarri gisa ulertu behar da, herritarrei itxaropenaren eta zuhurtziaren estrategiari behar bezala erantzuten lagunduko dieten informazioa eta mezuak agertoki bakoitzera egokituz. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari dagokio, Batzorde Zientifiko-Teknikoa koordinatzeko organoa den aldetik, Bizi Berri Planaren hedapena kudeatzea ahalik eta zabalkunde handienarekin.

# III. Bizi Berri IV Planaren erreferentzia-panela I. estadiorako (*)

| Egoerak | 1. maila<br>Transmisio Baxua | 2 . maila<br>Transmisio Neurrizkoa | 3 . maila<br>Transmisio Tentsionatua |
|---|---|---|---|
| **Erreferentziazko adierazleak** | ·Intzidentzia tasa 14 egunetan: 0-60<br>·ZIUko okupazioa 1. agertokian<br>·Txertatutako biztanleria, adin-taldeen eta talde-immunitatera hurbiltzearen arabera<br>·Aldaera berriak (VOC) eta aurretiazko immunitatearen ihes-maila | ·Intzidentzia tasa 14 egunetan: 60-150<br>·ZIUko okupazioa 1. eta 2. agertokian<br>·Txertatutako biztanleria, adin-taldeen eta talde-immunitatera hurbiltzearen arabera<br>·Aldaera berriak (VOC) eta aurretiazko immunitatearen ihes-maila | ·Intzidentzia tasa 14 egunetan: 150-300<br>·ZIUko okupazioa 2. agertokian<br>·Txertatutako biztanleria, adin-taldeen eta talde-immunitatera hurbiltzearen arabera<br>·Aldaera berriak (VOC) eta aurretiazko immunitatearen ihes-maila |
| **Balioespen-adierazle osagarriak** | ·$R_0$ ugalkortasun-indizea.<br>·Tasak.<br>·Eragina adin-tarteen arabera, 65 urtetik gorakoei arreta berezia eskainiz.<br>·Trazabilitatea.<br>·Goranzko joera, beheranzko joera edo joera egonkorra.<br>·7 eguneko metatutako Intzidentzia-tasen bilakaera | | |

| Jarduera-eremuak | Neurrien modulazioa<br>1 . maila | <br>2 . maila | <br>3 . maila |
|---|---|---|---|
| **1. Jarduerak eta establezimenduak ixteko gehieneko ordutegia** | ·01:00-03:00etatik 06:00-08:00etara.<br>·Murrizketa desaktibatzea baloratzea. | ·00:00-02:00etatik 06:00-09:00etara. | ·22:00-01:00etatik 06:00-09:00etara. |
| **2. Jarduera sektorialen murrizketak barne-espazioetan** | ·Itxita dauden jardueren irekiera baloratzea.<br>·Barnealdeetako sektore-jardueren funtzionamenduari aplika dakizkiokeen mugak malgutzea. | ·Jardueren itxiera balioestea, interakzio sozial bizia eta etengabea eta pertsonen konkurrentzia handia izanik.<br>·Barnealdeetako jarduera sektorialen funtzionamenduari aplikatu beharreko mugak. | ·Jarduerak ixtea, interakzio sozial bizia eta etengabea eta pertsonen konkurrentzia handia izanik.<br>·Barnealdeetako jarduera sektorialen funtzionamendurako muga gehigarriak baloratzea. |
| **3. Oro har, esparru eta establzimendue-tarako edukiera-mugak** (edukiera espezifikoa dutenak izan ezik) | ·%75 (**)<br>·Edukiera-muga kentzea baloratzea. | ·%60 | ·%50 |
| **4. Gizarte-interakzio handia duten establezimen-duen eta lokalen barneko edukiera-muga espezifikoak** | ·%50-70<br>·Edukiera-muga kentzea baloratzea. | ·%50 | ·%30-40 |

| Jarduera-eremuak | Neurrien modulazioa | | |
|---|---|---|---|
| | **1 . maila** | **2 . maila** | **3 . maila** |
| **5. Gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldietako publikoaren maximoak** | (**) -1.600 pertsona arteko edukiera duten esparruetan: gehienez 800; kanpoan, 1.200.<br>-1.600 eta 5.000 pertsona arteko esparruetan, gehienez 1.000 pertsona; eta 1.400 kanpoan.<br>-5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, gehieneko edukiera %30-50 izango da.<br>-Aire zabaleko ekitaldietan, jarraitu Osasun Publikoko jarraibideei.<br>-Murrizketen modulazioa edo ezabatzea bilakaeraren arabera baloratzea. | (**) -1.600 pertsona arteko edukiera duten esparruetan: gehienez 600; kanpoaldean, 800.<br>-1.600 eta 5.000 pertsona arteko esparruetan, gehienez 800 pertsona; eta 1.200 kanpoan.<br>-5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, gehieneko edukiera %30ekoa izango da.<br>-Aire zabaleko ekitaldietan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak jendearen presentziarako ezarritako jarraibideak betetzea. | -1.600 pertsona arteko edukiera duten esparruetan: 400 gehienez; kanpoaldean, 600 pertsona gehienez.<br>-1.600 eta 5.000 pertsona arteko esparruetan, gehienez 600 pertsona; eta 800 kanpoan.<br>-5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, gehieneko edukiera %20koa izango da.<br>-Aire zabaleko ekitaldietan, jarraitu Osasun Publikoko jarraibideei.<br>-Kirol-ekitaldietan jendea debekatzea baloratzea. |
| **6. Jarduerak egituratzeko mugak, pertsonak taldekatzeko arriskuaren arabera** | ·10 pertsona edo gehiago.<br>·Muga hori ezabatzeko aukera baloratzea. | ·6-10 pertsona. | ·4-6 pertsona. |
| **7. Arautu gabeko jardueretarako mugak: akademiak, ikastaroak, mintegiak, etab.** | ·Pertsonen arteko distantzia 25 pertsonakoa izango da, gehienez ere. | ·Murrizketa gehigarriak baloratzea. | ·Murrizketa gehigarriak baloratzea. |
| **8. Ahots-musika, dantza edo beste kultura-jarduera kolektibo batzuetako jarduerak mugatzea** | ·Nahitaezkoa da prebentzio-protokoloa izatea, Osasun Publikoaren Zuzendaritzak emandako jarraibide orokorrak betetzen direla bermatzeko. | ·Protokoloan ezarritakoez gain, murrizketa gehigarriak baloratzea. | ·Protokoloan ezarritakoez gain, murrizketa gehigarriak baloratzea. |
| **9. Kirol-jarduerak** | ·Baimenduta, barnealdeen kasuan maila honetan aplikagarriak diren edukiera eta taldekatzeen mugekin.<br>·Murrizketak ezabatzeko aukera baloratzea. | ·Baimenduta, barnealdeen kasuan maila honetan aplikagarriak diren edukiera eta taldekatzeen mugekin. | ·Barneko eta kanpoko kirol-jardueren eremuen araberako murrizketa espezifikoak baloratzea. |
| **10. Beste jarduera sektorial espezifiko batzuk, barnekoak nahiz aire zabalekoak** | ·Oro har, espezifikotasuna edo berezitasuna dela-eta erreferentzia-panel honetan jasota ez dagoen eta gizarte-interakzioa eta pertsonen konkurrentzia eskatzen duen edozein jarduera garatzeko, prebentzio-neurrien protokolo bat izan beharko da, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren gidalerroen dokumentuekin lerrokatuta. | | |

(*) Bilakaera epidemiologikoak gora egiten badu I. estadioan eta haren hiru alerta-mailetan, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legeak II. eta III. estadioetarako aurreikusten dituen aurreikuspenak aplikatu beharko lirateke, aurreko Bizi Berri Planak IV. eta V. agertokietarako aurreikusi zituenekin bat datozenak.

(**) Hainbat ekitalditan, edukiera-mugak modu espezifikoan ezar daitezke, baldin eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak onartutako prebentzio-neurrien protokoloa ezartzen bada.

# 2. dokumentua

## Euskadin pandemiaren gobernantza eta kudeaketa bi urtetan. Etorkizunerako ikasitakoak

# Etorkizunerako ikasitakoak

Lehendakaritza

**2022ko martxoaren 11**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA

# Aurkibidea


## Aurkezpena.

## Lehen zatia

### Deskribapena

(Pandemiaren 730 eguneko historia Euskadin eta Euskaditik)

**1. Pandemiaren ibilbide kronologikoa eta datu nagusiak Euskadin.**

1.1. 2020ko lehen seihilekoa, lehen olatua.
· Lehenengo erasoa.
· "Normaltasun berria".
· Hauteskundeak airean.
1.2. 2020ko bigarren seihilekoa.
· LABI berria.
· Bigarren olatua, bi fasetan.
· Bigarren alarma-egoera.
· 2020ko Gabonak.
· Sempervirens.
1.3. 2021eko lehen hiruhilekoa.
· Kausa-ondorioa eta hirugarren olatua.
· Zalantza.
· Bizi Berri III Plana.
1.4. 2021eko bigarren hiruhilekoa.
· Alfa aldaeratik Deltara.
· Laugarren olatua.
· Alarma-egoeraren amaiera.
· Txertaketak aurrera darrai.
1.5. 2021eko hirugarren hiruhilekoa.
· Bosgarren olatua.
· LABIren erantzuna.
· Txertaketaren faktorea.
· LABIren erronka berria.
1.6. 2021eko laugarren hiruhilekoa.
· Osasun-larrialdiaren amaiera.
· Ekaitz berri baten aurreko sei asteko lasaitasuna.
· Hirugarren larrialdi sanitarioa.
1.7. 2022ko urtarrila eta otsaila.
· Pandemia osoaren sabaia.
· LABIren jarduera.
· Etorkizuna nolakoa izango den.
· Zeinu positiboak.

**2. Ibilbide kronologiko hau zeharkatzen duten lau gako.**

2.1. Egindako test kopurua.
2.2. Txertaketaren eragina.
2.3. Gizartearen laguntza pandemiari erantzutean.
2.4. Covid aldian heriotza kopurua handitzea.
2.5. Lehenengo balantzea.

# Bigarren zatia

## Balorazioa

(Aztergaiak, bizitakoaren ikaskuntzak eta etorkizunerako proposamenak eta hausnarketak)

**Bigarren zatiaren sarrera.**

**3. Azterketa espezifikoa merezi duten gaiak.**

3.1. LABI.
3.2. Bizi Berri planak.
3.3. Presidenteen Konferentziak.
3.4. Aholkularitza zientifikoa.
3.5. Lege-esparrua Estatuan.
3.6. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren ebazpenak.
3.7. COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko euskal Legea.
3.8. Zerbitzu publikoen erantzuna.
3.9. Premiazko erantzun sozioekonomikoa.
3.10. Informazioa eta gardentasuna.
3.11. Premiazkoa eta garrantzitsua dena gobernatzea.
3.12. Irizpideak eta iparra erabakiak hartzerakoan.

**4. Ikaskuntzen laburpena eta etorkizuneko gogoetak.**

4.1. Gobernantza-tresnak.
I. LABI.
II. Bizi Berri Plana.
III. Presidenteen Konferentziak.
4.2. Aholkularitza zientifikoa.
IV. Nazioartean.
V. Estatuan.
VI. Euskal Autonomia Erkidegoan.
4.3. Segurtasun juridikoa.
VII. Lege-esparrua Estatuan.
VIII. Euskal lege-esparrua.
IX. Euskal Legea.

4.4. Gizartearekiko konpromisoa eta interes orokorra.
X. Informazioa, gardentasuna eta komunikazioa.
XI. Premiazkoa eta garrantzitsua dena gobernatzea.
XII. Zerbitzu publikoak.
4.5. Erantzukizun politikoko erabakiak hartzeko irizpideak eta iparraldea.
XIII. Irizpideen hierarkia.
XIV. Faktore baldintzatzaileak bereiztea.
XV. Gangako giltzarria.

## Epilogoa.

**Azken gogoetak etorkizunera begira.**

· Balantzea egiteko metodologia.
· Lau adierazle.
· Ikasitakoen alderdi nagusia.
· Hausnarketak gizartea eta etorkizuna eraldatzeko.

## Eranskinak.

· **1. eranskina.** Atzera begirako sintesia hamabostaldika.

· **2. eranskina.** LABIren bileren zerrenda, intzidentzia-tasa metatuekin, onartutako agindu edo dekretuekin eta hartutako neurri nagusiekin.

· **3. eranskina.** Presidenteen Konferentzien daten zerrenda, intzidentzia-tasa metatuekin eta Lehendakariak bilera horietan aurkeztutako proposamenekin.

# Aurkezpena

# I. Atzerabegirako orokorra

2020ko martxoaren 13an, Eusko Jaurlaritzak, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak proposatuta, osasun-larrialdiko egoera deklaratzea onartu zuen, LABIren babesean (Larrialdiari Aurre egiteko Bidea, Euskadiko Babes Zibileko Plana), SARS-CoV-2 Koronabirusa edo COVID-19 izenarekin ezagutu zenari eman beharreko erantzuna artikulatzeko helburuarekin.

Martxoaren 14an, Ministroen Kontseiluak alarma-egoerari buruzko Errege Dekretua onartu zuen. Dekretu horrek etxeko konfinamendu orokorra ezarri zuen, eta horrek gure gizarteko ohiko jarduera gehienak mugatu zituen. Egoera berria eta zailtasun handikoa izan zen pertsona, familia eta komunitate-bizitzarako.

24 hilabete igaro dira erabaki haietatik. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Euskadin pandemiaren kudeaketari eta gobernantzari buruzko bi urteko memoria aurkeztu du. Denbora-tarte horretan, egoera berria bizi izan dugu, eta eragin handia izan du bizitza sozialaren eta pertsonalaren eremu guztietan. Datuek berez hitz egiten dute.

2022ko otsailaren 28ra arte, Euskadin 666.762 kasu positibo egon dira, 32.470 pertsona egon dira ospitaleratuta eta 3.350 ZIUetan. 5,5 milioi test egin ditugu eta 4,7 milioi txerto inguru eman ditugu. Mundu osoan, ia 6 milioi pertsona hil dira, Euskadin 6.200 pertsona. Horixe da aurre egin diogun krisiaren dimentsioa.

Zifrak alde batera utzita, bizipen honen memoriari heltzeko orduan, egin behar den lehen gizatasun-ariketa biktimen oroitzapena pertsonalizatzea da, baita haien familiekiko eta pandemia honen ondorio larrienak jasan dituztenekiko elkartasuna ere. 2020ko irailaren 21etik oroitzapenerako eta omenaldirako espazio iraunkorra dute Gasteizko Sempervirens parkean.

# II. Sei olatu

Pandemiak ustekabean harrapatu gaitu eta aurreikusi ezinezko egoera sortu du. Euskadin eta mundu osoan, kurba pandemikoaren larritasunean bizi izan gara. Egoera larriena 2020ko udaberrian izan genuen, martxoan, apirilean eta maiatzean. Aldi horretan etxeko konfinamendu zorrotza ezarri zen, hainbat zorroztasun -mailekin 90 egunez luzatu zena. Aste haietan, planeta osoan birus baten hedapen globala gertatu zen, eta mundua ez zegoen horretarako prestatuta.

Lehen olatu horren ondoren, intzidentzia-tasak gutxieneko mailetara jaitsi ziren 2020ko maiatzaren erdialdetik uztailaren erdialdera. Datu horiekin, maiatzaren 17an Eusko Jaurlaritzak amaiera eman zion Euskadiko osasun-larrialdiko egoeraren lehen deklarazioari. Birusaren transmisioan atzerakada handia izan zen eta horri esker, uztailaren 12an, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ahal izan ziren, besteak beste. Hauteskundeak apirilaren 12rako aurreikusita zeuden, eta bertan behera utzi behar izan ziren pandemiaren eta konfinamenduaren eraginez.

Ekainaren 21ean, Espainiako Gobernuak alarma-egoera indarrik gabe utzi zuen Estatu osoan. Garai hartan, krisia gainditzeko bidean zegoela zirudien. Hala ere, pandemiaren bigarren urtea bete arte, beste bost olatu geneuzkan aurretik. Lehenengoa uztailaren 13an hasi zen. Abuztuaren 17an, Euskadik berriro deklaratu zuen osasun-larrialdiko egoera. Irailaren eta urriaren artean jaitsiera txiki bat izan ondoren, bigarren olatu horren gailurra azaroaren 5ean iritsi zen.

Jaitsiera-fasea ia zortzi astez luzatu zen abenduaren amaierara arte. Egun horietan, txertaketa-prozesuak lehen urratsak eman zituen. Abenduaren 29an, kurba epidemikoak beste igoera bat hasi zuen, eta otsailaren 2an hirugarren olatuaren puntu gorenera eraman gintuen. Horrela, birusaren transmisioak beherakada fase bat hasi zuen, martxoaren 10era arte.

Laugarren olatua hastear zegoen, eta apirilaren 21ean izango zituen transmisio-tasa altuenak. Une horretatik aurrera, berriz ere jaitsiera hasi zen, eta ia hamar astez luzatu zen, ekainaren amaierara arte. Une horretatik aurrera, bosgarren olatua hasi zen, eta 2021eko uztailaren 24an gailurra jo zuen. Berriro jaitsi zen, urriaren 11ra arte. Egun horietan, txertaketak 12 urtetik gorako biztanleen %90 harrapatu zuen. Testuinguru horretan, Euskadi 2021eko urriaren 7an atera zen osasun-larrialdiko egoeratik.

Urriaren 12tik aurrera, igoera hasi zen, baina hasiera batean ez zen iritsi aurreko olatuen zenbakietara, ez intzidentzia-tasa metatuetan, ez ospitaleetan. Azaroaren erdialdera arte, intzidentzia-igoerak arinak izan ziren. Hala ere, une horretatik aurrera, aurrekaririk gabeko kutsaduretan gora egiten hasi zen. 2022ko urtarrilaren 11n jo zuen gailurra.

2021. urtearen amaieran, intzidentzia-tasa metatuak aurreko olatuetan lortutakoak ez ezik, aurretik egin zitezkeen aurreikuspen ezkorrenak ere gainditu zituen. Zorionez, ZIUko oheen okupazioa ez zen bat etorri kutsadura-igoera horrekin, eta tasa hori aurreko olatuen tontorren azpitik mantendu zen.

Seigarren olatu hori beste aldaera batek menderatu zuen, Ómicron aldaerak, hain zuzen ere. Aldaera horrek aurreko olatuek ez bezalako ezaugarriak ditu: askoz ere kutsakortasun handiagoa, baina eragin txikiagoa ospitalean, haren ondorioak hain larriak ez direlako. Testuinguru horretan, 2021eko abenduaren 2an, Eusko Jaurlaritzak hirugarren aldiz deklaratu zuen osasun-larrialdiko egoera, eta berriro aktibatu zen LABI.

Urtarrilaren 12tik aurrera, beherakada hasi zen intzidentziaren eta asistentzia-inpaktuaren adierazle guztietan, baina ez da eten otsailaren 28an memoria hau itxi den arte. Testuinguru horretan, indarrean zeuden neurri mugatzaile gehienak indarrik gabe geratu ziren otsailaren 13an. Bi aste geroago, otsailaren 28an, LABIk osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioari amaiera ematea erabaki zuen.

Horrela, 2022ko martxoaren hasieran, etapa berri bati ekin zitzaion. Hala eta guztiz ere, bi urteko pandemia-esperientzia ikusita, etorkizunak birus horrek datozen urteetan izango duen bilakaerari buruzko ziurgabetasunean murgilduta jarraitzen du. Ziurgabetasun hori, memoria hau ixten den egunetan, areagotu eta nahastu egin da errusiar armadaren inbasioak Ukrainan eragiten ari den izugarrikeriarekin eta kondenarekin, ordena ororen ondorioen beldurrarekin eta ukrainarren sufrimenduarekiko elkartasunarekin.

## III. Pandemiatik endemiara?

Ondoz ondoko olatuetan, kutsaduraren transmisioa sei ziklotan igo eta jaitsi da, eta ziklo horiek ez dira Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuetan, Europan eta munduko zati handi batean izandakoen oso bestelakoak izan. Logikoa denez, unean uneko edo tokiko aldaketak gertatu dira, baina birusak pandemia global batetik espero daitekeen portaerari erantzun dio.

Orain atzera begira aztertuta eta birusaren transmisio-potentzia eta mutazio-ahalmena ikusita, hipotesi gisa esan daiteke une bakoitzean eta herrialde bakoitzean ezarritako prebentzio-neurriek eta neurri murriztaileek, segur aski, ezin izan zutela saihestu olatu horietako bakoitza gorantz hedatzea.

Hala ere, seguruenik, hartutako neurrien eragina lagungarria izan zen igoera-aldiak laburtzeko, atzeratzeko faseak luzatzeko eta, batez ere, osasun-sisteman ahalik eta eragin txikiena izateko eta baliabideak ez kolapsatzeko.

Seigarren olatua zazpigarrenaren aurre-aurreko olatua bakarrik izan daiteke, edo, bere ezaugarriengatik, pandemia batetik endemia batera igarotzeko adierazle aurreratua. Iritzi desberdinak dituzten adituen ahotsak daude. Egoera pandemiko batetik endemiko batera igarotzeko, SARS-CoV-2k osasun-sistemaren funtzionamenduan nahiz gizarte-jardueraren garapenean eragin kritikoa izateari utzi diola egiaztatu beharko litzateke.

Horrek esan nahi du osasun-zerbitzuen ohiko baliabideen bidez hel dakiokeela irauten duen infekzio-kopuruari. Askoren ustez, Ómicron aldaeraren inpaktua prozesu endemiko bateranzko bidean gaudenaren adierazlea da. Finlandia edo Danimarka bezalako herrialdeek apustu hori egin zuten 2022ko urtarrilaren amaieran. Beste ahots batzuek nahiago dute zuhurragoak izan beren iragarpenetan, eta uste dute oraindik goiz dela bilakaera hori iragartzeko.

Memoria hau ixtean, otsailaren 28an, datuek aukera eman dute murrizketak ezabatzeko eta osasun-larrialdiari amaiera emateko, baina goiz da behin betiko ondorioak ateratzeko. Esperientziak erakusten duenez,

zuhurrena da erne egotea eta hipotesi guztiak irekita edukitzea. Azken batean, bi urte geroago, oraindik ezin dugu esan pandemia behin betiko gaindituta dagoenik. Birusaren aurreikusezintasuna eta mutazio -gaitasuna arrisku objektiboa dira. Planetako eremu zabaletan eta herrialde pobretuenetan ere txertaketa -defizita dago. Datu kontraesankor horien ondorioz, zabalik mantentzen da birus horrek hemendik aurrera izango duen bilakaerari buruzko eztabaida.

Eusko Jaurlaritzak nahiago du horri buruzko iragarpenik ez egitea. Esperientziak erakutsi duenez, birus horrek eraldatzeko erakutsi duen gaitasunak nahastu egin ditu aurreikuspen aditu asko. Memoria honetan jasotzen den gauza bakarra da, bi urteko pandemia betetzen denean, pandemia batetik endemia batera igarotzeari buruzko eztabaida irekita dagoela.

## IV. Pandemiaren gobernantza Euskadin

Olatu horietako bakoitzean erabakiak hartzerakoan, Eusko Jaurlaritza eskura dauden jardunbide eta ebidentzia onenekin lerrokatzen saiatu da. 2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) pandemia deklaratu zuen. Une horretatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko erakundeen gomendioak eta jarraibideak jarraitu ditu, hala nola OME bera Nazio Batuen esparruan eta European Centre for Disease Prevention and Control (ECDC) Europako esparruan.

Era berean, Estatuaren eremuan, Eusko Jaurlaritzak koordinazioari eutsi dio, Presidenteen Konferentzietan zein Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren eta Osasun Publikoko Batzordearen saioetan parte hartuz.

Denbora honetan guztian zehar, Eusko Jaurlaritzak maila anitzeko gobernantzaren printzipioak kontuan hartuta bideratu ditu bere erabakiak, LABIren barruan. Aholku Batzordean, Lehendakaria buru zela, EUDELek, hiru hiriburuetako udalek, hiru foru aldundiek, Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek hartu dute parte. Foro horretan hartu dira erabakiak, LABIko Batzorde Zientifiko-Teknikoaren irizpenetan oinarrituta.

Dokumentu honetan aztertutako den bi urteetan, LABIren Aholku Batzordeak 38 bilera egin ditu guztira. Prozesu horrek prozedura egonkorra, jarraitua eta ezagutzeko modukoa izan du, eta aukera eman du erakunde guztien artean harreman leiala izateko, bai eta harreman eraikitzailea eta erabateko lankidetzakoa ere, erakundeetako arduradunen eta Batzorde Zientifiko-Teknikoan parte hartu duten adituen artean.

Eusko Jaurlaritzak pandemiari eta haren ondorioei aurre egiteko duen estrategia globala funtsezko hiru ardatzetan oinarritu da aldi honetan:

-Lehenik eta behin, osasunaren ikuspegitik, osasun publikoa antolatzeko estrategia orokorra. Esparru horretan, honako hauek nabarmentzen dira: arreta orokorra, ospitalekoa edo ZIUena; testak eta baheketak egitea; kasuak eta kontaktuak zaintzeko, kontrolatzeko eta arakatzeko plana; eta txertaketa-prozesu osoa. Ardatz horren barruan sartzen da, halaber, jarraibideak, protokoloak eta jarduerak gizarte-, osasun- edo hezkuntza-eremura eta beste jarduera-eremu sektorial batzuetara eramatea eta lankidetzan aritzea.

-Bigarrenik, eta ikuspegi sozioekonomikotik, talka-planak eta eragindako sektoreentzako laguntza-planak. Horrekin guztiarekin batera, urteko aurrekontuak, ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu Plana edo Euskadi Next programa. Berpiztu programak 13.250 milioi euroko inbertsioa hitzematen du lau urtean, eta Euskadi Next programak Europako funtsetara bideratutako proiektuak biltzen ditu.

-Hirugarrenik, gobernantzaren ikuspegitik, LABIren kudeaketa, gizarte-jardueren eta -ohituren prebentzio-erregulaziora bideratua pandemiaren bilakaera aldakorrera. Txertoa xede-populazioaren % 90era iritsi arte, esparru hori Bizi Berri Planaren bidez bideratu zen, eta lau aldiz eguneratu zen. Bizi Berrik aintzat hartutako egoerei esker, une bakoitzeko egoera bereziei erantzun ahal izan zitzaien. 2021eko ekainaren 24tik aurrera, kudeaketa-esparrua Eusko Legebiltzarrak onartutako COVID-19 pandemia Kudeatzeko Neurriei buruzko Legean jaso zen.

Memoria hau hirugarren eremu horretan zentratzen da. Logikoa denez, kudeaketa hori esparru sanitarioko eta sozioekonomikoko erabakiekin uztartzen da. Hala ere, memoria honek ez ditu biltzen esparru horien xehetasunak, balantze-prozesu propioak izango baitituzte, balantzearen osagarriak izango direnak.

## V. Memoria honen esparrua eta edukia

Dokumentu honek bi helburu nagusi ditu: batek iraganera begiratzen du eta bigarrenak etorkizunera. Lehenik eta behin, kudeaketa-memoria eta bi urteko denbora pandemikoaren hasierako balorazioa eskaintzea da, Lehendakariak gidatutako gobernantzaren ikuspegitik, LABIren bidez eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzan hartu behar izan dituen erabakien bidez, bai eta kudeaketa-esperientzia horrek ekarri duenaren balorazio irekia ere, krisi honi erantzuteko zuzendaritzaren erantzukizunaren ikuspuntutik.

Beraz, ez da kanpo-ebaluazio bat, baizik eta barrutik egindako memoria bat, aginte-aretotik egindakoa. Alde horretatik, autoebaluazio- eta balorazio-izaera du. Barne begirada honetatik, pandemiari emandako erantzunaren buru izan direnek ongi funtzionatu duena, defizitarioa izan dena, hobeto egin zitekeena edo behar izan ez zutena eta izan ez zutena islatzen dute.

Nolanahi ere, ez da behin betiko balorazioa, besteak beste, pandemiak oraindik ere irauten duelako. Ebaluazio integralaren zati bat da, barrutik kanporako eta kanpotik barruranzko begiradak batuko dituena, eta osasun-krisi honen beste eremu batzuen azterketa ere barne hartuko dituena, eta, gainera, denbora beharko duena perspektiba hartzeko.

Bigarren helburua, lehenengoari lotua, inguruabar historiko horretatik irakaspenak ateratzera bideratuta dago, etorkizuneko gogoetak eta iradokizunak formulatzeko. Etortzear dagoenari begiratze horrek bi alderdi ditu. Batetik, pandemiaren kudeaketari berari buruzko ikaskuntzak; eta, bestetik, gizarte gisa gure bizimoduei eta harremanei buruz atera ditzakegun ikasgaiak. Ziurrenik, erronkarik garrantzitsuena azken ikuspegi horretan zentratzen da. Azken finean, bizipen horretatik zer ikasi dugun eta gizakion eta gizartearen hobekuntzarako nola erabiltzen dugun galdetu behar dugu.

Bi helburu hauekin, dokumentu honek bi zati eta epilogo bat ditu. Lehenengoak bi puntu ditu. Lehenengo zatiak –"deskribapena"– bi atal ditu. Lehendabizikoak aldi pandemiko osoaren ibilbide kronologikoa aurkezten du. Haren bilakaerari buruzko datuen errepasoa egiten du, emandako erantzunak eta hartutako erabakiak, egindako proposamenak eta bestelako gorabeherak jasotzeaz gain. Euskadin eta Euskaditik pandemiaren 730 eguneko historia da. Bigarren atalak ibilbide horren balorazioan eragin erabakigarria duten lau gako nabarmentzen ditu: testak egitea, txertaketa, erantzun soziala eta COVID aldian izandako heriotzen gorakada.

Memoriaren bigarren zatiak –"balorazioa"– ere bi atal ditu. Lehenengoa 12 gairi buruzkoa da, eta, duten garrantziagatik, berariazko azterketa merezi dute. Bigarren puntuak modu eskematikoagoan laburbiltzen ditu esperientzia horretatik eta etorkizunerako proposamen-gogoetetatik atera daitezkeen ikaskuntzak.

Epilogoak azken gogoeten atal bat aurkezten du, etorkizunari begira. Bertan, pandemiaren bizipen honek aldatzera eta hobetzera bultzatzen gaituenari buruz hausnartzera bideratutako ondorio irekien sintesia laburtzen da.

Memoria hau 2022ko otsailaren 28an itxi da. Duela bi urte, egun horretan bertan, COVID-19ren lehenengo bi positiboak detektatu ziren Euskadin. 2022ko martxoaren 11n jendaurrean aurkeztu, Euskadiko Artxibo Historikoan utzi eta Legebiltzarrera bidali da. Duela bi urte, 2020ko martxoaren 11n, OMEk pandemia deklaratu zuen eta, Euskadin, osasun-larrialdiko egoera deklaratzeko erabakiak amaitzen ari zen Eusko Jaurlaritza.

# Lehen zatia

## Deskribapena

(730 eguneko pandemiaren historia Euskadin eta Euskaditik)

# 1. Pandemiaren ibilbide kronologikoa eta datu nagusiak Euskadin

Wuhaneko Osasun eta Osasuneko Udal Batzordeak (MSSW) 2019ko abenduaren 31n jakinarazi zuen etiologia ezezaguneko pneumonia-kasu multzo bat zegoela hiriko animalia bizien merkatuarekin lotuta. Sintomak abenduaren 8tik atzeman ziren.

2020ko urtarrilaren 7an, txinatar agintariek kasu horietan agerraldia egotzi zitzaion koronabirus mota berri bat identifikatu zuten, beranduago, SARS-CoV-2 izena hartu zuena. Urtarrilaren 11n lehen heriotza iragarri zen Txinako hiri hartan, 21ean baieztatu zen pneumonia gizakien artean transmititu zitekeela eta, urtarrilaren 23an, Wuhanen berrogeialdia hasi zen, kanpora itxita.

Hasierako une haietatik aurrera, bi urteren ondoren Euskadin eta mundu osoan eten ez diren gertaera eta jarduera ugari sortu ziren. Atal honek kronologikoki ordenatzen du aldi horren ezaugarri esanguratsuenak izan diren gertakarien eta bilakaera-datuen deskribapena.

## 1.1. 2020ko lehen seihilekoa, lehen olatua

Txinatik datozen albisteetatik egun gutxira, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila lanean hasi zen, birusa Euskadira iritsiko balitz ere. Urtarrilaren 24an, Gaixotasun Infekzioso Berrien Euskadiko Aholku Batzordearen bilera iragarri zen. Une horretatik aurrera, bilera eta topaketa ugari egin ziren instituzio- eta osasun-eremu guztietan, mehatxuaren aurrean prestatzeko tamaina eta larritasuna oraindik ezagutzen ez zenean.

Otsailaren 28an, Osasun Sailak COVID-19aren lehen bi kasu positiboak identifikatu zituen Euskadin. Asteazkenean, martxoaren 4an, 82 urteko gizon baten heriotza jakinarazi zen Bizkaian, lehendabizikoa koronabirusarekin positibo emanda. Martxoaren 11n, OMEk pandemia ezarri zuen.

Martxoaren 13an, ostirala, Gobernu Kontseilu berezi batek Euskadiko osasun-larrialdiko egoera aitortu zuen. Segurtasuneko sailburuak Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) aktibatzen zuen Agindua sinatu zuen, bizi genuen larrialdi eta salbuespenezko egoeraren aurrean.

### ***Lehenengo erasoa***

Martxoaren 14an (larunbata), Ministro Kontseiluak alarma-egoera agindu zuen, eta, horrekin batera, etxeko konfinamendua ezarri zuen, hiru hilabetez. Martxoaren 28an, larunbatean, Espainiako Gobernuak funtsezkoak ez diren jarduera ekonomikoen itxiera zabaldu zuen. Euskadik neurriaren interpretazio malgua egiteko proposamena aurkeztu zuen, industria-sektorean neurriak hobeto egokitzeko. Proposamena onartu egin zen.

Euskadin, hasiera hartan, osasun-langileen artean eragin handiagoa izan zuen birusak, Txagorritxuko Ospitalean izandako kutsatzeen lehen afekzio baten ondorioz. Horrela, COVID-19aren lehen kolpea osasun-sistemak jasotzen du, eta, aldi berean, sistema soziosanitarioak. Egoitzen eremuan birusak eragin berezia dauka mundu osoan, infektatutako pertsonen eta heriotzen kopuru handiarekin.

Lehen aste haietan, Euskadik, herrialde guztiek bezala, material sanitarioa eskuratzeko premia orokorra zuen. NBEen, arnasgailuen, maskaren, eskularruen, laginak hartzeko gailuen, proba diagnostikoen eta abarren eskaria aldi berean gertatu zen mundu osoan. Egoera horrek stock-eskasia eragin zuen, baina ez zen hornidura-gabeziarik sortu.

Egoera horrek stock eskaseko uneak eragin zituen arren, Euskadin ez zen hornidurarik gabe geratu. Horri esker, hurrengo asteetan, Eusko Jaurlaritzak maskarak, arnasgailuak eta beste material batzuk banatu ahal izan zituen premia handieneko egoeran zeuden beste Autonomia Erkidego batzuen artean.

Egia esan, hilabete haietan, babes-materiala edukitzeko premia aurrekaririk ez zuen moduan biderkatu zen. Garai hartan, Osakidetzak erosketa intentsiboari ekin zion, behar guztiei aurre egin ahal izateko. Martxoan ber-

tan jarri zen martxan Boroako logistika-zentroa, eta handik zentralizatu, biltegiratu eta banatu zen COVID-19ari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELek adostutako erreserba estrategikoa.

2020ko apirilaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta EHUk lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten, Euskadin SARS-CoV-2 koronabirusa detektatzeko gaitasuna handitzeko. Zehazki, hitzarmen horrek Osasun Ministerioak bultzatutako seroprebalentzia-azterlana osatzeko balio izan zuen, besteak beste, seroprebalentzia-azterketarako identifikatutako eta Osakidetzak abian jarritako populazio-lagin berean sintomarik gabeko pertsonak bilatzeko. Beraz, azterketa hartan parte hartzeko hautaturiko 5.000 pertsona inguruври, proba azkarra (serologikoa) egiteaz gain, PCR bat ere eskaini zitzaien sintomarik gabeko pertsonak eta horien bilakaera detektatzeko. Horrela, Euskadik koronabirusa detektatzeko gaitasuna handitu zuen, Osasun Sailaren eta EHUren arteko lankidetzaren ondorioz.

Apirilean abian jarri zen neurri garrantzitsu bat ohiko etxebizitzetan berrogeialdiak edo isolamenduak egiteko zailtasunak zituzten pertsonei ostatu emateko hainbat hotelekin hitzarmenak adostu ziren. Zerbitzu horrek, beste bizileku-baliabide espezifiko batzuekin batera, kalteberatasun handiko egoeran edo bazterkeria-arriskuan zeuden pertsonak hartzeko ere balio izan zuen.

2020ko martxotik ekainera bitartean, ondoz ondoko 14 igandetan, Autonomia Erkidegoetako eta Hiri Autonomoetako Presidenteen Konferentzia egin zen, bideokonferentzia bidez. Lehenengoa martxoaren 15ean izan zen, eta azkena ekainaren 14an.

Bilera horietan, egoera epidemiologikoa, erantzun sanitarioak eta sozioekonomikoak aztertu ziren, baita bilera horien metodologia bera ere. Lehendakariak guztietan parte hartu zuen. Guztira, 68 proposamen aurkeztu zituen (Ikusi 3. eranskina). Bilera horietarako aurreikusitakoak ez zuen aukerarik uzten foro horretan akordioak lortzeko.

Martxoaren 25ean eman zen detektatutako kutsatze-kopururik handiena, 723 positiborekin. Nolanahi ere, datu hori ezin da alderatu ondorengo olatuen positiboen gailurrekin. Ziur asko, kutsatutako pertsonen kopurua askoz handiagoa izan zen, baina ezin izan ziren kasu asintomatikoak detektatu, besteak beste, positiboak detektatzeko eta frogak egiteko gaitasuna geroago garatu dena baino txikiagoa zelako. Nolanahi ere, aste horietan, test gehien egin zituzten Europako herrialdeen artean egon zen Euskadi, 100.000 biztanleko.

Martxoaren 25etik aurrera, beheranzko joera hasi zen birusaren transmisioan. Osakidetzako ZIUetako inpaktuari dagokionez, mailarik altuena martxoaren amaieran gertatu zen, 233 oherekin. Oso une delikatuak izan ziren, ez zen kolapsora iritsi, baina osasun-sistema estutu egin zuten.

### *Lehenengo olatuaren erreferentzia nagusiak*

<table>
<tr><th></th><th>Positiboen kopurua</th><th>14 eguneko Intzidentzia-tasa</th><th>ZIUen okupazioa</th><th>Heriotzak</th></tr>
<tr><td>Hasiera</td><td>2<br>(otsailaren 28a)</td><td>—</td><td>—</td><td rowspan="3">1.568<br>(2020ko martxoaren 13tik ekainaren 6ra)</td></tr>
<tr><td>Gailurra</td><td>723<br>(martxoaren 25a)</td><td>298<br>(apirilaren 3a)</td><td>236<br>(apirilaren 3a)</td></tr>
<tr><td>Amaiera</td><td>0<br>(maiatzaren 31)</td><td>5<br>(ekainaren 6a)</td><td>1<br>(uztailaren 15a)</td></tr>
</table>

### *"Normaltasun berria"*

2020ko ekainaren 21era arte egon zen indarrean alarma-egoera. Hala ere, maiatzaren erdialdetik aurrera, datuak nabarmen hobetu zirela egiaztatu, eta horrek martxoaren 14tik indarrean zeuden konfinamendu-baldintza zorrotzak lasaitzeko prozesuari ekitera eraman zuen. Prozesu horri hainbat izen eman zitzaion: "deseskalatze-plana", "normaltasun berrira itzultzeko plana". Euskadin, prozesu hori Bizi Berri Plana izeneko dokumentu baten bidez bideratu zen, 2020ko maiatzaren 4koa.

Ibilbide-orri bat zen, eta honako hauek zehaztu zituen: helburuak eta printzipioak, ildo estrategikoak eta faseak, inplikazioak hainbat sektoretan eta sailetako planak, alderdi ekonomikoak eta ikasitako lezioak, jar-

dueren laburpena eta, azkenik, ondorioak. 1. eranskinean, Euskadin deseskalatze-prozesu baterako aurreikuspenak ezarri ziren, lau fasetan eta jarduera-sektore desberdinetan egituratuta. 2. eranskinak nazioarteko adibideen eta esperientzien zerrenda bat eskaini zuen.

Dokumentu hura Eusko Jaurlaritzaren gida izan zen, alde batetik, Espainiako Gobernuarekin elkarrizketa eta akordioak garatzeko, eta, bestetik, kaltetutako gainerako euskal erakundeekin eta gizarte-erakundeekin. Tresna erabilgarria izan zen, eta aurreikuspenez eta koordinazioz jardutea ahalbidetu zuen. Era berean, jarduera sozialak eta ekonomikoak berreskuratzeko prozesu mailakatua gauzatzeko Eusko Jaurlaritzak eman zituen aginduak idazteko oinarri gisa balio izan zuen.

Martxoan, apirilean eta maiatzean LABIren Aholku Batzordeak 11 bilera egin zituen. Adierazi den bezala, martxoaren amaieratik aurrera intzidentzia-tasak beheranzko ibilbidea hasi zuen. 2020ko maiatzaren hasieratik uztailaren 15era, 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 50etik beherakoa izan zen.

Datuen bilakaera on horrek zabaldu egin zuen, ziurrenik, gudua irabazita edo, gutxienez, kontrolatuta zegoelako pertzepzio orokorra. Hala eta guztiz ere, udan eta oporretan normaltasuna aldatu egin zen, eta, horren ondorioz, kutsadura gehiago sortu ziren.

Datuetatik harago, lehen olatu horren orbain sakonenak hildako pertsonen kopuruan du isla. COVID-19 zuten 1.619 pertsona hil ziren 2020ko martxotik ekainera bitartean. Banan-banan pentsatuta, lagun maite bat galdu zuten 1.619 familia dira. Kasu askotan, konfinamenduaren eta prebentzio-neurrien inguruabarren ondorioz, ezin izan zioten gaixorik zegoen senitartekoari lagundu azken egunetan, ezta hil ondoren nahi bezala agurtu ere.

Gizatasunez egoera lazgarri horiek bultzatuta, Eusko Jaurlaritzak Betirako doluan laguntzeko programa jarri zuen abian, garai hartako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez. Laguntza psikologikoko doako zerbitzua da, COVID-19aren kausagatik edo ondorioz maite zituzten pertsonak galdu dituztenei laguntzeko. Zerbitzu horrek laguntza profesionalizatua eskaintzen du gertatutakoa barneratu eta agurra egin ahal izateko. 2021eko amaierara arte, 784 pertsona ziren “Betirako” zerbitzua erabili zutenak.

### *Hauteskundeak airean*

Erakundeen ikuspegitik, aldi horretan kudeatu behar izan ziren egoera arriskutsuenetako bat Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen deialdiari eta egiteari buruzko erabakiak hartzea izan zen. Otsailaren 10ean, apirilaren 12rako deialdia iragarri zen. Une horretatik aurrera, Legebiltzarra desegin egin zen, eta Jaurlaritza jardunean zegoen.

Pandemiaren agerpenak, osasun-larrialdiko egoerak, alarma-egoerak eta konfinamenduak deialdi hau etetea ekarri zuten. Martxoaren 17an alderdi politiko guztiekin bildu ondoren, Lehendakariak hauteskunde-deialdi hau bertan behera utzi zuen Dekretu baten bidez. Testuinguru horretan, Lehendakaria hiru aldiz agertu zen Eusko Legebiltzarreko Diputazio Iraunkorrean, apirilaren 2an eta 24an eta maiatzaren 8an, egoeraren eta hartzen ari ziren neurrien berri emateko.

Bilakaera epidemiologiko onak ahalbidetu zuen maiatzaren 17an Euskadiko osasun-larrialdiko egoera amaitzea. Horrela, maiatzaren 18an, Lehendakariak uztailaren 12ko hauteskundeetarako deia egiten zuen Dekretua sinatu ahal izan zuen, indar politiko guztietako ordezkariekin beste bilera bat egin ondoren.

Hauteskundeak normaltasunez egin ziren. Behin-behinekotasun egoera delikatua gainditu ahal izan zen, non, aurrekaririk gabeko krisi honen erdian, Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza zeuden. Une hartatik aurrera, Euskadik Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza eratu ahal izango zituen, pandemiari aurre egiteko eginkizun eta ahalmen guztiekin.

## 1.2. 2020ko bigarren seihilekoa

Seihileko honen hasieran, Euskadik konpromiso solidarioa hartu zuen. 2020ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak –Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean koordinatuta– esku-hartze humanitario bat prestatu zuen Peruko COVID-19aren aurkako osasun-lankidetzarako, Médicos Sin Fronteras erakundearen laguntzarekin, Peruko Gobernuko Osasun Ministerioak Lehendakariari formalki Eusko Jaurlaritzaren lankidetza eskatu ondoren.

Esku-hartze solidario horren helburu nagusia COVID-19ak eragindako gehiegizko hilkortasuna eta morbilitatea murrizten laguntzea izan zen, bereziki Peruko San Martin eta Loreto Departamentuetan. Uztailaren 10ean abiatu zen Euskaditik 6 pertsonako lehen osasun-taldea (Osakidetzako 5 eta Aragoiko Osasun Zerbitzuko 1), zuzeneko esperientzia zuena COVID-19 kasuen maneiu klinikoan eta material sanitarioaz hornitua, honako hauez osatua: arnasgailuak, aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko ekipoak, fluxu handiko ekipoak, monitoreak, sendagaiak eta norbera babesteko ekipamenduak. Egun batzuk geroago, uztailaren 16an, 8 pertsona gehiagorekin osatu zen euskal osasun-taldea.

### *LABI berria*

Irailaren 5ean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak karguaren zina egin zuen Gernikan, eta Eusko Jaurlaritzak XII. Legegintzaldiari ekin zion. Hasiera-hasieratik, Lehendakariak bi eremutan egituratu zuen LABI: Aholku Batzordea, Euskadiko ordezkaritza instituzional nagusiek osatua; eta Batzorde Zientifiko-Teknikoa, Aholku Batzordeari laguntza ematen ziona.

Urriaren 2an aurkeztu zen, LABIren Aholku Batzordean, Bizi Berri II Plana, maiatzeko plana eguneratzen zuena. Funtsezko aldea zegoen bi dokumentuen artean. Lehenengoak konfinamendu-egoera oso zorrotza gainditzeko eta gizarte-funtzionamenduaren oinarrizko jarduerak modu ordenatuan berreskuratzeko beharrari erantzun zion. Bigarren horretan, erantzun komunitario bat egituratu zen, pandemiaren bilakaera zalantzazko eta goranzko egoerari aurre egiteko, bai Euskadin, bai mundu osoan.

Bizi Berri II Plana kontingentzia-plan gisa eratu zen, eta bost arrisku-egoera aurreikusi zituen. Fase bateko edo besteko egoeraren deskribapena oinarrizko hiru adierazleren arabera zehaztu zen: intzidentzia, erreproduktibitatea eta larritasuna. Bizi Berrri II Planaren ekarpen nagusia Erreferentziazko Panel bat sortzea izan zen, une bakoitzean pandemiaren bilakaeraren aurrean eman beharreko erantzun-komunitarioaren neurrien erregulazioa aztertzeko.

Panel hori LABIren lan-tresna izan zen. Bizi Berri II Planak ezarri zuen LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoak lau hilean behin edukia eguneratzeko proposamena prestatuko zuela. Horrela, hurrengoak 2021eko otsailean, ekainean eta urrian aurkeztu beharko lirateke.

Seihileko honetan, Presidenteen Konferentziaren beste hiru bilera egin ziren. Uztailaren 31n, San Millán de la Cogollan (Errioxan). 2020ko irailaren 4an, topaketa bideokonferentzia bidez egin zen. Azkenik, urriaren 26an, modu telematikoan, Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidenteak hartu zuen parte bileran, Europako Berreskuratze Funtsari buruz hitz egiteko.

### *Bigarren olatua bi fasetan*

2020ko uztailaren 11tik, goranzko joera dago. Abuztuaren 28an izan zuen igoerarik handiena, 886 kutsatzerekin. Data hori baino lehen, abuztuaren 17an, Lehendakariak berriro deklaratu zuen osasun-larrialdiko egoera, eta, ondorioz, bere gain hartu zuen Euskadiko Babes Zibileko Planean (LABI) jasotako larrialdi-jarduerak zuzentzea eta koordinatzea.

Une horretatik aurrera, neurri murriztaile berriak aktibatu ziren, gaueko aisialdiari, edukierei, ostalaritzako itxiera-ordutegiei edo taldeetan gehieneko pertsona-kopuru mugari eragiten zietenak. Garai hartan “ez-jaiak” deitutakoei aurre egin behar izan zitzaien. Abuztuaren 14an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak bertan behera utzi zuen gaueko aisialdia ixteko ordutegia mugatzeko neurria. Ebazpen horrek ez zuen ondorio praktikorik izan, egun horretan bertan Osasun Ministerioak Estatu osoko diskotekak eta kopa-tabernak ixteko agindua eman baitzuen.

Irailaren hasieran, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400era iritsi zen. Kurba epidemiologikoaren beheranzko joera hasten da. Urriaren hasieran, intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 246 izatera jaitsi zen. Urriaren 4an, 272 kutsatze erregistratu ziren, etapa horretan kasu gutxien izan zituen eguna. Lau egun lehenago aurkeztu zen Bizi Berri II Plana.

Nolanahi ere, egoera ez zen egonkortzen. Urriaren 5etik aurrera, intzidentziaren hazkunde azkar eta bortitza hasi zen. Bigarren olatu horren bigarren fasea izan zen. Urriaren 17an, LABIk argi berdea eman zien Osasuneko sailbu-

ruaren bi aginduri, eta neurri murriztaile zorrotzagoak ezarri zituen. Indarrean jarri aurretik, haren edukia aldez aurreko baimenaren izapidearen mende jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian.

Urriaren 22an, Auzitegi horrek kontrako ebazpena eman zuen LABIk aurreikusitako neurri batzuei buruz, eta alegatu zuen Eusko Jaurlaritzak ez zuela eskumenik pertsonak elkartzeko gehieneko muga arautzeko. Beste Autonomia Erkidego batzuetako Auzitegi Nagusiek aldeko ebazpena eman zuten.

Testuinguru horretan, urriaren 23an, Lehendakariak alarma-egoera deklaratzea eskatu zion Espainiako Gobernuko Presidenteari, Autonomia Erkidego bakoitzeko Presidentzien agintearen eta kudeaketaren bitartez aplika zezan. EAEANren ebazpenaren ondoren, eskaera horren helburua, LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoaren Irizpenaren bidez babestuta, pandemiaren bilakaerari Eusko Jaurlaritzak eman behar zion erantzunari segurtasun juridikoa ematea izan zen.

### *Bigarren alarma-egoera*

Lehendakariaren proposamena Autonomia Erkidegoetako ia presidente guztiek babestu zuten ordu gutxiren buruan. Horrela, urriaren 25ean, igandean, Ministroen Kontseiluak, Errege-dekretu baten bidez, hasierako 15 eguneko alarma-egoera (6 hilabetera luza zitekeena) onartu zuen. Hau da, maiatzaren 9ra arte.

LABIren Aholku Batzordeak, ondoz ondoko bi bileratan, argi berdea eman zien Bizi Berri II Planaren erreferentzia-panelean jasotako neurri mugatzaile zorrotzak ezartzea erabaki zuten Lehendakariaren bi Dekreturi. Urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak gaueko mugikortasuna 23:00etatik 06:00etara mugatzea ezarri zuen, baita Euskadiren konfinamendu perimetrala eta udal mailakoa ere, eta baimendutako gehieneko taldekatzeak 6 pertsonara murriztu zen.

Bilakaera epidemiologiko negatiboa ikusita, azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak neurrien zorroztasuna areagotu zuen. Gaueko mugikortasunaren muga 22:00etatik 06:00etara murriztu zen, lanpostuetan maskara nahitaez erabiltzea ezarri zen, establezimendu eta merkataritza-lokal guztiak 21:00etan ixtea, kultu-zentroetako edukiera %35era murriztea, ostalaritzako establezimenduak, jatetxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak eta joko eta apustuetako establezimenduak ixtea. Horrez gain, musika- eta ahots- edo dantza-izaerako entsegu eta jarduera kolektibo ez-profesionalak bertan behera utzi ziren, prestakuntza arautuan izan ezik, eta taldeko edozein kirol-jarduera bertan behera utzi zen, entrenamenduan zein lehiaketan, kirol profesionalean eta erdi-profesionalean izan ezik.

Goranzko joerak, azaroaren 5ean, ordura arte, kutsatzeen gailurra zena jo zuen, 1.547 kasu positiborekin. Une horretan, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 849koa zen Euskadin. Testuinguru horretan, LABIren Aholku Batzordeak argi berdea eman zion abenduaren 12an indarrean jarriko zen Dekretu berri bati, eta, besteak beste, ezartzen zuena ostalaritza-establezimenduek itxi egin beharko zutela 100.000 biztanleko 500dik gorako intzidentzia-tasa metatua zuten 5.000 biztanletik gorako herrietan.

Ezarritako prebentzio-neurriek eragin positiboa izan zuten, eta beheranzko joera abenduaren 29ra arte luzatu zen. Egun horretan, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 234koa zen. Egun batzuetan egonkor mantendu zen, baina 2021eko lehen astean joera aldatu egin zen berriro.

### *Bigarren olatuaren erreferentzia nagusiak (1. fasea)*

| | Positiboen kopurua | 14 eguneko Intzidentzia-tasa | ZIUen okupazioa | Heriotzak |
|---|---|---|---|---|
| Hasiera | 0 (maiatzaren 31) | 5 (ekainaren 6a) | 1 (uztailaren 15a) | 404 (2020ko uztailaren 11tik urriaren 7ra) |
| Gailurra | 886 (abuztuaren 28a) | 400 (irailaren 6a) | 63 (irailaren 13a) | |
| Amaiera | 272 (urriaren 4a) | 245 (urriaren 7a) | 45 (urriaren 9a) | |

*Bigarren olatuaren erreferentzia nagusiak (2. fasea)*

| | Positiboen kopurua | 14 eguneko Intzidentzia-tasa | ZIUen okupazioa | Heriotzak |
|---|---|---|---|---|
| Hasiera | 272 (urriaren 4a) | 245 (urriaren 7a) | 45 (urriaren 9a) | 1.058 (2020ko urriaren 8tik abenduaren 29ra) |
| Gailurra | 1.547 (azaroaren 5a) | 845 (azaroaren 12a) | 146 (azaroaren 13a) | |
| Amaiera | 226 (abenduaren 26a) | 234 (azaroaren 29a) | 71 (urtarrilaren 5a) | |

### *2020ko Gabonak*

2020ko Gabonak gerturatu ahala kezka areagotu zen. Bigarren olatua jaisten ari zen; baina aldi horretako berezko mugikortasun eta interakzio sozial handiak kezka-iturri ziren.

Testuinguru horretan, LABIk aldi horretarako prebentzio-neurri espezifikoak ezarri zituen. Neurri horiek, lehenik, abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan jaso ziren, eta, ondoren, abenduaren 23ko 47/2020 Dekretuan egokitu ziren.

Gabonak baino lehen, Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaileagoen proposamena aurkeztu zion Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluari, Erkidego guztien artean adostuta aplikatzeko. Adostasunaren ondorioz, Euskadik proposatutako zenbait neurriren zorroztasuna murriztuta geratu zen.

Azkenik, honako hauek izan ziren esanguratsuenak. Abenduaren 24tik 25era eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1era bitarteko gauetan gaueko mugikortasunaren muga 00:30ean hasiko zela ezarri zen. Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko eta bertatik irteteko muga 2020ko abenduaren 23tik 26ra bitartean eta 2020ko abenduaren 31tik 2021eko urtarrilaren 1era bitartean kendu zen.

Abenduaren 24an eta 25ean, Gabonetako bazkariak eta afariak ospatzeko familia-bilkurak 10 lagunekoak izango ziren gehienez. Abenduaren 31rako eta urtarrilaren 1erako 6 pertsonatara murriztu ziren. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an, merkataritza-, ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak 18:00etan ixtea eta 09:00ak baino lehen ez irekitzea ezarri zen.

Debekatu egin zen abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an kotilioiak edo oturuntzak ospatzea edozein establezimendu- edo ostatu-motatan. Abenduaren 21aren eta urtarrilaren 6aren artean debekatuta geratu ziren aglomerazioak eragin zitzaketen ekitaldiak, hala nola, Gabon gauean edo Erregeen bezperan kantu-taldeak; festak kalean kanpaialdiak edo San Tomas zirela-eta, “San Silvestre” bezalako kirol-probak edo Olentzero edo Erregeen kabalgatak.

### *Sempervirens*

2021eko bigarren hiruhilekoan 1.619 pertsona hil baziren ere, bigarren seihilekoan 1.487 zenbatu ziren. Sei hilabete horietan heriotza gehien izan zituen astea azaroaren 16tik 22ra artekoa izan zen, 126 hildakorekin. Udaberrian baino heriotza gutxiago ziren, baina asko dira.

Betirako doluan laguntzeko programa abian jartzearekin batera, pandemiak giza bizitzetan duen kostuaren inpaktu gizatiarra eta emozionalaren eraginez Eusko Jaurlaritzak hildakoak gogoratzeko eta familiekiko elkartasunerako gune bat prestatu zuen 2020ko udan.

2020ko irailaren 21ean, Sempervirens Parkea (beti berdea) inauguratu zen Gasteizen, euskal erakunde guztiak bertan zirela. Bertan, sequoia erraldoi bat –2014tik lehortutakoa– eta sempervirens sequoia landatu berri bat bizi dira. Lehenengoa lekuan mantendu da, monumentaltasunagatik. COVID-19aren biktimen oroitzapenaren memoria kolektiboan irautea irudikatzen du. Zuhaitz gazteak bizitza irudikatzen du, bai eta, Koronabirusaren pandemiaren astinduaren erdian, guztion ongiaren espiritua eta lankidetza sustatu duen guztia ere. Itxaropena irudikatzen du, hala eta guztiz ere.

Parke horrek COVID-19aren biktimak gogora ekartzeko borondate instituzionala eta soziala adierazten du. Hainbeste familiek jasandako sufrimenduaren eta baita euskal gizarteak pandemiaren erdian adierazitako elkartasunaren eta konpromisoaren oroitzapena bizirik mantentzeko borondatea adierazten du.

Pandemiak utzitako bizitzen kostuaren errealitate gupidarik gabeko eta dramatikoaren aurrean, 2020ko abenduaren 27an izandako gertaera garrantzitsu batek irudikatu zuen itxaropena seihileko honetan. Egun hartan hasi zen txertaketa-prozesua Euskadin. Lehen dosiak adinekoen egoitzetan eman ziren.

2020. urte osoan 112.518 kasu positibo erregistratu ziren, eta 1.848.983 test egin ziren guztira. Ospitaleratutako pertsonak 11.055 izan ziren eta ZIUn ospitaleratutakoak 1.143. Guztira 3.106 pertsona hil ziren. Horixe da 2020ak utzitako balantzea. Euskal Osasun Sistemak, 2020an zehar, COVID-19aren pandemiaren aurka emandako erantzunari buruzko txosten bat eskatu zion Osasun Sailak Euskal Herriko Unibertsitateari.

## 1.3. 2021eko lehen hiruhilekoa

### *Kausa-ondorioa eta hirugarren olatua*

2021. urtearen hasierarekin, hirugarren olatua hasi zen. Abenduaren 29tik aurrera, goranzko joera hasi zen, eta gailurra otsailaren 2an jo zuen, 668koa izanik 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko. Gogoratu behar da aurreko goreneko tasa 849koa izan zela azaroaren 5ean. Kurbak igotzeko prozesu hori orokorra izan zen gure inguruko Estatu gehienetan eta ia Autonomia Erkidego guztietan.

Ziur asko, joera-aldaketa hori azaltzen duen arrazoietako bat, ez bakarra, jai-zubien, merkataritza-zentroetako jende-pilaketen eta Gabonetako lagunarteko eta familiako bilkuren ondorioa izan zen. Hala ere, joera-aldaketa baten aurreko kausa-efektu erlazioari buruzko gogoetak kontu handiz egin behar dira, esperientzia ikusita. Ezin da ahaztu, adibidez, Gabonak hasi baino egun batzuk lehenago intzidentziaren hazkundea oso nabarmena zela jada beste Autonomia Erkidego batzuetan eta gure inguruko Estatuetan.

Bestalde, abenduaren erdialdean, lehen aldiz jakin genuen SARS-CoV-2 aldaera berri bat zegoela Erresuma Batuan (hasiera batean, Britainia Handiko aldaera deitu zitzaiona, eta, ondoren, “Alfa”), antza, kutsakortasun handiagokoa. Une horretan, ez zegoen nahikoa ezagutzarik aldaera horrek edo beste batzuek egoeraren bilakaeran izango zituzten ondorioei buruz.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da, goranzko joera izan zen asteetan, urtarrilean zehar, Euskadi datu txarrenak izan zituzten hiru Autonomia Erkidegoen artean egon zela. Datu hori interesgarria da hurrengo asteetan, otsailean zehar eta martxoaren hasieran, gertatuko zenarekin alderatzeko. Otsailaren 3tik aurrera, beheranzko joera hasi zen, martxoaren hasierara arte. Joera horretan, intzidentzia-tasa Autonomia Erkidego gehienetan baino txikiagoa eta motelagoa izan zen Euskadin.

Nolanahi ere, egoera nabarmen hobetu zen otsailaren hasieratik. 40 egunetan, Euskadiren 14 eguneko intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 668tik 200era pasa zen. Beherakada hori bat zetorren munduko zati handi baten joerarekin, Europan eta Autonomia Erkidego guztietan ere islatu zena. MOEk jakinarazi zuen garai hartan kutsatze-kopurua erdira murriztu zela aste batzuetan.

LABI urtarrilaren 22an bildu zen eta hirugarren olatu horri erantzuteko Dekretu berri bat onartu zuen. Beste neurri batzuen artean, Euskadiko udalerri guztien itxiera perimetrala edo gehienez 4 pertsona elkartzea erabaki zen. Horiez gain, honako hauek ere indarrean zeuden: gaueko mugikortasunaren muga 22:00etatik 06:00etara; Euskadin eta Lurralde Historikoan pertsonak sartzeko eta irteteko muga; barran edo zutik kontsumitzeko debekua; merkataritza-establezimenduak eta kultura-jardueren itxiera 21:00etan; ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduen itxiera 20:00etan; 500etik gorako tasak zituzten herrietako ostalaritza-establezimenduen itxiera, joko-lokalen itxiera, txokoen eta gazteen lonjen itxiera, edo kirol-ekitaldietara publikoa joateko debekua.

### *Zalantza*

Aurretik indarrean zeuden neurriek eta ezarritako neurri berriek bi aste geroago hasi ziren ondorioak izaten. Hala ere, otsailaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren auto bat ezagutarazi

zen, 100.000 biztanleko 500etik gorako intzidentzia-tasa duten herrietan ostalaritza-establezimenduak kautelaz berriz irekitzearen aldekoa.

Aldi berean, aste horietan bertan, Estatu osoko Autonomia-eremuko Justizia-auzitegi nagusi gehienek aldeko ebazpenak hartu zituzten antzeko errekurtsoen aurrean, ostalaritzari eragiten zioten itxierak indarrik gabe uztea eskatzen zutenak.

Ebazpen horrek harridura eta desadostasun sakona eragin zituen ebazpenean erabilitako argudioengatik. Eusko Jaurlaritzak errespetatu eta onartu egin zuen, baina erabateko desadostasuna adieraziz. Autoaren argudioak eta aretoko txostengilearen prozesutik kanpoko iruzkinak hutsalduz erreakzionatu zuen Estatu osoko zientzia- eta medikuntza-komunitateak.

LABIren Batzorde Teknikoak, bestalde, adierazi zuen eskura zegoen ebidentzia zientifikoak eta nazioarteko erakundeen jarraibideek, bai eta nazioarteko praktikak ere, Euskadin hartutako neurriak bermatzen zituztela, bereziki, intzidentzia-tasa oso altuak zituzten testuinguruetan.

### *Bizi Berri III Plana*

Hiruhileko honetako datu nabarmenetako bat Bizi Berri III Planaren aurkezpena izan zen, LABIren Aholku Batzordearen otsailaren 12ko bileran. Bizi Berri metodologian aurreikusita zegoen bezala, lau hilean behin eguneratu behar zen dokumentua, hurrengo lauhilekorako ibilbide-orria ezartzeko, kasu honetan ekainera arte.

Dokumentu hau Batzorde Zientifiko-Teknikoaren aholkularitzarekin egin zen, Bizi Berri II Plana eguneratzen zuen eta aldi berri honetan pandemiari erantzun komunitarioa emateko esparru estrategikoa zehazten zuen. Azken hamabi hilabeteetan ikasitakoa oinarri hartuta, bost agertoki, adierazleak eta erantzuteko neurrien erreferentzia-panel bat eskaintzen zuen, pandemiaren une bakoitzeko bilakaerari eta eskura zeuden ebidentzia zientifiko berriei egokituta.

LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoa astero bildu zen, eta egoeraren arabera, ia egunero. Haren irizpenak LABIren Aholku Batzordearen erabakien oinarri izan ziren. Urteko lehen hiruhilekoan, Batzorde horrek martxoaren 5ean egin zuen azken bilera eta haren irizpena Lehendakariaren martxoaren 6ko 13/2021 Dekretuaren oinarri izan zen. Dekretu horrek testu bakar batean bateratu zituen aurretik indarrean zeuden neurriak, eta aldaketa batzuk sartu zituen.

Gaueko mugikortasunaren muga 22:00etatik 06:00etara mantendu zen, baita Euskadiko pertsonen sarrera eta irteera mugatzea, pertsona-taldeak laukoak izatera mugatzea edo barnean, kanpoan eta lantokietan maskara erabiltzeko betebeharra ere. 21:00etan finkatu zen merkataritza-establezimenduak ixtea eta jarduerak etetea. Kultura-jardueretan, ostalaritzan eta joko-lokaletan baimendutako gehieneko edukiera %50 izan zen. Ostalaritzan, ixteko ordua 20:00etan eta mahai bakoitzean eserita gehienez 4 pertsona egotea mantendu zen. Elkarte gastronomikoak, gazte-lokalak eta gaueko aisiak itxita egon behar ziren. Kirolean, taldeak gehienez 6 lagunekoak izan behar ziren. Ez zegoen baimenduta eskola-kirolean lehiatzea, ezta jendea kirol-ekitaldietara joatea ere.

Bestalde, eta Bizi Berri III Planaren aurreikuspenekin eta Batzorde Zientifiko-Teknikoaren berariazko gomendioarekin bat etorriz, LABIren Aholku Batzordeak erabaki zuen udalerrien itxiera perimetrala altxatzea, urtarrilaren 22tik aktibatuta zegoena. Egun haietako Intzidentzia-tasa metatuaren datuekin eta lanarengatik *de facto* gertatzen ari zen udalerrien arteko mugikortasunarekin, neurri hori ez zen beharrezkoa.

### *Hirugarren olatuaren erreferentzia nagusiak*

<table>
<tr><th></th><th>Positiboen kopurua</th><th>14 eguneko Intzidentzia-tasa</th><th>ZIUen okupazioa</th><th>Heriotzak</th></tr>
<tr><td>Hasiera</td><td>226<br>(abenduaren 26a)</td><td>234<br>(abenduaren 29a)</td><td>71<br>(urtarrilaren 5a)</td><td rowspan="3">882<br>(2020ko abenduaren 30etik 2021eko martxoaren 10era)</td></tr>
<tr><td>Gailurra</td><td>1.273<br>(urtarrilaren 27a)</td><td>668<br>(otsailaren 2a)</td><td>173<br>(otsailaren 11)</td></tr>
<tr><td>Amaiera</td><td>214<br>(martxoaren 7a)</td><td>200<br>(martxoaren 10a)</td><td>80<br>(martxoaren 29a)</td></tr>
</table>

COVID-19ak 3.106 hildako utzi zituen bere atzetik 2020an. 2021eko lehen hiruhilekoan, kopuru horrek gora egin zuen, 950 heriotza gehiago izan baitziren. Hildako gehieneko astea urtarrilaren 18tik 24ra bitartekoa izan zen, 127 heriotzarekin.

2021eko lehen hiruhilekoan kontuan hartu beharreko azken faktorea txertoen banaketan gorabeherak eta ez-betetzeak izan ziren, hasierako aurreikuspenak betetzea eragotzi zutenak. Martxoaren amaieran, jarraibide osoa zuen xede-populazioaren ehunekoa %4,9 zen. Ordura arte, 379.462 txerto eman ziren (271.723 lehen dosian eta 107.739 bigarrenean). Hala ere, bigarren hiruhilekorako perspektibak, ziurgabetasunik ez izan arren, txertaketa-prozesuaren proiekzio positiboagoa ahalbidetzen zuen.

## 1.4. 2021eko bigarren hiruhilekoa

### *Alfa aldaeratik Deltara*

2021eko bigarren hiruhilekoaren hasieran, Alfa aldaerak ordeztu egin zituen (%90tik gora) lehendik zirkulatzen ari ziren SARS-CoV-2aren motak. Aitzitik, Beta (hegoafrikarra) eta Gamma (brasildarra) aldaerak minoritarioak izan ziren (aste epidemiko bakoitzean zirkulatzen ari ziren anduien %5 baino gutxiago Euskadin detektatu zirenetik). Hiruhilekoaren amaieran, Euskadin apirilaren amaieratik detektatutako Delta (India-2) aldaeraren inguruan biltzen da ziurgabetasuna. Ekainaren amaieran, agerraldi garrantzitsuak izan zituen, eta, munduko beste leku batzuetan bezala, Alfa ordeztu ahal izatera heldu zitekeen.

Delta aldaerak, Erresuma Batuan, Israelen edo Portugalen, atzerakadak eragin zituen herri horietako pandemiaren bilakaera onean. Era berean, garai hartan, beste interes-aldaera batzuen ebidentziak metatu ziren, hasiera batean Amerikako kontinentean kokatuak (Lambda edo C37 aldaera, hasiera batean Perun 2020ko abuztuan kokatua). ECDC erakundeak egindako iragarpenaren arabera, 2021eko abuztuaren amaierarako Delta aldaerak Europar Batasunean zirkulatzen ari ziren SARS-CoV-2 birus guztien %90 hartuko zuen.

### *Laugarren olatua*

Esan bezala, martxoaren 10etik aurrera, goranzko beste fase bat hasi zen. Martxoaren 26an, berretsi zela ikusita, LABIk murrizketa berriak ezarri zituen, 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 baino gehiagoko herri guztiei eragingo zietenak. Zehazki, itxiera perimetrala eta ostalaritzaren eta joko-aretoen ordutegi-murrizketak, bai eta barrualdeetan egiten den kirolean gehieneko taldeak murriztea ere.

Neurri berri horiez gain, indarrean jarraitzen zuten honako neurriak: gaueko mugikortasunaren muga, Euskadiko itxiera perimetrala, taldeak gehienez ere lau lagunekoak izatea, barran edo zutik kontsumitzeko debekua, merkataritza- eta jarduera-establezimenduak 21:00etan ixtea, ostalaritza-establezimenduak eta jatetxeak eta joko-lokalak 20:00etan ixtea. Txokoek eta lonjek itxita jarraitzen zuten, eta debekatuta zegoen kirol-ekitaldietara joatea eta eskola-kirolean lehiatzea.

Laugarren olatu horren gailur epidemikoa apirilaren 21ean iritsi zen, 1.013 positiborekin; eta egun horretatik aurrera, jaitsiera hasi zen. Nolanahi ere, intzidentzia-tasa metatuak beste egun batzuk behar izan zituen joera-aldaketa baieztatzeko. Maximoa apirilaren 26an erregistratu zen, 547/100.000 biztanleko; otsailean, 668; eta azaroan, 845 izan ziren bitartean. Hiru olatu horietan, tontor epidemiko bakoitzak, aurrekoak baino maximo txikiagoko kurbak marraztu zituen.

Azken igoera horretako sabaia txikiagoa izan zen, baina aurreko bi igoerena baino luzeagoa. Apirilaren 27tik aurrera, beheranzko fasea hasi zen kurba epidemikoan, maiatzean eta ekainean mantendu zena; Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 103ra iritsi zen, txikiena 2020ko udaz geroztik. Ospìtaletan oheen okupazioa 568ra iritsi zen, apirilaren 25ean; hiruhilekoaren amaieran, berriz, 62koa zen. ZIUetan 195 ohe zeuden beteta maiatzaren 2an, eta 32 ohe ekainaren 30ean.

### *Laugarren olatuaren erreferentzia nagusiak*

<table>
<tr><th></th><th>Positiboen kopurua</th><th>14 eguneko Intzidentzia-tasa</th><th>ZIUen okupazioa</th><th>Heriotzak</th></tr>
<tr><td>Hasiera</td><td>214<br>(martxoaren 7a)</td><td>200<br>(martxoaren 10a)</td><td>80<br>(martxoaren 29a)</td><td rowspan="3">465<br>(2021eko martxoaren 11tik ekainaren 28ra)</td></tr>
<tr><td>Gailurra</td><td>1.013<br>(apirilaren 21a)</td><td>547<br>(apirilaren 26a)</td><td>195<br>(maiatzaren 2a)</td></tr>
<tr><td>Amaiera</td><td>98<br>(ekainaren 28a)</td><td>103<br>(apirilaren 26a)</td><td>23<br>(uztailaren 12a)</td></tr>
</table>

2021eko bigarren hiruhilekoan, hildakoen kopurua nabarmen jaitsi zen aurreko faseekin alderatuta. Azken hiruhilekoaren erdia baino gutxiago da. Murrizketa horren arrazoia txertaketaren eragin positiboa da; izan ere, txertaketak jarraibide osoa lortu zuen adineko pertsona askorentzat eta kalteberenentzat. Nolanahi ere, kopuruak altua izaten jarraitzen zuen: 2021eko apiriletik ekainera bitartean 378 pertsona hil ziren COVID-19aren kausagatik edo ondorioz. Heriotza gehien izan zituen astea apirilaren 19tik 25era artekoa izan zen, 61 hildakorekin.

### *Alarma-egoeraren amaiera*

Hiruhileko honen ezaugarri nagusietako bat da Espainiako Gobernuko Presidenteak apirilaren 6an prentsaurrekoan iragarri zuela alarma-egoera maiatzaren 9tik aurrera ez luzatzeko asmoa. Autonomia Erkidegoekin kontrasterik egin gabe egindako iragarpen horrek eztabaida handia piztu zuen prebentzio-neurri batzuen aplikazioak zuen segurtasun juridikorik ezari buruz. Lehendakariak eta Autonomia Erkidegoetako Presidente askok zuhurrago iritzi zioten lau aste gehiago luzatzeari, babes handiena ematen zuten neurriak bermatzeko.

Apirilaren 15eko irizpenean, LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoak agerian utzi zuen alarma-egoeraren balizko amaierak ziurgabetasun juridikoa planteatzen zuela, ikuspegi epidemiologikotik estrategikoak ziren neurriak mantentzeko, hala nola, gaueko mugikortasuna mugatzea, pertsona-taldeak mugatzea edo itxiera perimetralak. Batzorde horrek azpimarratu zuen ez zitzaiola egokia iruditzen alarma-egoera amaitzea, horrelako neurriak segurtasunez hartzeko berme juridikorik izan gabe.

Lehendakariak proposatu zuen osasun publikoaren arloko neurri bereziei buruzko 3/1986 Lege Organikoa aldatzen hastea, Autonomia Erkidegoentzat eta legeria arruntean pandemia bati aurre egiteko esparrua argitzeko eta, bitartean, alarma-egoera luzatzeko, baliagarria eta beharrezkoa zen bitartean.

Alarma-egoera galduta, eta EAEANren auto bidez, maiatzaren 7ko bileran, LABIk zenbait neurri indargabetu behar izan zituen, hala nola “etxeratze-agindua” edo pertsonen bilkuretan kopuruak mugatzea. Merkataritza-, kultura- edo gizarte-jarduera oro 22:00etan etengo ziren. Maiatzaren 31n, LABIk jarduera komertzial, sozial eta kultural guztiak ixteko muga-ordua 24:00etan ezarri zuen. Ezabatu egin ziren, halaber, aire zabalean kirola egiteko pertsona-taldeen kopuruen mugak.

Hurrengo asteetan kurba epidemikoak izan zuen bilakaera onaren testuinguruan, LABIk, ekainaren 18ko bileran, honako erabaki hauek hartu zituen: jarduerak amaitzeko muga-ordutegia 02:00ak arte luzatzea; edukiera %60an ezarri hainbat jardueratan; ikus-entzuleen gehieneko kopuruak ezarri esparruen ahalmenaren arabera mailakatzen zirenak; kirol-ekitaldietara ikusleak bertaratzeko aukera eman, ostalaritzan ere mahai bakoitzeko baimendutako pertsona-kopurua handitu, eta txokoak eta elkarte gastronomikoak ostalaritzaren antzeko baldintzetan irekitzeko baimena eman.

Hilabete batzuk lehenago, otsailaren erdialdean, Eusko Jaurlaritzak euskal lege bat aztertzen hasi zen, COVID-19aren aurrean kudeaketari segurtasun juridiko handiagoa emango ziona pandemiari aurre egiteko. Gogoeta hori Legebiltzarreko Taldeekin partekatu zen. Prozesu horren ondorioz, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko lege-proposamen bat aurkeztu zen. Hura izapidetu ondoren, legea ekainaren 24an onartu zen.

Horrela, une horretatik aurrera, LABIk eta Bizi Berri IV Planak lege-estaldurako esparru berri bat izango zuten, eta horrek segurtasun juridiko handiagoa emango zien une bakoitzean dagozkion erabakiei eta neurriei.

Hala ere, hilabete batzuk geroago, zehazki irailaren 29an, Vox-eko 50 parlamentarik baino gehiagok helegitea aurkeztu zuten Auzitegi Konstituzionalean lege horren aurka. Egun horietan bertan, Espainiako Gobernuak, bere aldetik, Bitariko Batzordeak Eusko Jaurlaritzarekin duen prozedura ireki zuen, legearen zenbait artikuluren inguruko desadostasunei heltzeko, Konstituzio Auzitegian errekurtsoa jartzea saihesteko.

### *Txertaketak aurrera darrai*

Txertoaren hedapena eta haren ondorioen eraginkortasuna egiaztatua dira, zalantzarik gabe, bigarren hiruhileko honen garapenean eragin handiena duten faktoreak. Lehenengo hiruhilekoan emandako txertoen kopurua txikiagoa izan zen, eta batzuetan kopuru horiek irregularrak. Hala ere, bigarren hiruhilekoan zehar, iragarritako txerto-kopurua modu erregularragoan banatu zen.

Horri esker, txertaketa-prozesuari erritmo garrantzitsua eman zitzaion. Ekainaren amaierarako, 1.279.848 pertsonak jaso zuten txertoaren dosi bat. Xede-biztanleriaren %67,7 da. 925.000 lagunek baino gehiagok (%39,7k) jaso zuten jarraibide osoa. Txertatuta zegoen 40 urtetik gorako biztanleen %87,4k gutxienez dosi bat zeukan.

Ziurrenik, horren ondorioz, 65 urtetik gorakoen artean, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 25etik behera kokatu zen. Ospitaleratzeak 62 lagunera jaitsi ziren. Egoitzetako eta eremu soziosanitarioetako agerraldiak erabat desagertu ziren.

2020ko ekainean ospitaleratutako pertsonen batez besteko adina 68,39 urtekoa zen; 2021eko ekainaren 30ean, berriz, 55,47koa. Eta, zalantzarik gabe, uztaileko lehen bi asteetako heriotzak, hurrenez hurren, 6 eta 3 pertsona guztira; zifra baxuenak ziren 2020ko uztailetik.

Aldi horretan, Eusko Jaurlaritzak txertaketa global eta solidarioarekin konprometitu zen. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 500.000 euroko ekarpena egin zion COVAX mekanismoari. Bestalde, maiatzaren 25ean, Lehendakariak COVID-19rako txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpena aurkeztu zuen, honako erakundeek sinatuta: Eusko Jaurlaritza, Médicos sin Fronteras España, Amnistía Internacional, Oxfam Intermón, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargoen Kontseilua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialek eta Bilboko Mediku Zientzien Akademia.

## 1.5. 2021eko hirugarren hiruhilekoa

Alarma-egoera amaitzearekin hasi zen uda, eta ekainaren 24ko Errege Dekretuaren bidez maskararen erabileraren estatu-araudia malgutu zen. Berriz ere, hiruhileko honetan, pandemiak gora eta behera egin zuen.

### *Bosgarren olatua*

Olatu berri horrek argi eta garbi bereizitako bi aldi izan zituen: ekainaren 27an abiatu zen igoera-fasea uztailaren 30ean 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatuan gorenera iritsi arte eta ordutik 2021eko urriaren 12ra arte luzatu zen beheranzko fasea.

Txertaketa oraindik ez zen nahikora iritsi 12 eta 39 urte bitarteko adin-tartean. Hain zuzen ere, adin horietan gertatu zen hazkunde esponentziala intzidentzia-tasa metatuetan.

Bilakaera hori eta inguruabar horiek ez ziren Euskadikoak bakarrik izan. Aldaketa txiki batzuekin, gauza bera gertatu zen Estatuko Autonomia Erkidego guztietan eta Europako zati handi batean.

Arrazoizko ziurtasunez esan daiteke bosgarren olatu horren potentzian eragiten duen faktoreetako bat Delta aldaerak izan zuen transmisio-ahalmen handia dela. Bereziki txertoa hartu ez zuten biztanleen artean eta interakzio sozial eta mugikortasun handiko garaian, infektatzeko gaitasun handia hedatzeko testuinguru egokia aurkitu zuen birusaren beste aldaera bat.

Hori faktore garrantzitsua izan zen, baina ez bakarra. Bosgarren olatua sustatzeko beste arrazoi bat ekainaren erdialdean egindako ikasturte- edo selektibitate-amaierako ospakizunak izan ziren, jarduera erabat ku-

tsatzaile izan zirenak. Ekainaren 24an Balearretako makro-agerraldia detektatu zen, eta hurrengo egunetan Salou, Conil eta beste batzuk agertu ziren.

Garai hartan, tokian tokiko agerraldi garrantzitsuak ere izan ziren ekitaldi horiekin lotuta, edo, besteak beste, “ez-jaiak” edo “ez-sanjoanak” deitutakoak. Udan zehar, horrelako ekitaldiek jarraipena izan zuten botiloietan, jai-giroko aglomerazioetan eta era askotako gehiegikerietan –gutxiengoak bezain zaratatsuak– eta prebentzioko oinarrizko arauak errespetatu ez zituztenak.

Txertoak aurrera egiten jarraitu zuen, eta hirugarren hiruhilekoan heriotzek beherantz egiten jarraitu zuten. Abuztutik irailera bitartean, 281 hildako izan ziren COVID-19aren kausagatik edo ondorioz. Heriotza gehien izan zituen astea irailaren 6tik 12ra bitartekoa izan zen, 45 heriotzarekin.

Bestalde, uztailaren 30ean Presidenteen beste konferentzia bat egin zen, oraingoan aurrez aurrekoa Salamancan. Bileraren gai-zerrendan bi gai egon ziren: berreskurapenerako Europako funtsen kudeaketa eta erronka demografikoa.

***Bosgarren olatuaren erreferentzia nagusiak***

<table>
<tr><th></th><th>Positiboen kopurua</th><th>14 eguneko Intzidentzia-tasa</th><th>ZIUen okupazioa</th><th>Heriotzak</th></tr>
<tr><td>Hasiera</td><td>98<br>(ekainaren 28a)</td><td>103<br>(ekainaren 26a)</td><td>23<br>(uztailaren 12a)</td><td rowspan="3">353<br>(2021eko ekainaren 29tik urriaren 12ra)</td></tr>
<tr><td>Gailurra</td><td>1.801<br>(uztailaren 21a)</td><td>873<br>(uztailaren 30a)</td><td>82<br>(abuztuaren 22a)</td></tr>
<tr><td>Amaiera</td><td>44<br>(urriaren 10a)</td><td>55<br>(urriaren 12a)</td><td>21<br>(urriaren 15a)</td></tr>
</table>

***LABIren erantzuna***

Aldi horretako kudeaketa, ekainaren amaieratik, Eusko Legebiltzarrean ekainaren 24an onartutako COVID-19 pandemia Kudeatzeko Neurriei buruzko Legearen estaldura juridikoarekin garatu zen. Bere aurreikuspenak garatzeko, Bizi Berri IV Planak egoera epidemiologikoa interpretatzeko eta une bakoitzean dagozkion neurriak aplikatzeko esparru bat eskaini zuen, legean bertan ezarritako adierazleen haztapenaren arabera.

Bai Batzorde Zientifiko-Teknikoan, bai LABIren Aholku Batzordean, jarduerak bizia eta etengabea izaten jarraitu zuen. Uztailean, abuztuan eta irailean bost Dekretu onartu ziren, prebentzio-neurriak Euskadiko pandemiaren bilakaerara egokitzen saiatzeko.

Uztailaren 7an, 203ko intzidentzia-tasa metatuarekin 100.000 biztanleko, maskarak erabiltzeko Estatuko araudi berria jasotzen zuen Dekretua onartu zen. Era berean, indarrean jarraitzen zuten aurreko Dekretuan ezarritako ordutegi-mugak, edukierak, ostalaritzako, joko-establezimenduetako eta txokoetako murriztapenak. Horrez gain, indarrean zeuden protokoloak eta prebentzio-neurriak aplikatu gabe pertsonen aglomerazioa irudikatzen zuten bilkuretan, jaietan edo ekitaldietan parte ez hartzeko betebeharra ezarri zen, kanpoaldean zein barrualdean.

Jai giroko ekitaldietan, botiloietan eta txarto izendatutako “ez-jaietan” sortzen ari ziren arazoen aurrean, uztailaren 15ean, Dekretu berri batek eskatu zuen maskarak nahitaez erabiltzeko legez aurreikusitako neurriak etengabe indartzea, eta, 00:00etatik 06:00etara bitartean, parkeetan, lorategietan, hondartzetan, kirol-eremuetan, irristaketa edo skate pistetan edo aire libreko antzeko erabilera publikoko espazioetan bizikideak ez ziren pertsona-multzoak edo jende-pilaketak egoteko ezintasuna ezarri zuen.

Uztailaren 22an, 682ko intzidentzia-tasarekin 100.000 biztanleko, LABIk argi berdea eman zion merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztiak 01:00etan ixteko muga-ordutegia ezartzen zuen beste Dekretu bati. Era berean, jardueretan baimendutako gehieneko edukierak nabarmen murriztu ziren.

Abuztuan zehar kutsadura-transmisioak etengabe behera egin ondoren, hil horren 30ean, 340ko intzidentzia-tasarekin 100.000 biztanleko, LABIk beste Dekretu bat onartu zuen, neurri murriztaile batzuk malgutzeko, batez ere edukierei zegozkienak.

Jaitsierak bere horretan jarraitu zuen, eta irailaren 17an, 100.000 biztanleko 138ko intzidentziarekin, LABIren beste bilera batean aldi horretako bosgarren Dekretua onartu zen. Jarduera guztiak ixteko epemuga 03:00ak arte luzatu zen. Jardueretan baimendutako gehieneko edukiera %75ean ezarri zen. Gaueko aisia %50ean ireki ahal izango zen berriro, maskararekin dantzatzeko aukerarekin eta gainerako guztia ostalaritzaren antzeko baldintzetan.

### *Txertaketaren faktorea*

Ekainaren 26an, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 103koa izan zen 100.000 biztanleko. Olatu horren tontorra uztailaren 30ean jo zen, 873ko intzidentzia-tasarekin. Harrezkero, jaitsiera hasi zen, urriaren 12ra arte eten ez zena. Egun horretan, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 54koa izatera iritsi zen.

Aurreko ataletan, bosgarren olatu honetan kutsadurak gora egiteko arrazoi posibleak azaldu dira. Hau da, ikasturte amaierako makroagerraldiak eta selektibitatea, jaiak eta botiloiak, udako mugikortasun eta interakzio sozial handiagoak, eta Delta saihesbidearen kutsakortasun handiagoa, besteak beste.

Komeni da aipatzea, halaber, olatu horren jaitsieraren arrazoi nagusiak izan zitezkeenak. Hauek dira nabarmentzeko modukoak: lehenik eta behin, birusaren hedapenak Europa osoan eta munduko zati handi batean izan zuen atzerapen-joera orokorra; bigarrenik, une bakoitzean hartutako neurri prebentiboen eta murriztaileen eraginkortasuna; eta hirugarrenik, txertaketaren aurrerapena. Hirugarren faktore horrek berariazko iruzkina merezi du.

Hiruhileko horretan, xede-populazioaren txertaketak, jarraibide osoarekin, gora egin zuen: ekaina amaieran, %48,3koa izatetik, iraila amaieran, %88,5koa izatera pasa zen. Uztailaren 1ean, jarraibide osoko txertaketa-ehunekoa %10,2 zen, 12 eta 39 urte arteko populazioan. Irailaren 30ean, %76koa zen. Txertaketa-prozesuaren aurrerapena, arrakasta eta ondorioak irmoak eta argiak dira.

Txertaketaren lehen eguna 2020ko abenduaren 27a izan zen. Bederatzi hilabetetan, xede-biztanleen ia %90ek zeukaten txertoaren jarraibide osoa. Erregistro hori munduko altuenetakoa da eta, zalantzarik gabe, azaltzen du, kutsatzeek eta intzidentzia-tasek hain beherakada handia izatea Euskadin hiruhileko horren amaieran.

### *LABIren erronka berria*

Datu horiek mahai gainean jarrita, irailaren amaieran LABIk erronka garrantzitsu bat zeukan aurrean: gaixotasun horrek gizartearen funtzionamenduan eta osasun-sistemaren jardueran eragin kritikoa izateari noiz utziko zion baloratzea. Azterketa hori inflexio-puntua izan zitekeen pandemiaren kudeaketan.

LABIko Batzorde Zientifiko-Teknikoaren irailaren 23ko bileraren akta oso esanguratsua da zentzu horretan:

> *(…) "Egoera eta perspektibak aztertzerakoan, Batzordean bat etortzea erabatekoa da. Adostasun hori honako puntu hauetan laburbil daiteke:*
>
> - *Hobekuntza nabarmeneko joerari eutsi zaiola egiaztatu da. Transmisio komunitarioa desagertzen ari da hartutako neurriei eta txertaketa-ehuneko handiak eragindako immunizazioari esker.*
> - *Egiaztatu da ikasturtea eta jarduera akademikoa berriz hasteak ez duela gorakadarik eragin. Beste Autonomia Erkidego batzuetako egoerak ere bilakaera positiboa izan du, baita Europan ere.*
> - *Ondorioz, epe laburrean ez da joera horren aldaketa-zantzurik ikusten. Mehatxu nagusia, une honetan eta etorkizun hurbilean, birusaren beste aldaera batzuk agertzea da, txertoaren eraginetik ihes egiten dutenak.*
> - *Aurreikuspenen arabera, datozen asteetan Euskadin fase pandemiko batetik fase endemiko batera goazela baieztatu ahal izango dugu. Egoera berri honetan, birusarekin bizitzen jarraituko dugu. Uhin epidemikoak ager daitezke, baina horrek ez du eragin kritikorik izango gizartearen funtzionamenduan.*
> - *Azpimarratu behar da –bereziki, komunikazio publikoaren ondorioetarako– aurrekoak ez duela esan nahi Koronabirusa eta pandemia desagertu direnik. Pandemia OMEk deklaratu zuen, eta adierazpen horrek indarrean jarraitzen du, birusa erabat aktibo baitago planetako eremu zabaletan, eta horrek aldaera berriak agertzeko arriskua dakar.*

*Ikuspegi horretatik, eta ustekabeko aldaketarik ez badago, Batzordeak aho batez berretsi du aurreko bileretan egindako planteamendua:*

*1. Egokitzat jotzen da urriaren hasieran Euskadiko osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioari amaiera ematea, osasun-zaintzako egoerara igarotzeko.*

*2. Aldaketa hori berresten duten oinarrizko adierazleak honako hauek dira:*

*- ZIU: 40 ohe edo gutxiago okupatuta.*

*- Txertaketa: %90 edo gehiago jarraibide osoarekin, 12 urtetik gorako populazioan.*

*- 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua: beheranzko joera jarraitua".*

2021eko urriko lehen egunetan, Batzorde Zientifiko-Teknikoak, LABIren Aholku Batzordeak eta Lehendakariak, Estatuko, Europako eta munduko osasun-erakundeekin lerrokatuta, etorkizun hurbilerako erabaki garrantzitsuak hartu behar zituzten. Une hartan eskuragarri zeuden datu objektiboetan eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako erabakiak; baina, era berean, SARS-CoV-2ren bilakaera etorkizunean zein izan zitekeen jakin gabe. Beste behin ere, birusaren aurreikusezintasunak ustekabea gordeta zeukan komunitate zientifikoarentzat eta munduko erakunde guztientzat.

## 1.6. 2021eko laugarren hiruhilekoa

### *Osasun-larrialdiaren amaiera*

2021eko urriaren hasieran, pandemiaren datu eta adierazle guztiak benetan etorkizun handikoak ziren. Agian, itxaropentsuena COVID-19ak hildako pertsonen kopurua izugarri jaitsi izana zen.

Analisian adostasuna eta bat-etortzea erabatekoa zen. Birusak gizarteari eragiteko duen gaitasuna murriztea ahalbidetu zuen txertaketak. Hemendik aurrera, normaltasun erlatiboan oinarrituta kudea zitekeen.

Pandemia eta birusa ez ziren desagertu, baina transmisioari erantzuteko baliabide arruntak erabil zitezkeen. Beraz, gizarteari eragiten zioten salbuespenezko neurri murriztaileen egoera arindu behar zen, eta ezohiko tresna juridikoak eta instituzionalak desaktibatu behar ziren. Hona hemen LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoaren 2021eko urriaren 4ko Irizpena, bere interesa dela eta.

### *Batzorde Zientifiko Teknikoaren irizpena*

*2021eko urriaren 4a*

***•Euskadi zein agertokitan dagoen***

*Bizi Berri IV Planaren erreferentzia-panelaren arabera eta COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera, epidemiaren datuen bilakaerak, aste honetan, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatuari dagokionez, 1. mailako Transmisio Baxuko agertokian kokatuko du Euskadi, beheranzko joerarekin. ZIUko oheen okupazioa 1. agertokian dago (5etik) ESI guztietan, beheranzko joerarekin halaber.*

***•Datuak***

*Egoeraren balorazioa, Bizi Berri IV Planak eta COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko Legeak ezartzen duten bezala, hainbat adierazleren haztapen eta analisi konbinatuaren bidez egin behar da, 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatuak ematen duen informazioa osatzeko. Ildo horretan eta une honetan, bereziki interesgarria da honako adierazle hauen bilakaera aztertzea:*

*· 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatuak 66 egun egin du behera: uztailaren 30ean 100.000 biztanleko 873 kasu izan ziren, eta gaur egun 63 dira.*

*· 7 eguneko Intzidentzia-tasa metatuaren daturik altuena uztailaren 24an izan zen, 469/100.000 biztanle. Gaur egun 26koa da.*

*· Olatu horretan zehar ZIUetan okupazio handiena izan zuen eguna abuztuaren 22an izan zen, 82 oherekin; gaur 39 ohe daude beteta, eta pixkanaka beheranzko joera dago.*

*· Joerari dagokionez, $R_0$k uztailaren 2an egin zuen tontorra (1,53), eta gaur 0,83koa da. Duela 68 egunetik hona, 1etik behera egon da.*

*· Txertaketari dagokionez, 12 urtetik gorako biztanleen %90,2k dosi bate jaso du, eta inmunizazio osoa %88,9k dauka.*

*· Birusaren aldaera berrien zaintzari dagokionez, Delta aldaera Euskadin dauden SARS-CoV-2 aldaeren %95 baino gehiago da. OMEk definitutako interes- eta kezka-aldaeren zaintzari eusten zaio.*

***•Balorazioa***

*Beheranzko joera, adierazle batzuetan uniformea ez bada ere, egonkorra eta iraunkorra da adierazle guztietan. Beste egoera batean gaude. Diagnostiko hori hiru parametro nagusik bermatzen dute:*

*- Aste honetan, populazioaren %90k jaso du txertoa, jarraibide osoarekin.*

*- ZIUko okupazioa 40 ohe baino gutxiagokoa da; %20 baino gutxiagokoa (1. agertokian 5etik).*

*- 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 60tik behera kokatuko da aste honetan beheranzko joerarekin.*

*Hiru datu horiek pandemiak Estatuan eta Europan izan duen bilakaerarekin eta jarraipen epidemiologikoko gainerako adierazleek ematen duten informazioarekin berretsi dira, eta bat datoz Batzorde honek ezarri zituen erreferentzien profilarekin, Euskadi osasun-larrialdiko egoera batetik osasun-zaintzan enfasia jarriko duen egoera batera igaro dela baieztatzeko.*

*COVID-19aren eraginak –Euskadin eta une honetan– eragin kritikoa izateari uzten dio osasun-sistemaren funtzionamenduan, lehentasunez, eta COVID aurreko jarduera behar bezala garatzeko. Mundu osoan pandemiak bere horretan jarraitzen badu ere, kasu eta heriotza kopuruak gora egin baitu munduko eremu askotan, egoeraren tratamendua, une honetan eta gure egoeran, endemikotzat har daiteke. Horrek esan nahi du infekzioen kopurua nahiko konstante bihurtzen dela denboran zehar, nahiz eta noizbehinkako agerraldiak egon daitezkeen.*

***•Ondorioak eta gomendioak***

*1. Une honetan, Batzorde Zientifiko Teknikoak uste du gizarte-jarduera suspertzeko trantsizio-etapa bete dela, COVID aurreko denboraren nahiko antzera, eta ahaleginak finkatze-fasera bideratu behar direla. Horrek esan nahi du amaiera eman dakiokeela osasun-larrialdiko egoeraren Adierazpenari. Era berean, indarrean zeuden neurri murriztaile/mugatzaile nagusiak deusezta daitezkeela esan nahi du, oinarrizko prebentzio-zuhurtasunarekin bada ere.*

*2. Egungo datuak eta joera bat datoz Bizi Berri IV Planean ezarritako aurreikuspenekin, hain zuzen ere ordutegiak, edukiera eta jardueren egituraketa mugatzeko neurriak jasotzeari buruzkoekin. Zalantzarik gabe, egoerak hobera egin du, baina horrek ez ditu erabat desagerrarazten ezkutuko ziurgabetasunak eta mehatxuak, hiru puntutan kontzentratzen direnak: birusa aurreikusteko ezintasuna, mutazio-gaitasun handia duelako; txertaketa-defizita planetako eremu zabaletan; eta immunitate naturalaren edo txertoaren inmunitatearen iraupen-ziurgabetasuna.*

*3. Estatuarekin lotzen gaituzten neurriak indarrean mantentzeaz gain, oinarrizko prebentzio-neurriak mantentzen jarraitu behar da. Oraindik ere derrigorrezkoa da maskarak erabiltzea barrualdean eta kanpoaldean, pertsonen arteko distantziari eutsi ezin zaionean.*

*4. Era berean, oraindik ere beharrezkoa da prebentzio-jarrera izatea arrisku-egoeren aurrean, pertsonen pilaketa ematen den testuinguruetan. Ildo horretan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Gidalerroen eta Giden prebentzio-eginkizuna mantentzea eta nabarmentzea gomendatzen dugu.*

*5. Gogoan izan behar dugu, egoerak hala eskatzen badu, beharrezkoa izan daitekeela berriro prebentzio-neurriak hartzea. Ezinbestekoa da eguneroko egoera ebaluatzen eta aztertzen jarraitzea.*

*6. Ildo horretatik, hurrengo hilabeteetan, funtsezkoa izango da proba diagnostikoak egitea, kutsatzeak eta kontaktuak arakatzea, isolamenduak eta berrogeialdiak betetzea, eta aldaera berriak zaintzea. Sistema horiek mantentzea eta optimizatzea gomendatzen dugu, etapa berri honen ezaugarrietara egokituz.*

*7. Hurrengo aste eta hilabeteetako egoera aztertzeari begira, ebaluazio-erreferentziak honako helburu hauetan oinarritzea gomendatzen dugu:*

*· ZIUak 40 ohetik behera egotea.*

*· Intzidentzia-tasa metatuaren beheranzko joera edo joera egonkorra.*

· *txertaketak aurrera egitea, batez ere %90era iritsi ez diren adin-tarteetan, eta talde ahuletan indartzea.*
· *kasuak eta kontaktuak detektatzeko, jarraipena egiteko eta isolatzeko gaitasun handia.*
· *txertoaren immunitatetik ihes egiten duen aldaerarik ez egotea.*

**•*Azken gogoetak***

· *Aurreko ondorioek agerian uzten dute Bizi Berri IV Planean ezarritako helburuak lortu direla. Agerian jarri behar da hori lorpen kolektiboa dela, eta kausa nagusi bat duela: txertaketari emandako erantzun ona eta lortutako immunizazio-maila. Funtsezkoa da euskal gizarteari eta osasun-sistemari lorpen hori eskertzea eta aintzatestea.*

· *Hori dela eta, ezinbestekoa da txertaketa-prozesua amaitzeko deia egitea oraindik txertoa hartu ez duten pertsona guztiei. Ebidentzia zientifikoa eta datu objektiboak sendoak dira. Txertoa, maskara erabiltzeko prebentzio-neurriekin, eskuetako higienearekin eta interakzio sozial orotan gomendatutako distantziari eusteko neurriekin batera, bai eta barrualdeko etengabeko aireztapenarekin batera ere, tresnarik onena da birusa menderatzeko eta osasun publikoa zaintzeko. Txertoa jartzeko aukera duenak jarri beharko luke.*

· *Ildo horretatik beretik, Batzorde Zientifiko-Teknikoaren azken gogoetak, berriz ere, txertaketa globalak eta solidarioak mundu osoan duen garrantzia azpimarratzen du. Batzorde honek aitortzen eta baloratzen ditu Eusko Jaurlaritzak ildo horretan eman dituen urratsak, bide horretatik jarraitzera animatuz. Aldi berean, ekimen horiekin bat egitera gonbidatzen ditu gainerako erakundeak, bai elkartasunaren eta justiziaren printzipio etikoagatik, bai herrialde guztietako osasun publikoa –baita gurea ere– defendatzeko printzipio pragmatikoagatik.*

Oinarri horrekin, urriaren 5ean bildu zen LABIren Aholku Batzordea, eta ontzat eman zuen Lehendakariaren 39/2021 Dekretua, osasun-larrialdiko egoera amaitutzat jotzen zuena. Indarrean zeuden neurri murriztaile guztiak indarrik gabe geratu ziren. Deseginda geratzen dira, halaber, LABIren Aholku Batzordea eta Lehendakaritzako Batzorde Zientifiko-Teknikoa.

Une horretatik aurrera, Euskadiko osasun-agintaritza gaitzen da, Osasuneko sailburua buru dela, egoera bakoitzean egokiak diren neurriak hartzeko. Ondorioz, Osasun Sailari dagokio pandemiaren fase berri honi erantzuna ematea.

### *Ekaitz berri baten aurreko sei asteko lasaitasuna*

Adierazi bezala, uztailaren 30ean bosgarren olatuaren gailurra gertatu zen, eta 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 873koa izan zen. Egun horretatik aurrera, datuek behera egiteko prozesua hasi zuten eta, urriaren 12ra arte, egun horretan intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 54koa izan zen.

Ordutik aurrera, hurrengo sei asteetan, igoera txiki bat hasi zen. Azaroaren 10ean, 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 125koa zen. Hau da, 30 egunetan 71 puntuko igoera gertatu zen, eta hori egindako estimazioetan eta pronostikoetan aurreikusten zenaren barruan sartzen zen.

Azaroaren 10etik aurrera igoera handiagoa izan zen, azaroaren 26ra arte. Egun horretan 1.150 positibo erregistratu ziren, 14 eguneko Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 436koa da. Bi aste pasatxoan, hazkundea 300 puntutik gorakoa izan zen. Egun hartan, 47 pertsona zeuden ospitaleratuta ZIUn, eta honen kotarik baxuena urriaren 22an izan zen, 21 pertsonarekin.

Aurreko sei asteetan ordura arte bizitako lasaitasun erlatiboa gero eta kezka handiagoak ordezkatzen du. Azaroaren 26tik aurrera, detektatutako kasu positiboen eta intzidentzia-tasen igoerak progresio esponentzialaren gorakada hasi zuen, pandemia osoan inoiz ikusi gabekoa.

Horren aurretik, azaroaren 17an, Eusko Jaurlaritzak Osasuneko sailburuaren agindu bat prestatu zuen, Covid Ziurtagiria prebentzio-neurri gehigarri gisa erabiltzeko beharra ezartzeko gaueko aisialdiarekin eta ostalaritzarekin lotutako establezimenduetan eta jardueretan. Garai hartan, neurri hori Europa osoan eta Autonomia Erkidego gehienetan antolatzen ari zen.

Hala ere, Euskadin, berriz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak auto bat kaleratu zuen, azaroaren 22an, baimena ukatzeko. Eusko Jaurlaritzak errekurtsoa jarri

zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, eta Auzitegi Gorenak, azkenean, haren erabilera baliozkotu zuen azaroaren 30eko epaian.

Egia esan, gertaera horiek gertatu bitartean, ekaitz pandemiko berri bat gerturatzen ari zen. Hasiera batean, kutsatze gehienak oraindik txertoa jaso ez zuten 12 urtetik beherakoen artean gertatu ziren, baita txertoa hartu ez zuten helduen artean eta txertoa hartu zuten lehenak izan zirenen artean ere, baldin eta haien immunitatea eraginkortasuna galtzen ari bazen.

Oraindik gutxi zekiten Ómicron aldaeraren eraginari buruz. Hego Afrikan atzeman zutenaren lehenengo albisteak azaroaren amaierakoak dira. Hala ere, garai hartan ia ez zegoen kutsakortasunari edo larritasunari buruzko informaziorik edo ebidentziarik.

Abenduaren 13ko astean Ómicron aldaeraren lehenengo sei kasuak detektatu ziren Euskadin. Abenduaren amaieran, %90 baino gehiago nagusituko da. Ondorioztatu behar da Ómicron aldaera dagoeneko jardunean zegoela detektatu baino aste batzuk lehenago. Une hartatik aurrera, seigarren olatu horren kausak azaltzen hasi ziren, bai eta aurreko olatuetatik guztiz desberdinak ziren ezaugarriak ere.

Datuak argigarriak dira. Aurreko olatuetatik, positibo gehien erregistratu ziren eguna 2021eko uztailaren 21a izan zen, 1.801 kasurekin. Abenduaren 15ean, 2.272 kasu positibo izan ziren Euskadin, xede-biztanleriaren %90 baino gehiagok txertoa hartuta zeukala. Hala ere, eskaladak aurrera jarraitu zuen eta beste hiru astez luzatu zen. Zifra hori sei aldiz biderkatu zen 2022. urtearen hasieran.

### *Hirugarren osasun-larrialdia*

Europa osoan seigarren olatu bat sartuta, eta pandemiaren oldarraldi berri horrek izango zuen irismena jakin aurretik, abenduaren 2an, Lehendakariak hirugarrenez deklaratu zuen osasun-larrialdiko egoera Euskadin. Oraingo honetan, COVID-19 pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

LABIren Aholku Batzordea berriz eratu zen, eta Batzorde Zientifiko-Tekniko berri bat sortu zen. Bi organoak abenduaren 3an bildu ziren lehen aldiz, eta beren metodologia eta koordinazioa etapa berri horretara egokitu zituzten. Osasun-larrialdiko aldi bakoitzean, LABIk egitura desberdina izan du, pandemiak bere bilakaeran planteatu dituen behar desberdinetara egokituta.

Lehenengo olatuan, organo bakar batek zuen ordezkaritza mistoa: instituzionala eta teknikoa. Lehen Bizi Berri Plana Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Zerbitzuak koordinatu zuen. Bigarren etapan, LABIk, Aholku Batzordeaz gain, Batzorde Zientifiko-Tekniko bat izan zuen, Lehendakaritzak koordinatuta. Osasun-larrialdiko hirugarren fase honetan, egitura berri bat finkatu da, aurrekoaren antzeko osaera duen Aholku Kontseilu batekin eta Osasun Sailak koordinatutako Batzorde Zientifiko-Sanitario berri batekin.

Auzitegi Gorenaren bermearen ondoren, abenduaren 4an, Osasuneko sailburuaren agindu batek COVID ziurtagiri digitala exijitzea gaitu zuen gaueko aisialdiarekin eta jatetxearekin lotutako establezimenduetan. Geroago, Lehendakariaren abenduaren 14ko Dekretuaren bidez, zabaldu egin zen hau eskatzea nahitaezkoa izango duten establezimenduak, ekitaldiak, jarduerak eta lekuak.

Testuinguru horretan, abenduaren 18an, Lehendakariak gutun bat bidali zion Gobernuko Presidenteari, Presidenteen Konferentzia bat egitea proposatzeko, seigarren olatuaren eta Ómicron aldaeraren kutsakortasun handiaren aurrean neurriak adosten saiatzeko. Bilera abenduaren 22an egin zen telematikoki.

Lehendakariak hamar neurri zituen proposamen bat aurkeztu zuen, Autonomia Erkidego guztien arteko adostasuna sustatzera bideratua, seigarren olatuaren erdian, Gabonak igarotzeko, arau partekatuekin. Bileran ez zen akordiorik ezartzeko aukerarik izan. Ezintasun horren aurrean, geroago, Eusko Jaurlaritzak eta Autonomia Erkidego mugakideek prebentzio-neurriei buruzko irizpideen oinarrizko akordio bat ezarri zuten urte amaierako testuinguruan.

Horrela, abenduaren 28an, LABIren Aholku Batzordeak seigarren olatuari aurre egiteko prebentzio-neurriak indartzea erabaki zuen. LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoaren gomendioei jarraiki, argi berdea eman zion 01:00etan jarduerak ixteko ordutegia ezartzen zuen Dekretu berri bati, ostalaritzan zutik kontsumitzea debekatzen zuena eta mahaietako bezero-taldeei eta barneko kirol-jarduerak gehienez 10 pertsonako taldeetan egitea mugatzen zuena. Neurri horiek, hasiera batean, urtarrilaren 28ra arte mantenduko ziren.

Hiruhileko honetan 321 lagun hil ziren. Heriotza gehien izan zituen astea abenduaren 13tik 19ra artekoa izan zen, 47 hildakorekin, eta gutxien izan zuena azaroaren 1etik 7ra artekoa, 8 pertsonarekin. 2021. urtea amaitzean, urte osoan zehar COVID-19ak hildako pertsonen balantzea 1.978koa da. 2020an 3.106 pertsona hil ziren. Guztira, 5.000tik gora familiek galdu zuten hurbileko pertsona bat COVID-19aren kausagatik edo ondorioz. Dimentsio ikaragarriko sufrimendu horrek eragina du gizarte osoaren giza sentsibilitatean.

## 1.7. 2022ko urtarrila eta otsaila

2021. urtearen amaieraren eta 2022. urtearen hasieraren arteko Gabonak kezka-iturri izan ziren. Seigarren olatu horren kutsaduraren hazkunde esponentzialaren fasea azaroaren 26an hasi zen, eta sei aste baino gehiago igaro ondoren, gorantz jarraitu zuen. Intzidentziari dagokionez, datuen tamainak ez zuen aurrekaririk.

### *Pandemia osoaren sabaia*

Azkenik, urtarrilaren 4an, olatu horretan detektatutako positiboen gailurra 14.063ra iritsi zen. Urtarrilaren 11n, Intzidentzia-tasa metatua pandemia osoaren orain arteko maximoa lortu zuen, 7.038 tasarekin 100.000 biztanleko. Lehenago, intzidentzia-tasa metatu handienak 2020ko azaroaren 5ean gertatu ziren, 850eko tasarekin; eta 2021eko uztailaren 30ean, 873ko tasarekin.

Une horretatik aurrera, beheranzko joera hasi zen, eta behera jarraitzen du memoria hau otsailaren 28an ixten denean. Egun horretan, 612 positibo detektatu ziren. Epidemia-kurbaren jaitsiera-lerroak trazadura ia bertikala marraztu du, igoeraren simetrikoa.

Aipamen berezia merezi du seigarren olatu horren eraginak ospitaleratzeetan. Aurreko olatuen antzeko ospitaleratzeen proportzioa jarraitu izan balu ZIUn, ziurtasun osoz gertatuko zatekeen kolapso-egoera ospitaleetan. Hala ere, hori ez zen gertatu. Seigarren olatu horren ospitaleratzeen presio handiena urtarrilaren 11n gertatu zen, 840 ohe bete zirenean.

Lehen olatuan, 236 ohe okupaturekin iritsi zen gailurra ZIUn. 2021eko maiatzaren 2an, laugarren olatuaren sabaian, 1.013 positiborekin eta 14 eguneko 547ko intzidentzia-tasarekin, ZIUn 195 ohe zeuden beteta. Orain, tasa 12 aldiz handiagoa izanik, ZIUetako gehieneko okupazioa 143 ohekoa izan zen urtarrilaren 16an.

Bi faktorek azaltzen dute errealitate hori. Alde batetik, agerian geratu da Ómicron aldaerak aurreko aldaerak baino larritasun txikiagoa duela. Bestalde, pauta osoarekin txertatze altuaren barrera-efektua, Euskadin une horretan xede-biztanleriaren %93tik gorakoa zena. Datuen ebidentzia eztabaidaezina da. Txertoak gaixotasun larriak izateko arriskutik babesten du.

Seigarren olatu horretan, txertorik hartu ez duten pertsonak, pertsona immunodeprimituak eta beste patologia batzuek eragindako pertsonak izan ziren koadro larriak pairatzeko joera handiena izan zuten kolektiboak, batez ere adinean aurrera egin ahala. Urtarrilean eta otsailean, ZIUn ingresatutako txertatu gabeko pertsonak %46 izan ziren. Kontuan hartu behar da EAEko biztanleria osoan txertatu gabeko pertsonen ehunekoa %14tik beherakoa zela (5 urtetik gorako biztanleriari dagokionez).

### *LABIren jarduera*

2022ko lehen bi hilabeteetan, LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoak 15 bilera egin zituen. LABIren Aholku Batzordeak bi bilera egin zituen, eta horietan erabakiak hartu ziren prebentzio-neurriak datuen bilakaerara egokitzen saiatze aldera. Bilera horiek urtarrilaren 28an eta otsailaren 10ean egin ziren.

Lehenengo bileran pandemiaren jarraipen-parametro guztien beherakada egiaztatu zen. Ospitaleko presioak ere gora egiten zuen. Hala eta guztiz ere, eta zuhurtziagatik, beharrezkotzat jo zen abenduaren 28tik indarrean zeuden neurri gehienak beste bi astez mantentzea.

Zehazki, honako neurri hauek luzatu ziren: jarduerak ixteko ordutegia 01:00etan; edukiera mugatzea barnealdeetan, %60an; ekitaldietan 600 pertsona, gehienez, barnealdeetan eta 800, kanpoaldean; 1.600 eta

**Bi urte eta sei olatutan izandako 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatuaren, ZIU okupazioaren eta heriotzen bilakaeraren konparazio-grafikoa**




14 eguneko Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko Euskadin
ZIUn dagoen pertsona-kopurua Osakidetzan
COVID-19arekin hildakoen kopurua astero

**Iturria:** Osasun Saila

**Oharra**: Lehen olatuaren Intzidentzia-tasa metatua deskribatzen duen lerroaren gailurra ezin da alderatu ondorengo olatuen gailurrekin. Seguru asko, kutsatutako pertsonen kopurua handiagoa izan zen, bereziki sintomarik gabeko pertsonen kasuan; baina ezin izan ziren erregistratu, positiboak detektatzeko gaitasuna txikiagoa zelako. ZIU okupazio -maila altuenek eta heriotzek erakusten dute bat ez etortze hori.

5.000 pertsona arteko edukiera duten barrutietan, gehienez ere, 800 lagun eta 1.200 pertsona kanpoaldeetan; eta 5.000 lagunetik gorako edukiera duten barrutietan, %50eko edukiera; Ostalaritzan eta gaueko aisialdian, debekatuta zutik kontsumitzea, mahai bakoitzeko gehienez 10 lagun; txokoetan eta gazteen lonjetarako, araubide hori bera aplikatzen zen; eta, azkenik, barrualdeko kirol-jarduera 10 pertsonako taldeetan egin behar zen, eta aldagelen erabilera %50era mugatuta.

Covid Ziurtagiriaren erabilerari dagokionez, LABIk erabaki zuen derrigortasuna bi astez luzatu behar zela. Horretarako, aurretiazko baimena eskatu zion EAEANri. Administrazioarekiko auzien salak ukatu egin zuen. Egun horietan bertan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Euskadin eskatutakoaren antzeko luzapena baimendu zuen.

Euskal Epaitegiaren ukapenak ez zion eragiten Osasuneko sailburuaren aurreko agindu bati, gaueko aisialdian eta 50 lagunetik gorako edukiera zeukaten jatetxeetan derrigorrezkoa izateari buruzkoari. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, ebazpen judizialaren ondoren, ez zuen zentzurik eta baliagarritasunik agindu hura indarrean mantentzea solik bi eremu horietan, eta indargabetu egin zen. Horrela, otsailaren 4tik aurrera, Covid ziurtagiriak ez zuen eraginkortasunik izan Euskadin. Indarrean zegoen bitartean, txertatuta zeudenen ehunekoa adin-tarte atzeratuenetan handitzen lagundu zuen argi eta garbi.

LABIren Aholku Batzordearen bigarren bilera, 2022an, otsailaren 10ean egin zen. Hau 38. bilera izan zen 2020ko martxoaz geroztik. Bilera hura azkena izango da dokumentu hau amaitutzat eman den arte. Egoera epidemiologikoaren hobekuntza nabarmena zen Euskadin eta Europa osoan.

Testuinguru horretan, LABIk adierazi zuen otsailaren 14tik aurrera osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioari amaiera emango zion Dekretu baten aldeko jarrera zuela. Aldi berean, Aholku Batzordeak erabaki zuen egun horretatik aurrera ez zirela luzatu behar indarrean zeuden neurriak. Ondorioz, bertan behera geratu ziren 01:00etan jarduerak amaitzeko ordutegia, edukiera-mugak, ekitaldietako ikus-entzuleen maximoak, edo ostalaritzako edo barrualdeko kirol-jardueraren garapeneko jardueren egituraketa.

Osasuneko sailburuaren agindu batek, otsailaren 14an indarrean jarri zenak, prebentzio orokorreko neurriak eguneratu zituen, maskaren erabilerari, pertsonen arteko distantziari, higieneari, barruko espazioen aireztapenari eta osasun publikoa babesteko gomendio nagusiei dagokienez.

LABIren Aholku Batzordearen bileraren ondorengo agerraldian, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak adierazi zuen erabaki horiek hartzeko hiru erreferentzia nagusi hartu zirela kontuan: lehenengoa, Batzorde Zientifiko-Teknikoaren gomendioak; bigarrena, adierazle epidemiologiko guztien eta joera-aurreikuspenen bilakaera; eta hirugarrena, neurriak aplikatzeko irizpide orokorraren bilakaera, Europa osoan, arau-mugarik gabeko etapa baterantz eta banakako prebentzio-neurri orokorrekin eta autorregulazio-neurri orokorrekin gidatua.

Datuak argiak ziren urtarrilaren hasieratik. Urtarrilaren 4an 14.000 positibo izatetik 1.800 izatera igaro ziren LABIren bileraren egunean. Intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 7.000 izatetik 2.000 izatera igaro zen. Ospitaleetako okupazioa erdira jaitsi zen. ZIUetan 143 ohe okupatutik 80ra igaro zen. Joera-adierazle guztiek adierazten zuten beheranzko joera zegoela parametro guztietan. $R_0$, adibidez, 0,70etik behera zegoen; abenduaren 30ean 1,63an zegoen bitartean.

LABIk, gainera, kontuan hartu zituen Euskadiko txertaketa-datu onak. Garai hartan, %93tik gorako portzentajea lortu izanaz gain, errefortzu-dosia jaso zuten biztanleak %61 baino gehiago ziren. Era berean, Ómicron aldaeraren portaera baloratu zen; izan ere, une hartan ezagunagoa baitzen inpaktuari dagokionez, eta 2022ko otsailaren hasieran atzera egiteko eta jaisteko fasean zegoen Europa osoan.

Faktore horiek hartu zituen aintzat LABIren Aholku Batzordeak, osasun-larrialdiko egoerari eta neurri murriztaileei amaiera emateko. Pandemiaren kudeaketa-fase berri batean sartu zen; fase horretan, erantzuna ezohiko baliabideak erabili beharrik gabe garatu zitekeen, hala nola osasun-larrialdia edo LABI. Une horretatik aurrera, Osasun Sailari zegokion pandemiari emandako erantzuna zuzentzea.

### *Nolakoa izango da etorkizuna*

Otsailaren 11tik (LABIren azken bilera egin zen eguna) memoria hau itxi den unera arte (otsailaren 28a), adierazle guztiek beheranzko joerarekin jarraitu dute eta ordura arte Batzorde Zientifiko Teknikoak eta Aholku Batzordeak egindako diagnostikoa berretsi dute.

Otsailaren 28an 612 positibo detektatu ziren, hau da, urtarrilaren 4an baino 13.989 kasu gutxiago. 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 445koa izan zen otsailaren amaieran. Urtarrilaren 11tik 6.594 puntu jaitsi zen. Otsailaren 28an, 150 ohe zeuden beteta ospitaleetan, seigarren olatu horren gailurrean 840 ohe zeuden bitartean. Dokumentu hau ixterakoan, ZIUko okupazioa murriztu egin da, 143 ohetik 42 ohera.

### *Seigarren olatuaren erreferentzia nagusiak*

| | Positiboen kopurua | 14 eguneko Intzidentzia-tasa | ZIUen okupazioa | Heriotzak |
|---|---|---|---|---|
| Hasiera | 44 (urriaren 10a) | 55 (urriaren 12a) | 21 (urriaren 15a) | 1.414 (2021eko urriaren 13tik 2022ko otsailaren 28ra) |
| Gailurra | 14.603 (urtarrilaren 4a) | 7.039 (urtarrilaren 11) | 143 (urtarrilaren 16) | |
| Memoria ixtean | 612 (otsailaren 28a) | 445 (otsailaren 28a) | 42 (otsailaren 28a) | |

Komunikabideen aurrean egindako agerraldian, Lehendakariak honako adierazpen hau egin zuen:

> *"Ezin dugu ziur egon gainditzen ari garen seigarren olatu hori azkena denik. Munduak, oro har, pandemia global baten eraginpean jarraitzen du. Era berean, ezin dugu ziurtatu etorkizunean ez dela beharrezkoa izango osasun-larrialdia deklaratzea edo neurri murriztaileak aplikatzea. Gaur ezin dugu hori jakin. Zientziak ez du gaitasunik urte amaiera bitartean birus horren bilakaera zein izango den segurtasun nahikoarekin aurreikusteko.*
>
> *Hala eta guztiz ere, erabakiak gaur dakigunaren arabera hartu behar ditugu. Horrela, ahal den neurrian, pertsonei eta gizarteari bizitza pertsonala, familiarra eta soziala garatzeko eta jarduera sozioekonomikoen funtzionamendurako mugak eta gabeziak saihestu behar dizkiegu. Une honetan, horretarako baldintzak betetzen dira".*

Hurrengo egunean, otsailaren 12an, Eusko Legebiltzarrean egindako kontrol-saio batean, Lehendakariak berak, etorkizunari dagokionez, honela adierazi zuen:

> *"Orain, arretaz jarraitzen dugu "aditu" bezela deitzen ditugunon arteko eztabaida, pandemia batetik endemia batetara igarotzen ari garen edo ez argitzeko. Birusaren eragina jaisten ari da osasun-sisteman eta gizarte-jardueran; dena den, Osasunaren Munduko Erakundeak izendatu zuen pandemia, eta bere horretan jarraitzen du.*
>
> *Gaur, ia bi urte geroago, dakiguna da pandemia ez dela desagertu. Badakigu birusaren mutazio-gaitasuna arriskutsua dela; baita munduko eremu zabaletako txertaketa-defizita ere. Dakiguna da ere alderagarriena den datua da hildakoen datua.*
>
> *Nuestra estrategia otorga prioridad a una palabra: recuperación. Estamos preparados para este objetivo prioritario. Recuperar el servicio sanitario en su integridad y superar la situación emocional y de incertidumbre de nuestra sociedad.*
>
> *Somos conscientes de lo que se ha luchado y de lo que se ha sufrido. Conscientes de todo lo que se ha conseguido para mantener el equilibrio entre la prioridad de la salud pública y la actividad social, educativa, cultural, económica o comercial. El LABI adoptó ayer una decisión en clave de recuperación.*

*Gobernua buru-belarri ari da hartutako konpromisoak betetzen eta pandemiak azaleratu dituen erronka berriei erantzunak ematen: arreta berezia gazteriari eta prestakuntzari, enpleguari eta etxebizitzari buruzko lehentasunetan laguntza ematea "bizitza autonomo" bat gara dezan; kohesio sozialaren bermea eta "desberdintasun berrien" galga; zainketa-sistemaren birformulazioa eta adinekoen "bakardade" egoerei arreta; "gizarte isolamendua" eta eguneroko harremanen eta gestioen "hiperteknologizazioak" ekar dezakeen arrakala digitala saihestea; ekonomia globalaren "eraldaketa berde eta digitalaren" aukerei aurrea hartzea.*

*Gazteak. Gizarte-kohesioa. Zainketa-sistema... Eraldaketa ekonomikoa. Berreskuratzea eta berriro abiaraztea... Hori da Eusko Jaurlaritzaren estrategia. Euskadiren bultzada hori partekatzeko prest gaude, halaber. Eutsi egin diogu eta erantzun egin dugu. Orain aurrera egingo dugu.*

*Oinarri sendoak ditugu. Adierazle guztiek erakusten dute euskal ekonomiaren bilakaera ona, baita enpleguarena ere. Erkidego guztien artean langabezia-tasarik txikiena dugu... Aurrekontuak onartuta dauzkagu... Ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu eta Euskadi Next abian ditugu.*

*Helburua ez da aurreko egoerara itzultzea. Helburua da berreskuratze- eta indartze-prozesua eraldaketa hirukoitzera bideratzea. Hau da, eraldaketa teknologiko-digitala; energetiko-klimatikoa; demografiko-sanitarioa eta soziala. Euskadi berrabiaraztea eta eraldatzea, hori da estrategia.".*

Adierazpen hau, otsailaren 12koa da. Memoria hau itxi baino lau egun lehenago, otsailaren 24an, Putinek Ukrainaren gaineko inbasio militar bat hasteko agindu zion Errusiako armadari. Horren ondorioak kalkulaezinak dira une honetan. Aurreikus daitekeena da ondorioak erabat negatiboak izango direla biktimentzat, lekualdatutako pertsonentzat, giza eskubideentzat eta susperraldi ekonomikorako, sozialerako eta emozionalerako aukerentzat. Munduak, Europak eta Euskadik mehatxu- eta ziurgabetasun-aro berriari egin beharko diote aurre.

### *Zeinu positiboak*

Bi urte hauetan zehar, Eusko Jaurlaritzak euskal gizartearen sentimenduen jarraipen estua egin du, bere azterlan soziologikoen bidez edo Euskadin, Estatuan, Europan edo munduan egindako beste inkesta edo ikerketa batzuen emaitzen jarraipenaren, analisiaren eta egiaztapenaren bidez.

Etapa bakoitzean igarotako uneak hainbat kontzepturekin sintetizatu dira: "Eklipse Covid", lehen garaietan, koronabirusak dena betetzen zuenean; "tunel pandemikoa", urte bat betetzen zenean presio amaigabearen pertzepzioa definitzeko; "itzal pandemikoa", azken olatuetan, hobera egin eta txertaketa eduki arren, ez ginenean bere baldintzapenetik libratzen; eta azkenik, "neke pandemikoa", gizarte osoaren neke-sentsazioa ongi laburbiltzen duen esamoldea.

Testuinguru horretan, egokia da geure buruari galdetzea zein izan den pandemiaren benetako eragina pertsonen eta gizartearen ezinegon- edo ongizate-sentsazioan. Beharbada, egindako balorazioak zuzenak izan dira. Agian eragin hori gutxietsi egin dute, edo bestela, gehiegi estimatu dute. Aieru subjektiboen eremuan mugatuta ez geratzeko, ikerketa soziologikoen emaitzetara jotzea komeni da.

2021ean, mundu osoko pandemia-urtean, nazioarteko bi azterlan entzutetsu egin ziren, herritarren ongizate-sentsazioa aztertzeko. Lehenengoa Eurobarometroak egin zuen Europako herrialde guztietan, eta erreferentzia-adierazle nagusia honako hau izan zen: "Bizitzarekiko gogobetetzea, oro har". Bigarrena, "World Happiness Report", Nazio Batuek argitaratu dute, eta adierazle nagusi gisa honako hau erabiltzen du: "Ongizate-mailaren pertzepzioa".

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, 2021eko abenduan, ongizatearen nazioarteko bi adierazle horien erreplika egin zuen Euskadin, euskal herritarren iritzi soziala jasotzeko. Ondorio nagusia honako hau izan zen: 2021. urtearen amaieran pandemiak pairatutako sufrimendua gorabehera, herritarren ongizate-sentsazioa nabarmena zela.

## Ongizate maila munduko hainbat herrialdetan




Espazio kontuak direla eta, ongizatearen eskaileran puntuazio handiagoa duten 50 Estatuak soilik sartu ditugu grafikoan.

Nazioarteko datuen iturria: World Happiness Report 2021; Gallup Word Poll, 2020

Euskadik Europako batez bestekoa gainditu zuen ongizate-adierazleari dagokionez ("Bizitzarekiko gogobetetasuna, oro har"), eta hamaikagarren postua hartu zuen Europako herrialdeen artean. Bestalde, Euskadi (10etik 7,1) munduko herrialde guztien batez bestekoaren gainetik kokatu zen, halaber, "Ongizate-mailaren pertzepzioa" izeneko atalean. Zehazki, Euskadik hamahirugarren postua lortu zuen lehenengo postuetan zeuden Finlandia (7,9), Islandia (7,6), Danimarka, Suitza eta Herbehereak (7,5) buru zituen rankingean.

Osasun-egoeraren pertzepzioa ere maila altuan mantendu zen 2021ean zehar. Euskal herritarrek beren osasun-egoerarekiko gogobetetasun-maila 7,5ekoa izan zen 2021ean, 10etik.

Datu bakar batek ere ezin du minimizatu gure gizarteak jasandako sufrimendua. Erreala izan da, eta handia eta luzea. Datu horiek ez dute premisa eztabaidaezin hori zalantzan jartzen; baina gogoeta egitera gonbidatzen dute ea denbora honetan guztian ez ote den "negatiboaren pertzepzioa" gehiegi dimentsionatzen lagundu eta, aitzitik, ez ote den herritarren erresistentziarako eta erresilientziarako gaitasuna gutxietsi. Nolanahi ere, datu horiek zeinu positiboa dira, eta gure gizartearen indarguneari buruz hitz egiten dute.

# 2. Ibilbide kronologiko hau zeharkatzen duten lau gako

Pandemiaren deskribapen kronologiko hori, bai eta Euskadin bi urte hauetan edukitako eragina eta erantzunak ere, bilakaera hori testuinguruan kokatzen laguntzen duten lau gakorekin osatu behar da. Lehenengoak Euskadin egindako proba diagnostikoen kopuruarekin du zerikusia. Bigarrena txertaketa eta horren ondorioak dira. Hirugarrenak prebentzio-neurriei emandako erantzun soziala balioesten du. Berariazko balorazioa merezi duen laugarren gakoa Estadistikako Institutu Nazionalak (INE) eskaintzen duen Covid aldiko heriotzen hazkundeari buruzko datua da. Horrek guztiak lehen hurbilketa bat da aldi horren balantzea egiteko.

Osasun-krisi honi eman beharreko erantzunaren eraginkortasuna baloratzerakoan, arazo larria planteatzen da. Datuak neurtzeko eta kontabilizatzeko modua ez da irizpide homogeneoen araberakoa, ez Autonomia Erkidegoen artean, ez eta Europar Batasuneko Estatuen artean ere. Hori oinarri hartuta, zaila da erreferentzia fidagarriak izango dituen ebaluazio bat egitea. Presidenteen bigarren Konferentzian, 2020ko martxoaren 22an, Lehendakariak proposatu zuen datuen neurketa- eta jarraipen-metodologia bera ezartzea, arazoa behar bezala dimentsionatzeko eta lantzeko.

Pandemiaren deskribapena osatzeko Euskadin eta Euskaditik, puntu honetan bi parametro bereziki esanguratsu aurkeztu dira, hain kalteberak ez direnak fidagarritasunari eta sendotasunari dagokienez ebaluazio bat egiteko. Egindako test kopurua eta erregistratutako heriotza-kopurua dira.

## 2.1. Egindako test kopurua

Lurralde-eremu jakin batean erregistratzen den positiboen kopurua zenbatzeko moduaren araberakoa da, eta, bereziki, egindako test kopuruaren araberakoa. Proba diagnostikoen kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da detektatutako sintomatikoen eta sintomarik gabekoen kopurua. Ondorioz, positiboen kopurua eta Intzidentzia-tasa metatuak handitu egingo dira test gutxiago egiten diren beste herrialde edo eskualde batzuekin alderatuta. Hala ere, pandemiari emandako erantzuna kasu positibo gutxiago izan den lekuetan hobea izan dela ondorioztatzea erroko akatsa litzateke, baldin eta horren arrazoia egindako proba kopuru txikiagoa bada.

100.000 biztanleko egindako proba diagnostikoen kopurua parametro nahiko objektiboa da, eta ez da hain distortsionagarria, batez ere hori baloratzeko behar beste denbora hartzen badugu. Pandemiaren hasieratik, test gehien egin dituzten Europako herrialdeekin batera egon da Euskadi.

Osasun Ministerioak emandako datuen arabera, Estatuan, bi urte hauetan zehar eta etengabe, Euskadik Nafarroarekin eta Balearrekin partekatu du ehun mila biztanleko egindako proba diagnostikoen lidergoa. Estatuan, 2021. urte osoan, 100.000 biztanlekiko batez bestekoa 104.083 izan zen. Euskadin, aldi berean, 144.881 izan zen.

Ómicron aldaeraren unerik gorenean, 2021eko abenduaren 29tik 2022ko urtarrilaren 5era bitartean, egunero 30.000 proba baino gehiago egiten aritu ziren. Urtarrilaren 4an pandemia osoaren maximoa lortu zen, eta egun bakar batean 36.704 test egin ziren guztira. Datu horiek oso garrantzitsuak dira, borondate politikoa eta sanitarioa adierazten baitute.

Euskadin, kutsatzeak (sintomatikoak zein sintomarik gabeak) bilatzera irtetea izan da estrategia. Une jakin batzuetan, estrategia horrek egoera okerragoa islatu ahal izan du, itxuraz, intzidentzia-tasei dagokienez.

Hala ere, bilaketaren eta kasu positiboen detekzioaren intentsitate hori osasun publikoa babesteko metodo eraginkorragoa da. Ospitaleratzeei buruzko datuek eta 2.4. atalean heriotzen gorakadari buruz ematen diren datuek berresten dute hori.

**2022ko otsailaren 28ra arte Autonomia Erkidegoek diagnostikatutako proba-kopurua 100.000 biztanleko**




**Iturria**: Osasun Ministerioa

## 2.2. Txertaketaren eragina

Bi urte hauetan, txertaketa faktore erabakigarria izan da Euskadin pandemiaren bilakaeran. 2020an, txertoa ez zegoen eskuragarri. 2021. urtearen hasieratik, txertoa pixkanaka eskuragarri egon den baliabidea izan da. Euskadin, pandemiaren aurkako borroka baldintza okerragoetan garatu zen 2020an 2021ean baino. Era berean, egiazta daiteke 2021eko bigarren seihilekoan txertaketak hobetu egiten zuela lehen seihilekoaren pandemiaren aurkako borroka.

2020ko abenduaren 27an hasi zen txertaketa-prozesua Euskadin. Garai hartan, txertoak urriak ziren oraindik. Hala ere, egoitzetako eremuan ematen hasi zen. Emaitzek berehala eragin ukaezina izan zuten. 2021eko apirilaren 2an, egoitzetan txertaketa jarraibide osoarekin osatu zen erabiltzaile eta profesional guztientzat. Martxoan, %96,8ra iritsi zen txertaketa jarraibide osoarekin. Une horretatik aurrera, eta 8 astez, egoitzetako heriotzen kopurua zerora murriztu zen.

2021eko lehen hiruhilekoan, txertoen banaketako gorabehera eta ez-betetzeek hasierako aurreikuspenak betetzea eragotzi zuten, txertoen banaketak erlatiboki txikiagoak izan baitziren, eta batzuetan irregularrak. 2021eko martxoaren amaieran, jarraibide osoarekin txertatutako biztanleria %4,9koa zen.

Hala ere, bigarren hiruhilekoan zehar, iragarritako txerto-kopurua modu erregularragoan banatu zen, eta ekainaren amaieran, jarraibide osoko txertaketaren ehunekoa %48,3ra iritsi zen. Lehen seihileko honetan, txertaketa-prozesuak ia funtsezko zerbitzuetako kolektiboetako eta 70 urtetik gorako pertsona guztiak hartu zituen.

Zorionez, birusaren aldaera berriek ez dute bere eraginetik ihes egiten, eta oraindik ere babes handia ematen die txertatutako pertsonei, jarraibide osoa bete eta aste gutxira. Hasiera batean, adituek iragarri zutenez, “artalde immunitatea” deritzona jarraibide osoko txertaketa xede-populazioaren %70era iristen zenean lortuko zen. Hala ere, denborak erakutsi zuen aurreikuspen hori okerra zela, eta beharrezkoa zela gutxienez %90 inguruan kokatzea.

Hirugarren hiruhilekoan, txertaketak aurrera egin zuen astez aste 50 urtetik beherakoen artean. Paradoxikoki, pandemiak bosgarren olatu bat agerrarazi zuen uda horretan. Birusak pitzadura bat aurkitu zuen, hain zuzen ere, oraindik txertoa hartu ez zuten gazteen artean eragina izateko. Olatu horren eragina 18-19 urte bitartekoetan gertatu zen bereziki, baina, oro har, 39 urtetik beherakoetan; ordura arte txertorik gutxien jasotako adin-taldea.

Gorabehera horien ondorioz, txertaketa areagotu egin zen adin-tarte gazteenetan. 2021eko irailaren amaieran, pauta osoa zuten 12 urtetik gorako biztanleen artean, %88,5ekoa zen txertaketa-ehunekoa.

Aldi berean, immunitatearen eraginkortasunaren zati bat galtzen ari zen lehenengo txertoa jaso zuten pertsonengan, hau da, egoitzetan zeuden pertsonengan eta zaharrenengan. 2021eko irailaren 20an, eremu soziosanitarioan hirugarren errefortzu-dosia ematen hasi zen, eta pixkanaka zabaltzen joan zen gainerako biztanleengana. Urtearen amaieran, %95,7 baino gehiago ziren 90 urtetik gorakoen artean; %92,8koa 80 eta 89 urte bitartekoetan; %92,7, 70 eta 79 urte bitartekoetan; eta %78,0, 60 eta 69 urte bitartekoetan.

2021eko laugarren hiruhilekoan, urriaren hasieratik azaroaren erdialdera, intzidentzia-tasen eta ospitaleratzeen datuak txikiak ziren, eta osasun-larrialdia desaktibatzeko aukera eskaini zuten. Hala ere, azaroaren amaieran seigarren olatua sartu zen, Ómicron aldaerak eraginda.

Berriro ere, birusak pitzadura bat aurkitu zuen oraindik txertoa jarri ez zitzaien 12 urtetik beherakoen artean, eta txertoa jarri ez zuten helduen artean. Testuinguru horretan, abenduaren 16an, 5 eta 12 urte bitarteko adingabeen txertaketa pediatrikorako prozesua hasi zen. 2021. urtearen amaierarako 46.490 txerto eman ziren lehen dosian.

Urtearen amaieran, pauta osoa zuten biztanleen ehunekoa %91,6 zen; dosi bat, gutxienez, zutenena, %92,7; eta errefortzu-dosia zutenena, %39,2. Txertaketa-datu horiek lortu gabe, seigarren olatuaren eta Ómicron aldaeraren ondorioek egoera kuantitatibo eta kualitiboki larriagoa islatuko zuketen.

2022ko otsailaren 28an, jarraibide osoko txertaketaren ehunekoa helduen %92,8ra iristen da. 18 urtetik gorako herritarren %68k indartze-dosia du. Data horretan bertan, 5 eta 12 urte bitarteko adingabeentzako jarraibide osoa duen txerto pediatrikoa %26,3ra iristen da. Datu horien arabera, Euskadi txertaketaren emaitza onenak lortu dituzten Europako bost eskualdeen artean dago.

**Euskadiko txertaketa-prozesuari buruzko datuak 2022ko otsailaren 28ra arte**

| | Errolda | Jarraibide osoa | Portzentaia | Errefortzu-dosia | Portzentaia |
|---|---|---|---|---|---|
| 90 urte edo gehiago | 33.997 | 31.918 | %93,9 | 31.160 | %97,6 |
| 80-89 urte | 124.266 | 121.179 | %97,5 | 114.918 | %94,8 |
| 70-79 urte | 216.304 | 208.791 | %96,5 | 201.138 | %96,3 |
| 60-69 urte | 286.130 | 273.355 | %95,5 | 247.801 | %90,7 |
| 50-59 urte | 340.550 | 322.627 | %94,7 | 250.594 | %77,7 |
| 40-49 urte | 354.136 | 328.212 | %92,7 | 188.682 | %57,5 |
| 30-39 urte | 246.729 | 213.660 | %86,6 | 77.632 | %36,3 |
| 18-29 urte | 246.484 | 212.192 | %86,1 | 52.121 | %24,6 |
| 12-17 urte | 130.072 | 123.576 | %95,0 | — | — |
| 5-11 urte | 145.045 | 38.196 | %26,3 | — | — |
| Guztira | | | %92,8 (12 urtetik gora) | | %68,0 |

**Iturria**: Osasun Saila

Txertaketa-prozesuak aurrekaririk gabeko giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta antolaketa-baliabideak hedatzea ekarri du. Osakidetzak eta euskal osasun-sistemak eraginkortasunez erantzun diote erronka horri. 14 hilabetetan 4,7 milioi txerto eman dira Euskadin. Sistemak funtzionatu du.

Datu horiek hiru egiaztapen egiteko aukera ematen dute. Lehena, pandemiaren bilakaera 2021. urtearen hasieratik ezin da ulertu txertaketak ekarri duen babes handiko faktorerik gabe. Bigarrenik, euskal osasun-sistemak eta bertako profesional guztiek aurrekaririk gabeko ahalegin humanoa eta operatiboa egin dute, eta arrakasta handia izan du. Eta hirugarrenik, gizarteak erantzun du. Herritarrek txertaketa-prozesua onartu ez balute, arrakasta hori ez zen posible izango.

### *Txertaketa orokorra eta solidarioa*

Baina txertaketa pandemia batean ez da tokiko erronka eta konpromiso bat soilik, erronka global eta planetarioa da. Pandemiaren aurkako borrokan ez da segurtasun eta ziurtasun nahikoa izango, planetako gehien-gehienek txertoa hartu arte. Etikaren eta elkartasunaren printzipioa ez ezik, pandemia global baten esanahiaz jabetzeko printzipio pragmatikoa ere bada.

Eusko Jaurlaritza errealitate horren jakitun izan da uneoro. Txertaketa globalarekin eta solidarioarekin konpromisoa hartu zuen estatuz kanpoko lehen gobernua izan zen. 2021ean 500.000 eurorekin lagundu zuen COVAX mekanismoa zuzentzen duen GAVI txertaketaren aldeko Munduko Aliantza. Diru-laguntzak 1,3 milioi txerto eman zizkien garapen-bidean dauden herrialdeei.

Diru-laguntza hori Lehendakariaren idazki baten bidez bideratu zen, 2020ko martxoaren 23an, Eusko Jaurlaritzak txertaketa global eta solidarioa bultzatzeko zuen borondatea adieraziz, GAVIren Patronatuko presidente José Manuel Barroso jaunari. COVAX mekanismoa sustatu duen MOEk bultzatutako nazioarteko GAVI aliantza, COVID-19aren pandemiaren aurkako txertaketa global eta solidarioa lortzeko ekarpen publiko-pribatua egiteko.

Horrez gain, 2021eko maiatzaren 25ean, Lehendakariak COVID-19aren txertoen patenteak aldi baterako etetearen aldeko euskal adierazpena aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzak, Médicos Sin Fronteras España, Amnesty International, Oxfam Intermon, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargoen Kontseiluak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialek eta Bilboko Zientzia Medikoen Akademiak sinatua.

Beharrezkoa da mundu osoan lankidetzan aritzea, txertoak behar beste garatzea eta fabrikatzea eta mundu osoan garaiz eta modu inklusiboan banatzea eragozten duten oztopoak ezabatzeko. Osasunerako eskubidearen aldeko apustuak bermatu behar du jabetza intelektualeko eskubideek ez diotela inongo herrialderi galaraziko eskubide hori baliatu ahal izatea.

2022rako aurrekontuetan, Lehendakaritza Sailak 600.000 euroko partida du aurreikusita, beste ekarpen bat egiteko. Bigarren ekarpen hori gauzatzeko izapidea hasita dago.

## 2.3. Gizartearen laguntza pandemiari erantzutean

Pandemiaren kudeaketak olatu desberdinetan eragin oso gogorrak izan ditu gizartearentzat. Hasiera-hasieratik gizarte-sentimendua artatzea oinarrizko sentsibilitate demokratikoaren eta erantzun epidemiologiko onaren betebeharra da. Herritarrak dira erantzun horren eragile nagusia. Eusko Jaurlaritzak gertutik jarraitu du gizarteak pandemiari buruz duen pertzepzioa eta iritzia, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterlanen bidez.

Eta ‘‘Covid eklipse” gisa kalifikatu diren une batzuetan, ia azterlan guztietan pandemiaren pertzepzio sozialarekin edo pandemiaren ondorioen balorazioarekin lotutako gaiak sartu dira. Zehazki, Kabineteak bost iritzi-azterlan kuantitatibo eta bi gizarte-balorazioko azterlan kualitatibo egin ditu. Horiek guztiak hemen daude argitaratuta: https://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak/. Horren osagarri, gizarte -joeren jarraipen berezia egin da, bai Soziologian aditua den Gunearen bitartez, bai Estatuan –bereziki CIS zentroak– eta Europan argitaratutako azterlanen azterketaren bitartez.

Pandemia gizartearen kezka-gunea izan da eta bizitzaren arlo guztiei eragin izan die. Errealitate horrek, sortutako ziurgabetasunarekin batera, “neke pandemikoaren” kontzeptua sortu du, gizartean oso sustraituta dagoen sentimendua islatzen duena. Pandemiak iraun duen bi urteetan, gogo-aldarte pertsonalak, familiarrak eta sozialak eragin handia izan du, eta pertsonen ongizate emozionalera iritsi da.

Etxez etxeko konfinamendua esperientzia berria izan zen, eta, ondoren, pandemiaren iraupenari, irismenari eta ondorioei buruzko nahikoa ziurtasunik izan ez den etapa bat etorri zen. 2020ko abenduan hasi zen txertaketa-prozesua, eta, horren ondorioz, itxaropena sortu zen. Hala ere, urtebete geroago, Euskadin txertatutako biztanleen %90 baino gehiagorekin, kezka sozialaren indizea eta ziurgabetasuna oso handiak ziren. Txertaketari dagokionez, aldaketa sozial bat gertatu da, hasierako posizio erregogor batetik gaur egungo konfiantza altura.

Mundu osoan bizitza sozialaren esparru guztietan izan du eragina pandemiak. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da gazteen eta adinekoen artean duen eragin berezia. Lehenengo kasuan, "gazte desafektatuak" kontzeptua erabili da, bi zentzutan: batetik, gaixotasunak neurri txikiagoan eragin die gazteei; eta, bestetik, gazteei neurri handiagoan eragin izan die beren bizi-kulturan eta gizarte-harremanetarako ohituretan.

Adinekoen kasuan, pandemiak abandonuaren eta bakardadearen sentimendu bikoitza agertu du, gaixotasunak talde horri eragin diolako, eta oso zorrotza izan da arauak betetzeari dagokionez. Adinekoek, gainera, eguneroko bizitzako hainbat arlotan arreta pertsonala pixkanaka murriztearen eragina sentitu dute. Gazteak eta adinekoak, beraz, lehentasuna duten taldeak dira, pandemiak eragiten dien inpaktu emozional bereziagatik.

Bizi dugun egoerak eragin berezia izan du komunitate-bizitzan, baita harreman instituzionaletan eta politikoetan ere. Nabarmentzekoa da pandemiak funtsezko zerbitzu publikoei balioa ematen lagundu duela. Ildo horretan, osasunaz gain, hezkuntza presentzialari eta gizarte-babeseko sistemari eman zaien garrantzia nabarmentzen da, eta aipamen berezia egiten zaio adinekoak zaintzeko ereduari.

Langabeziari, prekarietateari, desberdintasunari eta krisiaren eraginpeko sektoreei lotutako arazoak oso presente daude diskurtso sozialean. Nolanahi ere, herritarrentzako erabateko lehentasuna osasun-krisia geldiaraztea da, eta, ondoren, ekonomia suspertzea. Bizitako zailtasunei aurre egitea, Osakidetzako osasun-zerbitzu publikoak eta bere lan profesionalak balorazio sozial handia egitea lortu du. Etorkizuneko ikuspegian, osasun-sistema publikoa indartzeko eta zaintza-eredua eguneratzeko eskaera nabarmendu behar da.

Osasunari buruzko kezkaren hedapena nagusi eta egonkorra izan da pandemiaren bi urte hauetan. Hamar pertsonatik ia zortzik kezka handia izan dute, eboluzioaren une zehatza edo bizi diren herrialdea edozein izanik ere. "Kezka globala eta orokorra" izan da. Nabarmentzekoa izan da, halaber, pandemiak ekonomian eta enpleguan duen eraginarekiko kezka. Esparru horretan, bada alderik ziurgabetasun maximoa eta ikuspegi kritikoagoa izan zuen 2020. urtearen eta 2021. urtearen artean non jardueraren bilakaera positiboak konfiantza berreskuratzea ahalbidetu duen. Izan ere, Euskadiren kasuan, hazkundea eta enplegua berreskuratzeak eta erakundeen, politikaren eta aurrekontuen egonkortasunak gizartearen konfiantza handia mantentzea azaltzen dute.

Euskal gizarteak konpromiso-maila handiarekin erantzun du. Zalantzarik gabe, faktore horrek azaltzen ditu emaitza onak, testak egitean edo txertaketan lidergoari dagokionez, eta heriotza-tasa txikiagoari dagokionez. Hala ere, iritzi publikoaren nahiz argitaratutakoaren pertzepzioan nolabaiteko distortsioa gertatzen da gehiengoaren eta gutxiengoaren portaeren dimentsionamenduari dagokionez. Horrek, praktikan, zailtasun gehigarri bat dakar krisiaren kudeaketan.

Gizarte-sentsibilitatearen ikuspegitik, nabarmentzekoa da hartu diren neurri murriztaileen ulermen eta konpromiso maila handia. Ildo horretan, erakundeek tarte zabala izan dute erabaki murriztaileagoak hartu ahal izateko. Nolanahi ere, pentsatzekoa da "itzal pandemikoa", hau da, pandemiak bizitza- eta bizikidetza-baldintzetan izango duen eragina, luzea eta sakona izango dela.

Gizartearen gehiengoak, gazte gehienak barne, prebentzio-neurriak betetzen eta babesten ditu, estrategia partekatzen du eta ahalegina bere gain hartzen du. Hala ere, gutxiengoen desafekzio-portaerek hain oihartzun eta isla neurrigabea dute, ezen ez duten gizarte-ordezkaritza baten itxura egiten baitute. Distortsio horrek iritzi-emaileen, preskriptoreen, komunikabideen eta komunikazio-plataformen hausnarketa kritikoa eskatuko luke.

Jaurlaritzaren ekintzak, egungoa bezalako krisi batean, sentikorra izan behar du, eta jarrera harkorra eta aktiboa izan behar du bidezko eta justifikatutako aldarrikapenen aurrean, kritika eta proposamen eraikitzaileen aurrean, bai eta pandemia horren ondorioak benetan eta modu gogorrenean jasaten ari direnen aurrean ere. Aldi berean, jakin behar du era horretako errealitateak beste jarrera batzuetatik bereizten, elkartasunik ezean, justifikaziorik gabeko biktimismoak agerian jartzean, edo kexa iraunkorrean, beste helburu batzuekin krisia instrumentalizatzeko bizi-jarrera edo estrategia gisa.

Esperientzia horren ondoren, mezu eraikitzaileak indartzea komeni da. Pandemiak agerian utzi du komunitate-zentzuaren garrantzia, Auzolana. Zalapartaren eta indibidualismora eta gizarte-banaketara

gonbidatzen duten mezuen aurrean, beharrezkoa da partekatutako balio zibikoak eta elkartasuna zaintzea eta indartzea. Betetzen duen eta konpromisoa hartzen duen gehiengo sozialak erakundeen aldetik errefortzu handiagoa merezi du. Gehiengo sozial hori funtsezkoa izan da gure herrialdean pandemiari emandako erantzunean.

Azken batean, Euskadin pandemiaren kudeaketaren balantzea egiteko beharrezkoa bada egindako testen kopurura edo txertaketa-prozesura jotzea, ezinbestekoa da, halaber, estrategiak eta une bakoitzean hartutako neurriek izan duten gizartearen gehiengoaren laguntza aipatzea. Herritarren ekarpen hori gabe, balantzeak panorama nabarmen okerragoa eskainiko luke.

## 2.4. Covid aldian heriotza kopurua handitzea

Zalantzarik gabe, pandemia horren aurrean egindako ahalegin guztiek lehentasunezko helburu bat izan dute eta dute: ahalik eta heriotza gehien saihestea. Azkenik, helburu hori premiazkoa eta garrantzitsua da; izan ere, zifra horren atzean giza sufrimenduaren errealitatea dago, maite diren pertsonen galera itzulezinaren ondorioz.

Horregatik, COVID-19aren bi urteko kudeaketari eta gobernantzari buruzko memoria honek erabateko lehentasuna ematen die hildako pertsonen kopuruari buruzko datuei. Horixe da pandemiaren benetako eraginaren adierazlerik gogorrena eta, azkenik, baloraziorako argiena eta erabakigarriena.

Hala ere, ez da erraza informazio hori aztertzea, heriotzak erregistratzeko orduan ez baitago irizpide behar bezain homogeneorik. Ez da argia heriotzen arteko banalerroa, “COVID-19arekin” edo “COVID-19agatik” eragindakoen artean. Bestalde, irizpide desberdinak erabiltzen dira heriotza gertatu aurretik test positibo bat lortu behar den epeari dagokionez, COVID-19ak eragin duela jotzeko. Azken batean, metodo eta irizpide desberdinak daude kasu bakoitzean egiaztatzen den heriotza-kausa birus honi edo beste patologia edo egoera batzuei egozteko orduan.

Testuinguru horretan, konparazioari dagokionez, datu objektibo homogeneoena Espainiako Gobernuaren Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioari atxikitako Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratutako heriotzen hazkundeari buruzkoa da.

Datu horrek aukera ematen du alderatzeko, batetik, COVID-19aren aurreko aldi batean izandako heriotzak eta, bestetik, COVID-19aren aurreko aldi horretan bertan erregistratzen ari direnak. Informazio hori aztertuta, pandemiaren benetako eragina azter daiteke, heriotzei dagokienez, Estatu osorako eta Autonomia Erkidego bakoitzerako.

INEren gaur egungo datuen arabera, 2020ko martxotik (pandemiaren adierazpena) 2022ko urtarrilera (INEk argitaratutako azken datuak) bitarteko 99 asteetan izandako heriotzen maila baloratu dezakegu.

Informazio horren arabera, Estatuko heriotzen batez besteko hazkundea %15,2koa izan da, eta Euskadin %10,8koa. Heriotza gehien izan zituzten erkidegoak Madril (%27,4), Gaztela-Mantxa (%22,2), Katalunia (%18,6), Aragoi (%17,5) eta Gaztela eta Leon (%15,4) izan dira. Euskadi, Balearrak, Asturias, Kanariar Irlak, Kantabria eta Galiziarekin batera, heriotzen hazkunde txikiena izan duten sei erkidegoen artean dago.

**Heriotzen gehikuntza COVID aurreko aldiaren (2018ko martxoa-2020ko urtarrila) eta COVID aldiaren (2020ko martxoa-2022ko urtarrila) artean, Autonomia Erkidegoetan**




**Iturria**: Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

## 2.5. Lehen balantzea

Aurreko lau puntuetan emandako datuek adierazten dute Europako altuenen artean kokatzen diren txertaketa-emaitzak dituela Euskadik, test kopuru gehien egin duten Erkidegoen artean egon dela eta, azkenik, Covid aldian heriotza kopuru txikiena izan duen Autonomia Erkidegoetako bat dela. Horri guztiari gehitu behar zaio, Osasun Ministerioaren datuen arabera, Euskadin ospitaleko eta ZIUko oheen okupazioa Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa izan dela bi urte hauetan.

**Ospitaleko eta ZIUko oheen okupazioa 100.000 biztanleko, Autonomia Erkidegoetan 2022ko otsailaren 28ra arte**




**Iturria**: Osasun Ministerioa

Datu horiek emaitza objektiboa islatzen dute, eta balantze sendo bat eratzen laguntzen dute. Balantze horrek osatu eta testuinguruan kokatzen du memoria honetan puntu honetara arte egindako Euskadiko bilakaera pandemikoaren deskribapen kronologikoa.

Hala ere, datu horiek ez dute inolako harrokeriarako balio behar, ezta autokonplazentziarako ere. Egiten den balorazio orok apaltasun printzipioa bete behar du. Pandemiaren aurkako borroka haztamuka eta saiakuntza-errore metodoaren bidez egin behar izan da. Birus horrek ezezaguna denari eta aurreikusi ezinari aurre egiten jarri gaitu, ez bakarrik erakunde politikoei, baita zientziari ere. Pandemia honek berdindu egiten gaitu eta gure ahuleziak argitu dizkigu.

Zeharkatutako zailtasun ikaragarrien aitortza horretan oinarrituta, datu horiek gogoeta garrantzitsu bat partekatzeko aukera ematen dute. Osasun-sistemak eta bertako profesional guztiek ahalegin handiaegin dute eta herritar gehienek murrizketak beren gain hartzen eta betetzen edo txertaketan parte hartzen ere ahalegin handia egin dute. Horrek guztiak emaitzak eman ditu. Ez da alferrik izan. Datu objektiboa da aintzatespena eta esker ona adierazteko.

# Bigarren zatia

## Balorazioa

(Aztergaiak, ikaskuntzak eta etorkizuneko gogoetak)

# Bigarren zatiaren sarrera

Memoria honen lehen zatiak Euskadin pandemiaren bi urteko ibilbide kronologikoa deskribatu du, haren bilakaerari buruzko datuak azaldu ditu eta ibilbide horretan eragin berezia duten zenbait gako azpimarratu ditu. Bigarren zati honek balorazio irekien multzo bat eskaini nahi du, proposamen gisa.

Balorazio irekiak dira –nolabait, behin-behinekoak–, pandemia ez delako desagertu eta ez dakigulako zer bilakaera izango duen eta zer esperientzia berri txertatu beharko diren orain eskaintzen den hausnarketan. Proposamenak egiteko balorazioak dira, haien helburua eman beharko litzatekeen erantzuna hobetzea baita, bai epe laburrean birus horri beste eraso batzuk egin behar badizkiogu, bai etorkizunean antzeko krisi hipotetiko bat gertatuko balitz.

Memoria honen hasierako aurkezpenean adierazi den bezala, krisiari aurre egiteko berezko gobernantzaren esparrura mugatutako eremu batean planteatzen da gaia. Bestela esanda, pandemiaren aurrean erantzun instituzionalaren zuzendaritzak suposatu duenaren ikuspegitik planteatzen da. Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariari egokitu zaio Euskadin zuzendaritza hori.

Azken batean, bi galdera egin nahi dira: lehenengoa, krisi pandemikoaren bi urteko kudeaketatik zer ikasi dezakegun, eta etorkizunari buruzko zer gogoeta egin daitezkeen hobetzeko asmoz.

Helburu bikoitz hori betetzeko, memoriaren zati hau bi atal handitan egituratzen da. Lehenik eta behin, krisi honen, batez ere, osasun-arlokoaren kudeaketan gobernantzaren ikuspegitik bereziki garrantzitsuak diren 12 gairi buruzko azterketa espezifikoa aurkezten da. Azterketa horretan oinarrituta, bigarren atalean bizitakoaren ikaskuntza batzuk laburbiltzen dira, etorkizunari buruzko gogoetekin batera.

# 3. Azterketa espezifikoa merezi duten gaiak

Pandemia batek bi urtean zehar dena ukitzen eta zeharkatzen du. Bizitako esperientziaren memoria bat egiteko eta haren balorazioa planteatzeko, ezinbestekoa da azterketa-eremua mugatzea. Lehenengo zatiaren deskribapen konologikoak aukera eman du Euskadin pandemia horrek inplikatutako gai eta gertaera asko ukitzeko.

Hala ere, kontakizun hori luzea izan arren, ez du aukerarik ematen pandemia horren kudeaketan garrantzi handiena izan duten gai batzuei behar besteko zehaztasunez heltzeko.

Atal honen helburua gai garrantzitsuenen azterketan sakontzea da, betiere Euskadin pandemiaren kudeaketaren gobernantza gidatzeko ardura izan duenaren iritziz. Balorazio-azterketa hori memoria honen hurrengo atalaren oinarria da, ikaskuntzen eta proposamen-gogoeten laburpen eskematiko bat eskaintzen baitu.

## 3.1. LABI

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak 12.1 artikuluan xedatzen duenez, Euskadiko osasun-sistemaren zuzendaritza, plangintza eta programazioa Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunen bidez gauzatzen da. Batzordearen eginkizunen artean, besteak beste, agintea erabiltzea dakarten esku-hartzeak daude, beharrezkoak direnak osasun publikoaren babes orokorra bermatzeko.

Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak izaera arauemailea eman zion Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) izeneko Euskadiko Babes Zibileko Planari. Urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatu zuen, eta Euskadiko antolamendu-esparru orokorra ezarri zen mota guztietako larrialdiei aurre egiteko, baldin eta larrialdien izaeragatik, hedaduragatik edo administrazio bat baino gehiago koordinatzeko beharragatik autonomia-zuzendaritza bat behar badute.

Euskadiko Babes Zibileko Planaren eta Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren arabera, Segurtasun Saileko titularrari dagokio larrialdia zuzentzea eta koordinatzea, hargatik eragotzi gabe Lehendakariak ahalmen horiek bere gain hartzea, larritasun-maila edo intentsitate berezia ikusita.

Aurreikuspen horiek osasun-krisiaren testuinguruan hedatzeko, lehenik eta behin, Osasuneko sailburuaren agindu bat behar da, LABI aktibatzeko eskatuz. Jarraian, Segurtasuneko sailburuaren agindu batek aktibatu egin behar du. Hirugarrenik, Lehendakariaren dekretu batek osasun-larrialdiko egoera aitortzen du eta, hala badagokio, larrialdiaren zuzendaritza bakarra eta koordinazioa bereganatzen ditu.

Bi urte hauetan zehar, pandemiaren inpaktuaren larritasunak osasun-larrialdia adieraztera eta LABI aktibatzera behartu du hiru une desberdinetan. Lehenengo olatuan, 2020ko martxoaren 13tik maiatzaren 17ra. LABIren egiturak organo bakarra izan zuen fase horretan, eta osaera mistoa izan zuen: instituzionala eta teknikoa; Lehendakariak berak koordinatuta.

Osasun-larrialdiko bigarren aldia 2020ko abuztuaren 17tik 2021eko urriaren 7ra arte luzatu zen. LABI aktibatzea bat etorri zen XII. Legegintzaldiaren hasierarekin. LABIren egitura berriz diseinatu zen. Aholku Batzordea euskal erakunde guztien ordezkariek osatzen dute, eta Batzorde Zientifiko-Tekniko baten laguntza izan zuen. Batzorde hori Lehendakaritzak koordinatu zuen, Jonan Fernandez Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkari Nagusiaren eskutik.

Bi urte hauetan, LABIren Aholku Batzordea, Gobernantzaren esparrua, 38 aldiz bildu da. Foro horretan, pandemiari buruzko erabaki nagusiak adostu eta hartu dira. Kontseilu horretan, Lehendakaria buru zela, EUDELek, hiru hiriburuetako udalek, foru aldundiek, Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek parte hartu dute.

Hirugarren osasun-larrialdia 2021eko abenduaren 2an deklaratu zen, eta 2022ko otsailaren 13an amaitzea erabaki zen. Hirugarren etapa honetan, Aholku Batzorde berari eutsi zaio. Batzorde Zientifiko-Teknikoak osaera berria izan du, Gotzone Sagardui Osasuneko sailburuak koordinatuta. Bi urte hauetan, batzorde-aditu horrek 93 bilera egin ditu guztira. Bere irizpen eta eztabaidek guztira 38 Dekretu edo Agindu bultzatu dituzte, une bakoitzean pandemiak dituen beharrei erantzuteko.

*****

Gizartearen eta informazioaren ikuspegitik, LABI erreferente ezaguna izan da. Haren funtzionamendua ezaguna ez ezik, aurreikusgarria, ordenatua eta gardena ere izan da. Batzorde Zientifiko-Teknikoaren irizpenak Aholku Batzordearen ebazpenen oinarri izan dira. Hartutako erabakiak berehala jakinarazi ziren hedabideen aurreko agerraldietan, EHAAn argitaratu eta idatzizko prentsako iragarkietan zabaldu ziren.

Euskal osasun-legeriaren aurreikuspenei esker, eta, zehatzago, Babes Zibileko Planaren eta 1/2017 Legegintzako Dekretuaren aurreikuspenei esker, Euskadin pandemiaren gobernantza- eta kudeaketa-ereduak sail arteko eta erakunde arteko erantzun-esparru argia izango du hasiera-hasieratik. Erantzun horren antolaketak ez zion erantzun inprobisazio bati, aurreikuspen bati baizik, eta horren balantze guztiz positiboa egin behar da.

Balorazio positibo horren barruan, aipamen berezia egin behar zaio foru aldundiek eta udalek pandemiari emandako erantzun instituzionalaren kudeaketari egindako ekarpenari, funtsezko erantzunaren zati bat izan delako. LABI izan da Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien, EUDELen eta Euskadiko hiru hiriburuetako udalen arteko baterako gobernantza modu argienean eta zuzenenean gauzatu den espazioa. Esparru horretan, zalantzak, kezkak edo proposamenak bateratu dira, eta, azkenik, mahai horretan hartu dira erabakiak.

Baina LABIren Aholku Batzordearen bileretan parte hartzeaz harago, udalek eta foru aldundiek prebentzio-neurriak edo neurri murriztaileak garatzeko eta aplikatzeko erabakiak hartu behar izan dituzte beren eskumen-eremuetan. Pandemiak eta Osasun Publikoaren defentsak dena beste era batera egitera behartu dute. Zerbitzu publikoaren kudeaketari paradigma berri eta ezezagun batetik ekin behar izan zaio: hain denbora luzean gizarte-funtzionamenduaren ohiko modua mugatzea eta murriztea.

EUDELek, hiriburuetako udalek eta Euskadiko udal guztiek beren jarduera-eremua egokitu behar izan dute pandemiaren prebentzioak zituen eskakizun aldakorretara. Eskakizun horiek, besteak beste, honako hauek birplanteatzea eskatzen zuten: ikastaroak, jarduerak, ekitaldiak, jaiak, instalazioak, parkeak, jendearentzako zerbitzuak, gizarte-laguntzak, garbiketaren kudeaketa, espazio publikoen desinfekzioa edo etxerik gabeko pertsonentzako konponbideen gaikuntza. Horrekin batera, funtsezkoa izan da Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetza.

Foru aldundiek, bestalde, osasun publikoko neurrien kudeaketa edo ordutegien eta edukieren mugena garatu behar izan dute beren eskumeneko jarduera, ekitaldi edo instalazioen garapenean. Aisialdiko edo eskola-kiroleko ekimenak arautzea dira horren bi adibide. Hiru lurraldeetako foru-erakundeek, halaber, gizarte- eta egoitza-eremuaren kudeaketaren konplexutasun guztiari erantzun behar izan diote. Olatu bakoitzean eta pandemiaren fase bakoitzean, sortutako arazo bakoitzari aurre egiteko erantzunak eta baliabideak aktibatu dira.

Udalen eta foru aldundien zeregina funtsezkoa izan da. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetza ere halakoa izan da, erakunde bakar baten eskumen-eremu bakoitzeko problematika bakoitzari eman beharreko erantzuna ezin zelako modu isolatuan gauzatu. Koordinazioa, lankidetza eta partekatutako irizpideen bateratzea ezinbestekoak izan dira. LABI elkarrizketarako eta adostasunerako gunea izan da, eta udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen-dinamika horretan lagundu du. Koordinazio hori jardunbide egokia izan da, eta nabarmendu egin behar da.

## 3.2. Bizi Berri planak

•Lehenengo Bizi Berri Plana 2020ko maiatzaren 4koa da, eta haren helburu nagusia martxoaren 14tik alarma-egoerarekin indarrean egon zen konfinamendu-fasearen amaiera ordenatzea izan zen. Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak koordinatu zuen. Dokumentu hura Eusko Jaurlaritzaren gida izan zen, Espainiako Gobernuarekin, euskal instituzioekin eta gizarte-erakundeekin elkarrizketa garatzeko, eta prozesu hura ere "deseskalatze-prozesutzat" jo zen. Jarduera sozialak eta ekonomikoak berreskuratzeko prozesu mailakatuan aurreikuspenarekin eta koordinazioarekin jardutea ahalbidetu zuen.

•Bizi Berri II Plana[1], 2020ko irailean egin zen Batzorde Zientifiko-Teknikoaren laguntzarekin, eta Aholku Batzordearen bileran aurkeztu zen 2020ko urriaren 2an. Kontingentzia-plan gisa eratu zen, bilakaera-adierazleekin, bost arrisku-agertokirekin eta maila bakoitzean hainbat neurri aurreikustearekin. Horrela, erreferentziazko panel bat finkatu zen, euskal erakundeei pandemiaren bilakaerara erantzunak egokitzeko aukera eman zien tresna-multzo batekin. Lau hilean behin eguneratu beharko zela ezarri zen. Jonan Fernandez

1 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-II-eus.pdf

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkari Nagusiak koordinatu zituen bai bigarren edizio hau bai Bizi Berri Planaren hurrengo biak.

•Bizi Berri III Plana[2] otsailaren 12an aurkeztu zen. Hamabi hilabeteko esperientzian oinarrituta, aurreko planarekiko zenbait doikuntza egin zituen. Bi lan-hipotesi eta bost agertoki aurreikusi zituen otsaila-ekaina aldirako. Adierazleen sorta zabaldu zuen, eta arrisku-maila bakoitzaren atalaseak modulatu zituen. Esparru juridikoaren mugak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak kontuan hartuta, neurrien aurreikuspena egokitu zuen.

•Bizi Berri IV Plana[3] 2021eko uztailaren 6an onartu zen, uztaila-urria aldian pandemiaren kudeaketa bideratzeko. Etapa horrek aurrekoen ezaugarri eta ikuspegi desberdinak ditu. Maiatzaren 9tik, alarma-egoera indargabetuta zegoen. Ekainaren 24an, COVID-19 pandemiaren kudeaketarako neurriei buruzko euskal Legea onartu zen. Txertaketak hedadura handia zuen. Testuinguru horretan, Bizi Berri IV Planaren panelak hiru eszenatokitara murriztu zuen bere burua, jarduera-eremuen eta neurrien egitura sinplifikatu eta zeharkakoagoarekin. Adierazleak zabaldu eta osatu egin ziren.

2021eko urriaren hasieran, egoerak nabarmen aldatu ziren. Jarraibide osoko txertaketa xede-populazioaren %90era iritsi zen. Intzidentzia metatuaren eta ospitaleratzearen tasak agertoki txikienetan kokatu ziren. Urriaren 2an, osasun-larrialdiko egoera amaitu zela adierazi zen, eta LABI desaktibatu zen. Testuinguru horretan, ez zen egokia Bizi Berri plan berri bat egitea, eta pandemiaren kudeaketa, une horretatik aurrera, Osasun Sailaren agintaritzaren esku geratu zen.

•Abenduaren 2an, seigarren olatu baten eta Ómicron aldaera agertu izanaren lehen zantzuen ondorioz, osasun-larrialdiko beste deklarazio bat egin zen. LABI berriro aktibatuko da. Ziklo berri honetan, Batzorde Zientifiko-Teknikoak aginte-taula bat ezartzen du pandemiaren jarraipena egiteko tresna gisa. Taula hori egunero eguneratzen eta aztertzen da, bilakaera epidemiologikoaren adierazleekin, osasun-sisteman duen inpaktuarekin eta COVID-19aren bilakaerarekin, morbimortalitate-arrisku handiagoa duten pertsonen artean. Bilakaera epidemiologiko onak hirugarren osasun-larrialdiari amaiera eman zion 2022ko otsailaren 14an.

*****

Bizi Berri Planaren lau edizioek eta seigarren olatuan ezarritako Aginte Taularen jarraipenak kontuan hartu dituzte OMEren eta ECDCren gomendioak eta jarraibideak, bai eta eskura dauden ebidentzia zientifikoak eta dokumentatutako jardunbide onenak ere. Hiruhileko bakoitzean modu aldakor eta aurreikustezinean agertu den bi urteko pandemia-esperientziak agerian utzi du jarraipen epidemiologikoko tresnak aldizka eguneratzea egokia dela, birusaren bilakaerari eta olatuetan sortu diren beharrei erantzuteko modua eman duelako. Laburbilduz, Bizi Berri Planaren lau edizioak eta ondoren Aginte Taula sortzea tresna erabilgarriak izan dira etapa bakoitzeko egoera aldakorretara azkar egokitzeko.

Bizi Berri Plana erreferentzia-esparrua izan da Euskadin COVID-19aren aurrean erantzun komunitarioko neurriak hartzeko eta jarduera eta ohitura sozialak arautzeko. Logikoa denez, Bizi Berri Plana ez da etorkizuna asmatzeko kristalezko bola bat izan. Orientazio-erreferentzia argiak dituen mapa bat izan da. Mapa irekia eta eskuragarria, pandemiak ekarri duen labirintoaren barruan, erakundeentzat, gizartearentzat eta komunikabideentzat erabilgarria izan dena.

COVID-19aren bizipena, beste gauza askorez gain, bizi-ohiturei buruzko interpelazio bat da. Eta, bestalde, "Bizi Berri" kontzeptuak ez du esan nahi aurreko normaltasuna berreskuratu behar denik, baizik eta bizitzeko modu berri bat ehundu behar dela, giza garapen osasungarri eta iraunkorra lortzen lagunduko duena. Hain zuzen ere, arrazoi horrengatik, Euskadin pandemiak izan duen bilakaerari eman beharreko erantzun komunitarioaren planak izen hau hartu zuen.

## 3.3. Presidenteen Konferentziak

Presidenteen Konferentzia pandemian askotan bildu den foroa da. Espainiako Gobernuko presidenteak dei egiten die Autonomia Erkidegoetako eta Hiri Autonomoetako Presidenteei eta Lehendakariari. Bilera batzuetan Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko Presidenteak ere parte hartu du.

2 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-III-eus.pdf
3 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-IV-eus.pdf

Bi urte hauetan 19 konferentzia egin dira. Lehenengo alarma-egoeran, Espainiako Gobernuko Presidenteak 14 aldiz deitu zuen foro hori, lehena martxoaren 15ean eta azkena ekainaren 14an. Bilera guztiak bideokonferentzia bidez egin ziren, eta ondoz ondoko beste hainbeste igandetan.

Landutako gaiek zerikusia izan zuten, alde batetik, pandemiaren bilakaeraren jarraipenarekin, haren osasun-ondorioekin eta artikulatu zitezkeen neurriekin edo proposamenekin; eta, bestetik, krisiaren eragin sozioekonomikoekin eta horien aurrean erakundeek emandako erantzunekin. Hirugarren eztabaida-ardatza Konferentzia horien metodologia bera izan zen.

Lehen etapa horren ondoren, beste bost bilera egin dira. 2020ko uztailaren 31n, Yusoko monasterioan, San Millán de la Cogollan (Errioxa), Felipe VI erregea bertan zela. Bilakaera pandemikoa aztertzeaz gain, deialdiaren gaia izan zen Autonomia Erkidegoek leheneratzeko Europako funtsean duten parte-hartzeari buruzko informazioa.

2020ko irailaren 4an beste bilera bat egin zen bideokonferentzia bidez. Egoera epidemiologikoaren azterketarekin batera, deialdian proposatutako gaia ikasgeletara itzultzea izan zen. 2020ko urriaren 26an, Europako Berreskuratze Funtsaren banaketa-irizpideak planteatu ziren. Bilera telematikoa izan zen, eta Ursula von der Leyen Europako Batzordeko Presidenteak parte hartu zuen.

·2020ko martxoaren amaieran, finantza-laguntza eman zitzaien enpresa txiki eta ertainei, 500 milioi euroko finantzaketa-lerro baten bidez, Elkargiren bitartez. "Gauzatu Industria", "Bideratu" eta "Bideratu Berria" programen onuradunei laguntzen itzulketak eta inbertsio- eta enplegu-sorkuntzako aldiak geroratu zaizkie; "Indartu" programan ordainketa aurreratzeko neurriak hartu ziren; eta alokairu babestuaren arloko neurriak arautu ziren, horien ordainketa eta komunitate-gastuak egoera ahulean dauden maizterrei kenduz.

·2020ko apirilean, laguntzak eman ziren krisian zeuden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko, "Bideratu" programaren bidez. Nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-sektoreei laguntzak eman zitzaizkien, jarduerari eusteko. Aparteko laguntzak eman zitzaizkien beren konturako langileei edo autonomoei, baldin eta haien jarduerak etenda geratu baziren. Familiei laguntzeko, lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa zuten langileentzako diru-laguntzak ezarri ziren, 14 urtetik beherakoak, mendetasun-egoeran zeuden pertsonak edo gaixoak zaintzeko betebeharrak beren gain hartzeko. Ordainketak egiteko arazoak zituzten pertsonentzako alokairurako laguntzen deialdia egin zen. Gizarte-larrialdietarako laguntzak 16 milioi euro handitu ziren, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz eskaria handitu baitzen.

·2020ko maiatzean merkataritza-sektorearentzako eta turismo-sektorearentzako laguntza-lerro bana deitu zen, 7,5 milioi euroko zenbatekoarekin. Elkargiren bidezko finantza-laguntzaren ildoa 500 milioi eurotan handitu zen, baita norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako ezohiko laguntzak eta COVID-19 ekintza humanitarioko linea iraunkorra ere.

·2020ko ekainean 66 milioi euro bideratu ziren alokairu sozialerako eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programak sustatzeko. 50 milioi euroko funtsak eman zitzaizkion COVID lerroari, autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzak emateko. 2 milioi bideratu ziren mikroenpresa kategoria duten kultura-sektoreko sozietate eta elkarteetara. Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko diru-laguntzen deialdia egin zen. Edarien eta mahastizaintza eta ardogintzaren sektorerako finantza-laguntzak ezarri ziren (Nekafin programa). "Innobideak-Lehiabide" programaren bidez (SPRI Taldea), berrikuntzarako laguntzak eman ziren, pandemia osteko egoerari aurre egiteko. Gizarte-ekonomiaren sektorean, 2.400.000 euroko laguntzen deialdia egin zen.

Diru-laguntza bat eman zen "Reactivate" programarako, giza kapital gaztea enplegura sartzeko. Industria-sektorean, ibilgailuen Renove planerako laguntzak handitu ziren, eta etxetresna elektrikoen eta leihoen Renove laguntzak deitu ziren. Aste batzuk geroago, Makineriaren Renove Plana gehitu zen, 5 milioiko zenbatekoarekin.

·2020ko uztailaren 8an, Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak zituzten pertsonentzako ezohiko laguntzen deialdia onartu zen. Horrela, urteko 20.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten langileen pres-

tazioak osatuko dira, hileko 150 euroko gehieneko zenbatekoarekin. Laguntza horiek 3 aldiz luzatzen dira 2021eko irailera arte. Laguntza horietara bideratutako baliabide ekonomikoak 31,5 milioi eurokoak dira.

Era berean, 2020ko uztailean ezohiko laguntzak emateko deialdia egin zen, 6 milioi euroko zenbatekoarekin, laneratze-enpresentzat eta pandemiaren eraginpean dauden enplegu-zentro berezientzat. Finantza-laguntzak ezarri dira, berme gisa, ardoa, sagardoa eta artisau-garagardoa egiteko sektorerako ("Nekafin" programa). "Hirigune" programarako baliabide ekonomikoak bideratzen dira, Covid-19aren aurrean hiri-merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko. Zuzeneko diru-laguntzak eskaini ziren COVIDen aurkako I+G proiektuak finantzatzeko. Ezohiko laguntzen deialdia onartu zen COVID-19aren krisiak eragindako lan-sozietateentzat eta lan elkartuko kooperatibentzat. Merkataritzako Bulego Teknikoetarako laguntzen programarako deialdia egin zen. "Euskadi Turismo Bono" eta "Euskadi Bono-Denda" programetarako deialdia egin zen, 2 eta 3,7 milioi euroko zenbatekoekin, hurrenez hurren.

·2020ko azaroan, Hezkuntzan 36.689.760 euroko diru-laguntzak eman ziren prebentzio-protokoloak aplikatzetik eratorritako gastu gehigarriak finantzatzeko, eta 3.934.121 euro hiru euskal unibertsitateen digitalizazioan laguntzeko. Ostalaritzaren sektorera 30.450.000 euro bideratu ziren, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzekin, establezimenduko langile kopuruaren arabera.

·2020ko abenduan, Ikerbasqueri 500.000 euroko zuzeneko diru-laguntza ematea onartu zen, COVID-19ari buruzko sei ikerketa-proiektu finantzatzeko, bai eta CTBri zuzeneko diru-laguntza bat ematea ere, COVIDaren ondorioz Bilboko metroaren defizita finantzatzeko.

·2021eko urtarrilean 17.700.000 euroko laguntza-programarako deialdia egin zen, turismo-sektorea mantentzeko eta bigarren olatuak eragiten dituen mugen ondorioak arintzeko. Familia eta lana bateragarri egitea errazteko, 3 milioi euroko laguntzen deialdia egiten da 2020-2021 ikasturtean 3 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko.

·2021eko martxoan, 15.800.000 euroko laguntza-programa bat arautu eta horretarako deialdia egin zen, EAEko txikizkako merkataritzaren ekipamenduaren eta langileen azpisektoreari eusteko. Kulturako profesionalei zuzendutako laguntzen deialdia egiten da, 1.100.000 euroko zenbatekoarekin, fakturazio-murrizketak konpentsatzeko. Estatuko eta/edo nazioarteko lehiaketetan parte hartu duten kirol-klubei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen. Gizarte-larrialdietarako laguntzak 15 milioi euro handitu ziren. Elkargiren bidez, 2021eko finantzaketa-lerroa 500 milioi eurorekin handitu zen berriro, enpresa txiki eta ertainentzat eta banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

·2021eko apirilean, etxebizitza libreak alokatzeko laguntzen deialdia egin zen 2021eko ekitaldirako, ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko.

·2021eko maiatzean merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programarako deialdia egin zen.

·2021eko ekainean, 11 milioi euroko "Bilakatu" Programa arautu zen, enpresaren jarduera negozio-lerro, produktu, zerbitzu eta merkatu berrietara dibertsifikatzeko eta gaitasunak birkokatzeko, baita "Bateratu COVID-19" Programa ere, COVID-19ak eragindako enpresentzako laguntzekin, kontsolidazio-jarduketak egiten badituzte. Halaber, 10 milioi euroko aparteko laguntzak onartu ziren ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, artisau-garagardoaren eta ur ontziratuaren sektoreetarako.

·2021eko uztailean "Hirigune" programaren deialdia egin zen, COVID-19aren aurrean Hiri Merkataritzaren Lankidetza, dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko laguntzekin.

·2021eko irailean 12,6 milioi euroko laguntzak deitu ziren itxierek eta jarduera-mugek eragindako gaueko aisiako establezimenduen titularrentzat, eta kontsumoa bultzatzeko Euskadi Bono-Comercio/Euskadi Bono-Denda programen deialdia egin zen, 7,15 milioi eurorekin.

·2021eko urrian, merkataritza-sektorean, COVID-19aren aurreko Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako laguntzen deialdia egin zen. Kultura-sektorean, 1,5 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren arte biziak dinamizatzeko "Beste Bat-berritzen" programarako, eta, lehen sektorean, esnetarako behien, ardien, ahuntzen, haragitarako behien, haragitarako eta errunaldirako hegaztien, haragi- eta errunaldi-azienden, txerrien, untxien eta zaldien azienden abeltzaintza-ustiategietarako 12 milioi euroko laguntzak.

·2021eko azaroan, kultura-sektoreari laguntzeko, 5 milioi euroko diru-laguntza zuzenak eman zitzaizkien Euskadin egoitza edo ordezkaritza zuten prentsa eta irratiko komunikabideei. Industriaren sektorean, es-

kabideen eskariaren aurrean, 33 milioi handitu da “Bilakatu” programaren aurrekontua, COVID-19aren eraginpeko enpresentzat.

2022ko urtarrilaren 25ean, Gobernu Kontseiluak ostalaritzarako eta gaueko aisialdirako laguntza-programa berri bat onartu zuen, 22 milioi eurokoa. Batez ere enpleguari eusteko helburura bideratuta zeuden. Langile kopuruaren arabera kalkulatu zen laguntza bakoitzaren zenbatekoa, aldi baterako lanaren aldean enplegu egonkorra saritzen duen formula erabiliz.

*****

Pandemiaren hasieratik egiaztatu ahal izan denez, Eusko Jaurlaritzak, gainerako erakunde publikoekin batera, birusari eusteko beharrezkoak diren neurri soziosanitarioez gain, herritarren premia soziosanitarioak asetzeko, errentei eusteko eta ekonomia suspertzeko programa eta laguntza-lerro ugari eta askotarikoak ezarri ditu.

“COVID-19 gastuak” kontzeptuan bildutako neurrien jarraipena, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-programa (1229-COVID Programa) aztertuz egin da. Programa hori 2020an sortu zen, xede horretarako soilik, eta egoeraren arabera, COVIDarekin zuzenean lotutako gastuei eta inbertsioei aurre egiteko eta kanpoko funtsak nahiz berezkoak sektore eta eragile ekonomikoetara bideratzeko. Partida 2021ean mantendu zen, eta pandemiaren egungo egoera dela-eta, 2022rako indarrean jarraitzen du.

Eusko Jaurlaritzak zenbateko nabarmenak gaitu ditu pandemiaren hasieratik 2021eko amaierara arte, eta zuzeneko laguntzetan eta Covid funtsetan soilik, 1.597 milioi. Zenbateko global horren jomuga nagusiak hauek izan dira: osasun-sistema (%54,8), enpresei eta enpleguari laguntzea (%25,4), hezkuntza-sistema indartzea (%13,5) eta gizarte-laguntzen ezohiko programak (%5).

Ehuneko horiek, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuarekiko, %5,7ra iristen dira bi urteetan. Kopuru horiei 2022an antolatzen ari diren laguntza-programak gehitu behar zaizkie, bai eta 1.500 milioi euroko kreditu-lerroa ere, enpresa eta autonomoentzat, eta 180 milioi euro eskualde behartsuei bultzada berria emateko.

Zalantzarik gabe, gaur egungo krisialdi globalean laguntza guztiak gutxi dira. Hori bezain egia da eskura dauden baliabideak mugatuak direla eta egungo gobernu batek hurrengo belaunaldien etorkizuna ez hipotekatzeko erantzukizuna mantendu behar duela.

Laguntza-politika horren inguruko hausnarketa-puntu bat izapidetzearen moteltasunean dago. Denbora arruntean, administrazio publikoaren edozein gasturen kudeaketa kontrol- eta txosten-prozesu zorrotzen eta denboraren kontsumo handiaren mende dago. Horrela izan behar du, hori ez dago zalantzan. Nolanahi ere, pairatzen ari garen larrialdiko aparteko garaietan, egokia da urgentziazko izapidetze-mekanismoak gaitzeko beharra planteatzea, behar dutenei laguntzak iristea atzeratu gabe eta behar dutenean, *a posteriori* gastua fiskalizatzeko formulak aurreikus ditzaten.

Oro har, Euskadin ezarritako neurri motak Europako herrialde aurreratuenek sustatu dituztenen antzekoak dira. Ondorio gisa esan daiteke erreakzio sozioekonomiko azkarreko politika hori Euskadin pandemiari emandako erantzunak izan dituen aktibo positiboetako bat dela.

***Eusko Jaurlaritzaren aparteko baliabideak COVID-19aren krisiaren aurrean 2020an eta 2021ean***

| **Zuzeneko laguntzak eta COVID aurrekontu-gastuak** | **1.597,0** |
|---|---|
| **OSASUNA** | **765,5** |
| Osasun Saila | 18,4 |
| Osakidetza | 747,2 |
| **HEZKUNTZA** | **153,9** |
| Hezkuntza Saila | 147,4 |
| Unibertsitateak | 3,0 |
| Haurreskolak | 3,5 |
| **POLITIKA SOZIALAK** | **65,8** |
| Politika Sozialak | 57,5 |
| Emakunde | 0,064 |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | 2,7 |
| Etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak | 4,2 |
| Alokairua ordaintzetik aparteko salbuespena | 1,4 |
| **GARAPEN EKONOMIKOA** | **549,1** |
| Turismoa, Merkataritza eta Ostalaritza | 116,1 |
| Lehen sektorea | 43,7 |
| Enpresa-laguntza | 16,3 |
| Ekonomia eta Ogasuna | 347,4 |
| Garraioa eta mugikortasuna | 25,6 |
| **ENPLEGUA ETA AUTONOMOAK (*)** | **31,5** |
| **KULTURA ETA KIROLA** | **12,9** |
| **ZEHARKAKO JARDUERAK** | **18,3** |
| **Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko laguntzen eta COVID funtsen guztizko partziala** | **1.597,0** |
| **Enpresei eta autonomoei irekitako kreditu-lerroa** | **1.500,0** |
| **Egoera txarrean dauden eskualdeei bultzada berria emateko programa** | **180,0** |
| **EUSKO JAURLARITZA, GUZTIRA** | **3.277,0** |

*(*) Hilero 150 euroko laguntzak barne hartzen ditu, urteko 20.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonentzako ERTEen osagarri gisa.*

## 3.10. Informazioa eta gardentasuna

XXI. mendearen lehen laurdena aurrera doanean, egungo gizartean funtsezko gakoa da informazioaren eta gardentasunaren kudeaketa, bai egoeraren deskribapenari dagokionez, bai erantzunak eta arrazoibideak zabaltzeari dagokionez. Eusko Jaurlaritzaren bi urte hauetako ahalegina izan da informazioarekiko eta gardentasunarekiko konpromisoa bere gaitasunaren %100era eramatea.

Osasun Sailak erregularki publikatu duen Buletin Epidemiologikoa oso erabilgarria izan da gizartearentzat, komunikabideentzat eta Parlamentuarentzat. Lehenengo argitalpena 2020ko martxoaren 18an egin zen.

Egun horretatik 2021eko urriaren 8ra arte aldi horretako lanegun guztietan argitaratu ziren. 2021eko urrian, egoerak hobera egin zuenean, astero argitaratu zen. Seigarren olatuarekin, 2021eko azaroaren 15etik aurrera, astean bitan editatzen jarraitu da.

Guztira 470 buletin argitaratu dira bi urtetan. Argitalpen honek egoera epidemiologikoaren eta ospitale-inpaktuaren eguneroko erradiografia osoa eskaini du. Era berean, 2021eko otsailaren 22az geroztik, Euskadiko txertaketa-prozesuari buruzko datuen buletina argitaratzen da. Urriaren 25era arte astean hiru aldiz argitaratu zen, eta ordutik asteko bi buletin argitaratu dira. Guztira, hamabi hilabete hauetan 134 txertaketa-buletin argitaratu dira. Era berean, 2020ko irailaren 16tik, lanegun guztietan argitaratzen da COVIDek ikasgeletan duen eraginari buruzko buletin bat. (Buletin guztiak helbide honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/koronabirusaren-eboluzaioaren-inguruko-datuen-buletina/web01-a2korona/eu/)

Informazio eta komunikazioko beste tresna garrantzitsu bat izan da "ohiko galderen erantzunak" dokumentuak herritarren eskura jartzea. Argitalpen honen helburua izan da prebentzio- edo mugatze-neurriak dituzten Dekretuek gizartean sor zitzaketen zalantzei erantzuten saiatzea, bai edukiari dagokionez, bai interpretazioari edo aplikazioari dagokionez. Guztira, argitalpen honen 28 eguneratze egin dira.

Horri guztiari prentsaurrekoak gehitu behar zaizkio. Lehendakariak bi urte hauetan zehar komunikabideekin izandako agerraldi eta elkarrizketa guztietan erantzun ditu COVID-19aren inguruko egoerari buruzko galderak. Horrez gain, LABIren bileren ondoren egindako 15 prentsaurrekotan parte hartu du, pandemiari erantzuteko neurrien eta jarduketen berri emateko.

Komunikabideei eskainitako elkarrizketak zenbakaitzez gain, XI. Legegintzaldian Osasuneko Sailburu Nekane Murgak eta XII. legegintzaldian Osasuneko Sailburu Gotzone Sagarduik 144 prentsaurreko eskaini zituzten. Horrez gain, beste 45 prentsaurreko gehitu behar dira Osasun Saileko beste kargu batzuenak. Zenbaketa honetan ez dira sartu pandemiaren eraginarekin edo erantzunekin lotutako alderdi sektorialen berri emateko agertu diren gainerako sailen prentsaurrekoak.

Informazioaren kudeaketa hori osatzeko, dibulgazio-kanpainak egin dira komunikabideetan, prentsan iragarkiak kaleratu dira eta mezuak zabaldu sare sozialen bidez. Pandemiaren hasieratik, Osasun Sailak 17 informazio-kanpaina sustatu ditu, eta Lehendakaritzak, berriz, 22.

Horri guztiari Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harremana gehitu behar zaio. Modu monografikoan, Lehendakaria hiru aldiz agertu da Eusko Legebiltzarrean. Gainera, hamabost egunean behin, kontrolerako osoko bilkura bakoitzean, Lehendakariak sistematikoki erantzuten die legebiltzar-taldeek pandemiari buruz egiten dizkioten galderei. Horri gehitu behar zaizkio Covid egoerari lotutako galderak eta interpelazioak, Osasuneko sailburuak eta gainerako sailburuek kontroleko osoko bilkura guztietan erantzuten dituztenak.

Lehenengo olatuan eta Legebiltzarra desegin zen aldi osoan, lehen hauteskunde-deialdiaren, hura etetearen eta deialdi berriaren ondorioz, Osasun Sailak astero informazio-bilerak egin zituen sail horretako zein gainerakoetako kargudunek parte hartu zuten talde politikoekin, osasunaren edo sektorearen egoerari buruzko informazio zehatza emateko. Guztira, 16 bilera egin ziren. Lehendakariak bi bilera deitu zituen alderdi politikoekin, lehenengo hauteskunde-deialdia eteteko eta bigarrena aktibatzeko erabakiak hartu aurretik.

XII. Legegintzaldiko Legebiltzarra eratu ondoren, Osasuneko Sailburu Gotzone Sagardui guztira 30 aldiz agertu da euskal ganberan, memoria hau ixteko unera arte. Horrez gain, Jonan Fernandez LABIren koordinatzaileak eta Eusko Jaurlaritzako beste kargu eta Sail batzuek 2021ean Legebiltzarrean egindako agerraldiak gehitu behar dira.

*****

Informazioa eta gardentasuna Eusko Jaurlaritzak pandemiari aurre egiteko duen estrategiaren indarguneak izan dira. Eskura dagoen informazio guztia denbora errealean eskaini du.

Hobetzeko gogoeta-eremuak hiru puntutan kokatu behar dira. Lehenik eta behin, krisialdi luze honetan informazioak eta kanpainek denboraren poderioz duten indar-galerari buruz hausnartu behar da. Azken hilabeteetan seigarren olatuarekin batera egiaztatu ahal izan da hori. Komunikazio-eraginkortasunaren galera horretan eragina izan dezaketen faktoreen artean egon daitezke neke pandemikoa, informazio-sa-

turazioa eta gizarte-nekea eta neke pertsonala, bai eta egoeraren interpretazioari buruzko irizpide adituen desberdintasuna edo neurri batzuen edo besteen komenigarritasuna ere. Ildo horretan, komeni da etengabe bozeramaile aditu gisa jardungo duten figurak indartzea. Hortaz, kontuan hartu behar da batzuetan informazio instituzionalaren eta beste edozein iritziren arteko talkak eragiten duen desorientazioa.

Bigarrenik, zaila da kanpainak eta informazioa gazteenen komunikazio-kodeetara egokitzea eta helaraztea. Gaixotasunak gutxien kaltetzen duen taldea da eta aldi berean bere bizi-garapenean mugek gehien kaltetzen dutena. Eta hirugarrenik, komunikazio-ibilbide handiagoa ahalbidetzen duen sare sozialen eremua. Arlo horretan, mezuen hedapena beste hedabide batzuetan baino gutxiago hedatu da.

Gizarteari, komunikabideei eta Legebiltzarrari eskainitako informazioaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzaren jokabideak aukera ematen du adierazteko komunikazio- eta gardentasun-praktika on baten aurrean gaudela. Lortutako emaitzen arabera ere objektiboki ebaluatu daiteke hori, adibidez, gizarteak prebentzio-neurriak zenbateraino ulertzen, babesten eta betetzen dituen ikusita, edo herritarrek txertaketa-prozesuari emandako erantzun bikainaren arabera.

## 3.11. Premiazkoa eta garrantzitsua dena gobernatzea

Pandemiaren inpaktua erabatekoa izan da. Bizitza pertsonalaren, sozialaren, politikoaren edo komunikatiboaren ia eremu guztiak hartu ditu. COVID-19a gai monografikoa bihurtu da. Bi urtez elkarrizketa gehienak hartu ditu. Gobernu baten jardun-dinamikan, nonahiko pandemiko horrek gobernuaren ekintza ia xurgatuta eta COVID-19ari emandako erantzunera murriztuta geratzeko arriskua ekarri du.

Euskal kasuan, Lehendakariak berak ezarritako irizpidea argia izan zen hasiera-hasieratik. Pandemiaren larritasunak menderatutako orainaren premiari erantzun behar zitzaion, eta, aldi berean, Gobernuak garrantzitsuan zentratuta jarraitu behar zuen: Euskadiren etorkizunak epe labur, ertain eta luzean behar dituen erabakiak eta eraldaketak bultzatzea. Jarraian, Eusko Jaurlaritzak ikuspegi horrekin bultzatutako zenbait erabaki zerrendatu dira, labur-labur, XII. Legegintzaldiaren hasieratik eta Gobernu Kontseiluak 2020ko irailaren 8an egindako lehen bileraren ondoren.

## 2020

·2020ko irailaren 15ean, 623,54 milioiko gastua onartu zen, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako 7.159 gela ituntzeko 2020-2021 ikasturterako.

·Irailaren 29an, unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako bekak eta laguntzak onartu ziren, 60 milioikoak, eta hezkuntzaren arloko hainbat jardueretarako 14 milioiko diru-laguntzak.

·Urriaren 13an, Jaurlaritzak erabaki zuen XII. Legegintzaldiko (2020-2024) Gobernu Programa Legebiltzarrera bidaltzea.

·Urriaren 14an, 60 apartamentu aurkeztu ziren Arangoiti auzoan (Bilbo), gazteek alokatzeko, eta laster 55 etxebizitza sozial eraikiko direla iragarri zen.

·Azaroaren 3an, “Berpiztu” Plana, Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko 2020-2024 Sailarteko Esparrua onartu zen. 2021ean 22.000 enplegu baino gehiago sortzea zen helburua.

·Abenduaren 15ean, 2021eko aurrekontuen proiektua onartu zen. 12.442 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino %7,1 gehiago.

·Abenduaren 29an, “Euskadi Next 2021-2026 onartu zen”, Euskadin berreskurapen, eraldaketa eta erresilientziarako inbertsio-programa, 13.250 milioi eurotakoa.

## 2021

·2021eko urtarrilaren 26an, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea eratu zen.

·Otsailaren 8an, “Ekiola Energia Sustapenak” sortu zen, energia jasangarria sortzeko herritarren kooperatibak sustatzeko sozietatea.

·Otsailaren 23an, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2030 Plana onartu zen. Plan horren helburua da Euskadi Europako eskualde aurreratuenen artean hamar urtetan kokatzea. 6.000 milioitik gorako inbertsio publikoa da.

·Martxoaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren V. Plana (2020-2024) eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plana (2020-2025) onartu ziren.

·Martxoaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia onartu zen, 1.400 milioiko inbertsioarekin. Helburuak: lehiakortasuna indartzea, arrakala ekonomikoak eta sozialak murriztea eta digitalizazioa gizarte- eta lurralde-kohesioko aktibo bihurtzea.

·Apirilaren 13an, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu zen. Estrategia horren helburua da etapa berri bat irekitzea kalitatera, gizarteratzera eta berdintasunera bideratutako enplegu-politiketan.

·Apirilaren 21ean, “Finkatze Kapitala, S.A.” sozietate publikoa sortzeko Dekretua onartu zen, 160 milioiko kapital sozialarekin. Helburua da Euskadin kokatutako enpresa handietan finantza-partaidetzak eskuratzea, enpresa horien sustraitzea bermatzeko eta haien trakzio-izaera sustatzeko euskal produkzio-sare osoan.

·Apirilaren 26an, Euskadiko Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Itun Sozial eta Herritarraren lehen proiektua aurkeztu zen.

·Apirilaren 27an, ETEentzako 2021eko laguntza-plana aurkeztu zen, 433 milioiko aurrekontuarekin; eta Ekintzailetzako Erakunde arteko Plana 2024 aurkeztu zen, 259 milioiko aurrekontuarekin, eta horiei beste 130 milioi gehitu zitzaizkien laguntza fiskaletan.

·Maiatzaren 18an, “Euskadi Next 2021-2026” programa onartu zen, Europak ezarritako denbora-esparruan egin daitezkeen proiektuekin. Guztira 18.286 milioiko inbertsioa eragingo lukete, Europako funtsak eta baliabide publiko eta pribatuak barne.

·Ekainaren 15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuen eta -zentroen eta erlijio-aniztasunaren lege -proiektua onartu zen.

·Ekainaren 18an, jenderik gabeko etxebizitzei buruzko Dekretua eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriak onartu ziren.

·Ekainaren 23an, Eusko Jaurlaritzak beste lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen Bavariako Gobernuarekin, 3 urteko indarraldiarekin.

·Ekainaren 29an, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa eta Landa Garapenerako Lege Proiektua onartu ziren.

·Uztailaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko 2021eko Plana bidali zen Legebiltzarrera, foru aldundiekiko Zerga Koordinaziorako Organoak egina.

·Uztailaren 6an, Enplegu Publikoaren Lege Proiektua onartu zen, administrazio publikoetako 100.000 enplegatu baino gehiagoren jarduera antolatu eta arautzen duena.

·Uztailaren 7an, honako eskumen hauek Euskadiri eskualdatzea onartzeko Dekretuak onartu ziren: espetxeena, portuen arloko ondare-baliabideena, errepideko garraioari buruzko ahalmen jakin batzuen giza, aurrekontu- eta ondare-baliabideena, eta ISSNren inguruko eginkizun eta zerbitzuena.

·Uztailaren 20an, Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plana eta “Finkatze Kapitala, S.A.”ren aurrekontua onartu ziren. (Esleitutako funtsak: 162.000.000 euro). Haren zuzkidura 50 milioi gehiago handituko da 2021eko urriaren 28an.

·Uztailaren 27an, Ekarpenen Lege Proiektua eta Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Proiektua onartu ziren.

·Abuztuaren 31n, AUKERAK, Gizarteratzeko Euskal Agentzia sortzeko lege-proiektua onartu zen, espetxeen eginkizun birsozializatzailea babesteko.

·Irailaren 21ean, “Udaberri 2024 Plana” aurkeztu zen bizikidetzarako, giza eskubideetarako eta aniztasunerako, 2021-2024 urteen artean indarrean egongo dena. Bake, bizikidetza eta giza eskubideen aurreko planen bideari jarraituko dio.

·Irailaren 28an, Inbertsioen Ezohiko Programa onartu zen, 250 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori 2021eko aurrekontuetan inbertsiora bideratutako 1.000 milioi euro baino gehiagori gehitzen zaie. Programak hiru trantsizio handi sustatzen ditu: teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozial-demografikoa eta sanitarioa.

·Urriaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeen kudeaketa.

·Urriaren 13an, Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana onartu zen. Helburuak: eraginkortasuna lehengaien kontsumoan, hondakinak murriztea eta ekoizpen garbia optimizatzea.

·Urriaren 22an, 2021-2024 Euskadiko Estrategia Soziosanitarioa aurkeztu zen, pertsona ahulenei arreta eta zerbitzuak hobetzeko erakunde arteko ibilbide-orria.

·Abenduaren 23an, 2022ko aurrekontuak onartu ziren. Guztira, 13.107 milioi euro dira. Euskadiren historiako aurrekonturik altuena, aurreko urtean baino %6 handiagoa.

·Urriaren 26an, 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana onartu zen. Egun bat geroago, Euskadiko industriak zero emisio garbi lortzeko konpromisoa hartu zuen, eta Glasgowko COP26an World Economic Forum (WEF) delakoarekin elkartuko da.

·Azaroaren 2an, Euskararen Agenda Estrategikoa onartu zen.

·Azaroaren 9an, 32 milioi euroko laguntzak eman ziren 2021eko garapenerako lankidetza-proiektuetarako. Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa eratu zen, Euskadiko politika publikoak erakunde artean eta sozialki koordinatzeko, Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez.

·Azaroaren 16an, 2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailea bidali zen Legebiltzarrera.

·Azaroaren 23an, administrazio publikoen zehatzeko ahalaren lege-proiektua onartu zen. Prozesuak sinplifikatzen ditu eta herritarren bermeak indartzen ditu.

·Abenduaren 7an alokairua sustatzeko neurriak onartu ziren, alokairu eskuragarria bultzatzeko formulak aktibatzen dituztenak.

·Abenduaren 13an, Lehendakariak Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) lehendakaritza hartu zuen bere gain. Mugaz gaindiko lankidetza-organoa da, eta Andorra, Akitania Berria, Nafarroa, Aragoi, Okzitania, Katalunia eta Euskadiko gobernuek osatzen dute.

·Abenduaren 14an, lau akordio egin ziren Gobernu Kontseiluan: Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia; 2025erako Kanpo Ekintzako Plana; Euskadi Basque Country 2025 nazioartekotzeko esparru-estrategia; eta 2030erako Gobernantza, Berrikuntza Publiko eta Gobernu Digitaleko Plan Estrategikoa.

·Abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzak 2021eko EPEa onartu zuen, 4.000 lanposturekin: 435 Administrazio Orokorrean; 1.856 Hezkuntzan; 424 Ertzaintzan; eta 1.273 Osakidetzan. Egun horretan bertan, 2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartu zen.

·Abenduaren 28an Kiroleko Dopinaren Aurkako Legea aldatzeko Lege Proiektua eta Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortzeko Dekretua onartu ziren.

## 2022

·2022ko urtarrilaren 20an, abian jarri zen Gastronomiaren eta Elikaduraren 2021-2024 Plan Estrategikoa.

·Urtarrilaren 25ean, Gizarte Ekonomiari buruzko Sailarteko lehenengo Plan Estrategikoa aurkeztu zen. Lau urtean 328,5 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusten du.

·Egun horretan bertan, pandemiaren ondoriozko murrizketek eragindako ostalaritzarako eta gaueko aisialdirako 2022ko laguntzen programa onartu zen, 22 milioiko aurrekontuarekin.

·Otsailaren 1ean, Euskadiko Larrialdi Aeronautikoen Plan Berezia onartu zen, eta Babes Zibileko Kontseilu Nazionalak Estatuan homologatu zuen.

·Otsailaren 8an, Gobernu Kontseiluak baimena eman zuen 2022rako gehienez 1.429 milioi euroko zorpetze-eragiketak egiteko.

·Otsailaren 22an, Gobernu Kontseiluak Kulturarteko VI. Plana onartu zuen, hurrengo hamarkadako migrazio- eta asilo-politikak arautuko dituena.

·Otsailaren 23an, Eusko Jaurlaritzak akordio bat itxi zuen Espainiako Gobernuarekin, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera osorik transferitzeko; beraz, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko ditu prestazio ez-kontributibo hori kudeatzeko eginkizunak.

*****

Krisiek, zalantzarik gabe, alderdi suntsitzailea dute. Covidaren bi urteko kalteen balantzeak eragin gogaikarri hori islatzen du. Hori bezain egia da krisi bakoitzak aukera eraldatzaileen alderdi bat irekitzen duela. Biak ulertu eta kontuan hartu behar dira. Lehenik eta behin, eta premiazkoena suntsiketari aurre egitea da, neurri aringarri, prebentibo eta konpontzaileen bidez. Aldi berean, ezinbestekoa da krisi honek etorkizunean izango dituen lehentasunak ulertzea.

Eusko Jaurlaritzak hasiera-hasieratik onartu zuen, pandemiari emandako erantzunarekin eta haren berehalako ondorioekin batera, etorkizuneko lehentasuna ekonomia eta enplegua berreskuratzea zela. Memoria hau ixtean, Euskadik %10etik beherako langabezia-tasa erregistratu du (urtarrileko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, Estatuko baxuena). Xede hori pandemiaren aurretik lortu zuen, eta Legegintzaldiko lehen helburu gisa finkatu zen berriro.

Hain zuzen ere, ekonomia suspertzeko, produkzio-sarea eraldatzeko eta enplegu-aukerak sortzeko lehentasun horrekin, Eusko Jaurlaritzak “Berpiztu Programa” onartu du, bai eta “Euskadi Next” proiektua ere, Europako Funtsak eskuratu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak adierazi du ezinbestekoa zela, pandemiaren erdian, eraldaketa sozial, ekonomiko eta ekologiko bat aktiboki bultzatzea, 2030 Agendaren eta haren Garapen Jasangarrirako Helburuen erronkarekin bat etorriz. Alde horretatik, Europako funtsak aldeko esparrua dira. Eusko Jaurlaritzak prestatutako proiektuen helburua Euskadin hiru trantsizio estrategiko handi hauek bultzatzea da: teknologiko-digitala, energia-klimatikoa eta sozial-demografikoa eta sanitarioa.

Bi urte hauetan, Eusko Jaurlaritzak konpromiso estrategiko eta programatikoko erabakiak hartu ditu hiru ardatz horietan. Gobernuaren jarduera trinko hori oihartzun publiko gutxirekin garatu da. Komunikabideetan izan duen isla oso mugatua izan da pandemiak izan duen prebalentzia absolutuaren ondorioz. Hala ere, hori ez da garrantzitsua. Garrantzitsuena da Eusko Jaurlaritzak etorkizunerako eta Euskadik behar duen eraldaketari ekiteko gobernatzen jarraitu duela.

Ikasitako irakaspenen balantzean, nabarmendu beharreko jardunbide egokia da hori. Krisiaren intentsitateak eta larritasunak ez du gobernu-kudeaketaren ikuspegia galarazi behar, premiazkoa eta berehalakoa denari ematen zaion erantzuna ez ezik, garrantzitsua eta estrategikoa denari ematen zaion erantzuna ere barnean hartzen baitu. Etorkizuneko ikaskuntza hori funtsezkoa da krisialdian eta krisiaren ondoren errekuperazio-baldintza hobeetan egotea lortzeko.

## 3.12. Irizpideak eta iparra erabakiak hartzerakoan

Aurreko guztia puntu honetara arte azaldu ondoren, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren kudeaketan zuzendaritza bi urtez gidatu ondoren, eta saiakerek, akatsek eta asmatzeek eta hartutako erabaki ugarik markatutako gobernu-esperientziaren ondoren, azken gogoeta bat geratzen da krisialdi honen gobernantzatik ikaskuntzak ateratzeko faktore garrantzitsuenari buruz.

Memoria honen lehen zatian eta bigarren zati honen aurreko hamabi ataletan jorratutako guztiak funtsezko garrantzia du. Hala ere, horrekin guztiarekin batera, azken batean erabakigarriena da zer irizpide lehenesten den azken arau, jarraibide edo metodo gisa krisi pandemiko batean hartu behar diren erabakiak bezain larriak diren erabakiak hartzeko.

Atal honetan, kontua ez da jada LABIren prozesua, Bizi Berri Planak edo Batzorde Zientifiko-Teknikoaren Irizpenak baloratzea, neurri bakoitzaren aurretik ezagutu eta errepikatu daitekeen prozedura gisa, baizik eta, aurreko guztiaz gain, erabaki bakoitzak gainditu behar duen azken azterketa baloratzea. Azken batean, erabakiak hartzeko irizpide gidariak eta horien hierarkia bera dira. Azken gako hori politikoa da, edo, nahi

izanez gero, erantzukizun politikoarena, printzipioak, asmoa eta borondatea definitzen dituelako. Erantzukizun politikoko erabakiak hartzeko irizpideak eta iparra dira.

Lehenik eta behin, baloratu behar da ea irizpiderik egon den erabakiak hartzerakoan. Jarraian ikusiko denez, Euskadik, Eusko Jaurlaritzak eta LABIn bildutako euskal erakundeek izan dute metodo bat eta irizpide-hierarkia bat, zentzu-batasun baten barruan, erabakiak hartzea ekarri dutenak. Horrek, jakina, ez du bermatzen hartutako erabaki guztien egokitasuna, baina koherentzia-mailan kokatzen ditu.

Lehendakariak honela laburbildu ditu behin baino gehiagotan: “Eusko Jaurlaritzak hartzen dituen erabakiek osasunaren ondasun nagusia babestea dute helburu, eta ahalik eta kalterik txikiena eragitea ekonomiari, enpleguari, familiei, pertsonei eta gehien eragindako sektoreei”. Horixe izan da jarraitutako irizpidearen muina. Horretan oinarrituta, edukiari buruzko hausnarketa zehatzagoa egin daiteke.

Aldez aurretik, dena baldintzatzen duen zerbait hartu behar da kontuan. Bi urte hauetan hartu behar izan diren prebentzio-neurri eta osasun publikoko neurri gehienek kalte edo inpaktu negatiboak eragiten zituzten halabeharrez gizarteko sektore batzuetan edo besteetan. Are gehiago, esan daiteke ziurrenik ez dagoela pandemiaren edo prebentzio-neurrien zorroztasuna jasan ez duen sektorerik –eta, halakorik badago, gutxi izango dira.

Denbora arruntean, politika instituzionala pertsonen eta gizarte osoaren bizitza, aurrerapena eta ongizatea hobetzeko erabakiak hartzera bideratuta dago. Horixe da erakunde batean erantzukizun politikoak betetzen dituenaren helburu eta nahi nagusia.

SARS-CoV-2k eragindako pandemiaren erdian, paradigma hori kolokan jarri da, eta beste batek ordezkatzen du: pertsonen eta gizarte osoaren osasuna babesteak agintzen du erabakiak hartzea, epe laburrean bizitzaren, kulturaren, kirolaren eta jarduera sozioekonomikoen garapen normala kaltetu, mugatu edo mugatzeko.

Hori da errealitatearen printzipioa. Abiapuntu horrekin eta bi urteko kudeaketaren ondoren, esan behar da Lehendakariak, Eusko Jaurlaritzak eta LABIk lau irizpide gidari handi modu egonkorrean ponderatuz jardun dutela. Hauek dira:

·Lehenik eta behin, osasuna. Bizitzak salbatzea, sufrimendu larriak murriztea eta Osasun Publikoa babestea. Erreferentzia hori lehen irizpidea izan da eta izaten jarraitzen du, eta pisu handiagoa du erabakiak hartzerakoan. Premiazkoena eta larriena da. Zalantzarik gabe, hori izan da erabakiak hartzeko atalik garrantzitsuena, eta hori aplikatzeko ezinbestekoa izan da osasun- eta zientzia-agintarien jarraibideak eta gomendioak entzutea, aintzat hartzea eta horiei lehentasuna ematea.

·Bigarrenik, ospitaleak. ZIUetan eta Osakidetzaren eta Euskal Osasun Sistema osoaren ospitale- eta asistentzia-sistema kontrolatzea. Garrantzi kualitatibo handia duen irizpide horren zentzua izan da, eta hala izaten jarraitzen du, osasun-sistemak gainezka egitea edo kontrolik gabe egotea saihestea eta gizarte osoarentzako osasun-zerbitzuaren funtsezko eginkizuna betetzen jarraitu ezin izatea. Irizpide hori aplikatzean funtsezkoa izan da pandemiaren bilakaerari eta osasun-sisteman duen eraginari buruzko datuen eguneroko eta prebentzioko jarraipena egitea.

·Hirugarrenik, itzulgarritasuna (edo ez-kolapsoa). Ondorio itzulezinak dituzten gizarte-, osasun-, hezkuntza-, ekonomia-, merkataritza-, enpresa- edo industria-kolapsoko egoerak saihestea. Irizpide honen bidez, baztertu egin dira berreskuratzeko zailak diren ondorioak izan zitzaketen neurriak. Irizpide horren ondorioz, ez da erabaki berririk hartu, hala nola, etxeko konfinamendu berriak, industria-jarduerari eragiten dioten itxierak, garraio publikoaren zerbitzuaren deuseztapenak edo ikastetxeen eta unibertsitateen itxierak, adibidez. Positiboki adierazita, irizpide horri esker gizartearentzat funtsezkoak diren jardueren oinarrizko funtzionamenduari eutsi ahal izan zaio. Zorionez, Euskadin ez da kolapso-egoerarik izan.

·Eta laugarrenik, arintzea. Neurri bakoitzaren inpaktuen larritasuna baloratzea, baita horien eraginak arintzea eta berreskuratzea ere. Prebentzio-erabaki edo erabaki murriztaile bakoitzak eragin negatiboak izan ditu. Kasu bakoitzean, baloratu eta kontuan hartu dira. Horiek arintzeko eta sortutako kaltea konpentsatzeko modua aztertu du, laguntzen eta bestelako laguntza-neurrien bitartez. Irizpide hori funtsezkoa izan da, halaber, neurrien luzapena ahalik eta txikiena izan zedin eta, egoera epidemiologikoak ahalbidetzen zuenean, indargabetu ahal izan zitezen. Hori ez da beti zehaztasunez lortu, interpretazio epidemiologikoa ez delako zientzia zehatza. Batzuetan, eta beste inguruabar eta testuinguru batzuen arabera, neurriak behar baino beranduago hartu ahal izan ziren, edo goizegi; batzuetan, komeni baino

lehenago edo beranduago altxatu ahal izan ziren, eta beste askotan, neurriak une egokian ezarri edo indargabetu ziren.

*****

Lau horiek izan dira Eusko Jaurlaritzak pandemian erabakiak hartzeko erabili dituen irizpide gidariak. Horiek izan dira neurriak hartzeko eta krisiari eman beharreko erantzuna zuzentzeko puntu kardinalak. Bi urteko esperientziaren ondoren, esan behar da oinarri ona direla etorkizunerako erreferentzia-tresna gisa.

Hala ere, badago gehiago esaterik alor honetan. Esan beharra dago erabakiak hartu behar izan direla eztabaida eta zoritxarreko testuinguru batean. Lege-esparruaren urritasunek, epai-ebazpenen desberdintasunek, estatu eta lurralde arteko koordinazioaren defizitek edo zientziaren mugek eragindako zailtasunez gain (aurreko ataletan ere aipatu ditugu), erabakiak hartzeko prozesuekin batera joan den giroak hiru faktore erantsi izan ditu:

·interes partikular edo sektorial legitimoen defentsa aktiboa; baina ez dute zertan bat etorri unean-unean gizarte osoaren interes orokorraren defentsa edo osasun publikoaren defentsaren lehentasuna zenarekin;

·era guztietako iritzi-emaile, argitaletxe, komunikabide eta buruzagi sozial, politiko edo sindikalen ikuspuntuen, iritzien eta balorazioen aniztasuna hartu beharreko neurri edo erabaki bakoitzari buruz, horiek zentzu batean edo bestean kalifikatuz;

·eta hainbat diziplinatako zientzialarien, unibertsitateko irakasleen edo adituen eta dibulgatzaileen artikuluak, elkarrizketak, iritziak edo balorazioak, publikoak edo argitaratuak eta eduki desberdina eta kontrajarria dutenak.

Presioa eta nahasmena izan da nagusi eta testuinguru horretan, beharrezkoa izan da alea lastotik bereiztea eta erabakiak hartzeko prozesuaren norabidean perspektiba ez galtzea. Funtsezkoa izan da osasun publikoaren lehentasunezko helburuari eustea, benetan gehien sufritzen ari zirenak ez ahaztea, apaltasunez jokatzea ondorioak onartuz, benetako inpaktuak aitortzea eta gehiegizko jarduketetatik edo bestelako estrategietatik edo instrumentalizazioetatik bereiztea.

Azkenik, erabakiak hartzerako momentuan guztia laburbiltzen duen hitza “oreka” da. Horixe izan da iparra: oreka bilatzea lau irizpide gidari esplizituen haztapenean. Kontua ez da orain zehaztea oreka hori lortu den ala ez. Gizarteak berak baloratu beharko du hori, edo, beharbada, atzera begirako balantzean aztertu ahal izango da, eta balantze hori noizbait egin ahal izango da.

Kontua da hemen jasota uztea lau irizpide gidari izan dituztela Lehendakariak, Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakunde guztiek LABIren baitan erabakiak hartzeko izan duten prozesuan: (1) bizitza eta osasun publikoa defendatzea, (2) ospitaleen eta osasunaren blokeoa prebenitzea, (3) kolapso itzulezinak saihestea, eta (4) neurrien inpaktu sozioekonomikoak arintzea, horietako bakoitzaren egokitasuna eta egokitasuna une oro aztertuz. Eta horrekin batera, erabaki bakoitzean eta prozesu osoan iparra lau irizpide horien haztapenean oreka lortzea izan dela adieraztea, sentsibilitatea, erantzukizuna, enpatia eta etorkizuneko ikuspegia mantenduz.

# 4. Ikaskuntzen laburpena eta etorkizuneko gogoetak

Memoria honen epilogo gisa, bi urte hauetan bizitako esperientziaren ikaskuntzen eta etorkizunera proiektatutako proposamen-hausnarketen sintesi eskematiko bat aurkezten da.

Zeregin horri ekin aurretik, garrantzitsua da krisi honen kudeaketan lehentasunezko eragin-eremuak identifikatzea eta egituratzea. Memoria honen oinarrian dagoen lan-hipotesia da bost direla, gutxienez, pandemiari eman beharreko erantzunaren norabidean funtsezko garrantzia duten eremuak. Zeharka eragiten diote bai gobernantzari, kogobernantzari edo lankidetzazko gobernantzari, bai, azken batean, euskal autogobernua erabiltzeari, erakunde eta zerbitzu publiko nagusien bidez adierazitakoari. Bost eremu horiek honako hauek dira:

-Gobernantza-tresnak.

-Aholkularitza zientifikoa.

-Segurtasun juridikoa.

-Gizartearekiko konpromisoa eta interes orokorra.

-Erantzukizun politikoko erabakiak hartzeko irizpideak eta iparra.

Logikoa denez, askoz ere eremu gehiagok eragiten diote honelako krisialdi baten gobernuari. Hala ere, memoria honen lan-hipotesia da bost kategoria horietan biltzen eta laburbiltzen direla jokoan dauden gai garrantzitsuenak. Horregatik, azken atal hau bost eremutako egitura horren arabera antolatzen da.

## 4.1. Gobernantza-tresnak

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **I. LABI**<br>(Ikus 3.1. puntua) | Euskadiko Babes Zibileko Plana eta haren aurreikuspenak baliagarriak izan dira krisia kudeatzeko. Pandemiaren gobernantza- eta kudeaketa-ereduak, hasiera-hasieratik, sailen eta erakundeen arteko erantzun-esparru argia izatea ahalbidetu dute.<br>Foru aldundien, hiriburuetako udalen eta EUDELen zeregina funtsezkoa izan da. LABIk Eusko Jaurlaritzaren eta foru- eta udal-erakundeen arteko hitzarmen-dinamika bati lagundu dio. | Horrelako osasun-larrialdi batean LABIren eta haren Batzorde Zientifiko-Teknikoaren Aholku Batzordearen egitura mantendu eta, hala badagokio, optimizatu daiteke, eta baliagarria izan daiteke instituzioek krisiari ematen dioten erantzunaren norabidea antolatzeko.<br>Pandemia batean, erakunde baten problematikari ezin zaio modu isolatuan erantzun. Ezinbestekoa da sailen eta erakundeen arteko koordinazioa eta irizpideak bateratzea. Lankidetza hori jardunbide egokia izan da, eta nabarmentzea merezi du. |
| **II. Bizi Berri Plana**<br>(Ikus 3.2. puntua) | Bizi Berri Planak erreferentzia-esparru bat eskaini du egoera baloratzeko eta une bakoitzean neurri egokiak aplikatzeko. Erabilgarria izan da erakunde, komunikabide eta gizartearentzat. Esperientziak erakutsi du lau hilean behin eguneratzeko irizpidea egokia izan zela. | Osasun-larrialdi zorrotzen bat gertatuz gero, komenigarria litzateke Bizi Berri Planak adierazitako antzeko aginte- eta jarraipen-panela berriz antolatzea. Logikoa denez, egokitu egin beharko litzateke, hobetzeko eta egokitzeko proposamen egokiekin, egoeraren arabera. |

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **III. Presidenteen hitzaldiak** (Ikus 3.3. puntua) | Presidenteen Konferentziak gobernu autonomiko bakoitzaren ikuspuntuak trukatzeko balio izan du, eta, era berean, aukera eman du Presidente bakoitzak jasota uzteko zer jarrera, eskaera, kexa edo proposamen dituen. Hala ere, haren funtzionamenduak ez du benetako baterako gobernantzarik ahalbidetu. Ez da erregelamendua bete deialdiari, prestaketa-batzordeari eta garapenari dagokienez. | Pandemia baten testuinguruan, Presidenteen Konferentzia baliagarria izan daiteke krisia modu aldeaniztunean kudeatzeko; baina, horretarako, ezinbestekoa da metodologia argi bat, autogobernua eta eskumen-eremuak errespetatuz, baterako gobernantza eraginkorra ahalbidetuko duena: eztabaida partekatua, elkarrizketa, elkarreragina, koordinazioa eta, hala badagokio, adostasunak sortzea. |

## 4.2. Aholkularitza zientifikoa

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **IV. Nazioartean: OME eta ECDC** (Ikus 3.4. puntua) | OMEk eta ECDCk saiakuntza-errore ariketa logikoa izan arren ziurtasun-esparru bat eskaini dute ziurgabetasunaren aurrean. Indarguneekin batera, une jakin batzuetan ahuleziak agertu dituzte, batez ere aurrerapenari, koordinazioari, eraginari edo irizpideak bateratzeari dagokienez. | Nazioartean, funtsezkoa da nazioarteko eta alde anitzeko osasun-erakundeak indartzea, bai giza baliabideei eta baliabide materialei eta ekonomikoei dagokienez, bai eremu politikoen eta zientifikoen arteko koordinazio handiagoa eta hobea lortzeko mekanismoei dagokienez irizpide orokorraren eta aplikazio koordinatuaren gidalerroak hobetzeko. |
| **V. Estatu-eremua: Alerta eta Larrialdi Sanitarioak Koordinatzeko Zentroa eta Carlos III.a Institutua** (Ikus 3.4. puntua) | Alerta eta Larrialdi Sanitarioak Koordinatzeko Zentroaren eta Carlos III.a Institutuaren estatuko aholkularitza zientifikoa Osasun Publikoko Batzordearen eta Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren bitartez bideratu da. Organo horiek Espainiako Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko koordinazio-esparrua eskaini dute. Hala ere, bere funtzionamendua erradialegia izateak mugatu egin du Autonomia Erkidegoekiko koordinazio eraginkorrago eta horizontalago baten eraginkortasuna. | Osasun Publikoko Batzordeak eta Lurralde arteko Kontseiluak eskaintzen duten koordinazio-esparrua beharrezkoa da osasun-larrialdi batean. Haren funtzionamendua hobetu egin behar da, adostasunez eta kontuan hartuta osasun-kudeaketaren eskumena Autonomia Erkidegoena dela. Bi organo horietan baterako gobernantza eraginkorra behar da: deliberazio partekatua, elkarrizketa, interakzioa, koordinazioa eta, hala badagokio, adostasunak sortzea. |
| **VI. Euskal eremua: LABIren Batzorde Zientifiko-Teknikoa** (Ikus 3.4. puntua) | Batzorde Zientifiko-Teknikoak esparru erabilgarria eskaini die euskal erakundeei, komunikabideei eta gizarteari. Prozedura erregular bat garatu du, ezagutzeko modukoa eta zientifikoki sostengatutako datuetan eta balorazioetan oinarritutako erabakiak hartzen lagundu duen metodo baten bidez gidatua. Mundu osoko erakunde adituek bezala, agerian utzi ditu zientziak birusaren portaerei aurrea hartzeko dituen mugak. | Osasun-larrialdiko egoeretan, oso gomendagarria da Batzorde Zientifiko-Tekniko bat izatea. Batzorde horretan diziplina anitzeko ezagutzak bilduko dira, bai ikuspegi mediko-zientifikotik, bai ikuspegi juridikotik, sozialetik eta segurtasunetik edo kudeaketakotik. Etorkizuneko erronka bat da euskal osasun-sistemak eta Euskadiko zientzia-, tekonologia- eta ikerketa-ekosistema osoak dituzten gaitasun zientifiko guztien aprobetxamendua eta koordinazioa sistematizatzea. |

## 4.3. Segurtasun juridikoa

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **VII. Lege-esparrua Estatuan** (Ikus 3.5 eta 3.6 puntuak) | Estatuko lege-esparrua ez da nahikoa izan erantzun egoki bati estaldura juridikoa emateko. Pandemian, ez da erreakzionatu lege-esparrua egokitzeko. Autonomia Erkidegoek ez dituzte egoera horrek eskatzen zituen tresna juridikoak erabili. Erkidego bakoitzak ebazpen judizial desberdinak hartu behar izan ditu bere gain. Gainera, joera birzentralizatzaileak agertu dira, eta estatu konposatu baten barruan eskumenen banaketan ez da arretarik jarri. | Krisia hain larria izanik, lege-esparru egoki bat behar da, segurtasun juridikoa emango duena eta Autonomia Erkidegoen artean ebazpen judizial guztiz kontrajarriak gerta ez daitezen. Gutxienez, osasun publikoaren arloko neurri bereziei buruzko 3/1986 Lege Organikoa aldatu beharko litzateke, osasun-larrialdi bati aurre egiteko legeria arruntean Autonomia Erkidegoentzat duen jarduera-esparrua argitzeko. |
| **VIII. Euskal lege-esparrua** (Ikus 3.7. puntua) | Euskal lege-esparruak, bere eskumen-esparruaren barruan, ez du baliabide juridiko nahikorik eskaini. Izan ere, berezko antipandemia bat izateko beharra ikusi zen. Ez Gernikako Autonomia Estatutuak, ez indarrean dauden osasun-legeek ez dute bizitako egoerara egokitutako baliabide juridikorik. | Osasun Publikoaren Euskal Legea, izapidetzen ari dena, aukera bat da. Gertakizun historiko horretatik ikasitako irakaspenak txertatu behar ditu, eta aurreikuspenetan eta artikuluetan txertatu.<br>Era berean, autogobernuaren estatus berriari buruzko etorkizuneko eztabaida eta balizko Legebiltzarraren erabakiak estaldura juridikoaren premia hori kontuan hartu beharko luke larrialdi-testuinguruetan. |
| **IX. Euskal legea** (Ikus 3.7. puntua) | Lege honen erabilgarritasuna tresna praktiko eta erabilgarria izan da. Euskal erakundeen eskumenen eremuko jarduketen segurtasun juridikoa argitu eta indartu du, ahal zen neurrian. Hala ere, estaldura ez da nahikoa, ezin baititu bere eskumen-eremutik kanpo geratzen diren hutsuneak eta gabeziak bete. | Baldin eta, osasun-krisialdi batean, lege-esparru juridikoak gabezia kronikoak erakusten baditu, osasun-erantzunaren estaldura juridikoa indartzeko urgentziazko prozeduraren bidez lege bat onartzea kontuan hartu beharreko baliabidea da. Larrialdi-egoeretan, komenigarria litzateke saiakuntza-errore legeriaren aukera izatea, Europako iparraldeko herrialde batzuetan gertatu den bezala.<br>Ómicron aldaerak munduko “semaforo” guztiak gainditu ditu. Esperientzia hori kontuan hartu behar da, legearen barruan, arrisku-mailak eta neurriak ezartzeko modulazio-adierazleak eta -irizpideak ezartzerakoan. |

## 4.4. Gizartearekiko konpromisoa eta interes orokorra

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **X.Informazioa, gardentasuna eta komunikazioa** (Ikus 2.3 eta 3.10 puntuak) | Gizarteari, komunikabideei eta Legebiltzarrari eskainitako informazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren jarraibidea komunikazio- eta gardentasun-jardunbide egokitzat jo daiteke. Horren emaitza prebentzio-neurriak ulertu, lagundu eta betetzeko adierazleen arabera ebaluatu daiteke, edo herritarrek txertaketa-prozesuari emandako erantzunaren arabera.<br>Inkesten arabera, gizartearen gehiengoak neurriak bete eta babestu ditu. Hala ere, gutxiengoen desafekzio-jarrerak hain neurrigabeak izan dira, ez zuten adierazgarritasunaren itxura hartzera iritsi dela. Distortsio horrek komunikazioaren eragile guztien hausnarketa kritikoa eskatuko luke. | Jarraitutako informazio- eta gardentasun-eredua errepikagarria da. Gogoetarako eremuak hiru dira: (1) informazioaren eta kanpainen indarra galtzea pandemiaren luzapenagatik eta nekeagatik; (2) kanpainak pertsona gazteenen komunikazio-kodeetara egokitzea; eta (3) sare sozialen bidezko komunikazioa optimizatzea.<br>Pandemiak agerian utzi du komunitate-zentzuaren garrantzia, Auzolana. Indibidualismora eta gizarte-banaketara gonbidatzen duten zalapartaren eta mezuen aurrean, beharrezkoa da partekatutako balio zibikoak zaintzea eta indartzea. Pandemiak agerian utzi du elkartasunaren garrantzia. Zaindu beharreko balio estrategikoa izan da. |
| **XI. Premiazkoa eta garrantzitsua gobernatzea** (Ikus 3.9 puntua) | ·**Premiazkoa**: erantzun sozioekonomikoa. Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta Covid funtsak 1.597 milioi eurokoak izan dira 2021. urtearen amaierara arte. Kopuru horri 2022rako programak eta enpresa eta autonomoentzako 1.500 milioiko kreditu-lerroa gehitu behar zaizkio.<br>Euskadin ezarritako neurriak Europako herrialde aurreratuenen antzekoak dira. Krisi larri batean, laguntza guztiak gutxi dira. Hala ere, baliabideak mugatuak dira eta oraingo gobernuak ezin du hipotekatu datozen belaunaldien etorkizuna. | ·**Premiazkoa**: erantzun sozioekonomikoa. Laguntza bidezko erreakzio sozioekonomiko azkarreko politika Euskadin pandemiari emandako erantzunak izan dituen aktiboetako bat da.<br>Hobetu beharreko puntu bat izapidetzea da. Larrialdi-egoeretan, legeriak premiazko izapideak egiteko mekanismoak jaso behar ditu, laguntzak berandu iritsi gabe, ondoren gastua behar bezala fiskalizatu ahal izateko. |
| (Ikus 3.11 puntua) | ·**Garrantzitsua**: eraldaketak. Krisia gorabehera, Eusko Jaurlaritzak etorkizunerako eta Euskadik behar dituen eraldaketetarako gobernatzen jarraitu du. Lehentasuna ekonomia eta enplegua suspertzea izan da, eta hiru trantsizioetan eta giza garapen iraunkorreko ereduan aurrera egitea. Ikasgaien balantzean, nabarmendu beharreko jardunbide egokia da hori. | ·**Garrantzitsua**: eraldaketak. Krisi baten larritasunak ez du alde batera utzi behar premiazkoa eta berehalakoa denari ematen zaion erantzuna eta garrantzitsua eta estrategikoa denari ematen zaion erantzuna biltzen dituen kudeaketaren ikuspegia. Ikaskuntza hori funtsezkoa da krisian zehar eta krisiaren ondoren suspertze-egoera hobean egoteko. |
| **XII. Zerbitzu publikoak** (Ikus 3.8. puntua) | Hiru ikaskuntza: (1) indartu egin da zerbitzu publikoen garrantzia, eta etengabe egokitzeko inbertsioa; (2) krisi pandemikoak gure zerbitzu publikoen kaudimena frogatu du. Zailtasunak izan dituzte, baina erresilientziarako eta egokitzapenerako gaitasuna erakutsi dute; eta (3) Osasun-krisi honek hobetu beharreko esparruak agerian utzi ditu, eta horiek aprobetxatu egin behar dira.<br>Euskal zerbitzu publikoek eta autogobernu-erakundeek erantzun dute. Bi urteren ondoren, haien etorkizunaren aurreko egoera sendoa eta fidagarria da. | Zerbitzu publikoak sustatzen jarraitu behar da. Politika publikoen eremu bakoitzak etorkizunerako irakaspenak atera behar ditu.<br>Osasun-arloan, bi ildo: Osasun publikoaren arloa indartzea, eta lehen mailako arreta eta familia-medikuntza indartzea eta prestigioa ematea.<br>Egoitza-eremuan, estrategia soziosanitario berria aukera bat da. Lehentasuna espazio soziosanitarioetako osasun-arreta optimizatzea da. |

## 4.5. Erantzukizun politikoko erabakiak hartzeko irizpideak eta iparra

| Eremuak | Iraganaren ikaskuntzak | Etorkizuneko gogoetak |
|---|---|---|
| **XIII. Irizpideen hierarkia** (Ikus 3.12 puntua) | Lehendakariak eta euskal erakunde guztiek LABIn erabakiak hartzeko jarraitu duten prozesuan, lau irizpide gidari erabili dira: (1) bizitza eta osasun publikoa defendatzea, (2) ospitaleen eta osasunaren blokeoa prebenitzea, (3) atzeraezineko kolapsoak saihestea, eta (4) eragin sozioekonomikoak arintzea. | Bi urteko esperientziaren ondoren, adierazi behar da lau irizpide horiek oinarri ona direla osasun-krisi larriko egoeretan etorkizunerako erreferentzia-tresna gisa. Esparru horrek ez du bermatzen hartutako erabaki guztiak zuzenak direnik; baina koherentziaren eta zentzu-batasunaren plano batean kokatzen ditu. |
| **XIV. Faktore baldintzatzaileak bereiztea** (Ikus 2.3 eta 3.12 puntuak) | Zailtasun juridikoez edo koordinazio-zailtasunez gain, erabakiak hartzeko garaian hiru eragin-faktore izan dira elkarrekin:<br>·interes partikular legitimoen defentsa; beti ez datoz bat osasun publikoaren interes orokorrarekin;<br>·era guztietako iritzien aniztasuna erabaki bakoitzari buruz;<br>·zientzialarien, unibertsitateko irakasleen edo hainbat diziplinatako adituen balorazio desberdinak. | Presio- eta nahasmendu-testuinguruetan, agerian geratzen da garrantzitsua dena osagarritik bereizi behar dela, eta erabakiak hartzeko prozesuaren norabidean perspektiba ez dela galdu behar. Funtsezkoa da osasun publikoaren helburuari beste ezeren gainetik eustea, benetako inpaktuak aitortzeko eta gehiegizko jarduketetatik eta bestelako instrumentalizazioetatik bereizteko benetan jasaten ari direnak ez ahaztea. |
| **XV. Gangaren giltzarria** (Ikus 3.12 puntua) | Euskadik, Eusko Jaurlaritzak eta LABIn bildutako euskal erakundeek metodo bat eta irizpideen hierarkia bat jarraitu dituzte, eta horiek erabaki dute erabakiak hartzea. Haren funtsezko gakoa izan da oreka bilatzea haren haztapenean. Metodo, irizpide eta gako esparru hori ez izateak pandemiari erantzuteko kudeaketan eta zuzendaritzan nahasmen eta kontraesaneko testuinguruak sortzen ditu. Euskal kasuan, gangaren giltzarria oreka bilatzea izan da. | Krisi larri eta luze batean, irizpideen hierarkia bat behar da, azken batean, erabakiak hartzea zehazteko. Horrekin batera, erabaki bakoitzaren eta prozesu osoaren iparra, baita helbururik konplexuena ere, ezarritako irizpideen haztapenean oreka lortzea da, sentikortasunari, erantzukizunari, enpatiari eta etorkizuneko ikuspegiari eutsiz. Hori gako politikoa da, edo erantzukizun politikoaren gakoa, printzipioak, asmoa eta borondatea definitzen dituelako. |

# Epilogoa

# Azken gogoetak etorkizunera begira

Euskadi ere, munduko gainerako herrialdeek bezala, izaera, larritasun eta eragin ikaragarriko pandemia baten ondorioak pairatzen ari da –pairatu ditu–, duela bi urte imajinaezinak zirenak (2020ko otsailaren 27a baino egun batzuk lehenago, Sailarteko Batzordea bildu zenean Kontingentzia Planak koordinatzeko, edo otsailaren 28an –egun horretan detektatu baitziren COVID-19aren lehenengo bi kasu positiboak gure herrian). Haren eragina suntsitzailea eta urratzailea izan da gizadiarentzat, gizarteentzat, familia eta pertsonentzat, bereziki egoera ahulenean zeudenentzat; eta bai eta herrientzat, gobernuentzat, negozioentzat, enpresentzat edo mota guztietako jarduerentzat ere.

Hasiera-hasieratik, arazo ezezagunei eman beharreko erantzunak inprobisatu behar izan ziren, batez ere herrialde garatuetan, edo gure belaunaldien biografian aurrekaririk ez zuten neurriak aplikatu behar izan ziren, hala nola etxeko konfinamenduak, gaueko mugikortasunaren murrizketak, talde-bilkurak 4 edo 6 pertsonara mugatzea, gizarte- eta familia-burbuilak, itxiera perimetralak, edo funtsezkoak ez diren jarduera sozioekonomikoak ixtea, batzuk bakarrik aipatzearren. Pandemia ustekabekoa izan da, eta haren portaera ezin aurreikusizkoa izan da, orain arte sei olatu izan baititu, bata bestearen atzetik, kutsaduraren transmisioan gora eta behera egiteko.

## Balantzea egiteko metodologia

Dokumentu honen helburua memoria bat eta balantze bat aurkeztea da, bi urte igaro ondoren, Euskadiren etorkizunerako ikasitako irakaspenak proiektatzeko.

Ikuspuntu metodologikotik, planteatzen den gaia da non kokatu behar den balorazioaren gakoa ondorioren bat ezartzeko. Ikuspegi sinplista batek ebaluazio-erreferentzia gisa ezar lezake zailtasunik, akatsik edo gabeziarik ez izatea edo gehiago edo gutxiago agertzea.

Balorazio handieneko adierazlea, beraz, erantzun guztien artean ahalik eta ondoen asmatzea izango litzateke. Arazoak egon diren neurrian, balantzea, kasu honetan, negatiboa baino ez litzateke izango. Munduko herrialde eta gobernu bakar batek ere azterketa hori onartuko ez balu ere, planteamendu hori errotik gaizki bideratuta dago, ez baitu kontuan hartzen horrelako pandemia batek ekarri duenaren errealitatea.

Pandemiaren ondorio nagusietako bat, giza ondorioez gain, izan da, hain zuzen ere, arazoak sortzea eta hauskortasunak azaleratzea, inor ez zegoelako prest horrelako “tsunami” sanitario, sozial eta ekonomikorako. Birus horrek kontrolean, omnipotentzian eta zaurgarritasunik ezean oinarritutako gizakiaren edo politikaren nahia biluzarazi du. Mugatua izatearen errealitate-printzipioan kokatzen gaitu, bai gure giza izaerari dagokionez, bai gure izaera politikoari dagokionez.

Balantze baterako erreferentziazko adierazlea ezin da izan horrelako pandemia bati erantzuteko kudeaketan eta norabidean zailtasunik, gabeziarik edo akatsik ez egotea. Balorazioa egitean, ziurtzat jo behar da, bizitakoaren moduko testuinguru batean, inperfekzioa eta kalteberatasuna prozesuaren beraren berezko zati direla.

Gogoeta hori, Euskadiri dagokionez, ez da interpretatu behar, inola ere, garrantzia kentzearen edo oker egindakoak minimizatzearen zentzuan. Aitzitik, memoria honen premisetako bat da pandemiak edozein esparrutan erakutsi dituen hauskortasunei ihes ez egitea, heltzea baizik; izan ere, ahulgune horiek dira politika publikoak hobetzeko eta indartzeko estrategia bat bultzatzeko gai-zerrendarik onena.

Argudio hori ere ez litzateke interpretatu behar erakunde-politikari soilik mugatuta. Plaza publikoan esku hartzen duten eragile sozial, politiko, akademiko, zientifiko, mediatiko, ekonomiko, enpresarial edo kultural guztiak “ukitzen” ditu pandemiak erakutsitako hauskortasunei buruzko hausnarketa kritiko honek. Logikoa denez, guztiek ez dute erantzukizun bera, baina errealitate-kolpe horrek kasu bakoitzean eskainitako erantzunen eta erakutsitako jarreren inperfekzioari eragin dio neurri batean.

Pandemiari erantzuteko kudeaketaren eta gobernantzaren zuzendaritza instituzionalari dagokionez, esan behar da ez geundela prestatuta horrelako larrialdi baterako. Kontuan izan behar da saiakuntza-errore metodoaren arabera funtzionatu behar izan dugula. Haztamuka egin behar izan genuen aurrera, aurkikuntza eta ebidentzia zientifiko progresiboen erritmora. Gaur egun ere asko da zientziak birusari buruz ez dakiena. Ez dakigu zer portaera izango duen datozen hilabeteetan, zazpigarren olatu bat egongo den ala ez, edo pandemia batetik endemia batera igarotzen ari garen ala ez. Egiten den edozein balantze errealitate- eta apal-printzipio horretatik abiatu behar da.

## Lau adierazle

Aurreko guztia esanda, galdera honakoa da: zein dira balantze bat egiteko adierazleak? Memoria honen amaieran dagoen hipotesia da erreferentzia horiek, gutxienez, elkarren osagarri diren lau diagnostikorekin dutela zerikusia. Lau galderaren erantzuna da: *erresistentzia*, nola egin diogu aurre kolpeari?; *erresilientzia*, zein izan da ezbeharren aurrean egokitzeko eta suspertzeko dugun gaitasuna?; *elkartasuna*, nola funtzionatu dute baliabide komunitarioek eta kohesio sozialekoek?; eta *pronostikoa*, zer baldintzatan gaude herri gisa aurrera egiten jarraitzeko?

·***Erresistentzia***, nola egin diogu aurre kolpeari? Tentsioak, zailtasunak eta sufrimendu larriak pairatu ditugu, bai gizakiaren, familiaren eta komunitatearen ikuspegitik, bai gizartearen, ekonomiaren, erakundeen eta zerbitzu publikoen ikuspegitik. Pandemiak agerian jarri ditu ahuleziak eta hobetu beharreko eremuak, eta horiei heldu beharko zaie (memoria honen aurreko puntuetan zehaztu dira). Egia da gure zerbitzu publikoek kolpeari eutsi diotela eta herritarren beharrei erantzun dietela. Txertaketa-prozesua edo hezkuntzan presentzialtasunari eustea, bi adibide aipatzearren, erresistentziaren eta "auzolanaren" erakusgarri ona dira. Gizarte gisa, oso proba gogorrak jasan ditugu, etxean konfinamendu zorrotzak izatetik murrizketa gogor eta luzeak izatera. Familia eta pertsona bakoitzak, enpresa bakoitzak, erakunde bakoitzak mugak eta estutasunak pairatu behar izan ditu bere gain eguneroko jardunean. Sufritu dugu, baina Euskadik fidagarritasunez egin dio aurre.

·***Erresilientzia***, zein izan da ezbeharren aurrean egokitzeko eta berreskuratzeko dugun gaitasuna? Euskadin bi urte hauetako kronika kronologikoa gertatu diren arazo larriak, konplexuak eta etengabeak, gainditu izanaren historia da. Arazoak esparru guztietan sortu dira, dela gobernantzakoan edo juridikoan, sanitarioan, soziosanitarioan, sozioekonomikoan, hezkuntzakoan edo beste edozein motatakoan; eta bakoitzari alternatiba bat planteatu zaio. Arazo bakoitzak, errore bakoitzak, krisi bakoitzak edo gabezia bakoitzak erantzun bat izan du, arrazoizko denboran eta eraginkortasunean. Arnasgailu edo norbera babesteko ekipamendu gabeziatik hasi, gizarte-laguntzetara edo aldi baterako lan-erregulazioko espedienteetara arte, eta Dekretu, kontingentzia-plan edo zerbitzu publikoen edo sanitarioen berrantolaketa bakoitzetik pasatu da inguruabar bakoitzean. Azken batean, zailtasun bakoitzak konpontzeko bide bat aurkitu du une bakoitzean. Irtenbide horiek, askotan, ez dira perfektuak, baina, azkenean, oztopoak gainditu ahal izan dituzte, kolapsatu gabe. Sufritutakoa gorabehera, erresilientziari esker ari da ematen gure gizartearen susperraldi sanitarioa, soziala, ekonomikoa edo emozionala.

·***Elkartasuna***, nola funtzionatu dute baliabide komunitarioak eta kohesio sozialekoek? Egindako azterlan soziologiko guztiek erakusten dute euskal herritar gehienak bat datozela hartutako osasun publikoko neurriekin, eta nabarmentzekoa da neurri horien betetze-maila. Testak edo baheketak egitean eta, bereziki, txertaketan eman den erantzun soziala elkartasun horren isla objektiboa da. Komunitate-zentzu horren beste froga on bat izan zen adinekoei edo kalteberenei laguntzeko lehen olatuan sortutako boluntariotza-ekimena. Elkarrekin antolatutako elkartasun-sarea izan zen erakusle nagusia. Bestalde, euskal erakunde guztiek, udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako sailek laguntza-ildoak ireki dituzte zailtasun handienak dituzten pertsona, familia, erakunde edo enpresentzat. Kohesio sozialak benetako isla izan du.

·***Pronostikoa***, zer baldintzatan gaude herri gisa aurrera egiten jarraitzeko? Bi urteko "ekaitza" delakoak inpaktuak eragin ditu, konpondu egin behar direnak; baina konponketarekin batera eraldaketa behar da. Euskadik suspertzeko, bultzatzeko eta aurrera egiteko garaia hasi behar da orain. Horixe da erronka. Aurrera egiten jarraitzeko indarrak ditugu. Ekonomiaren eta enpleguaren susperraldia errealitate bihurtzen ari da. Egoera politikoa, instituzionala, aurrekontukoa eta zerbitzu publikoetakoa sendoa eta egonkorra da. Agian garrantzitsuena da pandemian Eusko Jaurlaritzak, pandemiaren oraingo premiari erantzuteko ez ezik, etorkizuna prestatzeko ere gobernatu duela. Ez ditu ahaztu hiru trantsizioak: teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta demografiko-soziala. Hori guztia honako hauetan islatu da: 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin hartutako konpromisoan, ekonomia eta enplegua suspertzeko "Berpiztu Programan", edo, Europako Funtsak eskuratu ahal izateko "Euskadi Next" proiektuan. Herri gisa aurrera egiten jarraitzeko baldintzak ematen dira; pronostikoa positiboa da.

Autokonplazentziarik gabe, azterketa honek aukera ematen du tonu positiboko balantze bat egiteko Euskadin pandemiari emandako erantzunaren gobernantzaren emaitzari buruz. Balantzea eraikitzailea da, akatsak egin ditugun arren eta gabeziak, zailtasunak eta arazo larriak izan ditugun arren. Herri gisa balantze ona, erresistentziaren, erresilientziaren, elkartasunaren eta pronostikoaren adierazleen azterketan oinarritzen dena.

Lehenik eta behin, kolpeari eta *erresistentziari* eutsi diogu; bigarrenik, arazo bakoitzaren aurrean erantzuteko, egokitzeko eta gure onera etortzeko gai izan gara, *erresilientziaz*; hirugarrenik, komunitate-zentzuz jokatu dugu eta kohesio soziala eta *elkartasuna* babestu ditugu; eta laugarrenik, herri gisa aurrera egiten jarraitzeko egoera onean gaude, *pronostiko* onean.

## Ikasitakoen alderdi nagusia

Memoria honen 3. eta 4. puntuetan arretaz deskribatu dira bizitakoaren ikaskuntzak eta estres-proba horretatik atera daitezkeen etorkizuneko gogoetak. Orain, azken ondorio honetan, Euskadin pandemiaren gobernantzan eragin handiena (aldekoa edo kontrakoa) izan duena nabarmendu behar da labur-labur. Hau da, hobetu behar denaren alderdi nagusiak gabeziak erakutsi dituelako; eta sustatu behar denaren alderdi nagusia praktika ona izan delako.

•Lau dira ahuleziak agerian utzi dituzten eta hobetzeko asmoz jorratu behar diren eremu nagusiak. Politika publikoen eremuak dira, eta horietan ahalegin handiagoa egin beharko dugu politika horiek erreformatzen eta egokitzen saiatzeko:

·Nazioarteko erakundeen aholkularitza zientifikoa. Indarguneekin batera –zalantzarik gabe izan baitituzte– une jakin batzuetan ahuleziak agertu dituzte aurrea hartzeari, koordinazioari, eraginari edo irizpide orokorra bateratzeari eta aplikazio koordinatuari dagokienez. Funtsezkoa da nazioarteko eta alde anitzeko osasun-erakundeak indartzea, bai giza baliabideei eta baliabide materialei eta ekonomikoei dagokienez, bai eremu politikoen eta zientifikoen arteko koordinazio handiagoa eta hobea lortzeko mekanismoei dagokienez.

·Zerbitzu propioak hobetzea. Osasun-krisiak agerian utzi ditu zerbitzu publikoen hauskortasun-guneak. Osasunaren arloan, osasun publikoaren arloaren azpiegitura berriz pentsatu eta indartu behar da sistema osoaren barruan. Era berean, lehen mailako arreta eta familia-medikuntzakoa egokitu, berrantolatu eta prestigioa eman behar zaio. Estrategia soziosanitarioaren barruan, zainketa-eredua indartu behar da, bai eta gizarte- eta egoitza-eremuetako osasun-arretaren prebentzioa optimizatu ere.

·Segurtasun juridikorik eza. Segurtasun juridikorik ez izatea arazo larria izan da krisi honen gobernantzarako. Estatuko lege-esparruaren erreformei heldu behar zaie sortutako distortsioak konpontzeko. Euskadin, izapidetzen ari den Osasun Publikoaren Euskal Legeak kontuan hartu beharko ditu kontingentzia historiko honetan ikasitakoak. Era berean, autogobernu-estatus berriari buruzko parlamentu-erabakiak larrialdi-testuinguruetan estaldura juridikoa emateko beharra jaso beharko luke.

·Kogobernantza. Lurraldeen arteko koordinazioari dagokionez, hobetzeko tartea dago. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko aldebiko harreman-bideek funtzionatzea. Alde anitzeko lankidetzari dagokionez, Presidenteen Konferentziak edo Lurralde arteko Kontseiluek metodologia bat behar dute, eskumen-eremuak errespetatuz, baterako gobernantza eraginkorra ahalbidetuko duena: aldez aurreko prestakuntza, eztabaida partekatua, elkarrizketa, elkarrekintza, koordinazioa eta, hala badagokio, adostasunak sortzea.

•Euskadin pandemiaren gobernantzan modu positiboenean lagundu ahal izan duten eta jardunbide egokitzat har daitezkeen lau eremu nagusi ere badira:

·LABIren arkitektura. Euskadiko pandemiaren aurrean gobernantza zuzendu duenaren ikuspegitik, LABIren Aholku Batzordea, haren Batzorde Zientifiko-Teknikoa eta "Bizi Berri" planak aktibo bat eta funtsezko laguntza bat izan dira erabakiak esparru ordenatu eta erabilgarri batean hartzeko. Arkitektura horri esker, gainera, erakundeen arteko baterako gobernantza-esparru bat sortu da euskal erakunde guztien artean. Hori guztia praktika egoki erreplikagarritzat jo daiteke larrialdi-testuinguruetan.

·Euskadiko zerbitzu publikoen erantzuna. Bi urteren ondoren, indartu egiten da haren garrantzia eta inbertsioa etengabe egokitzeko. Krisi pandemikoak gure zerbitzu publikoak probatu ditu. Izandako zailtasunei aurre egiteaz eta hauek gainditzeaz gain, euskal zerbitzu publikoek herritarren beharrei erantzun diete. Etorkizunari begira duten egoera sendoa da. Gure autogobernu-erakundeen indargune baten aurrean gaude, eta balantze orokor eraikitzailea azaltzen du.

·Premiazkoaren zein garrantzitsuaren gobernua. Lehenik eta behin, premiazkoa: osasun-erantzuna eta erreakzio sozio-ekonomikoa, gehien behar duenari laguntzeko. Bigarrenik, aldi berean, etorkizunerako eta Euskadik behar dituen eraldaketetarako gobernatzen jarraitzea: ekonomia eta enplegua suspertzea, eta hiru trantsizioetan aurrera egitea. Ikaskuntzen balantzean, premiazkoa eta berehalakoa denari erantzuteko eta garrantzitsua eta estrategikoa dena gobernatzeko konbinazio hori euskal gobernantzaren aktiboen parte da.

·Irizpideen hierarkia eta haztapena erabakietan. LABIren erabakiak hartzerakoan, lau irizpide erabili dira: bizitza eta osasun publikoa defendatzea, ospitaleen eta osasun-zerbitzuen blokeoa prebenitzea, kolapso itzulezinak saihestea eta inpaktu sozioekonomikoak arintzea. Hori oinarri hartuta, irizpide horiek sentikortasunez, erantzukizunez, enpatiaz eta etorkizun-ikuspegiz haztatzean OREKA lortzea izan da ardatz nagusia. Eredu hori etengabe mantentzea faktore erabakigarria izan da.

Azkenik, pandemiaren eta etorkizuneko pronostiko onaren aurreko gobernantzaren balantzea egiteko lau datu objektibo nabarmendu behar dira. (1) Euskadi –bere osasun-sistema eta herritarrak– test kopuru handiena egin duten erkidegoen artean egon da. (2) Euskadik –bere osasun-sistemak eta bere herritarrek– Europako altuenen artean dauden txertaketa-emaitzak ditu. (3) Euskal gizartearen gehiengoaren konpromisoa prebentzio-neurriak betetzen. (4) Azkenik, INEren datuen arabera, Covid aldian heriotza gutxien izan duen Autonomia Erkidegoetako bat da Euskadi. Datu horiek emaitza objektiboa erakusten dute, eta oinarri sendoko balantzea eratzen laguntzen dute.

## Gizartea eta etorkizuna eraldatzeko hausnarketak

Pandemiaren hasieratik, askotan galdetu izan diogu geure buruari bizipen global horretatik pertsona eta gizarte gisa hobeto edo okerrago aterako ginatekeen. Ziurrenik, bata zein bestea mantentzeko baldintzak egongo dira. Gertakariek araugintza-boterea dute, eta pandemia honek ere badu. Atzeraezina da. Dagoeneko gertatu da. Aldatu egin gaitu, aldatzen ari zaigu… nahiz eta ez jakin ziur nola egiten ari den.

Ikuspuntu politikotik, ez da arbitrarioa esatea krisi global honetatik hobeto ateratzeko beharrezkoa dela esfortzuak areagotzea trantsizio energetiko-klimatiko eta ekologikoan, trantsizio ekonomiko, teknologiko eta digitalean, eta trantsizio sozial, demografiko eta sanitarioan. Hori da, gutxienez, Eusko Jaurlaritzaren ibilbide-orria. Hala zen 2020a baino lehen, pandemian hala izan da eta –arrazoi eta intentsitate handiagoarekin– aurrerantzean ere hala izango da. Garapen Jasangarrirako Helburuekiko konpromisoak planeta, mundua eta Euskadi hobetzen lagun dezake.

Baina krisi honetatik hobeto edo okerrago aterako garen galdetzen dugunean, ez gara gai politikoei buruz soilik galdetzen. Gizartea eta pertsona bakoitza ere interpelatuta daude. Giza eta komunitate-dimentsio horretan sakontzeko, hausnarketarako eta etorkizunerako hobekuntzarako lau ildo aipatu ditzakegu.

·Lehenik eta behin, gure zaurgarritasuna onartzea. Pandemiak giza izaeraren ahultasuna erakutsi digu. Autosufizientzia edo harrokeria desagertu egin dira. Apaltasuna da gure mugak aitortzea eta ezagutza horren arabera jardutea. Printzipio horrek errealitatean kokatzen gaitu. Iraunkortasunak mugatua izatearen kontzientzia eskatzen du. Baliabideak eta gaitasunak ez dira mugagabeak.

·Bigarrena, eskuragarri dagoena baloratzea. Pandemiak aukera eman digu geneukana eta daukaguna baloratzeko, galdu egin dezakegula konturarazi gaitu. Beti dago zerbait baliotsua errealitateari aurre egiteko, eta ez da gutxietsi behar, ezta mespretxatu ere. Garapen jasangarriaren oinarria eskuragarri dagoen ona eta positiboa baliatzea da. Zailtasunen arteko aukerak sustatzea.

·Hirugarrena, komunitate-kontzientzia etikoan sakontzea. Pandemiaren gogortasunak komunitate-zentzuaren eta erantzunkidetasunaren garrantzia nabarmendu du. Guztien ongia edo auzolana ez dira apelazioak; benetako premiak dira. Indibidualismoaren aurrean, elkartasunaren etika partekatu behar da komunitatearentzat. Arduraz eta zentzu etikoz hautatzeko kontzientzia dugu. Denok egin dezakegu gure ekarpena.

·Laugarrena, aurrerapen sozial eta ekonomikoa sustatzea, giza duintasunaren neurrira. Pandemiak gogorarazi digu pertsona aurrerapenaren erdigunean dagoela eta giza duintasuna osasunerako, hezkuntzarako, gizarte-babeserako edo zerbitzu publikoetarako eskubideari lotuta dagoela. Kohesioan eta Giza Garapen Iraunkorrean islatzen da. Konpromiso horrek dimentsio globala, lokala eta pertsonala izan behar du. Giza duintasuna giza eskubideen oinarria da, eta pertsona izatearen zentzua adierazten du.

*****

Pandemia hasi zenetik bi urte igaro direnean, Euskadi suspertzeko, berrabiarazteko eta eraldatzeko etapa bati ekiten ari gatzaizkio. Erakutsitako erresistentziak, erresilientziak eta elkartasunak etorkizunerako pronostiko on bati eusten diote. Orainaldi eta etorkizun honekin, Eusko Jaurlaritzak bere konfiantza eta erabakia adierazi eta partekatu nahi ditu.

2022ko otsailaren 24an, dokumentu hau itxitzat eman baino lau egun lehenago, Errusiako Gobernuak Ukrainaren gaineko inbasio militarra hasi zuen. Ziurgabetasuna eta mehatxua munduaren gainean daude berriro. Berriz ere, *erresistentzia*, *erresilientzia* eta *elkartasun* hitzek zentzu osoa hartzen dute etorkizun eta itxaropen iragarpen on bati eutsi ahal izateko.

# Eranskinak

# **1 eranskina.** Atzera begirako sintesia hamabostaldika

## 2020

| Hamabostaldia | Gako nagusiak |
|---|---|
| Mar. 1-15 | ·Lehen kasuak Euskadin. Osasun-larrialdia deklaratzen da. Etxeko konfinamendua eta alarma-egoera. |
| Mar. 16-31 | ·Transmisioa oso handia da. Ez dago nahikoa gaitasun kutsadurak jarraitzeko edo arakatzeko. Eten egiten da apirilaren 12ko hauteskunde autonomikoetarako deialdia. |
| Api. 1-15 | ·Hedapenak aurrera jarraitzen du, konfinamendu-neurriek oraindik ez dute emaitzarik sortzen, beste bi aste beharko dituzte eragina edukitzen hasteko. |
| Api. 16-30 | ·Kutsadura-kurbak moderazioa jasaten du. Neurri murriztaileak lehen emaitzak ematen hasi dira. |
| Mai. 1-15 | ·Kutsadura-kurba baretzen ari da. Konfinamendua malgutzeko eta arintzeko lehen neurriak aplikatu dira. |
| Mai. 16-31 | ·Kutsaduren bilakaera hobetzen ari da. Mugikortasuna malgutu da eta murrizketak gutxitu dira. Uztailaren 12ko hauteskunde autonomikoetarako deialdia egin da. |
| Eka. 1-15 | ·Joera positiboak "normaltasun berriaren" agertokia prestatzera darama. Mugikortasun orokorra malgutu egin da. |
| Eka. 16-30 | ·Datu onek amaiera eman diote Alarmaren Estatuari, eta Euskadi "normaltasun berrian" sartu da. |
| Uzt. 1-15 | ·Datu onekin batera herrietako fokuak eman dira. Maskara nahitaez erabiltzea aktibatu da. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak egin dira. |
| Uzt. 16-31 | ·Deseskalatzeak, oporretako mugikortasunak, "ez-jaiak" egunak, gaueko aisialdiak eta taldeek kutsatze-gorakada eragin dute. |
| Abu. 1-15 | ·Faktore horien dinamikak kutsatzeko goranzko joerarekin jarraitzea eragin du. |
| Abu. 16-31 | ·Berriro deklaratzen da Euskadiko osasun-larrialdia. LABIk ordutegi-murrizketak ezarri ditu ostalaritzan eta gaueko aisialdian. |
| Ira. 1-15 | ·Kasuen miaketa, maskararen erabilera, pertsonen arteko distantzia eta gaueko aisialdiaren murrizketa emaitzak ematen hasi dira. |
| Ira. 16-30 | ·Osasun-sistemaren transmisio- eta tentsio-adierazle nagusietan egonkortzeko joera finkatu da. |
| Urr. 1-15 | ·Bizi Berri II Plana aurkezten da. 14 eguneko Intzidentzia-tasa metatuak goranzko joera hasi du. |
| Urr. 16-31 | ·Datuek okerrera egin dute nabarmen. Neurri murriztaileagoak behar dira. Berriz ere Alarmaren Estatua deklaratu da. |
| Aza. 1-15 | ·Kutsadurek gora egin dute berriro, eta neurri berriak hartu behar dira, hala nola ostalaritza ixtea. 1.420 kasu positibo egun batean. |
| Aza. 16-30 | ·Murrizketa berriek kutsatzeen bilakaera hobetu dute. Datu kezkagarrietan jarraitu dugu, baina joera zuzendu egin da. |
| Aben. 1-15 | ·Eboluzioaren hobekuntza nabariak murrizketa gogorrenetako batzuk arintzea ahalbidetu du. Gabonak ospatzeko baldintzak onartu dira. |
| Aben. 16-31 | ·Joerak beheranzkoa izaten jarraitu du. Hala ere, zenbait prebentzio-neurriren lasaitzea modulatu da, gorakada berrien aurrean. |

## 2021

| Hamabostaldia | Gako nagusiak |
|---|---|
| Urt. 1-15 | ·Joera-aldaketa gertatu da. Europa osoan hirugarren olatuaz hitz egiten hasi da. |
| Urt. 16-31 | ·Goranzko joera finkatu da. LABIk bihurgunearen malda alderantzikatzeko murrizketa neurri berriak eta zorrotzak onartu ditu. |
| Ots. 1-15 | ·Kurba epidemiologikoaren beheranzko joera hasi da. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 100.000 biztanleko 500etik gorako tasak dituzten udalerrietan ostalaritza ixtea ukatu du. |
| Ots. 16-28 | ·Intentsitatez mantendu da beheranzko joera. Hala ere, birusaren aldaera britainiarraren eragina gero eta handiagoa da. |
| Mar. 1-15 | ·Beheranzko joera moteldu egin da. LABIk murrizketa-neurri nagusiei eutsi die eta udal-mugikortasuna mugatzea desaktibatu du. |
| Mar. 16-31 | ·Goranzko joera hartu du berriz. Agertoki berri honen aurrean eta Aste Santuaren atarian, LABIk murrizketa batzuk gogortu ditu. |
| Api. 1-15 | ·Goranzko joerak jarraitzen du. Sanchez presidenteak iragarri du ez duela alarma-estatua luzatuko, maiatzaren 9tik aurrera. |
| Api. 16-30 | ·Intzidentzia-tasa metatuak goia jo zuen apirilaren 26an, 546,89 kasurekin 100.000 biztanleko. |
| Mai. 1-15 | ·Alarma-egoeraren amaiera. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ez du onartu "etxeratze-agindua" edo pertsonak elkartzea bezalako murrizketarik. LABIk Dekretu berria onartu du. |
| Mai. 16-31 | ·Jaisten jarraitu du. Beta eta Gamma kezka-aldaeren intzidentzia txikia da. Delta aldaera, apirilean detektatua, kontrolatuta dagoela dirudi. |
| Eka. 1-15 | ·Bilakaeraren adierazle guztiek 2020ko udatik aurrerako daturik onenak eskaini dituzte. Beste herrialde batzuetan atzerapenak eragiten ari den Delta aldaerak kezka sortu du. |
| Eka. 16-30 | ·LABIk neurriak malgutzeko Dekretu berri bat onartu du. Laugarren olatuaren daturik baxuenak lortu dira. |
| Uzt. 1-15 | ·Goranzko joeraren fase berri bat hasi da. Bat dator ikasturte-amaierarekin selektibitatearekin eta jaiekin. Delta aldaera %70era iritsi da. |
| Uzt. 16-31 | ·Intzidentzia-tasa metatuak sabaia ukitu du uztailaren 30ean, 873 kasu 100.000 biztanleko. |
| Abu. 1-15 | ·Arazoek jarraitu dute botiloiekin eta gaizki deitutako “ez-jaiekin” lotutako ospakizunekin. Abuztuaren erdialdean, Delta aldaerak %90 gainditu du. |
| Abu. 16-31 | ·Intzidentzia-tasak etengabe behera egin eta txertaketa-ehuneko handia lortu ondoren, abuztuaren 30ean Dekretu berri batek neurriak malgutu ditu. |
| Ira. 1-15 | ·Beheranzko joera sendotzeak aukera ematen du indarrean dauden neurri batzuen erlaxazioan modu esanguratsuan aurrera egiteko. |
| Ira. 16-30 | ·Batzorde Zientifiko-Teknikoak osasun-larrialdiko egoera amaitzeko baldintzak bete ote diren aztertu du, eta aldeko irizpena eman du. |
| Urr. 1-15 | ·2021eko urriaren 7an osasun-larrialdiko egoeraren amaiera deklaratu da. Neurri murriztaileak eraginik gabe geratu dira, eta LABI desegin egiten da. |
| Urr. 16-31 | ·Urriaren 12an, aldi horretako 14 eguneko intzidentzia-tasarik txikiena: 54 100.000 biztanleko. Egun horretatik aurrera, igoera txiki bat hasi da. |
| Aza. 1-15 | ·Azaroaren 9an, 100.000 biztanleko 125eko intzidentzia-tasa. Egun horretatik aurrera igoera nabarmenagoa da. |
| Aza. 16-30 | ·Seigarren olatua Europan. Azaroaren 26an, tasa 436ra iritsi da. Hegoafrikan Ómicron aldaerari buruzko lehen berriak jaso dira. |
| Aben. 1-15 | ·Abenduaren 2an osasun-larrialdia agintzen da. Covid ziurtagiria eskatzea gaitu da. Ordutegiak eta edukierak mugatzeko neurriak berriro aktibatu dira. |
| Aben. 16-31 | ·Kasuen %80 baino gehiago Ómicron da. LABIk neurri berriak aktibatu ditu: 01:00etan jarduerak etetea, zutik ez kontsumitzea eta gehienez 10 bezero mahai bakoitzeko. |

## 2022

| Hamabostaldia | Gako nagusiak |
|---|---|
| Urt. 1-15 | ·Urtarrilaren 4an 14.063 positibo detektatu dira. Urtarrilaren 11n intzidentzia-tasa 7.038koa da. Pandemiaren maximoak eta seigarren olatuaren gailurra. Beheranzko hasiera. |
| Urt. 16-31 | ·Beherakadak jarraitu du. Ospitaleko presioak behera egiten du. Proportzioan, aurreko olatuetan baino askoz txikiagoa da. Prebentzio-neurriak 15 egunez luzatu dira. |
| Ots. 1-15 | ·Hobekuntza nabarmena da Euskadin eta Europa osoan. Osasun-larrialdia desaktibatu da eta indarrean dauden neurri murriztaile gehienak lasaitu dira. |
| Ots. 16-28 | ·Datu guztiek beheranzko joerarekin jarraitu dute: endemia baterako igarobidea al da? Etorkizuna ezezaguna bada ere, berreskuratzeko, bultzatzeko eta eraldatzeko garaia da. |

## **2. eraskina.** LABIren bileren zerrenda, intzidentzia-tasa metatuekin, onartutako agindu edo dekretuekin eta hartutako neurri nagusiekin

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2020/03/14 | 23,59 | ·AGINDUA, 2020ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena | ·Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatzea, Larrialdiei Aurre egiteko Bidea (LABI), COVID-19aren hedapenak eragindako alerta epidemiologikoari aurre egiteko. |
| | | ·AGINDUA, 2020ko martxoaren 13koa, Osasuneko sailburuarena | ·Garbiketa areagotzea garraio publikoan eta igarobideetan edo egonaldietan.<br>·Kirol-ekitaldi profesionalak eta ez-profesionalak ateak itxita egitea.<br>·Eremu itxietan egiten diren eta 500 pertsona baino gehiago inplikatzen dituzten jarduera kolektiboak etetea.<br>·Prestakuntza-jarduera presentziala etetea maila guztietako prestakuntza eta irakaskuntza (unibertsitatekoa barne) ematen duten erakunde publiko edo pribatu guztietan. |
| | | ·AGINDUA, 2020ko martxoaren 14koa, Osasuneko sailburuarena | ·Adinekoentzako eguneko zentroak ixtea.<br>·Egoitza-zentroetan adineko pertsonentzako bisitak kentzea.<br>·Museoetan, ostalaritzan, kirol-jardueren zentroetan, joko-lokaletan, txokoetan edo kultu-zentroan edozein jarduera egiteari uztea. |
| LABI 2020/03/20 | 67,78 | | ·LABIk hiru jarduera-ardatzen errefortzua aztertu du:<br>·Eskura dagoen informazioa eta une bakoitzeko lehentasunak partekatzea.<br>·Gizarte-arretako programak eta politikak koordinatzea.<br>·Neurri ekonomiko guztiak aktibatzea. |
| LABI 2020/03/27 | 198,39 | | ·LABIk bost lehentasun ezartu ditu:<br>-Osasun-erantzuna, osasun publikoa zaintzeko eta krisi hau gainditzeko.<br>-Behar handiena duten pertsonei eta familiei laguntzeko erantzun soziala.<br>-Enpresei laguntzeko eta enplegua babesteko erantzun ekonomikoa.<br>-Gizarteari gardentasunez eta leialtasunez informatzeko erantzun komunikatiboa.<br>·Lankidetzazko erantzuna, garrantzitsua ez den energia bakar bat ez alferrik galtzeko. |
| LABI 2020/04/03 | 293,49 | ·AGINDUA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuarena | ·Euskadin elikagaiak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak zuzenean saltzen dituzten merkatu eta azoka tradizionalak aldi baterako etetea. |
| LABI 2020/04/08 | 277,90 | | ·LABIk gero Bizi Berri Plana izango denaren lan- eta prestatze-prozesuari ekin dio. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2020/04/17 | 159,38 | | ·LABIk deskonpresio sozial eta ekonomikoko neurri hauek prestatzea erabaki du:<br>-Adingabeak eta behar bereziak dituzten kolektiboak kalera irten ahal izatea. Betiere denbora-baldintza mugatuetan, urruntze fisikoan eta ez taldekatzean.<br>-Saltokien eta negozio txikien irekiera mugatua eta mailakatua prestatzea, segurtasun-neurri zorrotzekin eta urruntze fisikoarekin.<br>-Jarduera fisikoa banaka egiteko baimena ematea, denbora mugatzeko baldintzetan, eta zorrotz debekatzea pertsonak elkartzea.<br>-Hezkuntzaren eremurako protokolo espezifiko bat ezartzea, hezkuntza-komunitatearekin kontrastatu ondoren.<br>-Administrazio publikoan bertan pixkanaka normaltasunera itzultzea antolatzea. |
| LABI 2020/04/29 | 69,96 | | ·LABIk Bizi Berri Planaren lehen zirriborroa aztertu du. |
| LABI 2020/05/07 | 41,73 | | ·LABIk 1. fasera igarotzeko proposamenak definitu ditu Espainiako Gobernuaren deseskaladako planean:<br>-Lurraldeen arteko mugikortasuna, mugakide diren eta ohiko igarobidea duten udalerrien eta ohiko jarduera sozioekonomikoen artean.<br>-DBHko 4. mailako ikasleen, Batxilergoko lehen eta bigarren mailakoen eta Lanbide Heziketako ikasleen hezkuntza-jarduera presentziala.<br>-Etxebizitzako birgaitze-obrei berrekitea.<br>-Komertzio txikia irekitzea, banakako arretarekin, bizi den udalerrian, denbora mugatu baterako eta maskarak erabilita.<br>-%100eko maiztasun-igoera garraio publikoan. %60ko edukiera, puntako orduetan malgututa, batez ere trenbide-ahalmen handian. Maskara nahitaez erabili behar da.<br>-Irekiera mugatua eta murrizketak ostalaritzan. Establezimenduan jasotzea eta etxean entregatzea.<br>-Langileen %33 sartzea goizeko eta arratsaldeko txandetan eremu judizialean. |
| LABI 2020/05/14 | 25,50 | ·AGINDUA, 2020ko maiatzaren 14koa, Osasuneko sailburuarena | ·Lehendakariari eskatzea Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI) Euskadiko Babes Zibileko Plana modulatzeko eta osasun-zaintzaren fasera egokitzeko. |
| | | ·9/2020 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Lehendakariarena | ·Lurralde Historikoaren barruan mugitzea baimendu da.<br>·Lurralde Historikoaren barruan jarduera fisikoa eta kirol-jarduera egitea baimendu da. |
| LABI 18/05/2020 | 18,23 | | ·Larrialdi-egoeraren amaiera. Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurre egiteko Bidea (LABI), desegitea, baina Aholkularitza Batzorde Zientifikoa aktibo mantentzea «zaintza sanitarioko» fase berri honetarako. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2020/08/18 | 257,63 | ·AGINDUA, 2020ko abuztuaren 19koa, Osasuneko sailburuarena | ·%75eko edukiera kultu-lekuetan.<br>·Ostalaritza: hamar lagun mahai bakoitzeko eta gehienez 60 barnealdeetan. 01:00etan ixtea.<br>·%60ko edukiera kirol-ekitaldietan.<br>·Gaueko aisialdia ixtea.<br>·Gazteentzako lonjak ixtea.<br>·%60ko edukiera joko- eta apustu-establezimenduetan. |
| LABI 2020/08/28 | 365,91 | | ·Ikasturte hasierarako neurri nagusiak Euskadi. |
| LABI 2020/10/02 | 263,76 | | ·Bizi Berri II Planaren aurkezpena. |
| LABI 2020/10/17 | 322,09 | | ·Gehieneko taldeak 10 lagunetik 6ra murriztu dira.<br>·Edukierak %50era murriztea jarduera-eremu guztietan: ostalaritzan (terrazak izan ezik), kultura-ekitaldietan, erlijio-ekitaldietan...<br>·Ekitaldietara joateko mugei dagokienez, gehienez 400 pertsona joan ahal izango dira, eta 600 kanpoan.<br>·Ostalaritza ixteko ordutegi-muga 24:00etara aurreratu da. Debekatuta dago txoko eta elkarteetan jardutea.<br>·Parkeak, lorategiak eta haur-parkeak ixteko ordutegia 23:00etan ezarri da.<br>·Federatu gabeko kirol-lehiaketak bertan behera geratu dira. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2020/10/22 | 416,05 | ·AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena | ·Bizikidetza egonkorreko taldetik kanpoko gizarte-topaketen mugak.<br>·Taldeko edozein kirol-jarduera etetea.<br>·Debekatuta dago 21:00etatik 06:00etara haur-parkeak, parke publikoak eta plazak erabiltzea.<br>·Debekatuta dago 21:00etatik 06:00etara alkohola saltzea.<br>·Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak ixteko gehienezko ordua 21:00etan ezarri da.<br>·Ostalaritza-establezimenduetan barran kontsumitzea debekatuta dago. |
| | | ·AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena | ·%50eko aforoa kultu-aretoetan.<br>·Ostalaritza: %50eko edukiera barnealdean, gehienez 6 pertsona mahai bakoitzeko eta beti eserita kontsumitzeko. Ixteko ordua 00:00etan ezarri da.<br>·Debekatuta dago txoko eta elkarte gastronomikoetan edozein jarduera egitea.<br>·Kirola: 6ko talde gorena. Kirol-lehiaketa eta -ekitaldietan, %50eko edukiera, gehienez 400 pertsona barruan eta 600 kanpoan.<br>·Joko- eta apustu-lokalak 00:00etan itxiko dira.. |
| LABI 2020/10/26 | 547,47 | ·36/2020 DEKRETUA, 2020ko urriaren 26koa, Lehendakariarena | ·Gaueko mugigarritasuna 23:00etatik 06:00etara.<br>·Euskadiren konfinamendu perimetrala eta udal mailakoa.<br>·Baimendutako gehieneko taldeak 6 pertsonetakoak. |
| LABI 2020/11/05 | 789,25 | ·38/2020 DEKRETUA, 2020ko azaroaren 6koa, Lehendakariarena | ·Gaueko mugigarritasuna 22:00etatik 06:00etara.<br>·Lanpostuetan maskara nahitaez erabili behar da.<br>·Merkataritzako establezimendu eta lokal guztiak 21:00etan ixtea.<br>·%35eko edukiera murriztea kultu-aretoetan.<br>·Ostalaritzako, jatetxeetako, txoko eta elkarte gastronomikoetako eta joko- eta apustu-establezimenduetako erabateko itxiera.<br>·Musika-ahotsezko edo dantza-izaerako entsegu eta emanaldi kolektibo ez-profesionalak bertan behera uztea, araututako prestakuntza izan ezik.<br>·Taldeko edozein kirol-jarduera bertan behera uzten du, bai entrenamenduan bai lehiaketan, maila profesionalean eta erdi-profesionalean izan ezik. |
| LABI 2020/11/19 | 753,60 | ·39/2020 DEKRETUA, 2020ko azaroaren 20koa, Lehendakariarena | ·Luzatu egin dira 36/2020 eta 38/2020 Dekretuetan onartutako neurriak. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2020/11/30 | 443,51 | ·42/2020 DEKRETUA, 2020ko abenduaren 10koa, Lehendakariarena | ·Gehienez %60ko edukiera 150m$^2$ baino gehiagoko merkataritza-lokaletan; eta %75ekoa 150m$^2$ arteko merkataritza-lokaletan. |
| LABI 2020/12/09 | 317,23 | ·44/2020 DEKRETUA, 2020ko abenduaren 10koa, Lehendakariarena | ·Gaueko mugako ordutegia abenduaren 24tik 25era bitarteko gauetan eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1era arte zabaldu da.<br>·Udal-konfinamendua kendu egin da.<br>·Abenduaren 23tik 26ra eta urtarrilaren 30etik 2ra bitartean, Euskadira sartzeko edo handik irteteko joan-etorriak egin ahal izango dira.<br>·Abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean, 10 pertsonara zabaldu da gehieneko pertsona-taldea.<br>·Ostalaritza berriro ireki da. Ixteko gehienezko ordutegia 20:00etan ezarri da. |
| LABI 2020/12/22 | 282,77 | ·47/2020 DEKRETUA, 2020ko abenduaren 22koa, Lehendakariarena | ·Gaueko mugigarritasun-muga abenduaren 24tik 25era eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1era bitarteko gauetan 00:30etara aurreratu da.<br>·Urtearen amaieran, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean soilik murriztuko da Euskadira sartzeko edo handik irteteko joan-etorrietarako egunen tartea.<br>·Abenduaren 24an eta 25ean, 10 pertsonako gehieneko taldeak. Urtarrilaren 31n eta 1ean eta 6an, 6 pertsonakoak.<br>·Abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak 18:00etan itxi beharko dira. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an ezin izango dira ireki 09:00ak arte.<br>·Debekatuta dago bezero berriak kanpinetan onartzea abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra bitartean.<br>·Debekatuta dago abenduaren 31n, urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an kotilioiak edo oturuntzak egitea. |
| LABI 2021/01/11 | 305,40 | ·1/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Lehendakariarena | ·Bizilekua dagoen Lurralde Historikoaren itxiera perimetrala.<br>·Udal mailako itxiera perimetrala 500/100.000 I.T.Mrekin.<br>·Dantza-entsegu ez-profesionalak berriro abiaraztea.<br>·Eskola-kiroleko entrenamendua berrabiaraztea <500/100.000 I.T.M. duten udalerrietan.<br>·Lehiaketa federatuari berriz ekitea.<br>·Joko- eta apustu-lokalak berriro irekitzea, ostalaritza murrizteko baldintza berberetan. |
| LABI 2021/01/22 | 507,48 | ·4/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Lehendakariarena | ·Euskadiko udalerri guztien itxiera perimetrala.<br>·Gehienez ere 4 pertsonara mugatzea taldeak. Ostalaritzako mahai bakoitzeko gehieneko pertsona-kopuruari ere aplikatu zaio muga hori.<br>·Barruko instalazioetan egiten den kirolean maskara erabili beharra. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2021/02/12 | 536,48 | ·7/2021 DEKRETUA, otsailaren 12koa, Lehendakariarena | ·Mugakide den udalerrirako mugikortasuna gaitu da.<br>·Udalerritik irten eta sartu daiteke entrenamendu eta lehiaketa profesional eta erdi-profesionalerako.<br>·500/100.000 biztanletik beherako tasak dituzten udalerrien artean kirol-jarduera egiteko mugikortasuna baimenduta dagoen kasuak definitu dira. |
| LABI 2021/03/05 | 225,03 | ·13/2021 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Lehendakariarena | ·Udal mailako itxiera perimetrala kendu da.<br>·Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jardueren garapena arautu da, eta zeharkako irizpide bat ezarri da sei pertsonako talde egonkorren bidez jarduteko, eremu horretako mota guztietako jardueretarako. |
| LABI 2021/03/26 | 253,76 | ·16/2021 DEKRETUA, martxoaren 27koa, Lehendakariarena | ·Udal mailako itxiera perimetrala aktibatu da 100.000 biztanleko 400 baino gehiagoko intzidentzia-tasa duten herrietan. Irizpide bera aplikatu da lurralde historiko batean tasa bera gainditzen bada.<br>·2021eko martxoaren 26tik apirilaren 9ra bitarteko egunetan, espazio pribatuetan elkarrekin bizi direnak baino ezingo dira egon.<br>·100.000 biztanleko 400 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan, ostalaritzaren barruko egonaldiak eta ordutegiak mugatzeko neurriak ezarri dira, bai eta barruko eremuetan egiten den kirol-jarduera oro mugatzeko neurriak ere –talde profesionalen eta federatuen entrenamenduei eta lehiaketei eragiten diena izan ezik– ezin izango baitute 4 pertsonako taldea gainditu. Era berean, aldagelak eta dutxak itxi egingo dira kirol-instalazio mota guztietan, igerilekuetan izan ezik.<br>·Joko-lokalen tratamendua ostalaritzakoarekin berdindu da intzidentzia-tasa 400 baino handiagoa duten herrietan. |
| LABI 2021/05/07 | 462,65 | ·23/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, Lehendakariarena | ·Alarma-egoera amaitu da. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren autoaren bidez, hainbat neurri indargabetu dira, hala nola itxiera perimetralak, «Etxeratze-agindua» edo pertsonen taldekatzea mugatzea.<br>·Merkataritza-, kultura- edo gizarte-jarduera oro bertan behera uzteko ordutegia 22:00etan finkatu da.<br>·Ezkontza-zeremoniak, jaunartzeak, bataioak eta antzeko ospakizunak arautu dira.<br>·Osasun Publikoaren jarraibideen araberako protokoloak eskatu beharko dira, hainbat gizarte- eta kultura-jarduera egiteko.<br>·Udako jarduerak arautu dira, hala nola hondartzak, igerilekuak, kirol-lehiaketak eta aisialdiko jarduerak. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2021/05/31 | 208,48 | ·26/2021 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Lehendakariarena | ·Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztietarako itxiera-ordutegia 24:00ak arte luzatu da.<br>·Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak antolatzen diren talde egonkorretako pertsonen gehieneko kopurua 10 pertsonakoa da.<br>·Kendu egin dira aire zabalean taldean kirola egiteko pertsonen mugak. |
| LABI 2021/06/18 | 125,47 | ·30/2021 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Lehendakariarena | ·Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztiak ixteko azken ordua 02:00ak arte luzatu da.<br>·Ostalaritzan, ordutegia luzatzeaz gain, mahai bakoitzeko pertsona-kopurua ere handitu da.<br>·Jardueretan baimendutako gehieneko edukiera %60koa da.<br>·Baimendutako maximoak esparruen edukieraren arabera mailakatu dira, eta maximoak kultura- eta kirol-ekitaldien artean berdindu dira, jendeak kirol-ekitaldietara joateko aukera baitu.<br>·Txokoak eta elkarte gastronomikoak ostalaritzaren antzeko baldintzetan ireki daitezke. |
| LABI 2021/07/07 | 203,15 | ·33/2021 DEKRETUA, uztailaren 7koa, Lehendakariarena | ·Prebentzio-neurri orokorrei eutsi zaie.<br>·Dekretua ekainaren 24ko 13/2021 Errege Dekretuan maskarak erabiltzeari buruz ezarritakoari egokitu zaio.<br>·Aurreko Dekretuan ezarritako ordutegien eta edukieren mugak eta ostalaritzan, joko-establezimenduetan eta txokoetan murrizketak mantenduko dira.<br>·Pertsonen pilaketa adierazten duten eta indarrean dauden protokoloak eta prebentzio-neurriak aplikatu gabe dauden bilkuretan, festetan edo ekitaldietan parte ez hartzeko betebeharra ezarri da. |
|  | 415,55 | ·34/2021 DEKRETUA, uztailaren 15ekoa, Lehendakariarena | ·Maskarak nahitaez erabiltzeko legez aurreikusitako neurriak etengabe indartzeko eskatu da, transmisio birikoa mugatzen laguntzen duen tresna profilaktiko nagusi gisa.<br>·Ezin da elkarrekin bizi ez diren pertsona-taldeetan edo jende-pilaketetan egon 00:00etatik 06:00etara, parkeetan, lorategietan, hondartzetan, kirol-eremuetan, patinaje-pistetan (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioetan, ezta portuetako eta itsas pasealekuetako espazio publikoetan ere. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2021/07/22 | 682,64 | ·35/2021 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Lehendakariarena | ·Erabilitako hiri-inguruneetan maskara erabiltzea nahitaezkoa dela interpretatu da, betiere 1,5 metroko distantzia etengabe mantendu ezin bada.<br>·Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztietarako gehienez ere 01:00ak arte egongo dira zabalik.<br>·Jarduera guztietan baimendutako gehieneko edukiera %35ekoa da.<br>·Era berean, gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldietarako ezarritako gehienekoak murriztu dira.<br>·Osasun-erantzukizuneko betebeharrei buruzko artikulu berri bat gehitu da, kasuen eta kontaktuen miaketa- eta jarraipen-lana babesteko eta indartzeko, eta gogorarazi da osasun-erantzukizuneko betebeharra dela.<br>·Gizabidezko deiei buruzko artikulu berri bat gehitu da, herritarrei autoerantzukizuneko eta autolimitazioko ariketa bat egiteko eskatuz. |
| LABI 2021/08/30 | 340,45 | ·36/2021 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Lehendakariarena | ·Jarduera guztietan baimendutako gehieneko edukiera %60koa izango da.<br>·Era berean, gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldietarako ezarritako gehienekoak zabaldu dira.<br>·Ostalaritzan eta jatetxeetan, barrualdeko edukieraren %50 ezarri da. Zerbitzuaren antolaketa, bai barrualdean, bai terrazetan, mahai bakoitzeko gehienez zortzi pertsonakoa izan daiteke. |
| LABI 2021/09/17 | 138,84 | ·38/2021 DEKRETUA, irailaren 17koa, Lehendakariarena | ·Jarduera guztiak ixteko gehienezko ordutegia 03:00ak arte luzatuko da.<br>·Jarduera guztietan baimendutako gehieneko edukiera %75ekoa da, oro har.<br>·Ostalaritzan, terrazan mahai bakoitzeko pertsona kopurua 12 pertsonara ere zabaldu da.<br>·Gazteentzako lokalak berriz irekitzea atzeratu da, 16 eta 29 urte bitarteko adin-tartean txertaketaren %85era iritsi arte.<br>·Gaueko aisialdia %50eko edukierarekin, maskaradun dantza-pistak berriro irekitzea baimendu da, eta gainerako guztian ostalaritzaren antzeko baldintzetan.<br>·Barne-instalazioetan kirola egiteko jarduera 16 pertsonara zabaldu da, taldeka.<br>·Telelanak arautzen ez dituen lanpostuetan presentzialtasunera itzultzea gaitu da. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2021/10/05 | 62,05 | ·39/2021 DEKRETUA, urriaren 6koa, Lehendakariarena<br><br>(2021eko urriaren 6ko AGINDUA, Osasuneko sailburuarena eta 2021eko urriaren 6ko AGINDUA, Lehendakariorde lehenarena eta Segurtasuneko sailburuarena) | ·Osasun-larrialdiko egoera amaitu dela deklaratu da.<br>·Ondorioak berehala galdu dira irailaren 17ko 38/2021 Dekretuan aurreikusitako neurri guztietan.<br>·Eraginik gabe utzi dira Lehendakariaren LABI zuzentzeko eta koordinatzeko ahalmenak, eta eskumen horren eskuragarritasuna Segurtasuneko sailburuari itzuli zaio.<br>·LABIren Aholku Batzordea desegin da.<br>·Euskadiko osasun-agintaritza gaituta dago, Osasuneko sailburua buru duela, neurriak hartzeko.<br>·Dekretu hau sinatzearekin batera, Segurtasuneko sailburuaren Agindu bat sinatu da, LABI desaktibatzen duena eta zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizunak bereganatzea indarrik gabe uzten duena; eta Osasuneko sailburuaren Agindu bat, indarrean jarraitzen duten neurriak zehazten dituena. |
| LABI 2021/12/03 | 663,59 | ·44/2021 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Lehendakariarena | ·Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoko osasun-larrialdiko egoera deklaratu da.<br>·Salbuespen gisa, LABI Aholku Batzorde berri bat eratu da, eta batzorde horretako kideak COVID-19 pandemiaren kudeaketan laguntzeko izendatu dira. |
| Auzitegi Gorenaren ebazpenaren ondoren<br><br>2021/12/04 | 232,08 | ·AGINDUA, 2021eko azaroaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, 2021eko abenduaren 4an argitaratua | ·Covid Ziurtagiria osasun publikoaren zaintza eta kontrolaren berezko prebentzio- eta euspen-neurri gehigarri gisa eskatu da establezimendu hauetan:<br>-Aisialdiko jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduetan, hala nola, diskotekak, dantzalekuak, ikuskizunak eskaintzen dituzten dantzalekuak, musika-tabernak, karaokeak. Pub eta taberna bereziei dagokienez, neurria 22:00etatik aurrera eskatuko da.<br>-Jantokietako toki baimendua 50 lagunetik gorako edukieran daukaten jatetxeetan. |
| | 6.658,87 | ·47/2021 DEKRETUA, abenduaren 14koa, Lehendakariarena | ·Zabaldu egin dira Covid Ziurtagiria nahitaezkoa duten establezimenduak, ekitaldiak, jarduerak eta lekuak, Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarritakoak. Hauek dira eremu berriak:<br>-Kontzertu-aretoak edo kontzertuetarako, musika-jaialdietarako eta bestelako kultura- eta arte-ekitaldietarako prestatutako beste espazio itxi batzuk.<br>-Ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduak.<br>-Kiroldegiak, gimnasioak eta jarduera fisikoa eta/edo kirol-jarduera egiteko barruko beste gune batzuk, kirolarientzat, laguntzaileentzat eta publikoarentzat.<br>-Kirol-instalazio itxiak, hala nola estadioak, frontoiak edo antzekoak, sarrera kontrolatzeko sistema bat eta 100 lagunetik gorako asistentzia duten lehiaketak egiten direnean.<br>-Ospitaleak, zentro soziosanitarioak eta espetxeak. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2021/12/28 | 2.547,24 | ·51/2021 Dekretua, abenduaren 28koa, lehendakariarena | ·Jarduerak gehienez ere 01:00etan itxiko dira.<br>·Oro har, barnealdeko edukierak %60ra mugatu dira.<br>·Ekitaldien esparruan, gehienez ere 600 pertsona egongo dira barruan eta 800 kanpoan. 1.600 eta 5.000 pertsona arteko edukiera duten esparruetan, 800 pertsonakoa da gehienekoa barrualdean, eta 1.200 pertsonakoa kanpoaldean. 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, %50eko edukiera, hargatik eragotzi gabe estatu-eremuan beste muga jakin bat aplikatzea.<br>·Ostalaritzan eta gaueko aisialdian, debekatuta dago zutik kontsumitzea, bai eta mahai bakoitzean 10 pertsona baino gehiago egotea ere. Gazteen txokoei eta lonjei erregimen bera aplikatzen zaie.<br>·10 pertsona arteko taldeetan egitea kirola. Aldagelen erabilera %50ean.<br>·2022ko urtarrilaren 1ean eta 6an establezimendu guztiak ezin izango dira jendearentzat ireki 08:00ak baino lehen.<br>·Gomendatu da 2021eko abenduaren 31n eta 2022ko urtarrilaren 1ean eta 2022ko urtarrilaren 5ean eta 6an familia-bilkurak ez izatea hamar pertsonatik gorakoak, eta gehienez ere bi familia-unitate biltzea.<br>·Gomendatu da, halaber, konposizioa ez aldatzea ospakizun desberdinetan, eta arreta berezia izatea COVID-19-rako kalteberatasun-egoeran dauden pertsonekin. |
| LABI 2022/01/28 | 3.246,34 | ·2/2022 Dekretua, urtarrilaren 28koa, Lehendakariarena | ·Abenduaren 28tik indarrean dauden neurri hauek urtarrilaren 13ra arte luzatuko dira:<br>-Jarduerak gehienez ere 01:00etan itxiko dira.<br>-Oro har, barnealdeko edukierak %60ra mugatu dira.<br>-Ekitaldien esparruan, gehienez ere 600 pertsona egongo dira barruan eta 800 kanpoan. 1.600 eta 5.000 pertsona arteko edukiera duten esparruetan, 800 pertsonakoa da gehienekoa barrualdean, eta 1.200 pertsonakoa kanpoaldean. 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan, %50eko edukiera, hargatik eragotzi gabe estatu-eremuan beste muga jakin bat aplikatzea.<br>-Ostalaritzan eta gaueko aisialdian, debekatuta dago zutik kontsumitzea, bai eta mahai bakoitzean 10 pertsona baino gehiago egotea ere. Gazteen txokoei eta lonjei erregimen bera aplikatu zaie.<br>-10 pertsona arteko taldeetan egitea kirola. Aldagelen erabilera %50ean. |
| EAEANren ebazpenaren ondoren | 2.762,64 | ·2022ko otsailaren 3ko Agindua, Osasuneko sailburuarena | Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ez du baimendu Covid ziurtagiriaren erabilera luzatzea, eta, beraz, indarrik gabe geratu da Lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua. Testuinguru horretan, Osasuneko sailburuaren ondorengo agindu batek ondoriorik gabe utzi du Covid Ziurtagiriaren eskakizuna gaueko aisialdian eta 50 lagunetik gorako edukiera daukaten jatetxeetan, 2021eko azaroaren 17ko Aginduan ezarritakoaren arabera. |

| LABIREN BILERAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | DEKRETUA / AGINDUA | HARTUTAKO NEURRI NAGUSIAK |
|---|---|---|---|
| LABI 2022/02/10 | 1.778,78 | ·5/2022 Dekretua, otsailaren 11koa, Lehendakariarena<br><br>(2022ko otsailaren 11ko Agindua, Osasuneko sailburuarena eta 2022ko otsailaren 11ko Agindua, Lehendakariorde lehenarena eta Segurtasuneko sailburuarena) | ·Osasun-larrialdiko egoeraren adierazpena amaitu da.<br>·LABIren Aholku Batzordea desegin da, ezohiko moduan eratua COVID-19aren pandemiaren kudeaketan laguntzeko.<br>·Lehendakariaren abenduaren 28ko 51/2021 Dekretuan aurreikusitako neurriak indarrik gabe geratu dira.<br>·Segurtasuneko sailburuaren agindu batek indargabetu egiten du LABI, eta indarrik gabe utzi du Lehendakariak zuzendaritza- eta koordinazio-eginkizunak bereganatzea; eta Osasuneko sailburuaren agindu batek indarrean jarraitzen duten neurriak zehaztu ditu.<br>·Horrenbestez, Euskadiko osasun-agintaritza gaituta dago, Osasuneko sailburua buru dela, Euskadin aplikatu beharreko prebentzio-, zaintza- edo kontrol-neurriak hartzeko. |

## **3. eraskina.** Presidenteen Konferentzien daten zerrenda, intzidentzia-tasa metatuekin eta Lehendakariak bilera horietan aurkeztutako proposamenekin

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/03/15 | 32,86 | -"Ministroen Kontseiluaren mahai gainean dagoen 'Enpresa eragileek eta sindikatuek sinatutako ezohiko proposamen eta neurrien' sorta onartzea".<br>-"Autonomoei eta merkataritzari laguntzeko neurriei lehentasuna ematea, bereziki ezarritako murrizketek eraginda".<br>-"Enplegua mantentzen duten enpresei laguntza ematea. Alemaniako Gobernuaren eredua aurkeztu dut, lan egin gabeko orduen %60 ordaintzen duena eta Gizarte Segurantzaren kostuaren %50 bere gain hartzen duena".<br>-"Europar Batasunari eskatzea abian jar dezala ekonomia sustatzeko asmo handiko plan bat. Funtsezkoa da atzeraldia saihesteko erabaki eraginkorrak hartzea".<br>-"Osasun eta oinarrizko zerbitzuetako profesionalak aitortzea eta konpentsatzea, krisialdi honen aurrean erakusten ari diren ahalegin-, entrega- eta konpromiso-plusagatik". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/03/22 | 107,49 | -"Komenigarria da Osasun Ministerioak irizpide homogeneoak ezartzea diagnostiko-testak egiteko eta berreskuratutako pertsonen kopurua zenbatzeko. Informazio hori funtsezkoa da arazoari neurria hartzeko eta behar bezala heltzeko".<br>-"Europar Batasunaren esparruan ekintza-batasun handiago baten alde egiten dut, abian jarri behar diren erabaki estrategiko guztiak hartzerakoan". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/03/29 | 245,29 | -"Industria-jarduera erabat gelditzeari dagokionez: Zure Gobernuak hartutako erabakia (…) ez zen har zitekeen bakarra. Baziren beste aukera batzuk ere (…). Adibidez, egutegiaren ikuspegitik, astebete geroago jarduera-muga handiagoko hamabostaldi bat hasteak eragin txikiagoa izango zuen ekonomian, industrian eta, batez ere, enpleguaren babesean. Konfinamenduak lehen fasean izan duen eragina hobeto ebaluatzeko aukera ere emango zigun".<br>-"Atzo bertan proposatu nizun, idatziz, Autonomia Erkidego bakoitzaren osasun- eta industria-errealitatera egokitzeko aukera emango zuen aldaera bat, murrizketa berriak uniformeki aplikatzea kaltegarria izango litzatekeena". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/04/05 | 292,05 | -"Normaltasunera itzultzeko plan bat beharrezkoa da, konfinamendutik eta jarduerarik ezetik mailaz maila irten ahal izateko. Beste bi aste ditugu zure prestakuntzan aurrera egiteko. Hezkuntza-, ekonomia-, gizarte- edo kultura-jarduerara itzultzeko plana. Zirkulaziorako, garraiorako, enpresak berriro irekitzeko, ikastetxeak eta aisialdirako, kirol-esparruetarako edo kultura-jarduerarako pixkanakako suspertze-egoerak aurreratzea dagokigu". |

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/04/12 | 211,93 | -"Ziurtasunak kudeatu behar ditugu, eta, bereziki, ziurtasunak gizarteari jakinarazi. Ziurtasuna ezagutza segurua eta argia da, zalantzarik sortzen ez duena. Hori da gure koordinazioaren gakoa; izan ere, susmo zalantzagarrietan edo egiaztatu gabeetan oinarrituta kudeatzen edo komunikatzen dugun bakoitzean, arazoak larriagotzen dira, gure lankidetza ahuldu egiten da eta gizartea nahasten dugu. Lehenengo koordinazioa, eta gero komunikazioa. Ez alderantziz. Ziurtasunak partekatu behar ditugu ".<br>-"Ziurtasunak maskarei, testei, horniduren heltzeari eta banaketari buruz. Pandemiaren bilakaerari buruzko datuei buruzko ziurtasunak eta, berriz diot, metodologia eta irizpide homogeneoetan oinarritu behar den informazioa (…) deseskalatze edo 'Normaltasunera bueltatzeko Plana'ri buruz".<br>-"Enplegura bideratutako laguntza-planei buruzko ziurtasunak... gizarte-politikei buruz. Esate baterako, enplegu-politika aktiboei buruzko erantzunik ezaz ari naiz, edo Euskadin eta beste autonomia-erkidego batzuetan aplikatzen dugun gutxieneko bizi-diru-sarrerari eta diru-sarrerak bermatzeko errentarekiko osagarritasunari buruzko proposamen berriez".<br>-"Ziurtasunak Europar Batasunari eskatu eta eskaini behar diogunari buruz. Europa gara eta politika bateratua behar dugu. Ziurtasuna iragarri diren neurri orokorrak zehaztean. Planteatzen ari diren estatu-akordioei buruzko ziurtasunak. Bilgarriari buruz eztabaidatu aurretik, proposamen eta erantzun eraginkorrak baloratzen lagunduko diguten eduki espezifikoak landu beharko genituzke, epe ertain eta luzera begira". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/04/19 | 134,41 | -"Kontuan hartzea UNICEFek eta SAVE the Childrenek adingabeak kalera ateratzeko emandako gomendioak, denbora-baldintza mugatuetan, urruntze-baldintza mugatuetan eta multzokatu gabe".<br>-"Denden eta negozio txikien irekiera mugatua eta arautua prestatzea, segurtasun-neurri zorrotzekin eta urruntze fisikoarekin".<br>-"Jarduera fisiko indibiduala baimentzea, espazio irekian, denbora mugatzeko baldintzetan eta pertsona-multzorik gabe". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/04/26 | 83,41 | -"Profesionalen babesak funtsezkoa izaten jarraitzen du. Eta egokia izango da, halaber, gutxienez sei hilabetean osasun-hornidurak banatzeko Jaurlaritzaren plangintza ezagutzea. Plangintza hori ezagutzeak gure autohornikuntza-horizontea zein izan behar den zehazten laguntzen du".<br>-"Aurrekontu-muga argia izatea, hartu beharreko neurri ekonomiko berriak proiektatzeko aukera emango diguna. (…) Beharrezkoa da finantzaketa-horizontearen aurreikuspena eta Europako Batasunaren laguntzen esparrua partekatzea. Era berean, Autonomia Erkidegoetara eta haien sektore publikoetara bideratzea finantzaketa- eta laguntza-ildo horiek".<br>-"Euskadiren kasuan, proposamen zehatz bat planteatzen dut: aurrekontu-egonkortasunerako bide berri bat ituntzea ahalik eta epe laburrenean eta Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren esparruan".<br>-"Berriro eskatzen dut Bizi Gutxieneko Diru-sarreraren proposamena argitzeko. Martxan jartzeko egutegia, baldintzak eta aurreikusitako zenbatekoak ezagutu behar ditugu. (…)Eskandinaviar herrialdeetako eredua erreferentzia bat da".<br>-"Gizartean, ekonomian eta enpleguan eragin berezia duen gai bat nabarmentzen dut: merkataritza-jarduera pixkanaka irekitzea, elikadura-saltokien muga berberekin. Alemaniako eredua erreferentzia bat da".<br>-"Uda honetan gizartean eragin handia duten gaiei buruzko irizpideak partekatzea proposatzen dut: kultura-jarduera, ekitaldiak, herrietako jaiak, jarduera fisikoa eta kirola, edo hondartzen eta igerilekuen kudeaketa".<br>-"Asiloaren eta migrazio ahularen eremuan, premiazkoa da irizpide komunak hartzea, erkidego bakoitzean aplikatzeko, programa bakoitzaren aldeko ekimenei eta bizileku- eta lan-baimenei dagokienez. Portugalen eredua erreferentzia bat da". |

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/05/03 | 52,92 | -"Bizi Gutxieneko Diru-sarrerari dagokionez, (…) prestazio hori dauden laguntza-ereduekin koordinatu behar da, eta horien artean dago gure Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, laneratzen eta gizarteratzen laguntzea helburu duena".<br>-"Nire ustez, egokia da eragile ekonomikoekin eta sozialekin akordio bat lortzea, egungo enplegu-erregulazioko espedienteen luzapen bat aktibatzeko, ezinbestez. (…) Era berean, eta ekonomia- eta enplegu-itxaropen negatiboen arabera, batez ere industrian, komenigarria litzateke trantsizio arin eta malgua egitea arrazoi ekonomikoengatik eta antolamenduzkoengatik Enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente berrietara". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/05/10 | 31,35 | -"Aste honetan Diputatuen Kongresuan lortutako akordioa ere baloratzen dut. Gobernantza partekatuaren interpretazioa bideratzen du, gure erkidegoetatik eskatu dugun bezala, eta aplikatzen jakin behar dugu".<br>-"Guretzat gakoa inbertitzeko eta suspertzeko plangintza egitea da. Erakundeok funtsezko eginkizuna dugu berreraikuntzan. Inbertsio publikoa funtsezko tresna da, eta, gure ustez, osasun-sisteman, gizarte-kohesioan eta berdintasunean inbertitzeko unea da, baita ekonomia eta enplegua suspertzeko unea ere".<br>-"Europako erantzun ekosistemikoa bultzatzen dugu, ekimenak bizkortu ahal izateko hamarkadako bi erronka nagusietan: itun Berde Berria eta Trantsizio Digitala. Europa Berreskuratzeko Funts horrek balio behar du pandemiaren ondorio larriak iraultzeko, elkartasun -printzipioa gauzatzeko, barne-merkatua babesteko eta inbertsio produktiboa eta enplegua bultzatzeko". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/05/17 | 18,69 | -"Etxetik kanpo espazio itxietan edo pertsonen arteko gutxieneko distantzia mantentzen ez den egoeretan egiten den jarduera orotan maskarak erabiltzea proposatzen dut".<br>-"Espainiako Gobernuak berriz aztertzea (ordu-tarteak), baita 1. fase honetan ere, adinekoentzako eta bereziki babestu behar ditugun arrisku-kolektiboentzako tarteak mantenduz".<br>-"Alde batetik, pertsonen arteko urruntze fisikorako eta maskaren erabilerarako neurriak indartzea; eta, bestetik, bigarren fasean kultura-ekitaldien edo ostalaritzaren eremuan edukiera-murrizketak %50eraino malgutzea".<br>-"Proposatzen dut jarduera horiek (turismo aktiboa eta naturakoa) modu aske eta seguruan egin ahal izatea ingurune naturalean. Jarduera horietan, adibidez, mendi-ibiliak sartzen dira".<br>-"Hezkuntza-jarduera presentziala bultzatzea. (…) Hezkuntza presentziala ezinbestekoa da ikasle ahulenen desberdintasunari aurre egiteko, ikastetxeetara bidali ditugun protokolo zorrotzak betez. Eusko Jaurlaritzak helburu horri eutsiko dio, UNICEF, SAVE the Children edo Pediatria Elkartearen txostenak kontuan hartuta". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/05/24 | 11,52 | -"Alde anitzeko lankidetza-foroak ditugu, Europar Batasunarekin lotutako Gaietarako Batzordea, esaterako, ostegun honetan bilduko da; Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berriaren Euroeskualdearen mugikortasun-proposamenak kontuan hartzeko beharra planteatuko dugu Euskaditik".<br>-"Berriro diot beharrezkoa dela Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoa deitzea, Euskadiko aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak birdefinitzeko".<br>-"Lankidetzak eta koordinazioak beharrezkoak izaten jarraituko dute, zalantzarik gabe. Dena den, alde anitzeko eta alde biko harreman -foro nahikoak ditugu, etapa berri bati ekiteko. Horregatik, bilera horien jarraipena eta formatua aldatzeko aukera ematen diet guztiei". |

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/05/31 | 5,85 | -"Maiatzaren 3ko eskaera errepikatzen dut, ezinbesteko Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen aplikazioa luzatzeko, Gizarte Segurantzaren kotizazioak irailera arte ordaintzeko hobariekin, Estatu mailan gehien kaltetutako sektoreentzat, hala nola merkataritza, ostalaritza edo turismoarentzat. Jarduera-murrizketa jasaten ari diren eta jasango duten industria-sektoreentzat ere bai. Automobilaren sektoreaz ari naiz, gaurkotasun tristekoa, aeronautikoaz edo makina-erremintaz ".<br>-"Horrez gain, proposatzen dugu hobaria ematea Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kotizazioei, arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolamenduzkoengatik edo produkziokoengatik; gutxienez, enpresa txiki eta ertainen esparruan, betiere enpleguari eusteko konpromisoa hartzen badute. Euskadiko Gizarte Elkarrizketarako Mahaian, euskal erakundeok soldata txikienetarako Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen osagarri bat proposatuko dugu. Ildo horretan, Alemaniako eredua aplikatzea planteatzen dugu, hau da, inplikatutako aldeen artean "ahalegin partekatua" egitea.<br>-"Biztanleria migratzailearen administrazio-erregularizazioko prozesuak bizkortzea, lan-baimenak izateko".<br>-"Gizartea eta ekonomia berreraikitzeko 16.000 milioi euroko funtsari dagokionez, egokia eta beharrezkoa izango litzateke funts hori erabiltzeko epeak eta prozedurak behin betiko argitzea".<br>-"Mugako igarobidea erraztea, zuri eta Frantziako Lehen ministroari zuzendutako gutunean eskatu bezala".<br>-"Farmazia-koordainketara jotzen duten pertsonentzat maskara higieniko eta kirurgikoen BEZaren salbuespena baloratzea".<br>-"Apirilaren 21eko 15/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. artikuluaren data zabaltzea, zeinak jasotzen baitu BEZaren %0 tasa aplikatzea COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasun-entregei, 2020ko uztailaren 31ra arte". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/06/07 | 3,61 | -Farmazietan aitortutako kolektiboei emandako higiene- eta kirurgia-maskaretan BEZa salbuesteko beharra berresten dut, bai eta 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluaren luzapena ere, zeinak jasotzen baitu BEZaren %0ko tasa aplikatuko zaiela COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasun-entregei, epe ertain eta luzean ezinbesteko hornidura planifikatzen jarraitzeko". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/06/14 | 6,08 | -"Industriarik gabe ez dago berreraikuntzarik. Ikerketa eta zientziarik gabe, ez dago berreraikuntzarik. Inbertsio produktiboaren aldeko apusturik gabe, ez dago berreraikuntzarik. Enpresa-sarea nazioartekotzeko laguntzarik gabe, ez dago berreraikuntzarik. Euskadin prest gaude ahalegin horretan laguntzeko eta berreskuratzeko oinarri horiek sendotuko dituen estrategia bat garatzeko. Estrategia honek baliabideen eskuragarritasunean eta zorpetzeko aukeretan argitasuna eskatzen du".<br>-"Gure aldetik, eta Europako Parlamentuaren ebazpen baten ondorioz, Legegintza eskumenak dituzten Europako Eskualdeak Araudi Orokorrean, Europar Batasunaren etorkizuneko 'lankidetza indartuari' buruzko ekarpena bultzatzen ari gara. Gure helburua Europan lehen mailako aktoreak izatea da, eta gure balio erantsia eskaintzea legitimitateari, eraginkortasunari, hurbiltasunari eta esperientziari dagokienez, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldiari begira. Helburu komunitarioa eta ondasun komuna".<br>-"Ezinbestekoa eta premiazkoa da ziurtasuneko finantza-esparru bat zehaztea Estatuan. Badakizu kezkatzen gaituen gaia dela. Gure kasuan, aurrekontu-egonkortasunaren eta zorraren helburuak eguneratzeko metodologiari buruzko hainbat zalantza daude, baita BPGren gaineko defizitari buruzkoak ere, eta argitu egin behar dira. Inbertitzeko eta barne-merkatua suspertzeko ziurtasun ekonomikoa. Jarduteko ordua da guretzat, eta zer baliabide, tresna eta zerumuga ditugun jakin behar dugu". |

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Aurrez aurreko bilera Yusoko Monasterioan, San Millán de la Cogollan<br>2020/07/31 | 93,74 | -"Hitzaldi horiei dagokienez, 40/2014 Legearen 146. artikuluak ezartzen du topaketa horiek prestatzeko batzorde batek prestatu eta lagundu behar dituela, erkidego bakoitzeko ministro eta kontseilari batek osatua. Logikoa dirudi landu beharreko gaiei, gai-zerrendari, komunikazioari, aktei eta balizko akordioei buruzko irizpideak adostea. Metodorik gabe, topaketa hauek inolako amaierarik eta iritsiera-punturik gabe sakabanatutako bakarrizketen segida dira".<br>-"Lurralde arteko kontseilu guztiak mantentzeaz gain, komenigarria iruditzen zait autonomia erkidegoen arteko zuzeneko komunikazioan sakontzea. Bereziki, erkidego mugakideak direnean, baina baita erkidego batek beste bati eragin diezaiokeen erabaki bat hartzea pentsatzen duenean ere".<br>-"Europako funtsei dagokienez, (…) aurreratu nahi nuke, nire ustez eta unea iritsitakoan, eztabaida ez dela, ziur asko, zenbatekoan eta nolakoan oinarrituko. Funtsak eskuratzeko, estrategia argia beharko da osasun-erronka berrietara, ingurumen-trantsizio energetikora eta trantsizio teknologiko-digitalera egokitzeko". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/09/04 | 399,73 | -"Beharrezkoa iruditzen zait Enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak luzatzea, COVID-19aren ondorioen eraginpean jarraitzen dugun bitartean. Gainera, egoera larrian dauden trakzio-sektoreei laguntza espezifikoa emateko neurriak antolatzea proposatzen dut, hala nola aeronautikari, automobilgintzari edo makina-erremintari. Premiazkoa da, halaber, uda baino lehen adostu eta onartutako gizarte-laguntzen izapidetzea arintzea ".<br>-"Estrategikoa da Next Generation Europako Funtsak aktibatzeko ekintza-ardatz koordinatu bat adostea".<br>-"Hezkuntza presentziala konpentsatzailea da, eta ukaezina izan behar du berdintasun-printzipioaren ikuspegitik. Pandemiaren gorabeheren aurrean, erantzuna baretasuna, iraunkortasuna eta egokitzapena da, hezkuntzarako oinarrizko eskubidea defendatzeko". |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2020/10/26<br>(Ursula von der Leyen Europako Batzordeko Presidenteak parte hartu du) | 547,57 | -"Autonomia Erkidegook argiago jakin behar dugu:<br>·Europako Batzordearen irizpide orokorrak proiektu eraldatzaileak hautatzeko; eta ea horiek estatu bakoitzera egokitu ahal izango diren, abiapuntuko errealitate sozial, ekonomiko eta teknologikoaren arabera;<br>·bigarrena, Espainiako Gobernuak autonomia-erkidegoekin proiektuak hautatzeko eta elkarrekin kudeatzeko abian jarriko dituen tresnak eta irizpideak; Europako Funtsen Konferentzia Sektorialaren berariazko eginkizunak definituko ditu; eta<br>·hirugarrena, proiektuak ebaluatzeko, jarraipena egiteko eta gauzatzearen kontrola egiteko sistemak, Europar Batasunak ezarritako parametroen esparruan". |

| PRESIDENTEEN BILTZARRAK | 14 EGUNEKO INTZIDENTZIA TASA METATUA | LEHENDAKARIAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK |
|---|---|---|
| Aurrez aurreko bilera Salamancako San Esteban komentuan<br>2021/07/30 | 340,45 | -“Europako funtsei dagokienez, bi ideia azpimarratu nahi ditut:<br>·Irizpideei dagokienez, berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoko funtsek gure eredu sozioekonomikoaren eraldaketa lehenetsi behar dute batez ere. (…)<br>·Metodoari dagokionez, funtsezkoa iruditzen zait erabakiak Autonomia Erkidegoei aldez aurretik kontsultatzea, batez ere eskumen esklusiboko eremuetan. Autonomia Erkidegoek jarduteko eta erabakitzeko gaitasuna izan behar dugu esparru honetan, Europako beste funts batzuen kudeaketan daukagun moduan. (…)”.<br>-”Erronka demografikoari dagokionez, bat gatoz arlo honetan estrategia bat bultzatzeko premian. Estrategia horrek adierazpen eta berezitasun desberdinak ditu Estatuko eta Europar Batasuneko Erkidego batzuetan eta besteetan. (…) Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Gobernuekin Agenda Bateratua bultzatzeko gure borondatea adierazten dut. (…)”.<br>-“Presidenteen Konferentziaren prozedura-gai batekin amaitu nahi dut. (...) Lehenik eta behin, Presidenteen Konferentzia honen Araudia betetzea proposatzen dut. Bigarrenik, 2.1. artikulua aldatzea iradokitzen dut, konferentzia hori gai global eta estrategikoei buruzko elkarrizketarako, eztabaidarako eta hausnarketa partekaturako foro gisa definitzeko. (…) Aldebikotasuna eta aldeaniztasuna Konstituzioan bertan eta Autonomia Estatutuetan aurreikusitako zentzuan islatu behar dira, bai eta edukietan, prozeduretan eta koordinazioan ere. Kontua da kooperatiben gobernantza koordinatuak norabide zehatza, metodologia argia, helburu praktikoak eta errealak izatea, eta, horrekin batera, erabakiak hartzeko esparru ezagugarri bat, autogobernua eta eskumen-eremuak errespetatuko dituena”. |
| Bideokonferentzia bidezko bilera<br>2021/12/22 | 1.495,38 | -Seigarren olatuaren aurrean, Lehendakariak erabaki bat hartu eta estrategia bateratu nahi du, har daitezkeen neurrien segurtasun juridikoa sendotzen laguntzeko. Hamar erantzun-neurri orokor iradoki ditu, urtarrilaren amaierara arte aplikatzeko, eta irizpide espezifikoak Gabonetarako:<br>·Kanpoan maskara nahitaez erabili beharra;<br>·Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztiak ixteko gehieneko ordutegia, 01:00etan;<br>·Edozein motatako barne-establezimendu eta -esparrutan edukiera %60ra mugatzea;<br>·Kanpoko gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldi handietan edukiera %50era mugatzea;<br>·Oinezko kontsumoa eragoztea eta mahai bakoitzeko taldeak gehienez 10 lagunera mugatzea ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetan, bai eta gaueko aisialdian ere;<br>·Barnealdeetako kirol-jardueretan, taldeak gehienez ere 10 lagunera mugatzea;<br>·Gabonetako egun seinalatuetan eta jaiegunetan jarduera kulturalak edo sozialak eta merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetako amaiera-ordutegiak 21:00etan finkatzea;<br>·Adierazitako egunetan eta jaiegunetan merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak goizeko 08:00etatik aurrera irekitzeko ezartzea;<br>·Gabonetako egun seinalatuetan eta jaiegunetan, hotelek, landetxeek, kanpinek edo jatetxe-zerbitzua duen beste edozein ostatuk 23:30ak arte baino ezin izatea zerbitzatu afaririk;<br>·Gomendatzea 10 lagunetik gorakoak ez izatea Gabonetako bazkariak eta afariak, eta gehienez ere bi familia-unitate biltzea. Ospakizun desberdinetan osaketa ez aldatzeko gomendatzea |

# Oharren eranskina

Beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekak

·**Bizi Berri II** (2020ko urria)
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-II-eus.pdf

·**Bizi Berri III** (2021eko otsaila)
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-III-eus.pdf

·**Bizi Berri IV** (2021eko ekaina)
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/biziberri_agenda2030/eu_def/adjuntos/Bizi-Berri-IV-eus.pdf

·**Covid-19aren pandemia eta bere ondorioak.** (2021) Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_21tef8/eu_def/adjuntos/21tef8.pdf